


**V. GERRIKO
IKERLAN-SARIKETA**

**Goiherriko Euskal Eskola
Maizpide Euskaltegia
Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea**

**«Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga (1740-
1824) eta bere *Cristau Doctrina guztiaren
explicacioaren sayaquera (1858)»***

**Pello Joxe Aranburu
Marian Bidegain
Antton Idiakez
Iñaki Rezola**



INDUSTRI, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
AGRICULTURA Y PESCA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 1995

GERRIKO IKERLAN-SARIKETA

- © Sortzailea: Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte
- Antolatzaileak:
- Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte
Elosegi, 16, 1. ezker. 20210-Lazkao
Tfnoa.: 16 02 82
 - Maizpide Euskaltegia
Elosegi, 40-bis. 20210-Lazkao
Tfnoa.: 88 92 31
 - Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea
Euskadi Enparantza, z/g. 20210-Lazkao
Tfnoa.: 88 64 08
- Dinamizatzailea: Mari Joxe Madariaga Irastortza (G.E.E.)
- Zuzendari Teknikoa: Joxemartin Apalategi Begiristain
Antropologia Soziala eta Euskal Kultura Garaikide eta
Konparatuaren Antropologo eta Irakaslea (E.H.U.)
- Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellington Dukearen kalea, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz
- Egileak: Pello Joxe Aranburu
Marian Bidegain
Antton Idiakez
Iñaki Rezola
- Azala: Galarraga Urteaga, Amaia
- Fotokonposaketa: Didot, S.A.
Nerbioi kalea, 3-6. 48001-Bilbo
- Inprimategia: Boan, S.A.
Aita Larramendi, 2-beh. 48012-Bilbo
- I.S.B.N.: 84-457-567-9
L.G.: BI-417-95

JOSE INAZIO GERRIKO (1740-1824)

Seguran (Gipuzkoan) jaioa. Mutiloan bizi izan zen bertako apaiz. Madrilen ikasi zuen. Bere idazlana, *Cristau Doctrina guziaren esplicacioaren sayaquera, euscarazco platica edo doctriñetan partituric*, bera hil ondoren argitaratu zen (1858an). Liburuaren aurkezpenean esaten denez, argitaratzeko baimena eman ahal izateko, espainierazko itzulpena eskatzen zioten...



XIX. mendeko Segurako bista.

Joxe Mari Telleria Lezetak 1985ean Lardizabal etxeko koadro bati ateratako argazkia.

AURKIBIDEA

HITZAURREA	9
JOSE IGNAZIO GERRIKO ENATARRIAGA (1740-1824) ETA BERE CRISTAU DOCTRINA GUZTIAREN ESPLICACIOAREN SAYAQUERA (1858)	11
Laburdurak	13
Lanaren Aurkezpena	15
I. Bizitza	17
1. Seguran eta Madrilen	17
2. Mutiloan apaiz	22
II. Garaia eta ingurunea	39
1. Ingurune sozio-politikoa	39
2. Elizaren egoera	45
3. Literatur mugimendua	48
III. Kristau-Dotrina zaharrak	55
IV. Lana: «Cristau Doctrina»	65
1. Argitaratze-arazoak	65
2. Obraren edukina, egitura, banaketa	70
3. Ezaugarriak, Helburuak	71
4. Oinarriak eta Iturburuak	80
5. Eraginak	88
6. Erretorika eta sermoi-oratoria	90
7. Moralismoa	93
V. Beste lantxo batzuk	97
VI. Euskara eta idazkera	99
1. Ortografia	101
2. Lexikoa	105
3. Deklinabidea (Morfologia, etab.)	119
4. Aditza (Morfologia, etab.)	126

5. Joskera	133
6. Esamoldeak	143
7. Idazkera eta estiloa	144
VII. Testu-zati hautatuak	145
Artxiboak eta Bibliografia	153
Eranskinak (5 eranskin)	159

HITZAURREA

1989an urratutako bideak kilometro batzuk baditu jada: bost urte, sei sari-keta, bederatzi liburu, hamaika lan argitaratu, dozena bat ikerlari eta mila poz, zorion eta txalo!

V. Gerriko Ikerlan-Sariketarako deia 1993ko udazkenean luzatu genuen, 1994ko udaberrian hiru lan jaso genituen eta 1995eko udaberri honetan bi lan sarituekin bi liburu aurkezten dizkizuegu. Uda eta negu parteko lan isilak, udaberrian lortu du fruitua.

Sariketara aurkeztutako lanak eta egileak honako hauek izan ziren:

— *Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga (1740-1824) eta bere Cristau Doctrina guztiaren esplicacioaren sayaquera (1858)*

Pello Joxe Aranburu

Marian Bidegain

Antton Idiakez

Iñaki Rezola

— *Ezkioko ilunpean argi printzak*

Jabier Otermin

Iñaki Bastarrika

— *Sasieta Mankomunitatea. Zabortege kontrolatua*

Garai Arruabarrena

Joxemartin Apalategi Begiristain sariketako Zientziazko Zuzendariaren laguntzarekin ikerlanen gaiei zegokien arloko eta neurriko epaimahaia aukeratu genuen:

— Miren Azkarate, hizkuntzalaritzan ikerlaria, euskaltzaina, irakasle eta Euskararako Dekanordea (Donostiako EHUko Gipuzkoako Campuseko Filosofi eta Hezkuntz Zientzien Fakultatean).

— Balere Bakaikoa, Ekonomia Aplikatuaren Zuzenbidean ikerlaria, Udako Euskal Unibertsitateko Errektore ohia eta Donostiako Euskal Herriko Unibertsitateko Gipuzkoako Campuseko Zuzenbide Fakultateko irakaslea.

— Xipri Arbelbide, Etnohistorian ikerlaria, Gure Irratia eta Egunkariako kazetaria eta irakaslea.

Epaimahaiaren erabakia hauxe izan zen:

1. Lehenengo saria *Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga (1740-1824) eta bere Cristau Doctrina guztiaren esplicacioaren sayaquera (1858)* lanari ematea.

2. Bigarren saria hutsik uztea.
3. Hirugarren saria *Sasieta Mankomunitatea. Zabortegei kontrolatua* lanari ematea.

Epaimahaikideek argitaragarritzat jo zituzten bi lan sarituak eta dirutan ematen den sariaz gain Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailari esker eskuartearen dituzu, irakurle, bi lanak, bakoitza liburu batean.

Saritu gabe geratu den lanaren ikerleak ere zoriondu behar ditugu, egin duten lana handia izan baita, nahiz eta sariketa honetan baloratzen dena kontuan izanda saritu gabe uztea erabaki epaimahaiak. Eskerrak beraz egindakoagatik zuei ere Iñaki eta Jabier eta etsi gabe ekin ikerle afizio eta ofizioari!

Goierri buruz oraindik ikertzeke dagoen hainbat gai, edozein dela ere, gustora jasotzen badugu, poz berezia eman digu geure ikerlan-sariketari izena ematen dion idazlearen bizitza eta obra biltzen dituen lanak, Jose Inazio Gerriko Enatarriagari buruzkoak hain zuzen ere.

Bildumako lehen liburuko hitzaurrean zera idazten genuen: Goierriko Eskual Eskola Kultur Elkartek... «1989ko irailean egoki eritzi zion Jose Inazio Gerriko, Goierriko (Segurako) idazlearen omenez I. Gerriko Idazlan-Sariketa sortzeari eta sortu ere Goierriko gaiez ikerketa-lanak eskuratu eta argitaratzeko asmoz...»

Sariketari bere izena emanez Gerriko omendu nahi bagenuen, segurar idazlearen merituen berri bagenekielako izan zen, dudarik gabe. Baina ikerle-laukoteak, sariketarako prestatu eta epaimahaiak lehenengo saria eman badie, antolatzaileoi lehendabizi eta irakurle guztiei ondoren, informazio-iturri ziur eta aberatsa eskuratu digute. Jada lehen baino askoz gehiago jakin dezakegu geure sariketari izena ematen dion segurar idazle klasikoaren berri.

Aldi berean asko poztu gaitu hirugarren saria jaso duen Garaik, bere lana Goierri Eskualdeko Sasieta mankomunitateari buruz egin izanak. Hondakinena den bezain gai zaharrak, teknologia eta teknika zahar eta berriekin ingurunea txukuntzeko eta ekologi arloa garatuz zenbait etekin ere ateratzeko bidea urratzen hasi den honetan, oso baliagarria da norbaitek gai horri ere heldu izana. Antzinako goierritarren historia eta gorabeheren alboan, ongi-etorria egun-egungoei ere.

Zorionak eta eskerrak eman nahi genizkizueke modu batera ala bestera V. Gerriko Ikerlan-Sariketa honen antolaketa-lanetatik hasi eta liburuak argitaratu bitartean lagundu gaituzuen guztioi: ikerleoi, epaimahaikideoi, Zientziatzko Zuzendariari, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailari, Kutxa Fundazioari, Euskadiko Kutxari, GEE Kultur Elkarteko Bazkideei eta Lazkaoko Udalari eta herritarrei.

Lazkao, 1994ko abendua

ANDONI SARRIEGI ESKISABEL
GEE Kultur Elkarteko Lehendakaria

LURDES AMUNDARAIN AIESTARAN
Maizpide Euskaltegiko Zuzendaria

JOAN FELIPE BARANDIARAN GARMENDIA
Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordeburua

JOSE IGNAZIO GERRIKO ENATARRIAGA
(1740)
eta bere
CRISTAU DOCTRINA GUZTIAREN
ESPLICACIOAREN SAYAQUERA
(1858)

«Nai dezue, nere cristauac, eguiazqui zorionecoac izan orain eta beti, edo eternidade gucian? Ezta besteric gucioc nai deguna, eta benetan deseaten deguna esango dezue. Bada orretaraco nai ta ez lenago icasi, eta jaquin bear dezue, eta iñoizere aztu bear eztezue, certan dagoan zuen eguiazco zoriona, oraingoa eta beticoa: eta ori iristeco, edo alcanzatzeco, cer eguin bear dezuen. Gaur bada, Cristauaren dotriña Santuaren explicacioari, edo azaltzeari asiera on bat emateco, esan bear dizuet, 1.^a Guizonaren eguiazco zoriona, suerte ona eta gure biotza, ez iduripenaz, baicic eguiaz poztutzen duen dicha, edo zoriona certan dagoan. Eta 2.^a ori iristeco, nai ta ez, Cristauac izan bear guerala: eta Cristauaren dotriña, edo Leguea ondo jaquin, eta ondo gorde bear degula. Eta orrela uste det alaituco ceratela Jesu-Cristoren dotriña, eguiazco jaquinsuac eta zorionecoac eguiten gaituana, gogotic icastera, sarri gogoan erabiltera; eta zuen mendecoai eracustera».

(GERRIKO, I, 1 or.).

Laburdurak

aip. art. = lehenago aipatu artikulua.

aip. ob. = lehenago aipatu obra edo liburua.

or. = orrialdea(k).

zka. = zenbakia(k).

ASJU = Anuario del Seminario de Filología Vasca *Julio de Urquijo*.

BAP = Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País.

EEE = Euskal Editoreen Elkarte (Klasikoak saila).

EGIPV = Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco.

EGL = Euskaltzaindiaren «Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna».

EGLU = Euskaltzaindiaren «Euskal Gramatika, Lehen Urratsak».

EIG = Euskal Idazlan Guztiak (Klasikoak saileko Mitxelenaren lanak).

GERRIKO (I edota II), besterik gabe = Guerrico, José Ignacio, 1858, «Cristau Doctrina Guztiaren Esplicacioaren Sayaquera», Mendizabalen alarguna, Tolosa (I edota II tomoa).

LANAREN AURKEZPENA

Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga, 1740an Seguran jaio eta 61 urte luzetan Mutiloko apaiz 'benefiziatu' izan ondoren, 1824ean herri honetan hil zen euskal idazlearen bizitza eta obra («Cristau Doctrina Guztiaren Esplicacioaren Saya-quera», 1000 orrialdetik gorako liburu mardula) aztertu nahi genuke ikerlan honetan.

Goierriko klasiko hau, egia esan, ahaztuxea eduki dute euskaltzale gehienek, guztiek ez esatearren; Juan Ignazio Iztueta eta Frantzisko Ignazio Lardizabal zaldibiarren aldean, 'bigarren mailakoa' edo izaki, sobrare! Horregatik, Antonio Arrue euskaltzainaren artikulua polita salbu, ezer gutxi idatzi da gure Gerrikoz; hor-hemenka erdi galduriko aipamen solte labur-laburrak, eta kitto!

Gure lana honela banatu dugu:

- Hasteko, Gerrikoen bizitzaren berri ematen dugu.
- Bigarren eta hirugarren ataletan, gure goierritarra bizi izan zeneko garaia eta ingurune soziala, politikoa eta literarioa azaltzen eta euskarazko Doctrina zahar garrantzitsuenak jasotzen ahalegindu gara; Gerrikoen obra, Doctrina, hobetoxeago kokatu ahal izateko lagungarri gisa edo.
- Segidan, liburuaren azterketari heltzen diogu (argitaratzeko izan zituen arazoak, Doctrinaren edukina, egitura, banaketa, helburuak, ezaugarriak, iturriak, eraginak, etab., aztertuz).
- Bosgarren kapituluan, oraindik argitaratzeko dauden Gerrikoen zenbait eskuizkriburen aipamen soil-soila egiten dugu.
- Seigarrenean, gure autorearen euskaraz eta idazkeraz dihardugu luze samar.
- Eta amaitzeko, Gerrikoen Doctrinako zenbait zati hautatu eta transkribatzen ausartu gara; liburua osorik irakurtzeko astirik, gogorik edo asmorik ez duenak ere Goierriko XVIII-XIX. mendeko klasiko baten euskaraz eta idazkeraz 'ideiatxoren' bat bederen izan ahal dezan.

Akats eta hutsuneak gorabehera, norbait noizbait lan serio, sakonagoren bati heltzera animatzeko balioko ahal du, behinik behin, gure saio mugatu honek!

I. BIZITZA (Segura, 1740-Mutiloa, 1824)

1. Seguran eta Madrilen (1740-1763)

Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga Seguran jaio zen 1740ko urtarrilaren 4ean. Astelehen iluntzean jaio eta hurrengo egunean bataiatu zuten herriko Santa Maria parroki elizan. Bataiatzaile, Frantzisko Xabier Mandiolaza erretorea izan zen; amaponteko, Josefa Urkia, aitaren aldeko amona; eta aitaponteko, Ignazio Enatarriaga, amaren aldeko aitona. Eta, bistakoa, ohitura zahar guztiak errespetatuz, pontekoek beren izena ezarri zioten besoetakoari (Donostiako Seminarioko Elizbarrutiko Histori Artxiboan: Segurako Santa Maria Parrokiako Bataiatuen Liburua 5, 97 or. Ikus 1. eranskina). (1) (2)

-
1. Gerrikoren bizitzari buruzko datuak lortzeko, iturrioz baliatu gara, batez ere:
 - Donostiako Seminarioko 'Elizbarrutiko Histori Artxiboa'.
 - Iruñeko Apezpikuteagiko 'Elizbarrutiko Artxiboa'.
 - Oñatiko 'Notaritza-Protokolo Artxiboa'.
 - Segurako 'Udal-Artxiboa'. (Mutiloko Udal-Artxiboan ez da aurreko mendeetako dokumenturik gordetzen. Herri honetako agiri zahar apurak Segurakoan jasotzen dira).
 - Segurako Santa M^a Parrokiako Artxiboa. (Garai hartan bazen Seguran beste parrokia bat ere: Santa Engrazia auzokoa).
 - Gerriko, I, (J.J.I. laburdurez izenpetutako «Breve noticia del autor y sus escritos» erdarazko sarreratxoa, III-IV, VI or.). Akats (tipi batzuk ere somatu ditugu: 'Enatarriaga' beharrean, 'Enalarriaga' azaltzen da pare bat aldiz; 'Urtarrilaren 4ean' ordez, '5ean' jaio zela esaten da, (egun horretan bataiatua izan zelako, jakina); amaren izena 'Anestasia'; liburua autoreak idatzi eta 58 urtera argitaratu zela dio (53-54era esan beharko zukeen) ...
 - Arrue, Antonio, 1956, «Gerriko» artikulua, 'Egan' aldizkaria, 3-4 zka., (33-43 or.), 35-36 or.
 2. Goierrri aldean badugu Gerrikotarrrik franko. Gure Jose Ignazioren garaiko batzuk baino ez ditugu aipatuko:
 - Frantzisko Gerriko. 1710ean Zeraingo benefiziatu (Donostiako Artxibotik).
 - Jose Ignazio Gerriko Urkiola jesuita (Zeraingo Aizpea auzoa, 1806-Manila, 1883). Gurasoak: Isidro Gerriko Muxika (Zerain) eta M^a Josefa Urkiola Campos (Gaberia). Oñati eta Iruñean ikasle. Filosofia eta Matematika irakasle, nobizio-maisu eta buru Madrilen eta Belgikan. Filipinetan misiolari hil zen. «Jesu-Cristo-k Gurutzean esan zituen azkeneko zazpi-itzak» debozio-idazkitxoa utzi zigun (Ikus, 'Euskal Erria', 1882, VI, 5-6 or. eta 'BAP', 1963, XIX, 97-99 or. Halaber, EGIPV, 1984, Diccionario XVII, Auñamendi, Itxaropena, Zarauz, 213 or. eta 1974, Bibliografía IV, 157 or. Eta Donostiako Artxiboko datuak).
 - Jose Manuel Gerriko Muxika apaiza (Zerainen, 1758-I-11n jaioa). Gurasoak: Juan Frantzisko Gerriko Azkorta eta Ana M^a Muxika Arrese. Aurrekoaren osaba, ziurrenik. Legegizon eta Erret Auzitegetako abokatu. Zeraingo benefiziatu 40 urtez. 1824ean (gure Gerrikoren heriotze-urtean), Iruñeko Apezpikuteagiko Probisore eta Bikario Nagusi (EGIPV, 1984, Diccionario XVII,

Aita, Markos Gerriko Urkia, Kristobal eta Josefaren semea, Seguran jaio zen. 1714eko apirilaren 25ean, asteazkena, bataiatu zuen Jose Mendia erretoreak, ponteko Ignazio Agirreburalde eta Antonia Lana izan zituelarik (Donostiako Artxiboan: Segurako Bataiatuen Liburua 4, 175 or.).

Jose Ignazioren aita, lanbidez, zurgin izan zen («Maestro Carpintero». Donostiako Artxiboko Mutiloa eta Segurari buruzko agirietan makina bat aldiz azalzen zaigu Markos, Seguran zein Mutiloan, arotz, hargin eta erreteila-lanetan. Adibidez, 1751n, Seguran, bikarioaren eskutik 275 erreal jaso zituen, elizako sepulturak egiteagatik (Segurako 'Libro de Cuentas de Fábrica', 25. partida)). Bestalde, 1743-1763 bitartean, 21 urtez, Udal-karguren bat izan zuen Seguran: 1743tik 1752ra, urtero, San Juan Ospitaleko eta San Sebastian ermitako 'maior-domo' ('elizazain') hautatua izan zen. 1753tik 1763ra, berriz, San Sebastian ermitaren kargua izan zuen. 1762-VI-4ean 'Hermandade Sainduko Alkate' hautatua izan zen (Segurako Udal-Artxiboan: 'Hauteskunde Liburuak' A-5-I/1-7 eta 1-8).

Markos eta, bost senide izan ziren: M^a Josefa, Markosen bizkia, Katalina, Frantzisko eta Josefa Antonia. Denak segurarrak.

Ama, Anastasia Enatarriaga Goia, Ignazio eta Mariaren alaba, Mutiloan jaio zen. Frantzisko Gerriko, Zeraingo benefiziatuak bataiatu zuen 1710eko irailaren 19an, ponteko Frantzisko Alustiza, Mutiloko bikarioa eta Anastasia Goitia izan zituelarik (Donostiako Artxiboan: Mutiloko Parrokiako Bataiatuen Liburua 1B, 110 or., 1272 partida).

Amaren aldekoak ere bost senide izan ziren: bi mutil: Juan Frantzisko eta Jose Ignazio (edo Jose), eta hiru neska: Ana M^a, M^a Antonia eta Anastasia.

Markos eta Anastasia (23 eta 27 urteko) Seguran ezkondu ziren, 1737ko abenduaren 15ean. Frantzisko Xabier Mandiolaza erretoreak ezkondu zituen, Ignazio Enatarriaga eta Manuel Salsamendi lekukoen aurrean. Ezkontza-Agirian adierazten denez, Anastasia ume-umetatik («desde tierna edad») Seguran bizi zen gurasoekin (eta senideekin, ziur aski) (Donostiako Artxiboan: Segurako Ezkonduen Liburua 5, 24 or.).

Markosek eta Anastasiak bost ume izan zituzten, bi mutil eta hiru neska: zaharrena, Jose Ignazio bera; Juan Bautista (1742-VII-1ean bataiatua); Maria

aip. ob., 213 or.; Goñi Gaztambide, José, 1989, «Historia de los Obispos de Pamplona» IX, Universidad de Navarra, Pamplona, 459-461 or. («De Cerain salió toda una tribu levítica (apaizak) de Guerricos ... José Manuel ... Juan Francisco ... José Ignacio Guerrico, insigne catequista ... José Ignacio, SJ, misionero en Filipinas ... autor de varias obras vascas ...»). Eta Donostiako Artxiboko datuak).

— Jose Ignazio Gerriko Berasategi (1796an Seguran jaioa). Aurrekoaren iloba. Gurasoak: Frantzisko Antonio Gerriko Goia eta M^a Rosa Berasategi. Apaiza. (Azken bion erreferentziak: Otaegi Imaz, Beatriz, 1993, «Felipe Agustin Otaegui Beizamako Erretorearen Eskuzkribuak (1767-1840)», Beizama-Donostia, 110-112 or. Autore honen arabera, gure Jose Ignazioren ahaide ziren. Otaegik eta Gerrikotarrak ere bazuten ahaidetasunik).

— Juan Frantzisko Gerriko. Zeraindara (1807an apaiz).

— Frantzisko Santos Gerriko. Zeraindara. 1759tik aurrera, urte askotan, Zarauzko frantziskotar misiolari Gipuzkoan barrena (baita Seguran eta Mutiloan ere).

— Juan Bautista Gerriko. Bizkaitarra? Hau ere, 1746tik aurrera, Zarauzko komentuko fraile misiolari, Bizkaia aldean. (Azken bioi buruzko datuak Zarauzko frantziskotarren komentuko 'Kapitulu-Taulak' eta 'Libro Becerro'tik jaso ahal izan ditugu, Zelestino Solaguren fraileari esker).

— Kasimiro Gerriko. Batzarreek hautaturik, Gipuzkoako Diputatu Nagusi 1859 eta 1876an (EGIPV, 1984, Diccionario XVII, aip. ob., 212-213 or.).



Segurako Santa Maria parrokiako bataio-pontea (Fotoetxek).

Mikaela Rosa (1745-IX-29an); Teresa Xabiera (1748-III-10ean); eta Maria Matea (1751-IX-21ean). Denak Seguran jaio ziren eta Frantzisko Xabier Mandiolazak bataiatu zituen.

Jose Ignaziok haurtzaroa jaioterrian igaro zuen, guraso eta senideekin. Hemen ikasi zuen irakurtzen eta idazten; baita oinarritzko 'humanitateak': latina, gramatika, literatura, etab., egin ere.

1740-XI-4ean, Frantzisko Illarregi eskribauaren aurrean, M^a Bautista, Ana M^a eta Josefa Arrizabalaga ahizpek Arabarren Kaleko goialdeko, elizaren pareko (egun Kale Nagusiko 40 zk.ko) eraikuntza ('Notarietxea' deitua), baratze eta hilobiaren donazioa egin zuten Mandiolazaren alde. Etxe honetan eratu omen zuen erretore ospetsuak 'Latin-Etxea', (egun ere horrela du izena), Segurako eskolarik zaharrenetakoa (Segurako Santa Maria Parrokiako Artxiboan, sakristian: ordena eta zehaztapenik gabeko paper multzoa). Hemen egin ote zituen gure Jose Ignaziok, Mandiolazaren ardurapean edo, bere lehen ikasketak? Aipatu etxe honetan sortu zuen geroago, 1811n, Jose Manuel Agirreburualde apaizak 'Latin Katedra' kolejio pribatua. (Gogoan izan, artean, eskola publikoen sistema, eta pribatuena ere, egituratzeko zegoela) (3).

Hona segidan, aipatze aldera, Jose Ignazioren haurtzaroko Segurako apaizak: Frantzisko Xabier eta Pedro Antonio Mandiolaza, Jose Frantzisko eta Jazinto Jose Arrue, Antonio Madrazo, Juan Ignazio Goikoetxea eta Pedro Jose Ezeiza (Segurako Parrokiako Artxibotik).

Jose Ignazioren haurtzaro-aldian zenbait obra egin zen Segurako elizan: 1739an dorrean, 1744-1749 bitartean erretaula nagusia, etab. Lan guztion arduradun Mandiolaza izan zen. 1749ko ekainean egundoko jaiak egin ziren obra berriok ospatzeko: Idiazabal eta Lazkaoko ttuntunak, suziriak, zezenketak, enparantzaren erdian 'ardo-iturria', etab. (Ayerbe, Juan B., 1912, «*Segurako eliz nagusiaren berri azalgarriak*», 'Euskal-Esnalea' 27, 33-38 or., 28, 45-50 or. eta 29, 57-64 or.).

13-14 urteko mutiko zelarik, Euskalerra utzirik, Madrid aldera jo zuen osaba Jose Enatarriagaren etxera, gerora apaiz izateko asmoz ikasketak egitera, ziurrenik. Amaren aldetiko osaba hau 'Sacro y Real Monte de Piedad' mailegu-etxeko 'Almonedas' saileko ofizial nagusi («oficial principal») zen; baita Montealegreko markes eta Oñatiko kontearen artxibozain ere. Geroago, Jose Ignazioren beste anaia, Juan Bautista ere eraman zuen bere ondora.

Espainiako hiriburuan zaldun eta jauntxo artean bizi izan zen 9 bat urtez. Osabaren baimenaz, Felipe Altolagirre Zufiria ataundarrak bere kontura eta babesean hartu zuen Gerriko gaztetxo argia, etxera eraman eta despatxuan jarri lanean. Altolagirre Santiagoren Ordenako zaldun zen, Erregeren Kontseilukide eta Indietako 'Supremo'ko kontadore edo diruzain nagusi. Zaldun honen eta beste zenbait jaun presturen laguntzapean, Filosofia eta Teologia ikasketak burutu zituen San Isidro erret kolejoan.

1761ean, Altolagirre jauna testamenturik egiteke hiltzean, auziaz arduratu zen Jacobo Joves juezak urteetan babesle izan zuenaren ondasunen gordailuzain

3. Elejalde, Félix/Erenchun, Juan, 1974, «Segura», Publicaciones de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, 71-73, 78, 88 or. 1825ean Luis Astigarraga maisuak 'lehen letretako' ikastetxe pribatua sortu zuen Seguran.

1822an Gipuzkoako 91 herritan egin zen inkestaren arabera, artean Mutiloak ez zuen eskolarik. Ezta Olaberria, Idiazabal, Zegama eta Zerainek ere (Lasa, F.J.I., eta beste batzuk, 1968, «Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco», Añamendi, Donostia, 53-54 or.).

izendatu zuen 21 urteko Gerriko gaztea. Honek zintzo eta egoki, interesatu guztien adostasunez, bete zuen agindua.

1762ko martxoaren 11n, ejertzizio espiritualak egin eta aztertua eta onartua izan ostean, Gaspar Miranda Argaiz, Iruñeko gotzaiak luzatutako 'reverenda' ('botere-emate') bidez, 'prima tonsura' (apaizgintzarako lehen pausoa) hartzen du (Iruñeko Apezpikutegiko Elizbarrutiko Artxiboan: «Libro 3º de Asientos, y matriculas de los ordenados por ... Gaspar de Miranda y Argaiz ...», 36-37 or.).

Urriari Juan Telleria, Mutiloko benefiziari bakarra hiltzean, ordezkoa hautatzeko espedienteari ekiten zaio: Urriaren 30ean, bikarioak eta Udal-agintariak Joakin Jose Arteaga Lazcano, Lazkaoko jaun, Balmedianoko markes eta hainbat eta hainbat tituluren jabeari, Mutiloko (eta Goierriko herri askotako) elizaren 'patroiari' (zaindari edo arduradunari) hutsik geratutako 'benefizioa' (apaiz-kargu edo postua) betetzeko Jose Ignazio Gerriko segurarra aurkezten diote. Gerrikok berak, Madrildik, azaroaren 7an, Juan Villa Olier notariaren bidez, eskabidea luzatzen dio aipatu jaunari. Eskabide bera egiten dio azaroaren 24ean Jose Antonio Solanok, Gerrikorengandik jasotako botereaz. Aurre-izapidetza guztiok buruturik, Lazkaoko jaunak Iruñeko Gaspar Miranda Argaiz apezpikuaren aurrean hautagaiaren 'Aurkezpena' egiten du; (aipatu dokumentuoi Telleria zenaren benefiziari-titularen eta heriotzaren eta Gerrikoren bataioaren ziurtagiriak erantsiz). Abenduaren 7an luzatzen du gotzaiak onespina. Eta 1763ko urtarrilaren 4ean, 23 urte bete zituen egun berean, jaso zuen Jose Ignaziok Mutiloko Benefizioaren Titulua (Iruñeko Artxiboan: 2195 kartoia, 12 zka., 1-13 or.; eta 'Erregistro Liburuak' 6 (1754-1765), 538 or. Ikus 2. eranskina) (4).

4. 'Benefiziaria' gaur egungo 'Koadjutore'arekin pareka dezakegu, gutxi gora behera, hots, Parrokoaren peko apaiz laguntzailearekin.

Elizaren Zuzenbide Kanoniko zaharrean, eliza baten fundatzaileek eta oinordekoek zenbait betebeharrak eta eskubide (ekonomiko, etab.) zuten. 'Patronatu' deitu sistema honetan, elizaren 'patroi' edo zaindariaren eskubideetako bat bere ardurapeko elizako postuetarako apezpikuari gizon egokiak 'aurkeztekoa' zen. Horretarako, hautagaiek, Gerrikoren kasuan bezala, beren eskaera egin ohi zuten. Gerrikoren garaian, artean, indar bete-betean zirauen jauntxo ohitura/eskubide honek (Ikus gure lanaren II. atalean, 2. puntua).

«Los patronatos de las iglesias parroquiales de esta provincia ... son de tres clases. Unos pertenecen a la Corona real, la cual, o bien conserva en sí esta regalfía, o bien tiene hecha su merced a personas particulares, sea temporal o perpetuamente, en recompensa de algunos distinguidos servicios prestados al Estado. Hay quienes reúnen la calidad de diviseros, o sea de derecho hereditario, en las familias de ciertos caballeros desde tiempo inmemorial (Mutiloko kasua). Por último, otros corresponden a los respectivos pueblos representados en sus Ayuntamientos (Gipuzkoako gehienak) ... A los poseedores de semejante prerrogativa toca, por consiguiente, la provisión de las vicarías o rectorías, así como ... de los beneficios. Por la misma razón, la administración de los fondos de las fábricas de las iglesias parroquiales incumbe de derecho a los mismos patronos, pero esto no obsta para que en muchos pueblos esté delegado este cuidado a las Juntas compuestas por lo regular del Alcalde, cura párroco y el mayordomo de la iglesia (Mutiloan bezala) ... Patronos diviseros de diferentes iglesias son los caballeros ... El marqués de Valmediano, de las de Lazcano, Zumárraga, Ataun, Idiazábal, Mutiloa y Olaverriá, como poseedor de la casa solar de Lazcano ...» (Gorosábel, Pablo de, 1972, «Noticia de las Cosas Memorables de Guipúzcoa», La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, II tomoa, 417-421 or.). Eta geroxeago: «En Guipúzcoa no hay más Clero que el parroquial, compuesto de los párrocos, llamados en unos pueblos con el nombre de curas y en otros con el de vicarios o rectores (Seguran, 'erretore'; Mutiloan, 'bikario'), y de beneficiados, hoy coadjutores ... Como las iglesias de la provincia son del patronato, ya pertenezca éste al rey, a particulares o a pueblos, ha habido también diferencias en la forma de proveer los curatos y beneficios. Si el patronato ha radicado en un sólo individuo (Mutiloan bezala), la provisión se ha hecho por medio de una escritura de elección, que el interesado ha presentado en el Tribunal

Onartua izatean, bere ardurapeko testamentu-ondasunak, juezaren bidez, Juan Antonio Aramendi madrildarraren kontura utzi zituen eta dirua, berriz, hildakoaren anaia eta aipatu hiriburuko San Juan elizako erretore zen Migel Altolagirreren esku.

Eta Madrildik Segurara itzultzen da, gurasoengana, tituluaz jabetu eta apaiz egiteko asmoz.

2. Mutiloan apaiz (1763-1824)

Jadanik Mutiloko benefiziatu, 1763ko maiatzaren 12an, Miranda gotzaiaren eskuetatik 'gradu edo ordena txikiak' hartzen ditu; 18an, subdiakono ('Epistola irakurle') egiten da; irailaren 16an, diakono ('Ebanjelio irakurle'); eta azkenik, hurrengo urtean, 1764eko martxoaren 6an, apaiz, 24 urterekin (Iruñeko Artxi-boan: aipatu «Libro 3° de Asientos ...», 58-59, 64, 69, 87 or.).

Madrid aldeko bitarteko eta babesle ugariri esker, beste kargu eta herri handiago batzuetara aldatzeko egokierak izan arren, Goierriko herri txiki honetan eman zuen, benefiziatu gisa, bere apaiz-bizitza osoa 61 urte luzez; lau hutsunealditan bete zituelarik bikario-ordezkoaren egitekoak ere (1776, 86-88, 89 eta 90ean) (5).

Donostiako Artxiboan jasorik gordetzen diren Mutiloko Parrokiako Agirietatik («Libro de Censos ...», 90 or. tik aurrera, batez ere) atera ahal izan dugunez, Gerrikoren lehen parrokoa Juan Frantzisko Bidaola izan zen (1772-X arte). Ondoren, Juan Antonio Guridi (1772-XI/1775-III bitartean). Eta jarraian, Juan Frantzisko Muxika (1775-IV/1776-IV), Frantzisko Muxika eta Maria Antonia Enatarriagaren (Anastasiaren ahizparen) semea. Aldi honetan bertan, Segurako Santa Mariako erretore Lazaro Muxika, Mutilokoaren anaia izan zen; biak Jose Ignazioaren lehengusu, beraz. 1776-V/X bitartean, lehengusua hurrena, Gerriko bera gertatu zen bikario («Vicario Interino», eliz partidetan ageri denez). 1776-XI/1786-I urteetan, Martin Ignazio Etxeberria izan genuen parroko. Eta 1786-II/1788-I bitartean, berriro, Jose Ignazio. Segidan, Dionisio Brokardo, Lazkaoko komentuko fraile karmeldarrak bete zuen bikario-hutsunealdia (1788-II/XII). Honen ondotik, hirugarrenegoz, Gerrikok hilabete pare batean (1789-I/II), eta segidan Juan Bautista Ondarrak (1789-III/1790-VI). Atzera, Gerrikok (1790-VII/XII). Ondoren, Juan Frantzisko Gorosabelek (1791-I/IV). Eta azkenik, Jose Felix Amundarain zegamarrak (1791-Vetik aurrera). Amundarainek aztertu zuen, geroago ikusiko dugun lez, bere benefiziatuaren 'Dotrina', argitaratze-baimena jaso aurretik. Garai honetan ere, parrokoarenaren alboan, maiz agertzen da Gerrikoren sinadura Mutiloko eliz agiritan (Ezkontza-Partidetan, etab.).

Aipa ditzagun garaiotako Iruñeko apezpikuak ere: Gaspar Miranda Argaiz (1742-1767); gotzai honekin egin zen apaiz Gerriko; artzain-bisitaldiak: 1747-X-15, 1763-VIII-16 eta 1767-XII-6an. Juan Lorenzo Irigoien Dutari (1768-1778);

eclesiástico para su aprobación y obtener después la colación canónica. Pero cuando aquel derecho ha correspondido a pueblos, como sucede en la mayor parte de la provincia, la forma de presentación varía de unos a otros ... » (513-514 or.).

5. «Bost Erretore propio ta iru ordezko ezagutu zituan bere apaizgo urtetan Mutilo-an. Azkenekoa Jose Felix Amundarain, Zegamarra. Bi utsune-alditan bera ere izan zan Erretore ordezko.» (Arrue, 1956, aip. art., 36 or.).

gotzai-bisitaldiak: 1771-VII-1 eta 1776an. 1771-IV-24ean Zarauzko frantzisko-tarren komentuko buruari misio-sermoilariak eskatuz idatzi zion. Honek Tolosa-Goierri (Mutiloa ere barne, jakina) alderako Joakin Sarobe eta Frantzisko Santos Gerriko zeraindarra hautatu zituen. Garai honetakoak dira, bestalde, Gerrikoren ardurapean Mutiloko elizan egindako obrak eta 'Elizalde' etxearen eraikuntza ere. Agustin Lezo Palomeque (1779-1783; Pasai Donibanekoa; Zaragozako artzapezpiku). Esteban Antonio Aguado Rojas (1785-1795); artzain-bisita: 1787-VI-9an (Gerrikok bere testamentuan aipatzen du). Lorenzo Igual Soria (1795-1803). Veremundo Arias Teixeira (1804-1814). Joakin Jabier Uriz Lasaga (1815-1829); bisitaldia: 1819-IV-29an. Eta Severo Leonardo Andriani Escofet (1830-1861); honen garaian argitaratu zen Gerrikoren 'Dotrina', aurreko bien garaietan baimen eske erreguka luzaroan ibili ostean (6). Esan, bestalde, gotzai-bisita Seguran izaten zirela, eta Zerain eta Mutilokoak hara biltzen, gastuetarako 60na errealek ekarpena egiten zutelarik (Gerrikoren testamentutik jaso).

Martin Alkainek (Jose Ignazioaren herenamonaren anaiak) XVII. mendearen erdialdera Mutiloan sortutako 'kaperautza kolatiboa' hutsik geratzean, 1766ko maiatzaren 22an, beharrezko agiriak aurkeztu eta genealogi zuhaitza frogaturik, Gerrikoren eskuetara pasatzen da (Iruñeko Artxiboan: 2015 kartoia, 6 zka., 22-23 or.).

1768an, jadanik Madrilen bizi den Juan Bautista Gerrikok meza-jantzi berriak oparitzen dizkio Mutiloko elizari; honek 8 erreale ordaintzen dizkiolarik garraiarari (Donostiako Artxiboan, Mutiloko elizako «Libro de Fábrica», 219 or.).

1774-VI-19ko Gipuzkoako Artziprestazgo Nagusiaren Tolosako Batzarrean (Kongregazioan) 'Gaztañagako Korriedo'ko diputatu (ordezkari) hautatu lez izan zen Gerriko benefiziaria (Donostiako Artxiboan, 'Documentos del Archivo del Clero del Arciprestazgo Mayor de Guipúzcoa' sailean, A, 3, b, 49).

1776ko ekainaren 10ean, bestalde, zentsu baten jabe egin zen Jose Ignazio (Oñatiko Artxiboan: 'Mutiloko Hipoteka Liburua' 1, H-148, 49 or.).

XVIII. mendearen azken herenean, Iruñeko Elizbarrutiko bazter askotan ordurarteko Elizaren egitura eta antolamendu orokorraren berrikuntzari ekiten zaio. Mutiloan ere burutu zen 'Plan Benefizial' hau: Juan Lorenzo Irigoien Dutari gotzaiak ireki zuen espedientea 1771n, Agustin Lezo Palomequek jarraitu, eta Esteban Antonio Aguado Rojasen garaian, 1789an, amaitu zen: Gabiriako bilera batean (Mutiloa eta Gabiria 'corriedo' berekoak izaki) hasi eta 18 urte luzez jaso, aztertu, eztabaidatu eta zehatz-mehatz zedarritu ziren Elizarekin nolabaiteko lotura zuten guztien (Iruñeko Gotzaitegia bera; Mutiloko elizaren jaun 'patroia'; herriaren izenean, Udal-agintariak eta 'elizaren fabrikaren arduradunak'; bikarioa eta benefiziaria) interesak, eskubide eta betebeharrak. Hona 1789an Karlos IV erregeak sinatu zuen hitzarmeneko hiruzpalau xedapen:

«... Lo decimo: Declaran que en virtud de este arreglo, y combenio, desisten, y se apartan ambos Cabildos Ecclesiastico y secular de esta Villa, de todas las pretensiones de aumento de congruas que pudiesen tener con motivo del Plan Beneficial ... y prometen no continuar de su parte el expediente de este asunto en tiempo alguno por quedar suficientemente dotados a toda su satisfaccion, asi el

6. Donostiako Artxiboan, Mutiloko gotzai-bisitaldiei buruzko Eliz Agirietatik jasotako datuak. Ikus, halaber, Goñi Gaztambide, 1989, aip. ob., VII-IX tomoak.

Vicario, como el Beneficiado, y ser suficientes, y bastantes los dos para suministrar abundantemente el pasto espiritual a esta feligresia ... Lo duodécimo: han acordado y convenido en que el actual Beneficiado, y sus sucesores tengan obligacion de ser confesores, con aplicacion y exercicio, y de servir y desempeñar personalmente las cargas y obligaciones del Beneficio, residiendo para ello en esta Villa; y quando por falta de edad, por ocupaciones de estudios, ó por otro motivo justo no puedan servirlo por si mismos, tengan obligacion de poner sirviente idoneo que sea confesor; y Predicador ... Lo decimo tercio: han convenido todos los sobredichos otorgantes en que el actual Beneficiado, y sus sucesores tengan obligacion de explicar catequisticamente la Doctrina cristiana al tiempo de la Misa maitinal los Domingos, y dias solemnes de precepto entero de oír misa, y no trabajar, quando por si celebren dicha misa exceptuandose los dias cortos de Invierno, y los muy ocupados en el Confesionario ... Lo decimo quarto: ... han convenido todos los otorgantes en que el actual Beneficiado, y sus sucesores, tengan obligacion de ayudar al Vicario en el desempeño de sus Ministerios, haciendo sus veces en las indisposiciones de corta duracion que padeciera, y en las justas ausencias que haga de uno ú otro dia, y quando estando el Vicario ocupado en la asistencia de uno ú mas enfermos ocurra urgente necesidad de acudir a la administracion de Sacramentos ó agonización de otro tenga el Beneficiado obligacion de acudir a ello dandole siempre el Vicario una Cavalleria si el tiempo ó la urgencia lo permite; pero en los demas casos fuera de los explicados, es de obligacion privativa del Vicario cumplir todas las cargas de la Cura de Almas por si ú por medio de interino puesto á sus expensas. Lo decimo quinto: han acordado y convenido en que los actuales Vicario y Beneficiado, y todos sus sucesores ademas de las obligaciones particulares de cada uno ... han de tener en comun la de cantar despues de las diez, y aplicar pro populo alternativamente por mitad las Misas mayores de todos los Domingos, y fiestas del año ...»

(Iruñeko Artxihoan: 2498 kartoia, 1 zka., 189-191 or.) (7).

Gerriko benefiziatu berria zein etxetan jarri ote zen bizitzen? (eta norekin?, gurasoekin batera?: Anastasiaren aitona zeraindarra zen. Aita ere bai. Hau Mutilora ezkondu zen eta urte gutxitara Segurara joan zen bizitzera familia osoarekin. Anastasia eta Markos ez ote ziren berriro, 1764 aldera edo, Mutiloko aita zenaren etxera ('Izagirre-goikoa' baserrira?) itzuli?). Arruek Mutiloko apaiz-bizialdi osoa 'Elizondo' izeneko etxean eman zuela dio («bere asaben jaioterrian Elizondo deritzan etxean jarraitu ta igaro zuan bizitza guztia ill arteraño» (8)). Gure ustez, haatik, Gerrikok berak eraiki zuen 'Elizalde', (eta ez 'Elizondo'), 1776tik aurrera.

1775-VI-10ean, Markos eta Anastasiak Mutiloko Elizak herriko plazaren ondoan zituen 205 posturako Bikario-sailen zati bat, 20 posturako sagasti eder

7. Batzarre Nagusiak aspalditik ari ziren Elizaren antolamenduaren berrikuntza eskatzen. 1780tik aurrera Gipuzkoako herri gehienetan burutu zen 'Plan Benefizial' delako hau: «... cada pueblo arregló el plan benefical de su iglesia parroquial ... De aquí resultó su gran variedad ... dichos planes beneficales, aunque mejoraron algún tanto el servicio interior de las iglesias parroquiales, no llegaron a hacer las reformas que la provincia había indicado en sus Juntas Generales (1678, 1707, 1750, 1779an ..., besterik beste), siendo apoyados por el mismo Clero ... Parece que en lo antiguo los beneficiados de las iglesias de esta provincia no tenían obligación de ser confesores, por considerarse, seguramente, semejante ministerio propio del cura párroco ... (Haxe zen herritarren eskabideetako bat, konfeseoren premia gorria baitzegoen), ... pero los planes beneficales establecidos en diferentes pueblos, fueron satisfaciendo en parte los deseos de éstos ...» (Gorosabel, 1972, aip. ob., 514-521 or.).

8. Arrue, 1956, aip. art., 35 or. Arruek 'Elizondo' badio ere, eskuartean erabili ditugun agiri guztietan 'Elizalde' dager.

bat («veinte posturas de tierra blanca sembrada de pies de manzano hasta (?) quatrocientos, y quarenta y un pies cada una») erosteko asmoa agertzen dute. Elizaren arduradunek (Juan Frantzisko Muxika bikarioak, Juan Frantzisko Bidaola alkateak eta gaineratiko zinegotziek) Iruñeko apezpikuari lursaila saldu ahal izateko baimena eskatzen diote. Uztailaren 6an, Juan Lorentzo Irigoien gotzaiaren izenean, Fermin Lorentzo Irigoien bikario nagusiak baimena luzatzen du. Eta 1776-II-6an zertzen dute salerosketa-eskritura. Alde batetik, Mutiloko Elizaren arduradunak (aipatu bikarioa, Sebastian Arrizabalaga alkate berria, Martin Joakin Alustiza, Pedro Alustiza, Juan Frantzisko Bidaola, Frantzisko Apaolaza eta Juan Antonio Etxeberria zinegotzi eta Udal-kargudunak) biltzen dira eta bestetik, Markos eta Jose Ignazio (Anastasia, ordurako, hila zen). Lurraren prezioa (1640 beiloi-erreal; 82 erreal posturako) Frantzisko Arizmendi maisu-peritoak finkatzen du, eta mugak zehaztu eta mugarriak ezarri Segurako Jose Antonio Unamunzaga perito agrimentsoreak (mendebalde eta hegoalde, bikario-sailak; iparraldetik, herriko plaza eta ekialdetik, sailaren azpialdetik, plazatik Murgiondo eta Etxegunia baserrietarako gurdibidea). Ordainketa Jose Ignaziok berak egiten du, eskura, urre, zilar eta kobrezko txanponetan («por precio, y cuantia de mil seis-cientos, y quarenta reales de vellon a razon de ochenta y dos cada postura ... los mismos que Don Joseph Ignacio de Guerrico ... nos los ha dado, y pagado aora de contado realmente y con efecto en cinco doblones de á ocho, seis orillos de á beinte reales, tres pesetas, un Real de plata, y un Real, y diez maravedis en calderilla bien contada en presencia de los testigos ...»). Eskribau, Segurako Jose Antonio Suinagak egiten du, eta lekuko, Lazaro Muxika, Segurako bikario, Mutilokoaren anaia eta Jose Ignazioren lehengusuak, Jose Bizente Arizmendik eta Jose Antonio Unamunzagak.

Oñatiko Artxiboan (II-2712 sorta, 7-12 or.) gordetzen den dokumentuan ederki baino ederkiago zehazten dira salerosketa honen xedea eta arrazoiak: Plazaren alboan eta elizaren aurrean apaizetxe bat eta 'ohizko' baratzea eraikitzea, alegia. Apaizetxea egitea behar-beharrezkotzat jotzen da: Elizaren inguruetan ez dago etxe bakar bat ere; hurbilena elizatik nahiko urruti eta bidean aldapa gogorra duen, gainera; (haatik, bazen, geroago ikusiko dugun bezala, etxetxo bat elizaren aurrean: Juan Oria sakristauarena). Beste arrazoi 'bitxi' hau ere aipatzen da dokumentuan: Plazako bolariak eta (sagardo?) edaleak 'zaintzeko' ('kontrolatzeko') txit premiazkotzat ikusten da elizaren eta plazaren alboan apaizetxe bat eraikitzea («... por quanto de la construccion de dicha casa en las cercanias de la Iglesia, y Plaza se siguen grandes (?) utilidades, y asi podra (?) servir de respeto, y resguardo de la misma Iglesia, que es una de las mas desamparadas de todo el Pais, por ser esta Villa compuesta de solas Caserias, y no tener casas en la immediacion de la Iglesia pues la Vicarial esta distante de ella como para servir de havitacion decente a un Eclesiastico en la immediacion de la Iglesia que no hai alguna sino a una distancia mui grande y con una cuesta grande en el camino como tambien para el respeto de la misma Plaza, y de su Juego de Volos, en que la falta de vista y Personas de Caracter da maior libertad a los Jugadores, y Bebedores. Por estas ventajas que son claras, y de mucha consideracion ...»).

Artxibo honetan bertan, 'Mutiloko Hipoteka Liburua'n (1, H-148) ere jasotzen da salerosketa honi buruzko agiria (48 or.); eta 1776-VI-9an, 4 hilabete geroago, «... esta fabricando el citado Gerrico una casa nueva con su huerta ...» dio Suinaga eskribauak (54-55 or.).

Horra, beraz, 'Elizalde' deituko zen eta gure Gerrikorena izango zen apai-zetxearen sorrera. (Oraindik zutik dirau etxe honek, elizaren aurrez-aurre).

1769rako Jose Ignazioaren gurasoak Mutiloan bizi dira. Urte horretatik aurrerako dokumentuetan, elizako zein zibiletan, Mutiloko auzotar ageri dira. (Noiz aldatu ote ziren Seguratik Mutilora?; 1763-1767 bitartean? (9). Eta Mutiloan zein etxetan jarri ote ziren bizitzen?; seme apaizarekin batera?).

Anastasiaren aitona zeraindarra zen. Aita ere bai. Hau Mutilora ezkondu zen eta urte gutxitara Segurara joan zen bizitzera familia osoarekin. Anastasia alaba eta Markos ez ote ziren Mutiloko aitaren etxera (baserrira) itzuli?

Ordurako, Juan Bautista, 26 urteko mutil gaztea, Madrilen bizi zen, lehenago Jose Ignazio anaia zaharrena bezala, osaba Joseren ondoan eta honek lorturiko Monte de Piedadeko 'ofizial' lanpostuan.

1769-I-18an, Markos eta Anastasiak, Mutiloko Udaletxean, bertako alkate Martin Joakin Alustiza, Frantzisko Arrizabalaga sindiko nagusi eta Frantzisko Jeronimo Larrañaga eskribauaren aurrean, Madrilgo semearen aldeko 'Hidalgi Tituluaren Eskakera' egiten dute. 'Hidalgi Froga' hau jasotzen duen dokumentuaren arabera, Jose Ignazioen lau aiton-amonak, jadanik hilak, laurak segurarrak, eta hauen aurreko guztiak ere 'Aitonseme' izan ziren, 'kristau zintzo', 'odol garbiko', 'Bake eta Gerrako' ohorezko titulu eta kargudun izanak, jatorriz Gipuzkoako lau etxerik nagusienetakoak: Gerriko eta Enatarriagararrak, Mutilokoak; Urkiatararrak, Itsasondokoak eta Goiatarrak, Zeraingoak (10). Bestalde, Markos ohore handiko zenbait kargutarako hautatua izana zen: 1762an Segurako 'Hermandade Sainduko Alkate', hots, Epaille berezi eta 1767an, urtebete lehenago sortu zen 'Amankomuneko Diputatu' Mutiloan, hau da, merkataritzako kontrolatzaile eta eskuhartzaile (11). 'Hidalgi Froga' honetako lekuko lau mutiloak izan ziren: Manuel Alustiza, Pedro Alustiza, Jose Telleria eta Jose Apaolaza (Segurako Udal-Artxiboan: E-7-IV/14-2).

Era berean, Enatarriagarrek ere, bost anai-arrebek, 1744-II-12an egin zuten 'Hidalgi Froga' eta Zarauzko Batzarre Nagusien eta Juana erreginaren eskuetatik titulua lortu (Segurako Udal-Artxiboan: E-7-IV/3-2).

9. Jose Ignazio, 1763an, Madrildik «volvió a su pueblo de Segura á la compañía de sus amados Padres» (Gerriko, I tomoko Sarrera, IV or.).

Segurako Udal-Artxiboko 'Hauteskunde Liburuak' arakaturaz, 1743-1763 bitartean, urtero azaltzen da Markos Gerrikoren izena, hautesle zein hautatu legez. Urte horretatik aurrera ez da gehiago agertzen. Bestalde, 1767an 'amankomuneko diputatu' izan zen Mutiloan, geroxeago aipatuko dugun dokumentuaren arabera. Gure ustez, Markos eta Anastasia 1763-1764ean aldatu ziren Mutilora, seme apaiz berriaren ondora.

10. Jose Ignazioaren gurasoak «pertenecian á familias muy honradas» (Gerriko, I, Sarrerako III or.).

«Markos Seguran bertakoa zan, eta Anastasia Mutiloa-koa. Aitaren aurrekoak ere mutiloarrak izan bear zuten» (Arrue, 1956, aip. art., 35 or.).

11. 'Alcalde de Hermandad': Hiribilduetatik at egiten ziren 6 delitu-motari buruzko aparteko epaile ziren. Gipuzkoan 7 ziren: bat Segura, Urretxu, Aleria, Ordizia eta hauen auzoek hautatzen zuten. Hautagaiek irakurtzen eta idazten jakin behar zuten, Gipuzkoako familiarik onenetakoak eta 50.000 marabeditik gorako ondarearen jabe izan. San Joan egunez aukeratzen zituzten eta Batzarre Nagusien pean zeuden. (Ikus, Gorosabel, 1972, aip. ob. III, 167-175 or.).

'Diputado del Común': Udal-esparruko kargu hautatua; hornikuntza eta, orohar, ekonomi alorreko arazoetan aditu legez, merkataritza librearen zaindaria eta ebazle zen. Errejimen Zaharren azkenaldian egundoko garrantzia hartu zuen kargu hau 'Ilustrazioaren' hedapen-bideetako bat izan zen. 1766-V-5ean sortu zen kargu berri hau.



Vista de la Villa de Segura, tomada por el alto de Espinosa.

XIX. mendeko Segura (J.M. Telleriak).

1775-1776 inguruko Gerriko/Enatarriagarrei buruzko dokumentu ugari aurkitu dugu Oñatiko Artxiboan. Aipa ditzagun batzuk bederen:

1775-V-7an hil zen Madrilen Jose Enatarriaga, hiriburu honetako Monte de Piedadeko ofizial nagusi, Jose Ignazio eta, geroago, Juan Bautista ilobak bere ondora eraman zituen, lehena, 'apaiz karrera' eman asmoz eta bigarrena, aipatu mailegu-etxean bere ondorengo ofizial postuan 'kolokatzeko'. Testamentuan, oinordeko Goierriko ahaideak ezartzen ditu (Ez kongabea ote zen?, edota ez ote zuen seme-alabarik izan?). Testamentu honen inguruko zenbait dokumentu (aipatu Artxiboko II-2712 sortako 3-75 orriak) arakatuz:

a) 1775-XI-7an, Segurako Jose Antonio Suinaga eskribauaren aurrean, Markosek (Anastasia bi aste lehenago hil zen) eta bere hiru seme-alabek, koinatu eta osaba zenaren testamentua kobratu ahal izateko, Madrilgo Juan Bautistari botere ematen diote. Jose Ignaziorena ezik, beste hiru seme-alaben pertsonen eta ondasunen administratzaile aita Markos agertzen da (artean ezkontzeko eta 'independizatzeko' zeuden seinale?) (55-57 or.).

b) 1775-XII-5ean, Jose Enatarriagaren oinordeko guztiek: Lazaro Muxika, Segurako bikarioa eta honen anaia Juan Frantzisko, Mutiloko bikarioa (Frantzisko Muxikaren eta Maria Antonia Enatarriaga zenaren semeak), Ana Maria Enatarriaga (Pedro Antonio Arrue Irraraga zenaren alarguna eta Jose Antonio, geroago Jose Ignazioren oinordeko bakar izango zen Azkoitiko brigadierraren eta Juana Josefa de Santa Luzia, Segurako komentuko mojaren ama), denak segurarrak; eta Jose Ignazio Gerriko, aita Markos eta honen beste hiru umeak (Maria Mikaela, Maria Matea eta Juan Bautista; hiruron pertsonen eta ondasunen administratzaile aita delarik), hauek denak mutiloarrak, dokumentu bat sinatzen dute. Dokumen-

tuaren arabera, osaba Josek iloba Juan Bautistaren Monte de Piedadeko ofizial postua ziurtatzeko berme edo fianza gisa ezarritako 6000 erreala berreskuratu eta Madrilgo ahaideari, donazio gisa, uzteko asmoa agertzen dute. Osabak oso estimatu eta maitea zuen iloba Juan Bautista: Hil aurretik, zenbait opari egin zizkion, poltsikuko urrezko erloju eder bat besterik beste, eta gehiago ere egingo ziokeen

«según el afecto, y cariño que profesó a su sobrino, si la gravedad de su enfermedad, y muerte acelerada, no se lo hubiera impedido»
(70-73 or.).

c) Aurreko dokumentuarekin loturik, 1775-XI-10ean, Joserren oinordeko guztiek Juan Bautistari 6000 errealen donazioa egiten diote, eta beste arrazoiren artean, testamentuaren kobraketarako kudeaketa-gastuak handiak direla adierazten dute. Kudeaketa hau Juan Bautistaren esku uzten dute (58-61 or.).

d) 1775-VIII-31n, Joserren oinordeko guztiek, hark Frantzisko Xabier Maria Munibe Idiaketz, Peñafloredako kontearekin eta honen seme nagusi eta oinordeko Antonio Munibe Arizagari aurreratutako dirutza (108.285 erreala, «para subenir a las urgencias de la Casa (Bergarakoa) de dicho Sr. Conde, causadas en el maior honor, y esplendor de ella, y su familia») kobratu ahal izateko, Lazaro Muxikaren alde egindako botere-ematea (36-38 or.).

Testamentu kontuak alde batera lagata, hona segidan garai honetako Gerriko/Enatarriagarren inguruko beste zenbait dokumentu:

e) 1775-XI-16an, Lazaro Muxikak eta Jose Frantzisko Astigarraga benefiziatuak hiru urte lehenagoko Joakin Lardizabalen testamentu-ondasunetatik kaperautza bat kobratu ahal izateko eta Epaitegien aurrean iharduteko Juan Bautistaren aldeko botere-aldaketa (64-65 or.).

f) 1775-XI-10ean, Ana Maria Enatarriagak bere alaba Juana Josefa de Santa Luzia seroraren («Religiosa profesada de pelo negro de la Purísima Concepción, extramuros de Segura») alde biziarteko pentsioa (7333, 1/3 erreala) Madrilgo Real Fondo Vitaliccion ezartzeko, administratzeko eta interesak (% 9an, 660 erreala urteko) kobratzeko iloba Juan Bautistari botere-ematea. Lekukoetako bat Jose Ignazio izan zen (62-63 or.).

g) 1775-XII-10ean, Ana Mariak, bere anaia Jose zenaren bidez, madrildar bati maileguan utzitako 16.000 erreala eta hauen interesak kobratu ahal izateko iloba Juan Bautistari botere-ematea (74-75 or.).

h) 1775-IX-28an, Ana Mariak Zeraingo 'Galparsoro-goikoa' baserria eta 'Inurrutegi' errota 6 urtetarako errentan uzten die Jose eta Frantzisko Goia zeraingar anaiei (Errenta: baserriarena, 20 dukat, 6 hanega gari eta 4 kapoi, urteko; errotaarena, 48 dukat eta 4 kapoi -edota, kapoien ordez, 2 dukat). Lekukoetako bat Jose Ignazio iloba izan zen (43-45 or.). (Nola egin ote zen Ana Maria Zeraingo baserri eta errota jabe? Aita eta aitona zeraingarrak zituen; baserri honetakoak?. Bestalde, geroxeago ikusiko dugun bezala, Mutiloko 'Izagirre-goikoa' baserria Anastasiaren alde hipotekatua azaltzen zaigu).

i) 1776-I-11n Maria Bautista Agirre segurarrak (gorago aipatu Jose Frantzisko Astigarraga benefiziatuaren amak) ordurako egoitza nagusia Madrilan zuen 'Real Compañía Guipuzcoana de Caracas' en aitak jarritako 15 akzio eta hauen dibidendoak bere jabetzara pasa ahal izateko Juan Bautista Gerrikori botere-ematea (5-6 or.).

j) 1776-I-11n, Jose Joakin Astigarragak (aurrekoaren semeak), Jose Enatarriagaren bidez, 12 urte lehenago Madrilgo 'Diezmos de la Mar de Castilla'n jarritako 37.500 errealean interesak kobratu ahal izateko Juan Bautistari botere-ematea (3-4 or.).

Dokumentu guztietako eskribau hainbatetan aipatu dugun Jose Antonio Suinaga segurarra ageri zaigu.

Dokumentuok (eta gure lanerako eskuartearen erabili ditugun beste zenbait) begiratuz, ondorio hauek atera ditugu, besterik beste:

1) Gerriko eta Enatarriagatarrak (bigarren hauek, batez ere) 'zerbait' bazirela, ekonomi alorrean bederen; 'familia onekoak' zirela, alegia.

2) Madrid aldean, Jose eta Juan Bautistari esker, bazutela nolabaiteko 'indarra', 'itzala'.

3) Elizgizon ugari eman zuen familia izan zela: Lazaro eta Juan Frantzisko Muxika anaiak, Segurako eta Mutiloko bikario; Juan Ignazio, Mutiloko benefiziari ... (Lehenago ere aritu gara Gerrikotarrez).

4) Aipatzekoa, bestalde, dokumentuotan ageri denez, bertako parte eta lekuko askok eta askok, eta emakumezkoek batez ere, ez dakitela idazten, ezta sinatzen ere; Jose Ignazioren amak eta izebak, besteak beste («no firmo, porque dijo no saver, y a su ruego lo hizo uno de dichos testigos» etengabe azaltzen da garaiotako agirietan).

Anastasia 1775-X-23an hil zen, Mutiloan, 65 urterekin. Testamentuan agindu bezala, lehen mailako hileta-elizkizunak («Funerales de pan entero correspondientes a la Calidad de mi persona») egin zizkioten, Jose Ignazio semearen kontura; eta, San Frantziskoren habitua jantzita, elizako bere hilibian («en sepultura propia que tengo en ella (Mutiloan)») ehortzi zuten. Parroko, iloba Juan Frantzisko Muxika Enatarriaga izan zen (Donostiako Artxiboan: Mutiloko Hildakoen Liburua 1, 35 or.).

Hiru hilabete lehenago, Uztailaren 10ean, artean osasuntsu, egin zuen testamentu, Segurako Jose Antonio Suinaga eskribauaren aurrean. Oinordeko, lau seme-alabak ezarri zituen (Teresa Xabiera ordurako hila zen). Jose Ignaziori jaraunspenaren 2/5 utzi zion, aita jasotzeko baldintzapean («con sola la carga y obligacion de tener y mantener en su casa, mesa y compañía mientras biva a su Padre, que asi lo espero de su particular afecto, y cariño, como buen hijo»). Berrogeita hamarna dukateko lehen mailako hiru urtebetetze-meza ateratzeko agindua ere eman zuen (Jose anaia zenaren, Markos senarraren eta bere buruaren alde). Albazeak, Markos, Jose Ignazio, Juan Bautista eta Lazaro eta Juan Frantzisko iloba apaizak izan ziren; eta lekuko, Juan Antonio Alustiza, Juan Oria sakristaia eta Jose Bizente Asurmendi (Oñatiko Artxiboan, II-2712 sorta, 32-35 or.).

Handik 18 urtera hil zen Markos, 1793-IX-28an, 79 urterekin, eta testamenturik egin gabe. 30ean egin zizkioten Mutiloan lehen mailako hileta-elizkizunak, Jose Ignazio eta Maria Mikaela seme-alaben kontura («funeral de pan entero que costean sus hijos»). Beste biak, Juan Bautista eta Maria Matea, jadanik hilak ziren. Mutiloko Parroko, Jose Felix Amundarain ageri zaigu Heriotze-Partidan (Donostiako Artxiboan: Mutiloko Hildakoen Liburua 1B, 76 or., 7 zka.).

1771-1791 bitartean, hots, Zegamako Jose Felix Amundarain bikarioa etorri bitartean, Mutiloko eliza barruan zein kanpoaldean obra, berrikuntza eta konponketa ugari egin zen. Obra guztiok egiteko baimena Irigoien apezpikuak luzatu zuen 1771-VII-23an Urretxura egindako artzai-bisitaldian. Bi egun lehenago, Bidaola bikarioa, meza garaian ondoeza egin eta, oso gaiso jarri zen. Ondorioz,

Gerriko benefiziaria izan zen garaiotako lan guztien kontu-eramale eta elizako 'diru-kontu liburuko' agiri guztiak idatzi eta sinatu zituen arduradun bakarra (Donostiako Artxihoan, Mutiloko Parrokiako 'Libro de Fábrica', 1771-1791ko kontuak, 228-351 or.):

— Aldare nagusiko erretaula, alboko aldareetakoak eta sakristiako zur-lanak («ejecucion del retablo principal ... y de mas obras necesarias ... para maior culto, decencia y ornato della ... execucion de los añadimientos de los dos Coraterales, su Escultura, y cajoneria de la sacristia ... colocacion de las estatuas de Santos en dichos retablos ...»). 1771-VIII-23an, Manuel Jose Etxeberria eskribauaren aurrean boterea jasorik, irailaren 13an, Idiazabalgo Frantzisko Asurmendi, maisu arkitekto, eskultore eta tailistari enkargatzen dio lana, Ordiziako Frantzisko Ignazio Muxika eskribauaren aurrean. Idiazabaldarrak bere lana egin ostean, Ezkioko Manuel Ignazio Murua, 40 urte inguruko maisu arkitekto, tailista eta perito agrimentsorea aukeratzen dute obrak aztertu eta oniritzia emateko. Honen iritzira, lan guztiak «estan executadas ... con el maior primor, y esmero; que permite el Arte de la Escultura, Arquitectura y talla, como se reconoce de su inspeccion, buen gusto, y primor en todas sus partes sin que se le ofrezca cosa alguna, que impugnar, ni adicionar; por lo que desde luego da por vien executadas ...». Ordainketa (43.061 erreal: erretaula nagusia, 33.000; alboko bi aldareetakoak: San Pedro eta Ama Birjina Errosariokoarena, 8215; gainerantzeko zenbait lan, 1846 erreal) Jose Ignaziok berak egiten du, epeka, lanak bukatu ahala. Obra-amaierako dokumentuon (1775-X-11n) eskribau Segurako Jose Antonio Suinaga izan zen, eta lekuko, Juan Frantzisko Muxika bikarioa eta Jose Antonio Alustiza eta Jose Bizente Asurmendi auzotarrak (Oñatiko Artxihoan: II-2712 sorta, 50-54 or.) (12).

Garai hartan elizaren ondoan etxe bakarra zegoen; Juan Oria sakristauarena. Erretaulak egiten ibili ziren Asurmendi arkitektoa, bere familia eta guzti, eta gaineratiko langileak bertan bizi izan ziren. Horretarako, aurrez, etxea hustu eta zenbait obra eta konponketa egin behar izan ziren, «por la absoluta necesidad, que hubo de desocupar la única casa, que estaba en las cercanías de la Iglesia para el Maestro-Retablista y su familia y oficiales». Obra hauek Markosek eta Oriak egin zituzten.

Frantzisko Asurmendiren lanaz aparte:

- Aldare nagusiko San Joakin eta Santa Anaren hormakonkak, 100 erreal.
- Aldare nagusiaren oinerako Azpeititik Izarraitz mendiko harria ekarri zen. Hargina: Frantzisko Lizaso Egaña, 2500 erreal.
- Aldare inguruko zorua eta harmailadia, 457 erreal.
- 1771n, Markos zurginak, Juan Oria sakristaua lagun harturik, sakristiako ate berria eta diru-kutxa («arca») egin zituen, 3300 erreal. Eta elizaren erreteila, 720 erreal.
- 1776an, Markos, Oria, eta Ignazio Alustiza harginak elizaren aurrealdeko bideska egin zuten, 496 erreal.

12. Ikus, besterik beste, Cendoya Echaniz, Ignacio, 1992, «El Retablo barroco en el Goierri», Donostia, 75-76, 84, 249-250, 406-408 or. Frantzisko Asurmendi honek, estilo barroko eta neoklasikoan, lan asko burutu zituen Goierriin barrena.

- 1772-1776 bitartean, elizatariaren horma, harlanduzko zutabeak eta teilatua; eta bigarren atearen alboan, elizak argitasun handiagoa izateko, leiho berria, 1807 erreal.
- Sakristiaren teilatuko urak bideratzeko lanak, 160 erreal.
- Eraikitzen ari ziren kanposantu berrirako zenbait material ordaindu zuen Gerrikok, 87 erreal (1775ean hasita zeuden, beraz, hilerriko obrak) (242 or.).
- Gaurko plaza aldea elizaren zorua baino lau oinbete altuago zegoenez, ura sartzen zen elizara eta hezetasun handia eta lokatza sortzen sepulturetan. Agintari zibilek eta eliztarrek uren kanalizazioa eginarazi zuten. Elizak eta Diputazioak erdibana ordaindu zituzten gastuak. 1776-IX-12an, Diputazioaren izenean, Segurako Jose Antonio Unamunzagak eman zuen oniritzia.
- Elizari kalte egiten ziotenez, ipar eta mendebaldeko zuhaitz eta sastrakak botarazi zituen. Ordainketa-agiririk ez dago. Udalak edo ordaindu bide zuen.
- Dorreko erloju berria Gerrikok berak erosi zuen. Hegoaldeko lau Herrialdeetako erlojugileen aurrekontuak azterturik, Gasteizko Jose Larrokarena hautatu zuen: 3153 erreal (erlojuaren garraio-gastuak, 314 erreal; kanpandorreko beste zenbait gastu, 409 erreal).
- 1778-1782 bitartean, sakristia zoruko harlosak kendu, bertan zurezkoa ipini eta harrizko sei sepultura berri egin zituen (haurrentzat) sakristiatik kendutako harlosez.
- 1783an, haurrentzako 8 sepultura berri eta apaizentzako beste bi eginarazi zituen.
- Urteotan, noizean behin, elizarako tresna eta jantziak erosten aritu zen: bi eskailera, olio jasotzeko eztainuzko ontzia («un plato de estaño para recibir gotas de aceite». Argitarako olioarenak?), 12 argimutil handi, kristalezko ontziak, bi ispilu, mahai handi bat, beste txiki bat, katabuta, kaliza, albak, kasuilak, kapak, dalmatikak, etab. etab. (351 or.). Bi konfesionario berri ere bai, 270 erreal.

Elizako guztion tartean, behin baino gehiagotan, Gerriko bera eraikitzen ari den etxe berriaren kontuak ere azaltzen dira: tximinia, eskailerak, baratzeak hormak ... teilatuko gastuak, 2020 erreal (255 or.). Obra hauen egilerik ez da ageri partidetan, baina Markosek, horrelako lanetan ibiltzen zen eta, izango zuen partehartzerik, seguru asko. Dena den, lan guztiok Jose Antonio Unamunzaga segurarrak tasatzen zituen eta Gerrikok berak, bere poltsikotik ordaintzen.

Hogei urtetako kontu-partida multzo bakoitzaren amaieran, laburpentxo bat egiten du. Eta tarteka-marteka, zenbait gogoeta eta iruzkin eransten.

1787rako kontu-aurkezpen orokorra egin zuen: Elizako sakristian, Segurako Frantzisko Antonio Zumalakarregi eskribauaren aurrean akta egin, herriari aurkeztu, honen onespina jaso eta ekainaren 9an Esteban Anton Aguado apezpiquaren bisitaldian honen berrespena jaso zuten Gerriko benefiziatuaren urteetako kontu-agiriei. Gotzaiak, erloju lanak amaitu eta obrak bukatzeko agindu bazion ere, Gerriko sutsuak lan eta lan jarraitu zuen, 1791 arte bederen.

1771-X-6an, Klemente XIV Aita Santuaren ediktu bati jarraiki, Frantzisko Bidaola bikarioak, Jose Ignazio Gerriko benefiziatuak eta herriko zenbait Udal-kargudunek «Cofradia ó Minerva de SSmo. Sacramento» sortu zuten. Donostiako Artxiboko «Libro de la Cofradia de la Sagrada Minerva ...»n (102-107 or.)

beronen xedeak jasotzen dira: Aldareko Jaunaren jaiera hedatzea eta 'barkamen osoa' erdiestea (13). Eliz elkarte honen 1771-1792 bitarteko diru-kontuak Gerrikok eraman zituen; Jose Felix Amundarain iritsi arte ez da beste inoren eskurik ageri. (Kontuok 1888 arte jarraitzen dute).

Haatik, Mutiloan bazen lehenagotik ere Kofradia hau (edo antzekoa): 1747-IX-26an, Segurako Frantzisko Jeronimo Larrañaga eskribauaren aurrean, Sebastian Mendiburu, oiartzuar jesuita handiak «Jesusen Bihotzaren Kongregazioa» eraiki zuen. Aipatu liburuaren haseran Kongregazioaren izaera eta Iruñeko Miranda gotzaiaren onespena azaltzen dira. Eta segidan, Mutiloko 69 familietako en-izen-zerrenda luzea, (baserri bat hutsik dago), eta 1752-1771 bitarteko diru-kontuak jasotzen dira.

1885-VI-24ean, ostera, Jose Letamendi bikarioak eta Frantzisko Telleria benefiziatuak «Apostolado de la Oración» elkarteak sortu zuten. Elkarteko kide guztien izen-abizenak eta baserri-izenak azaltzen dira; (besteak beste: Lenkaran, geroago Lenkaranberri, Palanka eta Gorostortzuko Enatarriagatarrak eta Murgiaran eta Ugarteko Gerrikotarrak) (44-90 or.).

Bestalde, Mutiloan bazen beste kofradia bat ere: Errosariokoa. Elkarte honek eskatu Meza kantatuak Gerrikok ematen zituen, diru-kontuez Amundarain bikarioa arduratzen zelarik (Donostiako Artxiboan, Mutiloko 1711-1888ko liburua, eta Gerrikoren testamentutik).

Lehenago ere esan dugu, Gerriko lautan izan zen bikario-ordezko: 1776an, Muxika lehengusuaren ondotik; eta 1786-1790 aldian, Etxeberria, Brokardo eta Ondarraren hurrena, Amundarain zegamarrak postua hartu aurretik. Aldiotan ezezik, beste gehiagotan ere, gure benefiziatu langileak bere gain izan zituen herriko elizaren administrazio eta ekonomi kontuak:

a) Sakramentu-Agiriak (Bataio, Ezkontza, Hiletak) idatzi eta sinatu zituen. Ezkonduen A-1-1 Liburua honela hasten da: «Nota: En la santa visita celebrada en Segura el Ilto. y Rev. Estevan Anton de Aguado y Rojas á ocho de Julio de mil setecientos ochenta y siete, decreto S.S. Ilto. entre otras cosas: Que extrayendo todas las partidas de Velados ('ezkonduenak') originales de este libro que se hallaban en el folio 263 hasta el 278, las coloque yo el Vicario interino D. Jose Ignacio de Guerrico, por principio de otro libro nuevo, que se deberia firmar para asentar solamente las partidas de Velados: y habiendolo asi executado, lo advierto aqui para que siempre conste y no se extrañe en este libro la falta de dichas partidas de Velados, que se hallan en el libro nuevo», eta Gerrikoren sinadura.

b) Heriotz Agiri askoren ertzean «Testo. Esta definido» esaldia eta Gerrikoren sinadura ageri da. Herrian hildakoek testamentuan elizaren alde utzitako ondasunen 'segimendua' egin zuen, bikarioen aginduz edo; elizaren diru-iturririk garrantzitsuenetako honetaz, hildakoak elizari ezer utzi zion eta zenbat aztertzeaz eta azken borondatea betearazteaz, alegia, zorrotz arduratu zen. Adibidez: 1769-1775 bitarteko Heriotz Agirietan maiz ageri da Gerrikoren ziurtapena; baita bere ama zenaren (1775-X-23ko) partidaren ere. 1771ko gotzai-bisitaldian lau testamenturen egoeraren berri azaldu zion Gerrikok Juan Lorenzo Irigoien apezpikuari.

13. Minerva edo Sakramentu txit Santuaren Artxikofradia: Erromako Santa Maria supra Minerva elizatik datorkio izena. Hilero, hirugarren igandean, Aldareko Jauna 'agerian' jarrita, elizkizuna eta prozesioa egin ohi zen (EGIPV, 1984, Diccionario XXVIII, aip. ob., 389 or.).

c) Herriko zentsu eta kaperautzen, (mezak emateko edota elizkizun berezitarako baserriko ondasun eta fruituen gain ezartzen ziren 'zorren') gorabeherak zehatz-mehatz eraman zituen. Donostiako Artxiboan, Mutiloko Parrokiako «Libro de Censos ...»en etengabe ageri da Gerrickoren eskua, ziurtagiriak eta hainbat ohar idatzi eta sinatuz.

«Libro de Censos» hau Frantzisko Bidaola bikarioak eta Juan Telleria benefiziatuak ireki zuten, 1747-X-15eko Gaspar Miranda gotzaiaren bisitaldi eta xedapenaren ondorioz. Haatik, gerora, Gerrickok bi alditan (1787-IX-12 eta 1822-X-4ean) ohar luzeak gehitu eta erantsi zituen liburuaren 0 or.aren aurretik. 62.etik aurrera ere orri osoak ageri dira gure benefiziatuak idatzi eta sinatuak.

Hona bertako hiruzpalau adibide: Amaren testamentua betez eta Bergarako Pedro Villar eta Pedro Aranzetaren 1776-V-26ko eskribau-lanen ondotik, Gerrickok, Juan Bautista eta Migel Amilletaren eskuetatik, Mutiloko parrokiaren aldeko 472 dukateko zentsua jaso zuen (Anastasiarekin zorretan zeuden, hortaz, Amilletatarrok) (34-36 or.). Beste zentsu batean ere Mutiloko Juan Antonio Etxeberriak zeukan 'Izagirre-goikoa' baserria Anastasiaren alde hipotekatua ageri da, Segurako Jose Antonio Suinaga eskribauak 1745-XII-9an egin bahituraren arabera. Zeraingo 'Bidarte' baserriaren zentsuaren jarraipen zehatza egin zuen Gerrickok: 1787 arteko meza guztiak emanda daudela ziurtatzen du (49 or.). Oñatiko Kasimiro Larrañagaren 1793-IV-25eko Mutiloko parrokiaren aldeko kaperautza-ren notaritza-lanetan Gerriko bera azaltzen zaigu (orri solte batean).

d) Meza-diruak eguneratzeaz ere arduratu zen. Aipatu «Libro de Censos», 78-86 or.etan, Gerrickok berak zehazten digu horretarako izapidetza eta prozedura osoa: 1788-III-24ean, Juan Bautista Ondarra bikarioak eta Gerrickok Aguado gotzaiari mezak eguneratu ahal izateko baimena eskatzen diote. 27an, 3 egunetara, Iruñeko onespena jasorik, erabakiok hartzen dituzte Mutiloko parrokian: 1788tik aurrerako meza kantatuak 16 dukatetan emango dira, eta isilak, berriz, 11n. Bestalde, meza guztiok bi sailetan banatu ziren: egun zehatzerako eskatutako mezak eta egunik izendatu gabekoak; (bigarren multzo honetan ageri dira Anastasia eta Markosen aldeko urteurrenak). Parrokiako meza guztien historia eta sailkapena 1788-V-26an burutu zuen benefiziatuak, lana bere sinaduraz ziurtatuz.

e) 1763-1819 bitarteko urteurrenetako meza guztien ziurtapenak egin zituen Gerrickok: Hilabetez hilabete, inoiz ere hutsegin gabe, 56 urtetan sinatu zituen gure benefiziatuak meza nagusiok eman zirelako agiriak. Bikarioen sinadurak sarri-sarri falta dira; Gerrickorena, ordea, behin ere ez! («Libro de Censos», 90. or.tik bukaerara arte). Jose Felix Amundarainek liburu berria ireki zuen, baina liburu berri honek ez zuen jarraipen handirik izan, 7. orrialdean amaitzen baita. Bertan ez da Gerrickoren eskurik ageri; parrokoak bere gain hartu bide zuen lan hau.

Testamentuan ere ageri da Gerriko elizako diru-kontuen arduradun, 1815era arte bederen («... las ultimas quantas de Fabrica, dadas por mi ...»).

Elizaren kontuez ezezik, herrikideenez ere buru-belarri arduratu zen beren benefiziatua:

1768-I-31n eman zuen Madrilen Karlos III erregeak 'Jabetza pribatuaren Erregistroak' sortzeko legea. Legearen ondotik, Estatuko herri guztietan bezala, Mutiloan ere 'Erregistro' berri hau antolatu eta jabetza-eskripturak erregistratzeari ekin zitzaion 1775etik aurrera. Langintza honetan Gerrickok berebiziko partehartzea izan zuen: Herrikideei lagunduz, 1775-1824 bitartean Mutiloko 50 eskritura-

proposamenetik gora idatzi zituen, Segurako eskribauen aurrean aurkeztu eta hauek legeza zitzaten. Eskribauen agiri guztiok honela hasten dira:

«Don Joseph Ignacio de Guerrico Presbitero Beneficiado de la Iglesia Parrochial de esta villa de Mutiloa, me ha presentado una escritura ...»

(Oñatiko Artxiboan Mutiloari buruzko zortzi 'Hipoteka Liburu' daude: 1, H-148tik aurrera. Lehen laueta (1775-1824 bitartekoetan) etengabe dager benefiziatuaren eskua).

Lehen liburura mugatuz (1, H-148): Gerriok 1775-II-17/19 bitartean, hiru egunetan, 33 aurre-eskritura aurkeztu zizkion Segurako Manuel Jose Etxeberriari. Denak parrokiarekin erlazionatuak daude: elizaren eta apaizen aldeko zentsuak zein mezak ateratzeko diruak ... (18-34 or.). Liburu beronen azken partean ere ugariak dira Gerriok Jose Antonio Suinagari aurkeztu idazkiak. Ezingo dugu esan Jose Ignaziok 'zer-suma' egoteko betarik zuenik, ez horixe!

1805 alderako burutua zuen, urteetan horretan ihardun ondoren, bere «Cristau Doctrina Guztia Esplicacioaren Sayaquera», 1000 orrialdetik gorako doctrina-sermoi lan erraldoia. Langintza honetan auskalo noiztik zebilen. Dena den, 1791tik aurrera, Mutiloko bikariotza Amundarainek hartu zuenean, eta elizako obra eta administrazio-lan guztietatik arinduxeagoa geratzean, bere asmo bikainari denbora gehiago eskainiko zion, beharbada. Ondorengo urteetan buru-belarri ibili zen, batera eta bestera, obra argitaratu nahian, baina ahalegin guztiak alferrikoak suertatu ziren, Espainiako egoera politiko nahastuagatik, batez ere. Hementzertertzan ibili zen Gerriko bere lana publikatu ahal izateko baimen bila, eta oraindik beste 34 igaroko ziren argitaraturik azaltzerako. Bere amets kuttuna egia bilakaturik ikusteke joan zitzaigun, beraz, mundu honetatik.

1824eko otsailaren 23an, gaueko 9etan hil zitzaigun On Jose Ignazio, 84 urterekin. Biharamunean, goizeko 10etan egin zizkioten lehen mailako hiletaluzkizunak Mutiloko San Migel Goiaingeruaren parroki elizan («funeral entero, 6 de primera clase»), bere testamentuaren kontura, eta herriko kanposantuan eman zioten lurra (14). Bikario, Jose Felix Amundarain izan zen (Donostiako Artxiboan: Mutiloko Hildakoen Liburua 1B, 133 or., 1 zka. Ikus 4. eranskina) (15).

14. 1809-IV-8an ehortzi zuten elizako sepulturan azken mutiloarra (Klara Usabiaga); 1809-V-9an lehena kanposantu eraiki berrian (M^a Romana Garmendia). 1809 arte eliza barruan ematen zitzaien lurra gorpuei, alde guztietan bezala. Jose Ignazioren gurasoen etxeari 59. sepultura zegokion. Hilerrira Amundarain bikarioak eraiki zuen, bi alditan: Lehen aldiko lan guztiak Udalak ordaindu zituen; bigarrenekoak ere gehienak bai; elizak 1200 erreale jarri zituen, igeltseroen eskulanak eta ordaintzeko (Donostiako Artxiboan, Mutiloko 'Libro de Fábrica', 272 or.tik aurrera; eta Jose Felix Amundarainek 1806an hasitako «Razon de las Sepulturas y sus dueños de la Parroquia de Mutiloa ...» liburua). Dena den, lehen ikusi dugun bezala, 1775ean jadanik hasiak zeuden kanposantua eraikitzeke lanak (aipatu 'Libro de Fábrica', 242 or.).

Ehorzketak eliza barrutik kanpora aldaraztearen arrazoia osasun edo sanitate-kontua zen. Horretarako lege ugari eman zen Borbondarren garaian (1787-IV-3koa, besteak beste). Kristau-herri xeheak, haatik, ohitura zaharretan tinko, ez zuen begi onez hartu berrikuntza eta urteak joan ziren pentsakeraz aldatu eta forma berrietara egokitzerako. Kristauak, animalia bailiran, elizaren babesetik eta arbasoen hezurretatik urrun lurperatzea onartezina zen; eta egundokoak egin ziren zenbait herritan. Egoera goxatzeko, lurra sagaratzear gain, elizatxo eta kaperak eraiki ziren kanposantu berrietan (Ikus, besterik beste, Labayru, Estanislao J., 1969, «Historia General del Señorío de Bizcaya», La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 504-526 or.).

15. «el Señor Don José Ignacio de Guerrico bajó al sepulcro el día 23 de Febrero de 1824 á

Hiru urte lehenago hil zitzaion azken senidea, berekin 'Elizalde'n bizi zen 67 urteko M^a Mikaela arreba ezkongabea. Bapatean edo ustekabean izan behar zuen, Elizakoak eta hartzeko ere egokierarik gabe hil baitzen. 1821-II-3an egin zizkioten hileta-elizkizunak.

Haatik, aurrez, (1820-V-27an), anai-arreba biek elkarren aldeko testamentua egina zuten, Segurako Jose Manuel Aranbururen aurrean. Arrebak ez zekien idazten («no firmo por no acostumar») (Oñatiko Artxiboan: II-2850, 66-71 or.).

Arreba hil eta oso gutxira, 1821-II-23an, testamentu berria egin zuen Jose Ignaziok, gorago aipatu eskribauaren aurrean. Ohean, makal samar aurkitzen zen («hallandome en cama por indisposicion corporal que la Divina Magestad ha sido serbido regalarme, pero en mi sano juicio, y entendimiento real». Aurreko urteko testamentuan ere formula berau dago; gaiso zebilen seinale, nonbait). Testamentuan, hiletak eta ehorzketa Mutiloan eta bere kontura egiteko agintzen du. «Casa Santa de Jerusalem, y redempcion de cautibos Christianos»i ohizko limosna (4 erreale) uzten dio, eta bere ondasun guztien ('Elizalde' etxea eta baratzea) oinordeko bakar Azkoitiko Jose Antonio Arrue Enatarriaga brigadier lehengusua (Pedro Antonio Arrue Irarraga eta Ana M^a Enatarriagaren semea) ezartzen du («por el amor que le profeso, y por los muchos favores que me ha hecho»). 120 meza ateratzeko agindua ere ematen du: 40 Mutiloan bertan (6na errealekoak), 40 Arantzazuko komentuan (5ekoak) eta beste 40 Lazkaoko Karmeldarren komentuan (5ekoak). Albazea, Arrue lehengusua, Amundarain bikarioa eta Juan Frantzisko Arizmendi, Segurako bikarioa ezartzen ditu; eta lekuko, Jose Manuel Imaz alkatea eta Isidro eta Jose Bizente Igarzabal auzotarrak izan ziren. Sinaduran Gerriko xaharrari eskua dar-dar nabari zaio.

Testamentua sinaturik, 'Memorial' bat gehitu zion, hura hobeto zehaztu eta xehetu asmoz. 1824-IV-7an gorago aipatu eskribauak protokolizatu zuen testamentu-eranskin hau 3-4 alditan idatzia dago eta bertan 3-4 esku ezberdin (idazkera ezberdin) nabari dira; Gerriko bere bizitzako azken urteotan gaiso antzean ibili zen seinale edo:

— 1822-II-11n: Jose Felix bikarioak ematen die hasera eranskinioi: «Por encargo especial de ... Guerrico ... inserto en este papel, ó memorial los siguientes capitulos ... que asi declara; y firmará (Gerrikok) en caso de posibilidad, y en defecto quiere lo haga yo (Jose Felixek) ...». Gelako hormako erlojua Legazpiko Jose Zabalori uzten dio eta papertegia («papelera») honen aita Jose Manuel segurarrari (Jose Manuel Zabalo, Jose Ignazioren lehengusu, 1791n Segurako Bikario-etxeko obrak egin zituen hargina). Herrikideei dituzten 'hileta-zor' guzti-guztiak barkatzen dizkie, eta bere aldeko zentsuen errentak herriko behartsuei laguntzeko erabil daitezela agintzen du. Gerrikok onetsi, datatu eta sinatua.

— Jarraian, esku ezezagun batek eta datarik gabe: «... la libreria (menos los libros de Bascuence, que estos los destino desde luego para el Vicario de Sta. Maria de Segura) ...» (Non ote dira Gerrikorenak izan ziren eta Juan Frantzisko Arizmendiri oparitu zizkion euskal liburuok?). Liburu-

los ochenta y cuatro años de su edad sin haber tenido el consuelo de que sus escritos vieran la luz Pública en sus días» (Gerriko, I tomoko Sarrera, VI or.).

«antxen (Mutiloan), larogei ta lau urte zituala milla ta zortzireun da ogei ta laugarren urtean, berak ainbeste maite zuan Mutiloa-ko Elizaren babesean eriotzaren azken loak artu zuan» (Arrue, 1956, aip. art., 36 or.).

tegia, altzari eta arropak (ostilamendua) bere oinordeko Arrueren iloba Juan Bautista Larreari, Hernaniko Jose Joakin Garagorriren emazte Martzelina Muxikari, Jose Antonio Alustiza eta honen seme Juan Antonio Bernaberi, Legazpiko aipatu Jose Zabalori eta Segurako aipatu Jose Manuel Zabalo zenaren oinordekoei uzten dizkie, eta bi 'manteoak' azken honen biloba Jose Ignazio M^a Zabalo Arizmendiri (1805ean Seguran jaioa. Moral Teologia ikasia. Bost urtez Segurako benefiziatu. Lehen gerrate karlistan Karlosen aldekoen kaperau. Horregatik edo, 1861 arte Frantzian atzerriratu. 1873an, prozesu luze baten ostean, berreskuratu zuen benefiziatu-postua). Bere neskame izandako M^a Antonia Irimori ohe oso bat eta 100 dukat (Ursola Jazintaren aurretik izandako neskamea ote?). Jose Ignazioren sinadura, bere ohizko idazkera politaren aldean, ozta-oztako zirriborroa baino ez da.

- 1822-XII-18an: Jose Ignaziok berak idatzia, eta letra txit txukunez, gainera: Hasteko, 1787tik Segurako elizarekin 'zorretan' dagoela dio: Urte horretako gotzai-bisitaldiko gastuengatik Gerrickok (aldi hartan Bikario-ordezko) 60 erreal eskaini zizkion Segurako erretore Jose Frantzisko Galdosi («segun la costumbre dada hasta entonces»). Baina honek ez zizkion hartu nahi izan, eta gure benefiziatu zintzoak, berean tinko, aparte gorderik eduki zuen diru mordoskatxoa, 35 urtez, alajaina! («é yo ... no quise hacer innovar dicha costumbre; y guardo dichos sesenta reales de vellon, y se hallan en mi poder; hasta que se disponga de ellos ...»). (Zinez gizon zintzo, zuhur eta ohituren euslea huraxe!). 1802tik 1815era bitarteko mezatako ardoagatik eliz arduradunek zor dizkioten 28 dukatak (urteko 2) herriko elizaren premietarako erabiltzeko agintzen du. Errosarioko Kofradiak enkargaturiko meza kantatuengatik kobratzeko daukana bere bikarioari uzten dio, honek egindako fabore handiaren truk; (fabore handi hau: «... Amondarain celebra por mi la mitad de todas las Misas Populares (Meza Nagusiak), que son de mi obligacion, é yo celebro por el Vicario otras tantas Misas rezadas de su Capellania del Oratorio. Y por el favor grande que me hace ...». Meza trukaketa hau azkenaldi hartan Gerricko makal zebilelako edo izango zen, besteak honi ordutegi eta leku aldetik mezarik 'erosoenak' lagatzen zizkiolarik). Eta memoria-larekin jarraitzeko asmoa duela adieraziz sinatzen du.
- 1823-II-4ean: Berriro esku ezezagun batek (aurrekoa bera?): Saltzen diren bere liburuen (erdarazkoen?) dirua mezak ateratzeko izan dadila agintzen du. Eta Ursola Jazinta Unzurrunzaga neskameari (M^a Antonia Irimoren hurrengoa?) 'Elizalde' etxeko beheko logela, otorduak prestatzeko sukaldea eta Ursolak berak aukeratu nahi lituzkeen baratze bi puska («dos cuadros de huerta que ella escogiere») uzten dizkio, «si gusta de vivir en Mutiloa despues de mi fallecimiento». Gerrickok onetsi, datatu eta sinatua (Oñatiko Artxiboan: II-2851, 43-48 or.)(16). (5. eranskina).

Buruz azkarra, jakinduria agirikoa, onbidetsua, apala, langilea, apaiz-obligazioez (konfesionario eta pulpituko betebeharez gain, kristau-herri euskaldunari

16. «Iru-bat urte lenago, Segura-ko eskribau Jose Manuel Aramburu-ren aurrean egiña zan testamentua. Azken-nai artan, Elizondo etxea bere baratzarekin Azkoiti-ko Jose Antonio Arrue-ri utzi zion, eta egun da geiago Meza, Mutiloa-n bertan, Arantzazu-n da Lazkao-n bere animaren alde ateratzeko agindu zituan» (Arrue, 1956, aip. art., 36 or.).

Elizaren Dotrina eta Morala ahalik argien, zehatzen eta modurik errazenean irakasteaz) biziki kezkatua, etorri handiko hiztuna, euskaltzale benetakoa izan genuen gure Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga, XVIII-XIX. mendeko segurar/mutiloarra; iragan garaietako hainbat eta hainbat apaiz bezala, elizako gaiak (dotrina, sermoi, etab.) euskaraz idatzita jartzeko zaletasunez, grinaz betea; bere aldian txit ezaguna, estimatua, maitea Gipuzkoa osoan barrena. (17).

17. Gerrikoren bizitzaz aipamen labur-laburrak:

- Anaut, Bernardo, 1984, «*Guerrico Enatarriaga*», EGIPV, Diccionario XVII, aip. ob., 213 or.
- Elejalde/Erenchun, 1974, aip. ob., 74 or.
- Estornes Zubizarreta, Idoia, 1978, «*José Ignacio Guerrico Enatarriaga*», EGIPV, Literatura I, Auñamendi, Itxaropena, Zarauz, 290 or.
- Etxenagusia, Karmelo, 1969, «Euskal Idazleen Lorategia», Izarra, Donostia, 69 or.
- «Lur Hiztegi Entziklopedikoa» V, 1993, Lur, Bilbo, 117 or.
- Omaechevarria O.F.M., Ignacio, 1959, «Euskera ...», Icharopena, Zarauz, 231 or.
- Onaindia, Santiago, 1973, «Euskal Literatura» II, Etor, Bilbao, 242 or.
- Villasante, Fr. Luis, 1979, «Historia de la Literatura Vasca», Aranzazu, 251 zka.
- Zabala, Enrike, 1981, «Euskal Literatura, alfabetatzeko», Pax, Lazkao, 125 or.

II. GARAIA eta INGURUNEA (XVIII-XIX. mendeak)

Jose Ignazio Gerriko XVIII. mendearen bigarren partean eta XIX.aren lehenean bizi izan zen. Horregatik, eta gure goierritarren lana hobetoxeago ikusi ahal izateko, beharrezkoa iruditzen zaigu garai horri buruzko datu xume batzuk bederen jasotzea. Kapitulu honetan, beraz, lehen azpiatalean data eta datu historiko (gizarte eta politikako datu) batzuk eskainiko ditugu; bigarrenean, Gerriko apaiz ere izanenez, garai hartako Elizaren egitura eta antolaketaz zertxobait esango dugu, eta hirugarrenean, «Cristau Doctrina»ren egilearen garaiko literatur mugimenduaz iruzkin batzuk egingo ditugu.

1. Ingurune sozio-politiko

Hasteko, datu demografiko batzuk eskainiko ditugu: XVIII-XIX. mendean Gipuzkoako biztanlego-kopurua ez zen 110.000 lagunetara iristen (1700ean: 95.000 inguru; 1768an: 109.000 pasatxo; 1787an: 120.716; 1797an: 105.000 eskas eta 1810ean: 115.587. Herrialdearen batz bestekoa, beraz, 53 biztanle/km².ko. Egun, 1991n: 671.774 biztanle ditu; 336 biztanle/km².ko; %640 inguruko hazkundera, beraz).

Gure Herrialdearen populazio-hazkundera 1814ean hasi bide zen, eta 1833tik aurrera, bizkor-bizkor, areagotu (1857an: 154.210/156.493; 1860an: 158.724/162.547 lagun).

Goierrira hurbilduz, Segurak (9,2 km²) 1700ean: 1.231; 1800ean: 1.809; 1850ean: 1.431; 1860an: 1.531 eta egun, 1991n: 1.309. Mutiloari dagokionez, berriz, herri honek (8,8 km²) 1860an 517/523 bizilagun zituen (84 etxe). (Lehenagoko daturik ez dugu, baina, ziur aski, Gerrikoren garaian ere gaur egun baino askoz ere biztanle gehiago izango zituen (1991n: 180 lagun)). Beste iturri batzuen arabera, 1800ean Mutiloan 66 etxe, 3 irinerrota eta ostatu bat omen ziren. (Dena den, egungo ostatuaren sarrerako atalburuan '1806' urtea ageri da, harrian landua).

Bestalde, 1384etik aurrera Segurak bereganaturik eduki zuen Mutiloak (alkate, bi errejidore eta sindiko-prokuradore batez osatutako Udala; Batzarreetan 11 'su'; Epaitegi-barrutiz, Azpeitiko; eta Elizaz, Iruñeko Apezpikutegikoa; Parrokoa eta Benefiziatua; Segurak, aldiz, Parrokoa eta sei Benefiziatu zituen) 1615ean lortu zuen Hiribildu edo 'Villa' titulua (Segura 'indartsuari' aurre egiteko emana). 1617-1748 bitartean, inguruko herriskekin elkartua bizi izan zen.

1825ean 'Artamalastegi Elkartea' osatu zuen, Idiazabal eta Zerainekin batera; (Batzarre Nagusietarako 42 'su' zituen).

Mutiloar gehiengoa baserritar (nekazari eta artzain) zen, jakina. Haatik, baziren herri honetan burdin-pirita eta kobre meatze garrantzitsuak ere, XVII-XVIII. mendetan egundoko indarra izan zutenak eta Gipuzkoako burdinolak hornitzen zituztenak. Meategi hauetan kanpotar askok egiten zuen lan. XIX. mendean trenbide-adar bat luzatu zen Ormaiztegiara, mea bideratzeko. Esan, halaber, 1866an ireki zela Seguratik Mutilorako lehen errepidea; ordurarte gurdibide bat baino ez zen. Segura, aldiz (1256an hiribildu), Goierriko eta Gipuzkoako herririk inportanteenetakoa zen. (1)

Aipa ditzagun ondoren zenbait gertaera sozio-ekonomiko ere:

1728an, Batzarre Nagusiek bultzaturik, «Compañía Guipuzcoana de Navegación de Caracas» izeneko Elkargoa sortu zen Donostian. Merkataritza-Elkarte honen bidez, Amerikarekiko harreman komertzialek izugarriko gorakada eta hedapena izan zuten XVIII. mendean; dirutza handiak etorri ziren gure Herrialdera, gizarte-bizitza osoari bortizki eraginez. Mendearen azkenaldera, ordea, gauzak aldatzen hasiak ziren, eta XIX.ean areagotu egin ziren. 1785ean Donostiako Konpainia «Real Compañía de Filipinas»ek bereganatu egin zuen, eta bulegoak Madrilén zentralizatu. Poliki-poliki, euskal enpresa-gizon eta teknikariak Madrid, Sevilla eta Cádiz aldera 'ihes egiten' hasi ziren, merkataritza-gune erabakiorrak Euskalerritik at finkatu baitziren.

Gizarte-istiluetan aski ugaria dugu XVIII. mendea. Honek Euskalerriko gizarte-klaseen 'ohizko oreka' apurtzen, desegiten hasia zela adierazten digu; klaseen artean diferentziak handitzen eta nabarmentzen, eta batzuk besteen aurka jartzen ari zirela: alde batetik, jauntxoek klasea (gero eta aberatsagoa), eta bestetik, herri xumea. XIX. mendean diferentzia hauek (eta, ondorioz, istiluak) areagotu egingo dira: Gerrate Karlisten supiztaileetako bat, besterik beste, gizarteko talde ezberdinen arteko diferentzia ekonomiko hau izango dugu.

Elizaren barnean ere somatzen ziren maila-diferentzia hauek (Ikus kapitulu honetako hurrengo puntuan).

1717-1722 bitartean Bizkaia-Gipuzkoan, 1739an Azepeitian, eta 1755ean Bergaran jazo zirenak alde batera lagata, gatazkarik sonatuena 1766ko 'Matxinada' lez ezagutzen duguna da: 1760-1766ko gari-uztak oso eskasak izan ziren eta eskasia honek espekulaziora bultzatu zituen, batez ere, Jauntxoak. Gainera, bihien tasa edo zerga ezabatu zelarik, merkatu librea ezarri zen. Egoera jasanezina bilakatu zen herri xehearentzat: Azkoitian piztu zen matxinada, 1766-IV-14ean, zituz kargatutako zaldi batzuk geldiarazi eta salmenta herriak ezarritako prezioan

1. Segidako lanok baliatu gara: Arruabarrena, Arkaitz, 1993, «Goierriko Biztanleria (1860-1986)», Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 18, 27-30 or. Aranburu Pello Joxe, eta beste batzuk, 1993, «Juan Inazio Iztueta Etxeberria (1767-1845)», Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 24-25 or. Elejalde, Félix/Erenchun, Juan, 1974, «Segura», Publicaciones de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, 15-51, 85 or. Iparraguirre S.I., Ignacio, 1975, «Cinco villas del alto Goyeri ... Mutiloa ...», Publicaciones de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, 13-20, 85-94 or. EGIPV, 1991, Diccionario XXX, Añamendi, Itxaropena, Zarauz, 438-440 or.

Ikus, halaber, Gorosabel, Pablo de, 1972, «Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa», La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, I. tomoa, 59, 61, 410-411, 441, 480 eta II, 79 or. Eta autore bera, 1972, «Diccionario Histórico-Geográfico Descriptivo de los pueblos ... de Guipúzcoa», La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 327-328, 493-505 or.



«Latin-Etxea».

egiten hasi zirenean. Berehala hedatu zen borroka herri gehiagotara ere (Azpeitia, Hernani, Irun, Bidania, Beasain, Elgoibar, Mutriku, Arrasate, Oñati ...). Loiolako Basilikaren eraikuntza-lanetan zebiltzanek sutsu lagundu zieten matxinatuei. Donostiako Diputazioak bere gudaosteak bidali zituen Azpeiti-Azkoitira, ordena jartzera. Eta baita jarri ere!: Hirurehun gudariz eta 1200 zibilez (gehi Oñati alderako prestatutako 400ez) osaturiko armadak Loiolako ofizial eta peoi guztiak (64) eta Probintzia osoan 300dik gora atxilotu zituen. Horrela, bertan behera moztu zen herritarren altxamendu edo matxinada hau. Ez, haatik, bere ondorio latzak: Sei hilabete iraun zuen Herrialdearen okupazio militarrek; zigor gogorrek ezarri ziren: atxiloketak, ondasunak kentzea, isunak, erregearen armadan derri-gorrez sarrarazteak, erbesteratzeak, Cartagenara galeretara edota Ceutako presondegira eramateak ... Gainera, Aldundiak alearen tasa ezabatzen zuen dekretua aldarrikatu zuen, merkataritzako prezioen askatasuna ezarriz, Udalek hartutako erabakiak deuseztatu egin zituen, Plenoak egiteko eskubidea kendu zien ... Burgesiaren eta jauntxoaren indarraren kontra indarrez altxatu zen baserritar, arrantzale eta behargin jende xehea kupidarik gabe jipoitua izan zen!

Geroago, 1804ean ere jazo zen beste matxinada sonatu bat, 'Zamakolada' deituko zena: Bizkaian Begoña, Abando, Deustua, Barakaldoko nekazariak altxatu ziren. Tartean, derrigorrezko soldaduskaren arazoa (Foruen aurkakoa) zegoelarik. Oraingoan ere Bilboko merkataria eta jauntxoak atera ziren irabazle!

Burgesia zen, bada, goraka zihoan klase berria: Merkataritzatik bizi zena eta, neurri apalagoan, industriatik. Klase berri hau Europako ideia eta aire berrietara irekitzen ari zen (Frantziako 1789ko Iraultzak suspertu egin zuen mugimendu kultural eta politiko hau: Monarkiaren aurka, Errepublikazale; absolutismoaren kontra, liberal; Euskal Foruak ere, burgesen interes ekonomikoetarako atzerakoi eta kaltegarri nonbait, susmagarri bilakatzen hasi ziren; Eliza ere bai

hein berean). Hau izan zen, funtsean, garaiotako politika-gorabehera nahastuen, Estatu arteko gerra ugariaren eta, geroago, karlistaden oinarri, (eta, neurri handi batean, Euskalerriko Foru-sistema politiko zaharra deuseztearena ere).

1795erako baziren talde errepublikarrak Irunen, Donostian ...

Mugimendu guzti honen baitan, eta kultur alorrean, kokatu behar dugu 'Herriaren Adiskideen Taldea': Zenbait azkoitiar aitonsemeren gidaritzapean (Munibe, Peñafloidako kontea nabarmenena, Altuna, Egia ...), 'Azkoitiko Zalduntxoak' ezizenez bataiatuko zituzten jaun prestu hauek bultzaturik, «Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País» kultur erakundea sortuko da 1763an. Elkarte honek, helburu kulturalak eta zientifikoak izaki (euskararen alorrean ere egin zuen bere ahalegintxoak; garai hartan nagusi zen literatura erlijiosoaren gidarien etsaigoa gaineratu bazitzaien ere), 1769an, Bergarako Udalaren laguntzarekin, 'Bergarako Errege Mintegia' edo 'Seminarioa' zabaldu zuen. 1787ra bitarteko aldia izan zen Mintegiaren urrezko aroa. Askotariko gaiak irakasten ziren bertan: Hizkuntzak, Matematikak, Fisika, Kimika, Merkataritza, Arkitektura, Minerologia, Erlijioa, Lehen Letrak ... Seminario honek izen handia lortu zuen Europa osoan barrena. Hementxe ihardun zuten, beste batzuen artean, Samamego alegigileak eta Elhuyar anaia ezagunek. 1790ean hasi zen Mintegiaren beherakada, barnean joera ezberdinak eta zatiketak nabarmentzen hasi zirelako. 1880an galdu genuen betirako.

Jarraian, politika-munduko gertaera eta gorabehera batzuk jasoko ditugu:

Hasteko, esan XVIII. mendearen 2. partean eta XIX.aren lehenean Borbon jatorriko erregeek ezarri zuten zentralismoak, urteak aurrera eta are gogorragoak, arazo larriak sortu zituela euskal erakunde tradizionalen (Foru-sistemaren) eta Madrilgo gobernuen artean.

Gerrikoren garaiko Borbondarrak lauok ditugu: Fernando VI.a (1746-1759), Karlos III.a (1759-1788), Karlos IV.a (1788-1808) eta Fernando VII.a (1808-1833).

Mutiloarraren Dotrinan maiz aipatzen dira Karlos biak:

«Carlos 3º gure Erreguearen Magestadeac bere conseju errearen, eta guizon jaquinsu ascoren iritziarequin, eztá oraindio urte asco, erabacui zuen ...»

(II, 277 or. Pasarte honek bide ematen ote digu Gerriko 1788rako, hots, errege hau hil baino lehen, Dotrina prestatzen ari zela esateko?)

«Españiaco Erregue catolico Carlos irugarrenac leguea ipiñi zuen: (En 16 de Septiembre de 1784) aguintzen zuela ...»

(II, 290 or.).

«... guciari ondo beguiraturic, eta consejero, eta guizon jaquinsu ascoren iritziac adituric, gure Erregue Jaun Carlos laugarrenac apirillaren amargarren egunean, milla zortzireun, eta irugarren urtean, emandu legue berri bat ...»

(II, 570 or. 1803an, beraz, artean Dotrina prestatzen ari zen Gerriko).

«Erreguearen Magestadea» ohorezko kunplimendua sarri-sarri agertzen da Dotrinan.

Karlos III.aren garaian (1759-1788), 'despotismo ilustratu' deitu jokabide politiko, ekonomiko eta kulturalak gailurrera iristen dira Espainian (Esquilache, Floridablanca, Campomanes, Roda, Aranda, Muzkiz ... gobernarien eskutik).

Frantziarekin bat eginik, ingelesen aurkako gerretan sartzen da Espainia: 1761-1763an 'Zazpi urtetako Gerra' deitua, Ameriketako kolonien jabetza eztabaidatuz; 1763an 'Parisko Bakeaz' amaitu zen. 1779-1782 bitartean, Gibraltar

eta Mediterraneoko nagusigoa nork bereganatuko; 'Versallesko Bakea' sinatuz bukatu ziren etsaigoak.

1767-IV-leko errege-agindu bidez, Jesusen Lagundiaren desegitea eta bere kideen erbesteratzea gertatzen da. Jesuitek (euskaldunak barne, noski) Espainiatik kanpora barreiatu beharrak, kalte handia eragin zion gure literaturari; hauek baitziren, bereziki, gure artean itzalik handieneko literatur gizonak.

Karlos IV.aren aldia (1788-1808):

1789ko Frantziako Iraultza burges errepublikazaleak Espainiako indar atzerakoiak mesfidantza sorrarazi zuen eta, ordurarteko Luis XVI.aren aliantza monarkikoa etenik, auzotarren aurka ekin zioten, oraingoan Ingalaterrarekin elkarturik.

1793an Frantzia-Espainia arteko gerra, 'Konbentziokoa' deitua, piztu zen. Frantziar gudalosteak, Bidasoan barrena, Gipuzkoan sartzen dira; Hondarribia, Pasaia, Donostia, Tolosa, Bilbo, Gasteiz okupatuz. Gipuzkoako burgesia, Karlos IV.aren zenbait legerekin haserre, 'Konbentzio' errepublikazalearen alde jarri zen. Itun bat ere prestatu zen, frantsesek gure Herrialdeko ohitura eta legeak eta erlijio katolikoa errespetatuko zituztela aginduz. Itun honen pean, 'Gipuzkoako Errepublika' sortzea ere pentsatu zen. Bizkaiko Batzarreak Karlosen alde agertu baziren ere, Bilboko burgesia ere, Donostiakoa bezala, frantsesen alde zegoen. Herriak ere ez zuen gogo handiegirik azaldu frantsesen aurka borrokatzeko. Baina, 'Konbentzioren' inguruan 'Euskal Errepublika' zertzeko zorian zegoelarik, 1795-VII-22an 'Basileako Bakea' izenpetu zen, gauzak gerra aurretik bezalaxe geratuz. Euskaldunei ez zitzaizela zigorrik ezarriko agindu zuen espainiar erregeak, baina XIX. mendearen haseratik aurrera Herrialdeon aurkako jarrerak (legeak, etab.) areagotu egin ziren Gobernu zentralaren aldetik. Euskaldunon eskubide historikoen murrizketak etengabeak izango dira XIX. mende osoan zehar; Foruen aurkako erasoan azken ostikada gerra karlisten amaieran gauzatuko da, hauen erabateko deuseztapenarekin, hain zuzen ere.

1796-1805 urteetan Espainia, Frantziarekin bat eginik, Ingalaterra eta Portugalen aurka gerran dabil, tartean hainbat Hitzarmen eta Bake sinatu bazuten ere.

1807an Napoleon I.aren armada Espainian sartzen da, Erresuma honen inbasioari ekiten zaiolarik.

Fernando VII.aren garaia (1808-1833):

1808-1814 bitarteko frantses inbasoreen aurkako gerraren erdian, 1812-III-19an, Cádizen bilduriko Gorteeak Konstituzioa aldarrikatzen dute. Euskalerriko aduanak Ebrotik itsasora aldatzen dira.

Gerra ostean, Fernando VII.ak, erbestetik itzultzean, Cádizko Konstituzio liberala derogatu egiten du eta sei urteko aginte absolutista ezartzen. 1814-1820 bitarteko agintealdi honetan politiko liberal asko eta asko gartzelaratuak edota erbesteratuak izango dira; Inkisizioa berrezartzen; jesuiten herriratzea baimentzen ... Aduanak Ebron berfinkatzen dira.

1820ko Riego militarren altxamenduaren ondorioz, erregeak Konstituzioa zin egiten du, eta exiliotik itzultitako liberalek hartzen dute agintea (1820-1823). Garai honetan bi alderdi politiko, liberalak eta absolutistak, finkatzen dira. Aduanak itsasora.

1823an, Frantziaren inbasio berriari esker, erregeak bere agintea eskuratzen du, eta 1823-1833 bitartean 2. aldi absolutista ezartzen da Espainiako erresuman. Aduanak Ebrora.

1833-1839: Lehen gerrate karlista; 'Bergarako Besarkadaz' amaitzen dena. 1878an, azken karlistadaren ondoren, Foruen suntsitzea.

1835-1855 tartean, 'Desamortizazio'-lege ugari ematen da, hau da, jauntxoen eta Elizaren 'alferrikako' ondasun eta lursailen desjabetzapena gauzatzeko legeak. Aurretik ere egin ziren horrelako saiotoxoak: 1763, 1765, 1794, 1798an lege partzial batzuk ateraz, baina ez zen ezer funtsezkorik lortu, 'benetako indarren' oposizio setatsuagatik eta agintarien zinezko interes ezagatik (2).

Giro nahaspilatu honetan bizi izan zen gure mutiloak benefiziatu zintzoa, honen islada-zantzurik agertzen ez bada ere bere Dotrinan. Errege eta hauen legeekiko errespetua, bai. (Garaiotako errege-legeen aipamenak ugariak dira Gerrikoren liburuan; zenbait moral-gai (ekonomi alorrekoak, ezkontzari buruzkoak, etab.) indartzeko ezarriak). Halere, bere bizimoduan erasanik izan ez bazuen ere, giro nahasi eta istilutsu honen erruz (gerrak zirela, gobernu aldaketak zirela), bere lan handiak, Dotrinak, ezin izan zuen argia ikusi 1858 arte.

Bukatzeko, Gerrikoren liburuan azaltzen diren zenbait erakunderen aipamena ere egin behar dugu:

- Gremioak: «... eta Madridgo Gremio nagusiak, mercatari andi batzuec eguñic daucaten lagun guidac, aen escuetan eren diruac ipinten dituzten personai ematen dizte urteoro (bestela erac irabacico luqueanaren sari orde) eun bacoitzeco iru ...» (II, 278 or.). Ertarotik zetozen elkartek gaurko banketxeen antzeko zerbait bilakatu ziren, 1763an, bat eginik, mailegu-elkargo handi bat osatuz. 1793tik aurrera krisian erori zen, eta 1846an ezabatua izan zen.
- Montepioak: «... eta ori bera Erromaco Aita Santuac aditzera ematen dué, persona aberatsac, diruac irabaci justuan ipinteco dauzcatenac, convidatu, eta alaitu dituenen diru oriec piedadezco monteac esaten dien caridadea exercitatzeco erri andietan dauden echeetan ipintera, interesa edo corritu labur batequin, diruac eche aetan dauzcaten bitartean ...» (II, 278 or.). XVIII. mendean sortu eta Esquilachek 1761ean legeztatu zituen mailegu-etxeok XIX. mendean indar handia izan zuten, egungo Banku eta Aurrezki Kutxak sortu aurretik. (Jose Ignazioren osaba eta anaia Madrilgo 'Sacro y Real Monte de Piedad'eko enplegatu izan zirela ikusi dugu aurreko kapituluan).
- Inkisizio Sainduko Auzitegiak: «... escuarquiró pecatu mortalaren azpian obligaturic daude secretoac gordetzera Inquisicio santuco Ministroac ...» (II, 320 or.); «... eta ... heregiaco pecatua ... Inquisicioco tribunal santura salatzeo obligacio gravea daucagu.» (II, 324 or. Herexetzat salatua izan

2. Segidako lanoz baliatu gara: Aranburu, 1993, aip. ob., 23-33 or. Ariznabarreta, Abel, 1982, «Euskal Historia, zenbait apunte», Elkar, Donostia, 54-62 or. Kinder, Hermann/Hilgemann, Werner, 1971, «Atlas Histórico Mundial», Fundamentos I, Istmo, Madrid, I, 294-295 or. eta II, 34, 37, 59 or., besterik beste. 'Larousse'z ere baliatu gara zenbait puntutxo argitu ahal izateko (Larousse, Nueva Enciclopedia, 1984, Planeta, Barcelona/Madrid, II, 699-701; III, 767-768; IV, 798-799; V, 410-411; VI, 21, 210; VII, 442-443 or., besterik beste).

XVIII-XIX. mendeetako giro politiko-sozialaren ikuspegi orokorra izateko, besteak beste, ikus: Altuna, Jesus eta beste batzuk, 1989, «Los vascos a través de la Historia», Gipuzkoako Kutxaren Argitarapenak, Donostia (Valverde, Lolaren «La Ilustración» kapitulua, 192-222 or. eta García de Cortázar, Fernandoren «Las Carlistadas», 226-243 or.). Paul Arzac, Juan Ignacio, 1986, «Enciclopedia Histórico-Geográfica de Guipúzcoa» V, Haranburu editor, Donostia, 222-298 or. eta Gorosabel, 1972, aip. ob., orohar.

zen 1802an Juan Ignazio Iztueta zaldibiarra Logroñoeko Auzitegiaren aurrean). Inkisizioa dotrina jansenistak eta entziklopedistak Espainian sartzearen aurka gogor ahalegindu zen; baina, azken aldera, erlijio-saileko bere iharduera boterea galtzen joan zen (Karlos III eta IV.aren erregeztaldietan 10 pertsona bakarrik kondenatu zituzten herio-zigorrrera); torturaren erabilera ere baztertu egin zen; eta 1808an erabat deuseztua izan zen.

Halaber, garaiko ohituren 'altxortegi' aparta dugu mutiloarraren liburua. Moral kontuak jorratuz, tartean honelako bitxi politikak jasotzen ditugu: «... Lisiba jotzen lecu nabarbenetan izterrac agueri dituela egoten diran emacume lotsabagueac ...» (II, 248 or.). Gauetako arta-zuriketak; Arabara iritara (igitaiz garia ebakitze) doazen neska-mutilak; txokolata: jaki goxo eta indar handikoa; karta, bola eta pelota-jokoak; tabako-hautsa eta orria ahoan txupatzea edota errez, kea tragatzea; zezenketak: inolako trebetasunik gabe, zezen gaiztoaren aurrean 'suer-teak' egitera jartzen direnak; jaietako eta etxeoandreen arteko bisitetako 'errefreskoak'; ardo, mistela eta aguardiente hordigarriak; garaiko lanbideak: medikuak (tituludunak eta guztiz fidagarriak), sendatzaile edo lotzaileak (batere estudiorik gabeak, jende-engainatzaile hutsak), enplasteroak, hezur-osatzaileak (esperientzia handikoak eta aski fidagarriak), botikari, barbero, emagin, eskribau, jostun, harotz, hargin, errementari ...; salerosketa-sistemak eta diru-motak; erromeriak eta dantzak, denetik aurki dezakegu erlijio-liburu eder honetan.

2. Elizaren Egoera

Gerrikoren garaian, Hego-Euskalerriko Eliza bi Barrutitan banatua zegoen: Iruñekoa, Nafarroa eta Gipuzkoa gehiena hartzen zuena, eta Kalahorreakoa, Araba, Bizkaia eta gure Herrialdearen mendebaldea, Leintz aldea hartzen zuena. (Banaketa hau erromatarren garaiko euskal leinuen eremu geografikoaren araberrakoa zen, gutxi gora behera). Mutiloa, beraz, Iruñekoan sartzen zen.

Iruñeko apezpikuaren peko Gipuzkoa bi Artziprestazgotan banatzen zen: Artziprestazgo Nagusiak Herrialde gehiena hartzen zuen: Apaizen ordezkariak urtean bitan Kongregazioan (Batzarrean) biltzen ziren Tolosan (Pazkoatan) eta Azpeitian (Abuztuan). Kongregaziorako ordezkariak hautatzeko Artziprestazgoa 'Korriedo' edo barruti txikiagotan banatua zegoen: Segura, Idiazabal eta Zegamak 'korriedo erdia' (2 botu) osatzen zuten. Legazpi, Urretxu, Zumarraga, Ezkio, Itsaso, Gabiria, Ormaiztegi, Astigarreta, Arriaran, Segurako Santa Engrazia, Mutiloa eta Zerainek (12 parrokia) 'Gaztañaga'ko 'korriedo' osatzen zuten (4 botu). 'Korriedo' bakoitzak diputatu edo prokuradore bat edo bi, apaiz nahiz benefiziatu, bidaltzen zuen Batzarrera, 'dietatxo' bat ordaintzen zitzaielarik; (Gerriko bera ere izan zen, 1774an, 'Gaztañaga'ko ordezkari). Beren Diputatu Nagusia hautatzen zuten, urtean zeharreko arazo guztiak itzapidetzeko ordezkari lez (Gerrikoren garaian, Asteasuko Juan Bautista Agirre, euskal idazle bikaina izan zen Diputatu Nagusi. Eta 1815etik aurrera, Agirrek, gaisorik, bere dimisioa aurkeztu ostean, Gerrikoren obra aztertu zuenetako bat, Jose Jabier Aierbe, Idiazabalgo bikarioa).

Artziprestazgo Txikia Hondarribia aldeak osatzen zuen. Oñatik bere Bikarriotza berezi eta propioa zuen, eta Eibar aldea, berriz, Durangoko Artziprestazgoa zen.

Elizetako Benefiziatuak hautatzeko 'Patronatu' sistema zegoen. Eliza ba-koitzak bere 'patronu' (zaindari edo arduraduna) zuen, eta honek aukeratzen ('aurkezten') zuen, hutsunea gertatzean, ordezk Benefiziatu berria. (Gerriko, adibidez, Lazkaoko jaunak hautatu zuen, aurreko Telleria hiltzean, Mutiloko Benefiziatu postua betetzeko).

Lau motatako Patronatuak zeuden: Erregearenak, Zaldun partikularrenak, herriko auzotar guztienak eta auzotar gutxi batzuenak (Udal-gizon eta Erretorearenak). Mutilokoa bigarren motakoa zen, hots, jaun baten esku zegoen (3).

Bestalde, eliza bera (eraikina, alegia) eta honen ondasunak (Bikario-etxea, lursailak, etab.) herriko agintariek (Udalak eta Erretoreak) administratzen zituzten, apezpikuaren izenean. Mutiloko kasuan bezala.

Jesuitak eta frantziskotarrek ere izugarrizko arrakasta lortu zuten kristau-herriaren aurrean. Ordena biek egundoko lana egin zuten euskararen alorrean, gipuzkera literarioa finkatzen, beren idazki eta sermoi bidez. Jesuitak Jesusen

3. «En Guipúzcoa tienen jurisdicción dos señores obispos, y son de Calahorra y de Pamplona. Mejor fuera que Guipúzcoa tuviese su obispo y particular ... Los lugares que tocan al de Calahorra son solamente Eibar, Elgoibar, Vergara, Plasencia, Oñate, Elgueta, Arechabaleta, Escoriaza y Salinas y las anteiglesias de Léniz. Toda la marina y el resto de Guipúzcoa hasta Irún son del obispado de Pamplona. Ninguno de los obispos tiene diezmos ni parte de ellos en Guipúzcoa. El rey tiene aquí muchos patronatos de Iglesias ... y los va proveyendo en caballero benemérito por una, o por dos, o por tres, o cuatro vidas ... Hay otros patronatos diversos, que tienen caballeros particulares ... y en éstas los patronos son los que dan y nombran a los beneficios y curatos ... estos patronatos estan obligados en conciencia a dar la congrua suficiente al cura y beneficiados y atender con decencia a las necesidades de la parroquia y del culto divino. En esto, en muchos de ellos, hay graves descuidos, pues desatendiendo a esta obligación y al fin santo por que se dan los diezmos, o los llevan todos, o dejan tan poca parte de ellos para los beneficiados, que murieran de hambre si la piedad de los pueblos no les franqueara de qué vivir, en entierros, honras y otras funciones. El patronato en otros muchos pueblos está incorporado en los mismos pueblos y sus vecinos, y en ellos se conserva la disciplina eclesiástica antigua en la provisión de beneficios y curatos, que se dan por votos de todos. Y aunque en la antigüedad en todos éstos se proveían de esta suerte, hoy no en todos se proveen así, porque viendo muchos de los pueblos que de este modo de votar los beneficios se originaban pleitos, odios y escándalos, convinieron en depositar su derecho de votar todos en pocos vecinos, que comúnmente son los cargohabientes y algún eclesiástico, y éstos votan y nombran a los beneficiados en nombre de todo el pueblo ... En ellos los beneficios son decentes, porque perciben los diezmos; pero en los que los patronos son este particular y el otro, son muy tenues, y muchos no son congrua suficiente por la avaricia de los patronos ...» (Honelakoa ote zen gure Mutiloko benefiziatauren egoera?). «El clero que pertenece al obispado de Pamplona está dividido en dos arciprestazgos, mayor y menor. El mayor comprende toda la marina, desde Motrico hasta San Sebastián inclusive, y desde Segura por una parte y por otra desde Legazpia hasta Astigarraga inclusive, que es lo más de la provincia. El menor comprende solamente a Fuerterrabía, Irún, Oyarzun, Pasaje de allende (Jaizkibel), Lezo, Rentería. El arciprestazgo mayor tiene su diputado general y secretario, que son nombrados en congregación plena por los congregantes junteros y poderhabientes de todos los cabildos eclesiásticos del arciprestazgo. El diputado es el que despacha en nombre del clero todo lo conducente a su buen gobierno ... Tienen junta o congregación regular todos los años, ya en Tolosa, ya en Azpeitia, y también congregaciones extraordinarias en otros lugares, según las necesidades que ocurren, más o menos urgentes. En ellas examinan sus dependencias, memoriales, pretensiones, quejas ... se reparten los gastos, se toman las cuentas, etc. ... Este clero y su congregación la componen solamente los curas y beneficiados en propiedad ...» (Larramendi S.J., Manuel de, 1969, «Corografía de Guipúzcoa», Biblioteca Básica de Euskal Herria, Larrun, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones S.A., San Sebastián, (Edizioaren Prestatzailea: Tellechea Idigoras, José Ignacio), 121-125 or.). (1756 aldera idatzi zuen liburu hau Larramendik).

Ikus, berdintsu, Gorosabel, 1972, aip. ob., II. tomoa, 361-600 or. XVIII-XIX. mendean borroka luzea izan zen patronu partikular eta herrien artean; azkenean, hauek lortu zutelarik beren elizaren 'jabetza'.



«Latin-Etxeko» sarrerako atea.

Bihotzaren Jaiera edo Debozioa zabaltzen gogoz aritu ziren Hego-Euskalerrri osoan barrena; Zarauzko komentuko frantziskotarrak Misio Sainduetako sermoilari sutsu eta bikain lez nabarmendu ziren.

Euskalerrri osoa, Frantziako ideia berriek, entziklopedismoak eta liberalismoak ukitutako ilustratu gutxi batzuk ezik, kristau katoliko zintzoa zenez, bistakoa da Elizaren (eta honen hurbileneko ordezkarien: apaiz eta fraileen) eragina erabatekoa zela. Herriak jasotzen zuen 'ideologia' bakarra (elizkizun, sermoi, dotrina, irakurgai eta eguneroko harremanetan) Elizak eskaintzen ziona zen.

«Apezeria nekazariei etekinak ateratzen bizi zen, hamarrenek sortutako diru-iturriek esker, funtsean. Baina diru-iturri hori desberdin banatzen zen apaizgoaren barruan. Behe mailako apaizgoa, baserri giroko eliztarren zerbitzuan ziharduena, pobrezian bizi zen.

Goi mailako apezeriak xurgatzen zuen lehen aipatu dugun diru-iturri horren gehiengoa. Beraz, apaiz xumeak iraupenezko egoeran mantentzen ziren bitartean, goi mailakoak egoki eta erosoago bizi ziren.

Fraile eta serorak ere hamarrene bidez, lurren errenten bitartez edota nekazariei egindako mailegugatik bizi ziren, baina hauek herriari itzuli ohi zioten zati bat eskola, kultu-leku etab.en bidez.

XIX. mendearen lehen herenean hamarrenetan jasotako zati handi bat Estatuaren kutxetara joaten hasi zen, Liberalen eragina zela eta. Honek, noski, galera gorriak ekarri zizkion apezeriari.

Krisialdiaren izaera ez zen ekonomi arlokoa bakarrik. Gipuzkoako Foru-erakundeak, oinarrizkoak zirenak, dardarka zebiltzan, eta herri xehe eta apezeria xumearengan mesfidantza handia sortzen ari zen, azken hauek herriko jauntxoenganako beren begirunea ere zalantzan jartzeraino.

Iztuetaren garaiko nekazalgora analfabetoa zen gehienbat, astean behin entzuten zuen apaizaren sermoia izaten zen bere kultur bide bakarra, eta horrek eragin handia zuen herri xumearengan.

Beste alde batetik, liberalismoaren ideia berriek gizartea laiketzea zekarten eta hori ez zen apezeriaren oso gustoko ...» (4).

3. Literatur Mugimendua

XVIII-XIX. mendeetako euskal literaturaren ezaugarri batzuk, guztiz eskematikoki, eskainiz hasiko gara:

a) Elizgizonen literatura eta elizako gaiei buruzkoa (dotrinak, sermoiak ...). Tarteka, salbuenpentxo batzuk: gramatikak, hiztegiak, apologi lanak; baina, hauek gehienak erdaraz burutuak.

b) Manuel Larramendi jesuita andoaindarraren eta honen jarraitzaileen (Kardaberaz, Mendiburu, Ubillos ...) eragin bortitza: Hegoaldeko (Gipuzkoa eta Bizkaiko) literaturaren sortzaile eta bultzatzaile nagusi lez hartuak dira.

c) Ilustrazio laikoak ere egin zuen bere lantxoia euskararen alorrean. Honela, nolabait, euskal literatura ez-erlijiosoaren hastapenak soma daitezke XVIII. mendearen bigarren partean. Baina, Elizaren eta 'Herriaren Adiskideen' elkar ez-aditzaiek, ideia diferentzien aldetik sorturiko gatazkek, bakoitzak bere bideari itsu antzean eusteak mesede baino kalte handiagoa egin bide zion gure literatura koxkorrari.

4. Aranburu, 1993, aip. ob., 31 or.

d) Jesuiten eta gainerako ordena erlijiosoen kontrako erasoek, deserriratzeek ere (garaiko idazlerik hoberenak erbestera aldegin beharrean gertatu baitziren) kalte handia egin zion euskal literaturari.

e) XIX. mendearen hasieran apal-apal, erdi aldetik aurrera bortitzago, literatura laikoa (elizgizon ez direnek egina eta Elizaren ohizko gaiez kanpokoa) jaio eta loratzen da; (Juan Ignazio Iztueta zaldibiarra dugularik mugimendu berri honen aitalehenetakoa).

f) Egoera politikoak, Borbondarren Madrilgo gobernu, absolutista zein liberal, urterik urte are zentralistagoak euskarari (eta ez literatura kontuan bakarrik, eskolan, etab.etan ere bai) ezarritako zentsura zorrotzaren erruz, liburuak argitaratu ahal izateko egundoko eragozpenak zeuden. Asko eta asko obra idatzi eta handik urte mordoskara baino ez ziren argitaratu (Gerrikorena kasu).

Egia esan, hemengo agintariak ere -Batzarre Nagusiek, Diputazioek- ez zuten ezer askorik egin gure hizkuntzaren alde; kontra aritu ez zirenean!

Xabier Altzibarrek ederki aztertzen du garai hau. Jarrai diezaioغو berari:

«... Larramendiren (1690-1766) Gramatika (1729) eta batez ere Hiztegia (1745), ideia eta maisutzak bultzatutako giputz-euskara idatziaren eraberrikuntza eta apainketarekin eta ondorengo Kardaberaz (1703-1770) eta Mendibururen (1708-1782) liburuekin sortzen da literatur gipuzkera. Larramendiren eraginezko eraberrikuntza hiztegiara ezezik euskara idatziaren arlo guztietara hedatzen da ... Lagundiko aipatu hirukotearen ideia eta idazkiek bideratu zuten gipuzkera idatzia. Bere liburua geroxeago, 1785ean, atera zuen Ubillosek (1707-1789) Mendibururen eragin handia du ... Guztiek ezagutu zuten Larramendi eta Maisutzat hartu. Gainera elkartasun edo batak bestearen kutsu, ikuskizun eta eragin handia dute ... Bestalde, egile hauek eredugarriak gertatu ziren ondorengo idazle bikaintzat. Eta liburu ekoizpenari dagokionez, egileonai esker gorakada handia izan zuen gipuzkerak XVIII. mendeko bigarren erdian ... Lagundiak, beraz, esku handia du euskalgingintzan, baita geroxeago 'Adiskideen Batzarreak', biok oso indartsuak izan baitziren Gipuzkoan, eta bion jokabideak eta elkarren arteko gatazkak baldintzatu zuten gipuzkerazko liburugintza. Bi erakundeon asmoak eta eginak desberdinak ziren. Josulagunak herriaren erlijio-irakaste eta ... eman ziren ... Ilustratuek, aldiz, herriaren eta gizartearen aldakuntza bilatzen zuten ... nolahi ere ... euskara kontuetan guztiek ezagutu zuten Maisutzat, baita ilustratuek ere ...

... Lagundiaren eta Ilustrazioaren arteko gatazkak euskararentzat ondorio ezinago kaltegarriak ekarri zituen. Jesuiten deserriratzearekin (1767-1815) idazlerik ospetsuenak galdu genituen, euskal liburuak, sermoiak eta eskuizkribuak sakabanutu ... Euskal ilustrazioa, bere aldetik, ahul agertu zen baita Borbondarren hizkuntz politikaren aurka ere ... Ilustrazioaren porrotak Elizaren nagusitasun ideologikoa ekarri zuen eta honek ikuskizun handia izan zuen euskal liburu eta testuen joera ideologikoan XIX. mendean.

Ezin utzi bazterrera, aipatu gabe, frantziskotar komentuetako hizlari eta idazleak, bereziki Zarauzko misiolariak ... Hor dugu lekuko J.K. Etxeberría, Añibarro eta Zabala bizkaitarrez gainera ...

XVIII. mende bukaeran, beraz, beheralditxo bat dago gipuzkerazko liburugintzan, are orijinaltasun edo hizkuntzaren kalitatearen aldetik, Ubillos eta Kardaberaz liburuak salbu. Josulagunen deserriratzeak eta euskal liburuen galerazpen aginduak zer ikusia dute beheraldi honetan ...»

XIX. «Mende hasieran apaiz belaunaldi baten emaitzak ditugu: J. Antonio Mogel (1745-1804), Agirre Asteasuko ... (1742-1823) eta Gerriko ..., hirurak beren obrak frantseste nagusi aurretik idatzi zituztenak. Beste kontu bat da argitalpena ...

Belaunaldi honetako gipuzkerazko eta bizkaierazko idazle garaien artean harremanak izan ziren (Mogel, Agirre, Añibarro ...) ... Gipuzkerazkoen emaitza literatur bizkaieraren sorrerarekin batera gertatzen da ...

1816-1819 urteetan ez bide da argitaratzen libururik eta, aldiz, bizkaierazko liburuen argitalpenak gailurra jotzen du ...

1821-1830 bitartean J.K. Etxeberria (1773-1853) frantziskotarrak lau liburu ... ateratzen ditu ...»

(Eta Iztuetak «Gipuzkoako Dantzen Kondaira»).

«Etenaldi luze baten ondoren -lehen karlistada aurre eta ondo-ausperraldi bat dator gipuzkerazko liburugintzan, neketsu eta astiro-astiro hasieran, bizkorxeago geroago, Pizkunde arte luzatuko dena. Lehenik Iturriaga (1778-1851) eta Iztueta liberal foruzaleen eskutik, erlijio gaiez bestelako kezka eta gaiak darabiltzatela beren liburu berantar edo karlistadagatik berandu argitaratueta ...

Garai zailak ziren euskarazko liburugintzarako, baina: mende erditsuan erlijio ordean kanporatzeak egoera gaizkoatu zuen. Hala ere, Agirre ... Gerriko ... Lar-dizabal ...

... idazkiak ... gehienak erlijio-gaiezko liburuak eta erlijioa irakasteko liburuak direla esan behar (otoitz-liburu, dotrina labur, dotrinaren azalpen luze, sermoi, liturgi-testu, bederatiurren, santuen bizitza ...). Bestelako liburu gutxi: haurrei irakurtzeko edo eskolarako zenbait (Mogeldarren alegiak, edo geroago Iturriaga ...), Iztuetaren liburuak ... Hauxe landara literatur lanik ez da gipuzkeraz hitz lauz Pizkunde garai arte ...» (5).

Eta amaitzeko, Gerrikoen zenbait idazle garaikideren (zertxobait lehenagokoak eta geroxeagokoak ere barne) aipamen soil-soila egingo dugu:

Gipuzkoan:

- Manuel Larramendi jesuita andoaindarra (1690-1766). «De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España» (1728) eta «Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria» (1739), apologi lanak; «El Imposible Vencido» (1729), gramatika; «Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín» (1745); «Corografía o descripción general de Guipúzcoa» (1756 aldera, 1882an argitaratua). Denak erdaraz; euskaraz ezer gutxi.
- Agustín Kardaberaz jesuita hernaniarra (1703-1770). Asteteren Dotrinaren itzulpena (1760); «Eusqueraren Berri Onac» (1761); «Aita San Ignacioren Egercicioen gañean» (1761), eta abar luze-luzea.
- Sebastian Mendiburu, Oiartzungo jesuita (1708-1782), 'Euskal Cicero' deitua. «Jesusen amore-nequeei dagozten cembait otoitz-gai» (1759-1760); Jesusen Bihotzaren Debozioaz (1747), eta abar.
- Juan Antonio Ubillos, Amasako frantziskotarra (1707-1789). Dotrina (1785); Filosofiaz latinez.
- Frantzisko Xabier Maria Munibe Idiakez azkoitiarra, Peñafloredako kontea (1723-1785), 'Herriaren Adiskideak' tadeko 'Azkoitiko Zalduntxoak'. «El borracho burlado» (1764) euskal-erdal opera komikoaren egilea.
- Juan Antonio Mogel eibartarra (1745-1804), Markinako abade. «Peru Abarca» (1802 aldera, 1881ean argitaratua); Dotrina, Debozio, Apologi liburu ugari.

5. Lakarra, Joseba Andoni, 1992, «Manuel Larramendi. Hirugarren Mendeurrena, 1690-1990», Andoaingo Udala, (Altzibar, Xabierren «Larramendi eta literatur-gipuzkera» kapitulua, (325-360 or.), 326-332 or.).

- Juan Bautista Agirre, Asteasuko Erretorea (1742-1823). «Eracusaldiac» (1850ean argitaratuak); Dotrina luze bat, etab.
 - Juan Ignazio Iztueta zaldibiarra (1767-1845). «Gipuzkoako Dantza Gogoangarrien Kondaira» (1824); «Gipuzkoako Probintziaren Kondaira» (1847).
 - Jose Kruz Etxeberria frantziskotar oiartzuarra (1773-1853), Zarauzko komentukoa. Dotrina eta Debozio-liburuak.
 - Agustin Pascual Iturriaga, Hernaniko apaiza (1778-1851). Alegiak, Eskola-liburuak, etab.
 - Juan Jose Mogel, Markinako abade debarra (1781-1849). «Baserritar nequezaleentzaco escolia» (1816); zenbait debozio-liburu.
 - Bizenta Mogel azkoitiarra (1782-1854), euskal literatura zaharreko emakume bakarra. «Ipui Onac» (1804). Azken biok «Peru Abarca»ren egilearen ilobak.
 - Jose Frantzisko Aizkibel azkoitiarra (1798-1865). Hiztegia.
 - Frantzisko Ignazio Lardizabal, Zaldibiako benefiziatua (1806-1855). «Testamentu Zarreco ta Berrico Condaira» (1855); «Gramática Bascongada» (1856).
 - Gregorio Arrue maisu hernaniarra (1811-1890). Dotrina; itzulpen ugari. Eta abar luzea.
- Gipuzkoarrak, hots, Gerrikoren hurbilenekoak aipatu ostean, goazen, labur-labur, beste Herrialdeetako batzuen izenak ere jasotzera:
- Araban:
- Juan Bautista Gamiz jesuita (1696-1773). Poesia.
 - Jose Paulo Ulibarri, Abandoko perratzailea (1775-1847). Euskaltzale sutua; Gutunak.
- Behe-Nafarroan:
- Amikutze aldeko Lopez apaiza. Itzulpena (1782an).
 - Isturitzeko Salvat Monho apaiza (1749-1821). Poesia.
- Bizkaian:
- Pedro Ignazio Barrutia, Arrasateko eskribaua (1682-1759). «Gabonetako Ikuskizuna» antzerkia (1897an argitaratua).
 - Agustin Basterretxea, Lekeitioko jesuita (1700-1761). Poesia erlijiosoa.
 - Bartolome Olaetxea, Laukarizko abadea. Dotrina (1775).
 - Pedro Antonio Añibarro, Areatzako frantziskotarra (1748-1830), Zarauzko komentukoa. Dotrina, Debozio-liburuak, Poesia erlijiosoa.
 - Paulo Pedro Astarloa, Durangoko abadea (1752-1806). «Apología de la Lengua Bascongada» (1803), eta antzeko lan ugari; denak erdaraz.
 - Pedro Jose Patrizio Astarloa, Durangoko frantziskotarra (1751-1821), aurrekoaren anaia. Dotrina; Sermoiak (1816-1818).
 - Frai Bartolome de Santa Teresa, Markinako karmeldarra (1768-1836). «Euscal Errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba» (1816); «Icasiquizunac» sermoiak (1816-1819), eta abar.
 - Juan Mateo Zabala bilbotarra (1777-1840), Zarauzko komentuko frantziskotarra. «El Verbo Regular Bascongado» (1848); «Noticia de las obras bascongadas» (1856); Alegiak, etab.
 - Jose Antonio Uriarte, Arrigorriagako frantziskotarra (1812-1869). Debozio-liburuak baina, batez ere, L.L. Bonaparteren kolaboratzaile gisa, Dotrina eta Idazteun itzultzaile.

- Eusebio Maria Azkue Lekeitiokoa (1813-1873). Poesia.
- Lapurdin:
 - Joannes Etxeberri, Sarako medikua (1668-1749). «Gomendiozco Carta» (1718); «Escuararen Hatsapenac», apologia eta gramatika (1716 aldera); Hiztegia.
 - Joannes Haraneder, Donibane-Lohizuneko apaiza (1669an jaioa). Itzulpen ugari.
 - Martin Harriet, Larresoroko notaria. Gramatika (1741).
 - Alexander Mihura, Donibane Lohizuneko apaiza (1725ean jaioa). Itzulpena.
 - Bernard Larregi, Uztaritzeko erretorea. «Testamen çaharreco eta berrico Historia» (1775-1777). Itzulpenak eta Poesia.
 - Andres Baratzart, Larresoroko apaiza (1738-1826). ‘Meditazione ttipiak’ (1784).
 - Jean Robin, Donibane-Lohizuneko apaiza (1738-1821). Itzulpena.
 - Martin Duhalde, Uztaritzeko apaiza (1753-1804). ‘Meditazione handiak’ (1809).
 - Martin Larralde ‘Bordaxuri’, Hazparnekoa (1782-1821). Poesia.
 - Martin Hiribarren, Askaingo erretorea (1810-1866). Poesia, Atsotitzak, Historia, Gramatika, Hiztegia, ...
 - Jean Pierre Duvoisin, Ainhoako kapitaina (1810-1891). Bonaparteren aginduz, Idazteun osoaren itzulpena; beste zenbait itzulpen, etab.
 - Leonce Goietxe, Urruñako apaiza. «Fableac edo aleguiac» (1852).
 - Maurice Harriet, Haltsuko apaiza (1814-1904). Hiztegia.
- Nafarroan:
 - Joakin Lizarraga, jesuita eta Elkanoko erretorea (1748-1835). Dotrina, Sermoiak, Debozio-liburuak, Idazteun itzulpenak ...
 - J. Etxamendi ‘Bordel’ (1792-1879). Poesia.
 - Bruno Etxenike (1820-1893). Idazteunaren itzulpenak.
- Zuberoan:
 - Martin Maister, Ligiko erretorea. «Jesu-Kristen Imitacionia», itzulpena (1757).
 - M. Etxegoien, Mauleko erretorea. «Uscara libria», debozio-liburua (1804).
 - Beñat Mardo, Barkoxeko bertsolaria (1815 aldera).
 - Pierre Topet ‘Etxahun’, Barkoxeko poeta erromantikoa (1786-1862).
 - Jean B. Artxu, eskola-ikuskatzailea (1811-1881). Alegiak, Gramatika, Idazteunaren itzulpen protestanteak.
 - Emanuel Intxauspe apaiza (1815-1902). Itzulpenak, Debozio-liburuak.
 - Agustin Xaho, Atharratzekoa (1810-1858). Lehen Gerrate Karlitzako kronikak; Gramatika eta Historia lanak, eta abar luze-luzea.
- Jatorriz euskaldunak ez izan arren, ezin utzi aipatu gabe besteok ere:
 - William Humboldt aleman euskaltzalea: XVIII-XIX. mende-mugan zenbait bidaia egin zuen Euskalerrira; hemengo idazleekin harreman estuak izan zituen; gure Herriaren jatorriaz, historiiaz, hizkuntzaz lan trinkoa burutu zuen (1821).
 - Antoine D—Abbadie irlandarra (1810-1897). 1853an Urruñan hasi ziren ‘Lore-Jokoen’ sortzailea. Xahorekin lankide, gramatika baten egile (1836).

— Luis Luziano Bonaparte printze ingelesa (1813-1891): Euskararen eta honen euskalkien ikerketan lan erraldoia egin zuen, hemengo kolaboratzailez inguraturik.(6)

Ingurune literario honetan (eliz-liburuak, apologiak, Hegoaldeko literaturaren indartzea, euskarari buruzko lehen ikerketak ...) jaio eta bizi izan zen gure Jose Ignazio Gerriko mutiloarra; eta giro honen barnean burutu zuen bere *Dotrina* liburu bikaina. Literatur giro hau zehatzago arakatzeko, hurbiltzapen-pauso berri bat eman behar dugu; honela, hurrengo kapituluan, euskal *Dotrinak* aztertzen saiatuko gara.

6. Bilketatxo hau egiteko, Villasante, Fr. Luis, 1979, «Historia de la Literatura Vasca», Aranzazu obran oinarritu gara.

III. KRISTAU-DOTRINA ZAHARRAK (XVI-XIX mendeak)

XIX. mendearen erdialdera arteko euskal literatura gehiena elizgizonek (frai-le eta apaizek) egina da eta, noski, erlijio-gaiei buruzkoa hein handi batean (1). Literatur lan hauetako batzuk Kristau-Ikasbide edo Dotrinak ditugu. Gerrikok ere honelako liburua (2) utzi zigunez, bere bizitza eta ingurune orokorrari gainbegiratua eman ostean eta obraren azterketari ekin aurretik, Kristau-Dotrina zahar batzuen, garrantzitsuenen, aipamena egin behar dugu, gure goierritarrarena hobe-toxeago kokatu ahal izateko lagungarri gisa edo.

Euskalerriko Eliz Barrutietan (Kalahorra, Iruñea, Baiona, Akize nahiz Olo-ruekoan) euskara, katekesi-alorrean ere, latinaren eta auzo-erdaren nagusitasun kulturalaren indarragatik, ez zen aintzakotzat hartua izan denbora luzean. Halere, Trentoko Kontzilioaren ondotik (1545-1563), euskal gotzaiak biziki arduratu ziren Dotrinak herriaren hizkuntzan (Eliz Barrutietako euskalkietan) argitararazteaz. Besteak beste, 1600. urte aldera, Pedro Manso, Kalahorrako apezpikuak urtero-urtero euskarazko (bizkaierazko) Kristau-Ikasbideak ateratzeko agindu zehatza eman zuen; bete ez zen agindua, jakina (3).

1. «Gauza jakina da erlijio liburuek, elizgizonek eginek, osatzen dutela orainsu arte behintzat, euskal literaturaren zatirik handiena ... jakina da erlijio liburuek ditugula batez ere ugari. Eta horrek bere arrazoia badu. Liburuak gehienbat behar edo premiaren bati erantzuteko agertzen dira eta irakurlerik izango ez duen libururik ez du inork ere egin nahi izaten. Hemen zerbaiten beharra baldin bazegoen, horrena zegoen» (Mitxelena, Koldo, 1988, EIG IV, Klasikoak 24, EEE, Elkar, Zarautz, 64-65 or.).

2. Zehatzago, jaiegunetan mezetan pulpitutik sermoi gisa irakurtzeko Dotrina; hurrengo kapituluari zabalago ikusiko dugun legez.

3. Lehen Dotrinak Ahaide Nagusien arteko borrokek sortutako nahasmenduan sustraituriko gizartearen erabateko aldaketaren ondoren hasten dira loratzen, hots, Batzarre Nagusiek Ahaideok erro-errotik menderatu ostean. Gure Ahaide Nagusien liskar eta sarraski grinatsuak baretu eta Herrialdeak Batzarreen eskumeneko bilakatzean, bake-giroa nagusitzen da Euskalerrietako alor orotan. Hementxe kokatu behar da euskal literaturaren sorrera; baita Kristau-Dotrinena ere. (Ikus, Estornes Lasa, Bernardo, 1978, «*Primeras traducciones bíblicas*», EGIPV, Literatura I, Auñamendi, Itxaropena, Zarautz, 89-92 or.).

«Eliza katolikoa mila eta seirehun ingurutik aurrera behintzat dotrina eta gainerako erlijio gauzak irakasteaz arduratzen da, eta arduratzen denez gero, badaki neurri handi batean bertako hizkuntzan irakatsi behar dituela gauza horiek, euskaraz alegia» (Mitxelena, 1988, aip. ob., 65 or.).

«Si un hecho en la historia moderna ha tenido una profunda repercusión en Vasconia, éste es el Concilio de Trento ... Se toman entonces medidas sistemáticas para que los sacerdotes se ocupen de una manera regular y efectiva de la instrucción religiosa de los fieles, actividad que hasta esas fechas parecen haber tenido muy abandonada en muchos lugares. Los obispos de Calahorra y Pamplona se preocuparon además de que tanto la enseñanza del catecismo como la predicación se

Lehenagotik ere izan bide ziren euskalki ezberdinetako eskuizkribuak, baina gaur egun ezagutzen diren Dotrina zaharrenak XVI. mendearen erdialdetik aurrerakoak ditugu. Etxepare eta Leizarragaren mendean, Euskalerrian inprenta sartzearekin, baditugu hiru bat, Nafarroan (Hego eta Iparrean) eta Bizkaian:

Denetan zaharrena, Sancius de Elso fraileak, jatorriz ipar-naparrak, goi-nafarreraz egindako «Doctrina Christiana ...en castellano y vascuence» (Lizarrala Iruñea?, 1561). Tamalez, ez da ale bakar bat ere kontserbatzen (4).

Hurrena, hamar urte geroago, Beskoitzeko Joannes Leizarraga, artzai kalbinistak Joana Albret, Nafarroako Erreginaren aginduz prestatutako «A.B.C. edo Christinoen instructionea» (Rochelle, 1571). Iparraldeko euskalkiez osaturiko euskara 'bateratu' antzeko landu, kultoan (5).

Hirugarrena, mendearen azkenaldera, Juan Perez Betolaza (edo Ostolaza) doktoreak, gorago aipatu Pedro Manso, Kalahorrako apezpikuaren aginduz bizkaieraz egindako «Doctrina Christiana en romance y basquenge» (Bilbo, 1596) (6).

XVII. mendean, Axular eta 'Sarako Eskola'ren garaian, Iparralde, Nafarroa zein Bizkaikoez gain, Gipuzkoako lehen pare bat ere baditugu:

1609 aldera, Martin Yañez Arrieta, Azpeitiko maisuak Jerónimo Ripalda jesuitaren gaztelerazko «Catecismo, y exposición breve de la Doctrina Cristiana» argitaratu berriaren gipuzkerazko itzulpen-moldaketa egin zuen; ezin izan zuen, ordea, argirik ikusi, Batzarre Nagusiek diru-laguntza (2200 erreal edo 200 dukat) «No ha lugar» hotz batez ukatu ziotelako (7). Honela, gipuzkerazko lehen liburua gerta zitekeena gabe geratu ginen euskaldunok.

Estebe Materre frantziskotar frantsesaren erdi Dotrina, erdi Debozio-liburudun «Doctrina Christiana» lapurteraz (Bordele, 1617). Atzerritar honek Axularrerekin harreman handia izan bide zuen; honekin ikasi zuen euskara, eta beronek aztertu zuen haren lana eta argitaratzeko oniritzia eman (8).

Juan Beriain, Uterga eta Olandaingo apaizaren «Doctrina Christiana escrita en romance y bascuence, lenguajes de este Obispado de Pamplona» (Iruñea, 1626). Lapurteraren oso antzeko goi-nafarreraz. Beriainen garaian euskarak bizirik zirauen Iruñaldean; Tafallaraino hedatzen omen zen gure hizkuntza (9).

hicieran en lengua vernácula: constituciones sinodales y mandatos de visita establecen que todos los cristianos deben llegar a saber 'en su propia lengua' la doctrina cristiana ... Desde finales del siglo XVI ... queda abundante constancia ... del constante celo con que las autoridades eclesiásticas velaron porque la numerosa población del país que no conocía prácticamente otra lengua que la vasca fuera instruída en ésta y no en otra» (Michelena, Luis, 1988, «Historia de la Literatura Vasca», Erein, Zarautz, 61-63 or.).

Ikus, halaber, Villasante, Fr. Luis, 1979, «Historia de la Literatura Vasca», Aranzazu, 122 zka.

4. Villasante, 1979, aip. ob., 59 zka., 12 ohar. (Aurrerantzean, gehiegizko luzamenduetan ez ibiltzearren, Dotrina bakoitzaren aipamen bibliografiko bakarra egingo dugu; kapituluaren amaieran eskainiko dugu bibliografia zabalagoa).

5. Villasante, 1979, aip. ob., 45 zka.

6. Villasante, 1979, aip. ob., 59 zka.

7. Michelena, 1988, aip. ob., 64-65 or., eta Insausti, S. (S.I.T. laburdurak), 1958, «El primer catecismo en euskera guipuzcoano (?)», 'BAP' XIV, 78-83 or.

8. Villasante, 1979, aip. ob., 62 zka.

9. Villasante, 1979, aip. ob., 95 zka.



Mutiloa.

Baionako Joannes Olze apezpikuak «Pregarioac» dotrinatxo bertsoan argitararazi zuen, lapurteraz eta behe-nafarreraz (Bordele, 1651) (10).

Silvain Pouvreau, Bidarteko apaiz frantsesaren «Guiristinoaren Dotrina», Richelieu kardinal eta politikoko frantses ospetsuaren «L'Instruction du Crestien» (Poitiers, 1621) lapurteraz (Paris, 1656) (11).

Martin Otxoa Kapanaga, Mañariko abade eta Durangoko maisuaren «Exposición breve de la Doctrina Christiana», Ripaldaren bizkaierazko itzulpena (Bilbo, 1656). Honek Arrieta azpeitiarrarenak baino zori hobea izan zuen (12).

1660 inguruko bizkaierazko anonimo bitxia: «Viva Iesus I.H.S. y sea para honra, y Gloria suya este Compendio, ó suma breve de la Doctrina Christiana»; sarrera salbu, euskara hutsean (13).

Arnauld-François Maytie, Olorueko apezpikuaren manuz: «Pronus singulis diebus Dominicis ... post Evangelium populo legendus» (1676) zubereraz. Izenburuak dioen bezala, dotrinatxo honek baduke Gerrikorenaren antzik; biok ere igandeetako mezetan, Ebanjelio ostean, pulpitutik herriari irakurtzeko asmoz moldatuak izaki; mutiloarrarena askoz ere zabalagoa bada ere (14).

10. Villasante, 1979, aip. ob., 89 zka.

11. Villasante, 1979, aip. ob., 79 zka.

12. Villasante, 1979, aip. ob., 96 zka. (Kapanagaren bizkaiera arkaikoa sakon aztertu zuten Eguzkitza eta Azkue euskaltzainek; honek bere «Morfología Vasca»n 'hizkuntz autoritate' lez azaltzen digu).

13. Michelena, 1988, aip. ob., 65 or., eta 1954, «Un catecismo vizcaíno del siglo XVII», 'BAP' X, 85-95 or.

14. Villasante, 1979, aip. ob., 89 zka.

J.B. Amilletaren 'Antzuolako Dotrina' lez ezaguna dena (1678 aldera) (15).
Nikolas Zubiaren «Doctrina Christiana en basquence» bizkaieraz (Donostia, 1691) (16).

Baionako Leon apezpikuaren manuz: «Doctrina Christiana» (Baiona, 1693 aldera) lapurteraz (17).

Eta mendearekin amaitzeko, Athanase Belapeyre apaizaren «Catechima laburra» (Pabe, 1696) zubereraz moldatutako dotrinatxo (18).

XVIII. mendean, M. Larramendi jesuita andoaindarraren eraginaz gipuzkera literarioak indar hartzen duenean, askoz ere ugariagoak ditugu Kristau-Ikasbi-deak, orijinalak zein itzulpenak; (hauek, batez ere, Asteterenak).

Gaspar Astete jesuitaren gaztelerazko «Doctrina Cristiana» (1598), Europako hizkuntza guztietara itzulitako Dotrina famatuaren itzulpen eta moldaketa ugari, ia-ia konta ezin ahala, egin ziren euskaraz ere, hasi XVII.ean eta hiru mende luzetan zehar. Lehena, jatorrizkoa azaldu eta oso urte gutxira, Iruñean, 1609an; gaur erabat ezezaguna. Asteterenaren euskal bertsoetan denetik daukagu: lan luze zein laburrak, euskara txukunean edota traketsagoan ... Gerrikoren obrak ere badu Astete zaharraren eragina, berak maiz azpimarratzen duen bezala; lanaren egituraketa eta banaketan, batez ere (19).

Jacques Maytie, Olorueko kalonjearen «Catechima», Joseph Revol apezpikuaren manuz egina, zubereraz (Pabe, 1706) (20).

Gipuzkoa aldera hurbilduz, Goierri, «Doctrina Christianaren Explicacioa, Villa Franca Guipuzcoaco onetan euscaraz itzeguitendan moduan. Erri noble onen instanciaz escritu ceban beraren Vicario, eta capellau D. Joseph Ochoa de Arinec, Pueblo onetaco Aurray iracasteco. Dedicatcen dió Erri Ilustre oni Cartilla au. Eta Villa Francaco Erriac consagratcen dió bere Patrona Soberana Maria Santissima Assumpciocoari» (Donostia, 1713). 'Villafrankako Dotrina' hau erdal eta latin maileguz josia eta euskara trakets samarrean omen dago; haatik berau dukegu, ziurrenik ere, gipuzkerazko libururik zaharrenetakoa (21).

Martin Arzadun, Durangoko abadearen «Cristinaubaren dotriniaren explicacina eusqueras» (Gasteiz, 1731). Oso dotrina ezaguna eta zabaldua, Bizkaitik at ere (22).

Baionako Piarres Guillaume Lavieuxville apezpikuaren manuz: «Guiristinoen Doctrina laburra haur-gastei irakhasteco» (Baiona, 1732?) eta «Bayonaco Diocesaco bi-garren Catichima» (Baiona, 1733), lapurteraz (23).

15. Michelena, Luis, 1987, «Orotariko Euskal Hiztegia» I, Euskaltzaindia, Desclée de Brouwer/Mensajero, Bilbao, (Referencias Bibliográficas, XXIII or.).

16. Michelena, 1988, aip. ob., 65 or.

17. EGIPV, Bibliografía II, 292 or., eta III, 21 or.

18. Villasante, 1979, aip. ob., 89 zka.

19. Gaspar Astete jesuita (Salamanca, 1537-Burgos, 1601); latin irakasle, nobizio-maisu, konfessore, sermoilari, Burgos eta Villimarko erretore. (Castells, Carmen, 1977, «Astete», EGIPV, Diccionario III, Añamendi, Itxaropena, Zarauz, 161 or., eta Sorarrain, Genaro de, 1984, «Catálogo de Obras Euskaras», Colección Bibliográfica, Serie Mayor, Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbao, 243 zk.ko aipamena).

20. Sorarrain, 1984, aip. ob., 180 zka.

21. Villasante, 1979, aip. ob., 122 zka.

22. Villasante, 1979, aip. ob., 123 zka.

23. Villasante, 1979, aip. ob., 116 zka.

Frantzisko Eleizalde jesuitaren «Apecendaco Doctrina Cristiana uscaraz» (Iruñea, 1735). Doctrina hauxe dukegu, Lizarragarenarekin batera, hegoaldeko goi-nafarreraren lekuko bakanetakoa (24).

Irazustarena, euskara kaskarrean (?) badago ere, bere garaian erabiliena eta edizio ugari ezagutu dituen: «Doctrina Christiana Eguinzuana erdaraz Aita Gaspar Astete, Jesuitac. Ipinidu Eusqueraz Don Juan de Irazusta, Erretore Hernialdecoa» (J.J. Martinez, Iruñea, 1739). Konta ezin ahala edizio izan dituen eta gureganaino iritsi den Doctrina ospetsu hauxe da, hain zuzen ere, Gerrickok ezagutu zuena eta bere obran maiz aipatzen duen 'Doctrina chiquia' edo 'Cartilla' (25).

Manuel Larramendi (?)/Sebastian Mendiburu (?) jesuitek burututako Asteteren itzulpena: «Icasbidea. Christauen doctrina azalqueta laburraquin galdeaz, ta eranzuteaz» (Burgos, 1747). Bere euskara ederra gorabehera, ez zuen Irazustarena baztertzea lortu, herriak honenarekin jarraitu baitzuen denbora luzean (26).

Agustin Kardaberaz jesuitak ere egin zuen Asteteren itzulpen pare bat: «Christauaren doctrina, Aita Astetec erdaraz, eta guero ...» gipuzkeraz (Donostia, 1760?) eta geroxeago, «Doctrina Cristiana edo Cristiñau doctrinea, bere declaraciño laburra gaz» bizkaieraz (Iruñea, 1762 aldera). Gerrickoren obrak badu Kardaberaz handiaren eragina, hurrengo kapituluan ikusiko dugun legez (27).

Tartean badira beste batzuk ere: Berrero Goierrin, Zegaman eta Olaberrian erabili zen Martin (Ignazio) Urteagaren? 1741eko? «Doctrina christianaren explicacioa Cegamaco Escolan (Gaztelinaz ostean) eracustendan moduan ...». Hauxe dukegu, Ordiziako Jose Otxoa Arinenaren hurrena, Goierriko bigarren Doctrina (28). Luis-Maria Suarez d'Aulan, Akizeko apezpikuak agindutako «Catichima, edo Fediaren eta Guiristino eguien explicacione laburra» (Pabe, 1745 aldera) (29). Frantzisko Xabier Larizen «Cristau Dotrinaren esplicacioa aur-enzat ta andienzat» elebiduna (Madrid, 1757)(30). Eta A. Agirre, Oikiako erretorearena, 1759koa (31).

24. Villasante, 1979, aip. ob., 123 zka.

25. Villasante, 1979, aip. ob., 123 zka. (Jon Bilbaok bere EGIPV, Bibliografía IV, 410 or., berrogeita hamar ediziotik gora jasotzen ditu). (Ikus hurrengo oharra).

26. Villasante, 1979, aip. ob., 123 zka.

Doctrina honen autoreaz duda-mudak daude: Lakarra, Joseba Andoni, «*Burgosko 1747ko Doctrina*», 1986, 'ASJU' XX-2, 533-594 or., eta 1987, 'ASJU' XX-1, 277-317 or. Eta Tellechea Idígoras, José Ignacio, 1967, «*Traducción al euskera del catecismo del P. Astete. Larramendi y Mendiburu*», 'Euskera' XII, 301-314 or.: Larramendik, Mendibururen itzulpen berriaren aurrean, Irazustarena hobesten du: «En Guipúzcoa ... ya tienen modernamente traducido el P. Astete por el Rector de Hernialde, y haviéndose acabado la impresión 1a., ha hecho otra segunda, y en los lugares y casas saben el Astete en bascuence y no tiene más defecto esta traducción de Hernialde que no ser tan limpio como pudiera su bascuence ... será inútil la impresión (Mendibururena, jakina), siendo ya tan recibida y común la traducción de Astete por el Rector de Hernialde, que en poquísimo tiempo ha despachado ambas ediciones. El Astete está en uso y no se admitirá ya otro Catecismo ...». Eta Tellecheak iruzkin hau egiten du: «La versión de Irazusta era para Larramendi como un 'textus receptus', cuya mutación, a pesar de sus defectos, había de ser muy pensada» (302-303, 308, 310-311 or.).

27. Villasante, 1979, aip. ob., 123, 155 zka.

28. Ondarra, Frantzisko, 1984, «*Zegamako Doctrina Christiana (1741)*», 'ASJU' XVIII-2, (3-62 or.). (Baliteke Irazustaren 1739koa baino zaharragoa izatea ere).

29. Villasante, 1979, aip. ob., 116 zka.

30. Villasante, 1979, aip. ob. 123 zka.

31. Michelena, 1987, aip. ob., XXIV or.

Bartolome Olaetxea, Laukarizko abadearen «Dotrina Cristiana» (Gasteiz, 1763 aldera). Bizkaiera herrikoian; beharbada Kardaberazi jarraituz. Bizkaialdeko Dotrinarik erabiliena, zabalduena, estimatuena oso berandu arte (32).

Amikutzeko, ekialdeko behe-nafarreraz «Catichima», Charles Auguste Le Quien de Laneusville, Akizeko apezpikuaren manuz inprimatua (Akize, 1780 aldera) (33).

Juan Antonio Ubillos frantziskotarrak Klaudio Fleury apaiz frantsesaren «Catéchisme Historique» itzuli-moldatu zuen: «Christau Doctriñ berri-ecarlea, Christauari dagozcan Eguia sinis-beharren berria dacarrena» (Tolosa, 1785). Bi parte ditu: Historia Sakratua eta Dotrina. Euskara dotorea erabili nahian edo, Larramendiren Hiztegiari jarraitzen dio, neurri apalean bada ere. Gerrikoren obran ere somatzen da Ubillosen eragina (34).

XIX. mendean ere, beste guztien gaindik, Asteteren itzulpenekin jarraitzen dugu.

Juan Antonio Mogel, Markinako abadeak pare bat utzi dizkigu: «Cristinaubaren Eracuspena edo Doctrina Christiania» 1800ekoa, 'Elgoibarko Doctrina' bezala ezagutzen dena eta «Cristinaubaren Jaquinvidea, aita Astete-c erderaz eguina ...», Busturiako parrokiatarako egokitua (Gasteiz, 1805), bizkaiera ederrean burutua eta edizio ugari izan dituena. Bestalde, Mogelen Dotrinenen laburpen polit bat ere egin zen: «Cristiñau Doctriña bere explicaciõ laburragaz itaune, ta eranzueracaz ... Bizkaitar barrucenzat» (Gasteiz, 1802?) (35).

Pedro Antonio Añibarro frantziskotarraren «Vici Bedi Jesus. Cristau Doctriña, ceñetan eracusten baitire gure Fede Sanduco gauzaric bearrenac ... Nafarroaco euscaran» (Iruñea, 1802-1803)(36).

1803an Joakin Lizarraga, Elkanoko apaizak ere idatzi zigun «Doctrina Christioarén Catechima ... Fede Christioarén gáin», artean bizi-bizirik zirauen Iruñaldeko euskara ederrean. Oraintsu arte argitaratu gabe egon da eremurik zabalenerako euskalkiko obra interesante hau (37).

«Francesen Imperadorearen eremuetaco Eliça gucietacotz eguina-den Catichima. J.J. Loison, Bayonaco Jaun Apezpicuaren manuz imprimatua, haren Diocezan bakharric iracatsia içateco» (Baiona, 1806?, 1807?) (38).

Durangoko Pedro Astarloa frantziskotarra (1751-1821; Gerrikoren garaikide, beraz) «Urteco Domeca guztijetaraco verbaldi icasbidecuak, ceinzubetan azalduten dan Erromaco Catecismua» bi libururen egilea dugu (Bilbo, 1816-1818). Obra honen xedeak Gerrikorenaren antz handia du; biotan apaizei igande-

32. Villasante, 1979, aip. ob., 124 zka.

33. Michelena, 1987, aip. ob., XXIII or.

34. Villasante, 1979, aip. ob., 164 zka.

Frantzisko Ignazio Lardizabal, apaiz zaldibiarak Historia Sakratu osoa idatziko digu: «Testamentu Zarreco ta Berrico Condaira ...» (1855); eta Gerrikok berak ere bere Dotrinen badakar Idazteuaren laburpen bat, lehen tomoko 11-34 dotrinetan. Bestalde, gure mutiloarrak baditu argitaratu gabeko eskuizkribuen artean Historia Sakratuari buruzko orri gutxi batzuk.

Claude Fleury frantsesa (1640-1723), abokatu, apaiz, Luis XIV.aren konfessore, Frantziako Akademiako kide, «Catéchisme Historique» (Paris, 1679). Historia Sakratu/Doctrina hau Bergarako Mintegian testu lez erabili zuten. Bestalde, Ubillosek harreman handiak izan zituen Peñafloidako kontearekin eta Azkoitiko Zalduntxoekin. (Michelena, 1988, aip. ob., 107 or.).

35. Villasante, 1979, aip. ob., 235 zka.

36. Villasante, 1979, aip. ob., 243 zka.

37. Villasante, 1979, aip. ob., 265 zka.

38. Sorarrain, 1984, aip. ob., 410 zka.



Mutiloko eliza eta ostatua.

etako sermoietan irakurtzeko Kristau-Dotrinaren azalpenak eskaintzen baitzaizkie. Gerrikoren garaikide honek goierritarra hil aurretxoan argitaratu zuen bere obra (39).

1820 aldera Zaraitzun azaldutako Dotrina anonimo bat (40).

Juan Kruz Etxeberria, Zarauzko komentuko frantziskotarra «Cristau Doctrina euscaraz» en egilea dugu (Tolosa, 1822) (41).

«Catichima edo Fedea laburzki Paul-Therése David d—Astros, Bayonaco Jaun Apezpicuaren manuz imprimatua» (Baiona, 1823). Lapurterazkoa zubererara 1872an itzuli zen (42).

Baztango Valleco Parroco batec: «Cristau-Doctrina Aita Gaspar Astete erdaraz escriptua eta orai escuaraz publicatcen duena ...» (Iruñea?, 1826?) (43). D. Francisco Echeverri Valcarlosco Bicaríoac: «Guiristino-Doctrina Aita Gaspar Astete jesuitac erdaraz escriptua. Escuararat itzulia ...» 1833koa (44). Eta Iruñeco Diocesaco Jaun Vicario batec: «Guiristino-Doctrina Aita Gaspar Astete Jesuitac erdaraz escriptua. Escuararat itzulia ...» (Baiona, 1837) (45). Nafarroan egindako Asteteren itzulpenak hirurok.

39. Villasante, 1979, aip. ob., 258 zka.: «El contenido de la obra es la exposición por extenso de la Doctrina Cristiana o Catecismo, junto con la exhortación moralizadora dirigida a los oyentes ... Todo ello distribuido por los domingos del año y tomando pie del Evangelio dominical ...».

40. Michelena, 1987, aip. ob., XXIV or.

41. Villasante, 1979, aip. ob., 275 zka.

42. Sorarrain, 1984, aip. ob., 469 zka.

43. Sorarrain, 1984, aip. ob., 234 zka.

44. Michelena, 1987, aip. ob., XXIV or.

45. Sorarrain, 1984, aip. ob., 235 zka.

Laudiyoco Abade Jaunen encarguz eta costuz :«Cristiñau Doctrinia Aita Gaspar Astetec escribedua ... Orain eusquerara biyortua, urteiten dau arguitara cerbait gueiyagoturic ...» (Bilbo, 1826) (46). Busturico Vicariaco Abade Jaunen encarguz: «Cristinau Doctrinea bere esplicacino laburragaz ...» (Bilbo, 1849)(47). Eta urte bereko A. Burgoaren «Eusquerasco Doctrinie Otsandijoaco escolan lenao usetan san ...» (Bilbo, 1849) (48).

Tartean, 1828ko Makirriainen eskuizkribua (49).

Gregorio Arrueren «Cristauaren Doctrinaren jaquinbide azaldua, edo Astete-ren esplicacioac ...» (Donostia, 1858). Gerrikorenaren urte berekoa (50).

Gure **Jose Ignazio Gerriko** goierritarraren «**Cristau Doctrina Guztiaren Esplicacioaren Sayaquera ...**» 'sermoi-dotrinak' liburu mardula ere garai honetan kokatu behar dugu; 1805erako amaitua bazuen ere, ez zen 1858 arte publikatu ahal izan eta. Doctrina honek ere badu Asteterenaren eragina. Bestalde, Gerrikok Irazustarena ere eskuartean darabil.

J.J. Gallarmendi, Gatzagako abadearen «Cristauen Dotriñaco Catecismoa» (Tolosa, 1864) (51).

F.M. Gorostegi eta J.E. Zelaiaren «Cristauaren Dotriña, Aita Astetec erderaz ... eta Guipuzcoaco Arciprestazgo Nagusico Apaicen Batzarre edo Congregacioac 1855-garren urtean erabaquizuan becela, berriro euscarara itzulia» (Gasteiz, 1867). 1855. urte horretan erabaki zen Gerrikoren obra argitaratzea (52).

Damaso Legazen «Cristauaren Icasbidea Aita Gaspar Astetec eguina, cein centzatua eta berretua aguertzen da euscara biurtua» (Iruñea, 1880). Arizkun aldeko nafarreran. Ordurarteko Dotrinarik osatuena (Gerrikorena salbu). Euskara nahiko txukunean (53).

Jose Erasun, apaiz naparraren «Doctrina Cristauaren Catecismoa» (Iruñea, 1881). Aita Antonio Maria Claret, Kataluniako jesuita santuaren Doctrinaren itzulpena (54).

B. Garitaonaindiaren «Cristiñau Dotriñaco gausaric biarrenen icasbide laburtua» (Tolosa, 1889) (55).

Laurent Diharassarry, Kanboko erretore saratarraren «Guiristino Leguea laburzki» (Baiona, 1892) dukegu, Laffiteren esanera, egundainoko euskarazko Doctrinarik onena, ederrena (56).

R.M. Azkueren itzulpen hirukoitza: «Kristinauen ikasbide laburtua Baionako Elizterikoa Lapurrdiko euskeratik Bizkaikora biurtua ... al castellano ... Guipuzkoakora itzulia» (Baiona, 1897). Baionako Eliz Barrutiko Doctrina 'ofiziala' bizkaiera, gatzelera eta gipuzkerara itzuli zuen (57).

46. Sorarrain, 1984, aip. ob., 237 zka.

47. Michelena, 1987, aip. ob., XXIII or.

48. Sorarrain, 1984, aip. ob., 645 zka.

49. Michelena, 1987, aip. ob., XXIV or.

50. Villasante, 1979, aip. ob., 305 zka.

51. Sorarrain, 1984, aip. ob., 239 zka.

52. Sorarrain, 1984, aip. ob., 240 zka.

53. Sorarrain, 1984, aip. ob., 241-242 zka.

54. Michelena, 1987, aip. ob., XXIII or.

55. EGIPV, Bibliografía II, 292 or.

56. Villasante, 1979, aip. ob., 194 zka.

57. EGIPV, Bibliografía II, 291 or.

Andres Iturzaeta, Otxandioko abadearen «Aita Gaspar Asteteren icasbide cristinaucorraren Azalduera laburrac» (Durango, 1899). Bizkaiera herrikoi jatorrean (58).

«Cristabaren Doctrina. Aita Astetec erderaz compoundua zuenaren erabera euscararat bigurtua» anonimoa (Iruña, 1899) (59).

Eta abar pilo bat.

Aipatu ditugun guztioz aparte, badira beste era bateko Dotrinak ere: Luis Luziano Bonaparte, printze ingeles euskaltzalearen enkarguz eta babespean mendearen erdialdetik aurrera egindakoak edota birrargaratutakoak, alegia. Guztiak jasotzeak luze joko ligukeenez, hona hemen hiruzpalauren aipamen soila:

«Doctrina Cristiana en el vascuence de Llodio, provincia de Alava» (Londres, 1858). Gerrikoren Dotrinaren urte berean (60).

«La doctrina cristiana traducida al vascuence, dialecto vizcaíno, variedades de Marquina, Bermeo, Arratia, Centro y Ochandiano» (Londres, 1862-1864). Jose Antonio Uriarte frantziskotarra eta Bonaparteren laguntzailerik handienetakoa dugu itzulpenon egilea (61).

Klaudio Otaegi, Hondarribiko maisu zegamarrak (Lore-Jokoetako poeta, bertsozale eta epaimahaiko, garaiko aldizkarietako ('Revista Euskara' eta 'Euskal Erria'ko) kolaboratzaile, kronista, itzultzaile, pedagogo ... goierritar polifazetiko honek) ere egin zuen Asteteren zenbait itzulpen bere koinatu Bonaparterentzat: Zegama, Hernani, Azpeitia, Irun, Ordizia eta Tolosako azpieuskalkietan jarri zuen Kristau- Ikasbidea, 1863-1866 urte bitartean (62).

Garraldako Pedro Jose Minondo maisuak eta Aribeko Martin Elizondok aezkerara itzuli zuten Asteteren Dotrina; Eaurtako Pedro Jose Sanper apaizak zaraitzerara, eta Bidankozeko Prudentzio Hualde apaizak erronkarierara. Hiruron lanak batera argitaratu zituen Bonapartek Londresen, 1869an, «Le petit catéchisme espagnol du P. Astete, traduit en trois dialectes basques ...» izenburupean (63).

Urdazubiko Bruno Etxenikek, berriz, Elizondoko azpieuskalkian jarri zuen Dotrina (64).

Lan hauen helburua, haatik, bestelakoa da: Bonaparteren kolaboratzaileok, jakina denez, euskalkien ikerketan dihardute jotake.

Ikusi dugun bezala, Kristau-Ikasbide, orijinal nahiz itzulpen edota moldaketa ugari izan dugu XVI-XIX. mende bitartean. Nahasmendu eta sakabanaketa hau nolabait konpondu nahian, 1912an Zornotzan sortu zen 'Jaungoiko-zale' apaiz-elkarteak, Zirilo Arzubiaga, Otxandioko abadeak gidaturik, euskal Kristau-Ikasbide bateratu (Herrialde bakoitzerako bat) bakarraren alde ekin zion gogo biziz. Gasteizko gotzai Melo y Alcalde zelarik, lehenik, Astete erdalduna osatu eta bateratu zen; eta, gero, hau oinarritzat harturik, bi edizio egin ziren 1921ean: Bizkaierazko itzulpen-moldaketa Juan Bautista Eguzkitzak egin zuen («Kristiñau-Ikasbidea»), eta gipuzkerazkoa («Kristau-Ikasbidea») Manuel Lekuonak. Beste

58. Villasante, 1979, aip. ob. 315 zka.

59. Michelena, 1987, aip. ob., XXXII or.

60. Sorarrain, 1984, aip. ob., 740 zka.

61. Villasante, 1979, aip. ob., 295 zka.

62. Aranburu, Pello Joxe, eta beste batzuk, 1994, «*Klaudio Otaegi (1836-1890)*», Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 3. kapitulu.

63. Sorarrain, 1984, aip. ob., 928 zka.

64. Michelena, 1987, aip. ob., XXVI or.

Eliz Barrutietan (eta euskalkietan, noski) antzerako lanak burutu ziren gure mende honen haseretan (65). (66)

Gure literatura zaharreko Dotrina batzuen aipamena egin ostean, ekin diezaiozun zuzen-zuzen Gerrikoren obraren gorabeherak, edukina, helburuak, ezau-garriak, eraginak, euskara eta idazkera arakatzeari.

65. Villasante, 1979, aip. ob., 444-445 zka.

66. Kapitulu hau moldatzeko segidako bibliografia eta testuez baliatu gara, besteak beste:

— Azkue, Resurrección María de, 1984, «Diccionario Vasco-Español-Francés», Euskaltzaindia, Bilbao, (Abreviaturas de las obras citadas ..., 149-151 or.).

— EGIPV, Auñamendi, Itxaropena, Zarauz, Bibliografía II, 291-293 or., III, 21, 41 or., eta IV, 157, 410, 527-529 or.

— EGIPV, Auñamendi, Itxaropena, Zarauz, Literatura I, 89-92, 149-155, 159-160, 181-182, 202-204, 206-208, 219, 227-231, 242-248, 254, 256-263, 267-275, 290-292, 295, 302-304, 306, 363-364, 410, 493-495, 515, 604, 636, 651, 666, 683, 717 or., eta II, 82-83, 92-95, 128, 139 or.

— Etxenagusia, Karmelo, 1969, «Euskal Idazleen Lorategia», Izarra, Donostia, 27-31 or.

— Michelena, Luis, 1987, «Orotariko Euskal Hiztegia» I, Euskaltzaindia, Desclée de Brouwer/Mensajero, Bilbao, (Referencias Bibliográficas, XVII-XLIV or.).

— Michelena, Luis, 1988, «Historia de la Literatura Vasca», Erein, Itxaropena, Zarautz, 52-54, 61-65, 72-75, 105, 107, 116-118 or.

— Moco-roa, Justo María, 1990, «Ortik eta Emendik. Repertorio de Locuciones del habla popular vasca» I, Eusko Jaurlaritza, Labayru/Etor, (Fuentes Bibliográficas ..., 41-47 or.).

— Retana, José María Martín de, 1976, «Diccionario Retana ...» I, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, (Bibliografía, IX-XXIX or.).

— Sarasola, Ibon, 1984, «Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia» I, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia, (Sarrerako Bibliografian, 43-45 or.).

— Sorarrain, Genaro de, 1984, «Catálogo de Obras Euskaras ...», Colección Bibliográfica, Serie Mayor, Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbao, 30, 37b, 49, 75, 77, 92, 114a eta b, 116-118, 150, 172, 174, 180, 184, 202, 205-206, 208, 221, 229-243, 264, 283, 332, 410, 438, 462, 469, 645, 740, 743, 795, 805, 928, 1389 zka.

— Villasante, Fr. Luis, 1979, «Historia de la Literatura Vasca», Aranzazu, oin-oharretan jasotako zenbakiak.

— Vinson, Julien, 1983, «Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque», Colección Bibliográfica, Serie Mayor I* eta I***, Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbao, 2, 4.2, 6, 11, 13, 23-26, 36, 41-45, 52, 54-55, 57, 60-73, 84, 115, 126, 171c, 191, 304, 308, 324, 395, 718 zka.

Bibliografia batetik bestera badaude aldaketa eta diferentziatxo batzuk: Obra zaharron titulu- idazkeran, argitaratze-leku eta datetan, etab.

IV. LANA: «CRISTAU DOCTRINA ...» (1805/1858)

Goierriko apaiz euskaltzale honek «CRISTAU DOCTRINA GUZTIAREN ESPLICACION SAYAQUERA, euscarazco platica edo doctrinetan partituro, Don José Ignacio de Guerrico, Mutiloaco Beneficiaduac eguiña ...» 1100 orrialde inguruko liburu lodi, trinkoa (bi tomotan banatua) idatzi zigun, 1805 aldera (argia 1858 arte ikusi ez bazuen ere).

1. Argitaratze-arazoak

Lana argitaratu ahal izateko egundoko arazoak izan zituen: arazo ekonomikoak batetik; zentsura-arazoak, bestetik.

1805ean, lana jadanik burutua (1), Iruñeko apezpikuaren pean zegoen Gipuzkoako Artziprest Barrutiko Eliz Batzorde edo Kongregazioari aurkezten dio. Honek, uztailaren 9ko Tolosako Batzarre Arruntean, Gerrikoren lana ordezkarietaz aldu ondoren, Jose Felix Amundarain (2) eta Jose Jabier Aierbe, Mutiloa eta

1. 1803an, artean liburua idazten ari zen Gerriko: «... gure Erregue Jaun Carlos laugarrenac apirillaren amargarren egunean, milla zortzireun, eta irugarren urtean, emandu legue berri bat ...» (II, 570 or.; ia-ia lanaren amaieran).

2. Jose Felix Amundarain Mujika zegamarra 1755-XI-20an jaio zen. Gerrikoren Parroko, honen liburuaren aztertzaile eta beronen testamentuko albazectako bat izan zen. Hamahiru urtez goi-mailako ikasketak egina: Iruñeko Santiago Unibertsitatean, Filosofia; Oñatiko Unibertsitatean, Legeak eta bertako Akademiko, Legeetan Batxiler eta Kanoi Sakratuetan Batxiler, Lizentziatu, Doktore eta irakasle; Valladolidko Unibertsitatean, Kanoi Sakratuak eta bertan Batxiler eta irakasle; halaber, hiri honetako San Lorenzo Parrokiako apaiz; Madrilgo San Isidoro Erret Akademian, Akademiko eta Diputatu; Erret Kontseiluetako Abokatu-ikasketak; 1783an (27 urterekin) San Ildefonso Erret Kolejioko Doktore; eta 1784az geroztik, Zegaman apaiz. Gerrikok bere liburua aurkeztu zuen urtean (1805ean) 49 urte zituen eta Mutiloko Parroko zen (Ikus, Lazkaoko beneditarren komentuko Liburutegian gordetzen den «Relacion de los Meritos, Grados y Exercicios Literarios del Doctor Don Joseph Felix de Amundarain y Mugica ...») ('curriculum vitae' ren antzeko) idazkitxoa).

Arruek, berriz, hauxe esaten digu: «Gerriko-k izan zituan jarraitzalle batzuek. Bat, ... Mutiloan bertan Erretore izandutako Jose Felix Amundarain. Oraindikan Mutiloa-ko Erretore-etxean gordetzen da milla da zortzireun da ogei ta laugarren urtean Amundarain onek argitaratzeko asmoz gertu duan sermoi-xorta polit bat» (Arrue, Antonio, 1956, «Gerriko», 'Egan', 3-4, 42 or.). Egun Lazkaoko aipatu Liburutegian aurkitzen dira sermoi-sorta hauek. Eskuartearen erabiltzeko parada izan dugu eta benetan penagarria iruditzen zaigu oraindik argirik ikusteke egotea; gure uste apalean, literatur baliorik badute; gure klasikoaren artean jartzeko modukoa ere badela esaten ausartuko ginateke.

Idiazabalgo erretoreak hautatzen ditu obra irakurri, aztertu eta hurrengo bilerarako onespentxostena presta dezaten. Bi apaizok (bat, Gerrikoren parroko) zintzo eta zehatz betetzen dute egitekoa, baita hurrengo bileran, 1806-VI-26an, Azpeitian, Gerrikoren 'Dotrina'ren aldeko azalpen beroa egin ere. Eliz Batzarreak ere oso ondo irizten dio lanari, eta lehenbailehen argitaratzearen aldeko agertzen da, 'euskal-herri osoarentzat txit onuragarria eta probetxu handikoa izan daitekeela eta' (Batzarreko Aktan jasotzen den lez) (3). Baina, hara lehenengo arazoa: diruz urri antzean dabilela Eliza eta Donostiako Larreandi eta Tolosako Sosoaga apaizek osatutako Batzordeari Donostia eta Tolosako argitaletxeekin (herri biotan kokatzen ziren Probintziako inprentak) tratuak egiteko enkargua ematen dio, ea hauekoren bat animatzen (ausartzen) den bere kontura inprimatzera edo. Batzordea ibili zen argitaratzaile eskuzabal bila, baina alferrik!

1807-VI-26ko Tolosako Batzarrean Gerrikoren obra argitaratu ahal izateko Gipuzkoako eliztarren artean diru-laguntza emango zukeenik aurki zitekeen eztabaidatu zen, baina «... y si aun de esta suerte la infelicidad de las Circunstancias no permitiese dicha impresión, es gusto que al Autor sele debuelva la obra segun insinua» amaitzen du Akta idazkariak (aipatu Sailean, A, 3, b, 62, 1778-1829).

Bitartean, Gerrikok, bere kabuz, Iruñeko Apezpikutegiko Bikario Nagusiaren Lizentzia lortu zuen, 1808-VIII-20an. Halere, egoeraz etsi samarturik edo, lana itzultzeko erregutzen dio Eliz Batzordeari eta, honela, jabearen eskuetan geratzen da berriro 'Dotrina'.

Ondorengo urteetan, 'Independentziako gerra' eta honen ondorioak zirela eta, alboratua eduki zuen Gerrikok bere lana. 1813an berrekin zion argitaratzekudeaketari, uztailaren 20ko idazki baten bidez Diputazioari baimen zibila eskatuz. Tolosako Artxibo Probintzian gordetzen da eskutitz hau, beronen ertzean Aldundiaren erantzun guztiz lakonikoa agertzen delarik (Ikus gure 3. eranskina) (4).

3. 1805eko Aktan: «Se leyo tambien un memorial del Señor Dn. José Ignacio Guerrico Sr. Beneficiado de Mutiloa, en que dedica al M.I. Clero una obra de dos tomos en 4ª para la Exposición de las quatro partes del P. Astete: y enterados de quanto se expone en el los Señores Procuradores Congregantes dieron Comisión a los Señores Dr. Dn. José Feliz de Amundarain y Lizenciado Dn. José Xabier de Ayerbe, Vicarios de dicho Mutiloa, y Idiazabal, para que Examinen dicha obra en todas sus partes con toda proflixidad y expongan en la primera Congregación su dictamen, para resolver si convendria que el M.I. Clero entre a practicar las diligencias para la impresión» (Donostiako Artxiboan, 'Documentos del Archivo del Clero del Arciprestazgo Mayor de Guipúzcoa' Sailean, A, 3, b, 60, 1778-1829. Gerrikoren txostena, seguru asko, Amundarainek irakurriko zuen).

Eta 1806ko Aktatik: «Se leyo tambien la censura dela obra bascongada doctrinal de Don José Ignacio de Guerrico Beneficiado de Mutiloa dada por los Señores Dr. Don José Feliz de Amundarain, y Lizenciado Don José Xavier de Ayerbe, vicarios de Mutiloa, e Idiazabal. Y reflexionando la utilidad, que desu impresión puede resultar, desea el M.I. Clero, que quanto antes se proceda ála impresión; pero por quanto enla actualidad dicho M.I. Clero se ve agoviado con mil gravámenes, se dio Comision alos Señores Larreandi, y Lizenciado Sosoaga Señores Procuradores Congregantes de San Sebastian, y Tolosa, paraque hablen con los Impresores de dichos Pueblos, y vean si quieren hacer dicha impresión asu Costa, y riesgo, y en caso de que no se arriesguen, se espere a tiempo mas oportuno en que el M.I. Clero G. si pueda correr con dicha Impresión á su cuenta; y que al Autor de dicha obra sele insinue esto, dandole gracias muy expresivas por su Zelo y laboriosidad» (aipatu Sailean, A, 3, b, 61, 1778-1829).

4. Tolosako Artxibo Probintzian (JD-IM-4/7/48) gordetzen den Gerrikoren instantzia honetan bere liburuko Prologoan obraren helburuez eta zehazten diren arrazoi berberak errepikatzen dira. Halaber, ordurarteko argitaratze-izapidetzaren berri ere azaltzen digu. Aipatzekoa, bestalde,



Mutiloko plazako ostatuaren atalburua.

1816-VII-17ko Tolosako Batzarrean Amundarainek bere benefiziatuak egin-dako kudeaketak aipatzen ditu, Erregearenganaino jotzeko asmoa ere baduela azpimarratuz (Aipatu sailean, A, 2, b, 22, 1778-1829).

1817ko martxoan, berriro, Probintziako Korrejidorearen Erret Kontseiluari zuzentzen zaio baimen eske, Elizak jadanik aztertua eta onetsia duela azpimarratuz. Epaile zibilaren aginduz, erlijio-edukinaren aldetiko zentsura (eta oniritzia) Azkoitiko Frantzisko Etxeberria frantziskotarrak egin zuen. Baina irailean Kontseiluak orijinala eskatzen dio, ostera aztertu beharra dagoela eta.

Ezusteko agindu honen aurrean, Gerrickok, haserre samar, Erregearengana jotzen du, 1818ko otsailean; Kontseilukoek jartzen dizkioten oztopoen berri emanez, eta zuzeneko Lizentzia eskuratu asmoz. Erregeak, haatik, Korrejidorearengana berbidaltzen du. Eta honek, ordurartekoak gutxi izan bailiran, traba berri bat ezartzen dio: Liburu osoa gaztelerara itzultzeko agindua ematen dio! (Aztertu behar zutenek euskara ezagutzen ez zutelako, noski). (5)

pasartetxo hau: «... y los Parrocos desean tan vivamente tener exemplares impresos de esta obra, tan necesaria para todos los Bascongados, que algunos la han copiado de mano propia con inmenso trabajo para su uso en el Pulpito; y otros muchos la están pidiendo al Autor para el mismo fin ...».

5. Oztopo guztion aurrean, «... No trata el autor de que se escaseen las averiguaciones ... pero a la vista está que la versión pretendida por vuestro Fiscal (lanaren itzulpena) es de tanto trabajo como la misma obra, siguiéndose de él los ... perjuicios ... del coste ... de la dilación... la ímproba, material y prolongada fatiga que ha de traer consigo el traducirla, distrayéndose el recurrente de otras más beneficiosas para sus ovejas y para él mismo. Y aun si a tanta costa se pudiese conseguir lo que vuestro Fiscal apetece, podría mirarse todo con indiferencia; mas no es así, pues, desde luego, ocurre que va a quedarse la dificultad en pie, entre tanto que vuestro Fiscal no llegase a poseer el vascuence ...» (izan ere, erdarazkoa euskarazkoaren itzulpen 'zuzena' dela egiaztatzeko hirugarrengoren bat beharko litzateke) (Sarasola, Ibonck, 1977, «Gerriko eta Gobernu-

Eliz Batzordeak ere, erabaki bitxi bezain gogor honek txundituta, Erregea-rengana jo zuen bere aldetik, salaketa zorrotza eginez, agindu berria ia-ia bete ezina zela azalduz eta, arren eta arren, eman ziezaiola 'Dotrina' ren egileari hain pre-miazko zuen argitaratze-lizentzia erregutuz. Eskari honi ere ez zitzaion, antza, jaramon handirik egin.

1820-VII-12ko Tolosako Batzarrean Aierbek azken urteetako kudeaketa guz-tien berri ematen die batzartuei. Eta 1823-XII-10eko Azpeitikoan Gerriko za-harrak bere lan 'argitarazina' Elizaren esku uzten du, garai egokiagoen zain, Aktan agertzen den lez (Aipatu Sailean, A, 2, b, 25 eta 27, 1778-1829).

Honela pasa zituen urteak, hemeretzi, gure benefiziatu zintzoak, alde batetik bestera, bere ametsa beteaz ikusi ezinik. Eta horrelaxe hil zen 1824ean.

Ondorengo urteetako politika-gorabeherak (liberal konstituzionalisten eta kontserbadore monarkikoen arteko tirabirek eta etengabeko gobernu-aldaketek), lehen gerrate karlistak eta abarrek baztertuta, ahaztua eduki zuten gure mutiloa-rraren lana.

1847, 48 eta 49ko Apaiz-Batzarreek, Iruñeko Gotzaiaren baimena jasorik, eskuartean zituzten hainbat euskal lan argitaratzeko erabakia hartu zuten. Juan Bautista Agirre, 1823an hildako Asteasuko erretorearen obrari ekin zioten lehenik (1850ean, Tolosan argitaratu ziren Agirreren «... Eracusaldiac ...», hiru liburu bikain). Gerrikorena, orduan ere, geroragoko utzi behar izan zuten, denak argitaratu ahal izateko behar adina diru ez zegoela eta. 1847ko Tolosako Batzarrean 'Corriedo de Sierra' ko ordezkariak Agirre eta Gerrikoren platikak argitaratzeko Batzorde bat osatzea eskatu zuten. Ez da Otaegi apaiz idazle beizamarraren aipamenik egiten (Ikus Aktaren 9. puntua). Lau batzarkide hautatzen dituzte aipatu lanak aztertu eta hurrengo bileran beren iritzia eman dezaten. 1848-VIII-17ko Azpeitikoan Batzordeak onespena emanik, Aktaren 4. puntuaren arabera, Agirrek eta Gerrikok, biek, bereizketarik egin gabe, merezi dute argitaratzea. Aurrekontuak aurkeztea erabakitzen da. 1849-VIII-21eko Tolosakoan Agirre ba-karririk aipatzen da (Ikus Aktaren 4. puntua) (Aipatu Sailean, A, 3, b, 1-35, 1830-1874) (6).

zentsura», 'Saioak' I, 1, 229-230 or. etan Palencia González, Angel, 1934, «Estudio histórico sobre la censura gubernativa en España 1800-1833» I, Madrid, 105-106 or. (Archivo Histórico Nacio-naleko 'Sección de Consejos' 5569-59)tik jasoa).

6. Juan Bautista Agirre, Asteasuko Erretore eta Gipuzkoako Artziprest Barrutiko Diputatu Nagusiaren obra gipuzkerazko eta euskarazko literaturaren gailur-gailurrean kokatzen digute adi-tuck.

Agirreren eta Gerrikoren obrak argitaratu ziren garaian, Felipe Agustin Otaegi, 1840an hildako Beizamako erretorearen lana ere argitaratzeko kudeaketa ugari egin zuen Elizak, baina apaiz honen sermoi-bildumak ez zuen besteenaren zoririk izan eta oraintsu arte zokoratua egon behar izan du. (Duela gutxi, 1993an, argitaratu du Beatriz Otaegi Imaz beizamarrak euskal idazle eta apaiz he-rrikide honi buruzko tesi-lana, Lazkaoko beneditarren komentuko liburutegian jasorik gordetzen diren zenbait eskuizkriburen hizkuntz azterketa egiten duelarik). (Gerriko, I tomoa, VII or.; Vil-lasante, Fr. Luis, 1979, «Historia de la Literatura Vasca», Aranzazu, 251 zka.; eta Lakarra, Joseba Andoni, 1992, «Manuel Larramendi. Hirugarren Mendeurrena, 1690-1990», Andoaingo Udala, etab. Obra honetan Xabier Alzibarrek, «Larramendi eta literatur-gipuzkera» kapituluari, 335-336 or., dio: «... Diru arazoak ere eragozpen izan ziren maiz: askotan ... idazleak berak aurreratu behar izaten zion inprimatzaileari, eta dirurik biltzen ez bazuen ezin argitaratu: horixe gertatu zitzaion Gerrikori 1805ean Tolosa eta Donostiako argitaratzaileekin, eta agian Agirre Asteasukoren 'Era-cusaldiac' mardulari, beste batzu oraindik argitaragabe daudela (esate baterako, D. Agustin Otaegi, Beizamako erretorearen platikak)»).

1855eko Eliz Batzarreak Gerrikoren aspaldiko obra argitarara emateko erabakia hartu zuen. Azkenik, liburua idatzi eta 53 urtetara, eta egilea bera hil eta 34era, 1858an ikusi ahal izan zuen argia, andere eskuzabal bati esker («Por fin facilitada felizmente ahora por el desprendimiento de una respetable Señora, que ha dejado en el país no escasos sentimientos de su piedad y beneficencia, se ha realizado al cabo la impresion de dicha obra con todo esmero y cuidado ...»). Gerriko, I tomoko sarreran, VI or.), Tolosako Mendizabalen alargunaren moldiztegian Gerrikoren obrak; bi liburu edo tomotan banaturik. (7)

7. Ikus, besterik beste, Gerriko, I tomoa, IV-VI or., (J.J.I. laburdurez sinatutako «Breve noticia del autor y sus escritos»); Arrue, 1956, aip. art., 36-37 or., (1848an argitaratu zela dio; erratatxoren bat, noski); Lakarra, 1992, aip. ob., Altxabarren lana, 328-329, 335 or.; Ikus, halaber, gure 3. eranskina.

Idazle klasiko gehienek jasan behar izan zituzten zentsura-arazoak (baita ekonomi arazoak ere). Honela, gure autore zahar asko eta askoren lanak idazlea bera hil eta urtetara baino ez dira argitaratu ahal izan. XVIII-XIX. mendeetako idazleen arazo ekonomiko eta legalak luze-zabal jorratzen dizkigu Xabier Altxabarrek: «... XVIII. mendearen azken hamar urteetan edo Frantziako iraultzaz geroztik ez da libururik agertzen eta honetan zerikusia dukete gertakari horrek, frantsese edo harako Konbentzioko gudak, mendeko azken urteetako krisi ekonomiko eta bestek. XIX. mendeko gudate, matxinada, legezaharreko eta berrikoen arteko etsaigo eta agintaldi aldaketa, fraideen komentuetatik kanporatze eta abarrek baldintzatzen dute garaian garaiko idazlangintza eta argitalpena. Azken honi dagokionez, ohizko arazoez gain (baimena, dirua), etenaldi horietan oso zaila bide zen liburuak argitaratzea. Frantsese nagusian (1808-1814) eta I. karlistadako gudaldian hutsune nabarmenak ditugu liburu argitalpenei dagokionez ... eta liberalen hiru urteko agintaldian (1820-1823) ez bide zen erraza ... Gerrikoren kasu ezaguna euskal liburuaren argitalpen baldintza latz eta eragozpenen erakusburu on bat da ... Garai zailak ziren euskarazko liburugintzarako, baina: mende erditsuan erlijio ordean kanporatzeak egoera gaizkoatu zuen. Hala ere, berrargitalpenak batetik (1850.ean Agirriren 'Eracusaldiac', 3 tomo, 1858an Gerrikoren 'Sayaquera'), bestetik Lardizabal ... kinka gainditzeko abian dira idazleak ...» (Lakarra, 1992, aip. ob., Altxabarren lana, 328-330 or. Azken puntu honetan Altxabarrek Gerrikoren liburuaren 1858ko edizioa birargitalpentzat jotzen du, baina hutsegiteren bat bide da). Altxabarrekin jarraituz: «... argitaratzeko baimena, korrejidorearen eskutan zegoenez gero, eragozpen handia izan zen euskal liburuak argitaratzeko, askotan ezinezko baitzen hori erdiestea (Gerrikoren kasua) edo oso zaila. Bestetik, eliz agintariena, hots, edo Iruñako apezpikuarena (Gerriko eta Agirriren obrak argitaratzeko apaizen eskabideak izan ziren 1847 eta hurrengo bi urteetan) edo ordeako buruarena.» (335 or.).

Aipatzekoa, halaber, Mitxelenaren ohar hau: «Es importante lo que sobre la censura dice un comentario manuscrito acerca de la obra de Iztueta, publicado por el Padre Donostia: «el pueblo guipuzcoano carece, en verdad, de las grandes ventajas de la prensa; lo uno porque ...; lo otro, porque aun cuando algunos guipuzcoanos quisieren ... escribir sobre varias materias, tendrían que sujetarse a la censura del corregidor, cuya autoridad en nombre de un gobierno despótico se hace sentir con tanto más peso en este punto, cuanto que es el único en que no esté templado por los fueros y franquicias del país.» (Michelena, Luis, 1988, «Historia de la Literatura Vasca», Erein, Itxaropena, Zarautz, 119 or., 39 ohar. Altxabarrek ere jaso).

Halaber, Intxausti, Joseba, 1990, «Euskara, Euskaldunon Hizkuntza», Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, Gasteiz: Politikaren hizkuntz eragozpenez ari delarik, XVIII. «mendearen bigarren erdialdean, 1760-1780. urteetan, gobernari «argizatuak» politika zapaltzaile hura Penintsulako beste lurraldeetara, eta Ameriketara ere, zabaltzen saiatu ziren. Orduan eman ziren Ameriketako hizkuntzen aurka sekula baino erret ordena petralagoak. Testuinguru honetan ulertu behar dira euskarazko idazlanek kalera ateratzeko topatzen zituzten oztopo ofizialak. Euskal Literaturako kasurik sonatuena ... Aranda Ministrariaren Zedula ... izan da (1766): Aita Kardaberazi San Inazioaren Bizitzaren argitalpena debekatu zion Ministrariak ... debeku politiko orokor bat ezarri nahi zitzaizen gaztelaniaz ez zeuden idazlanei ... «A esto se agrega el reparo político de no convenir hacer impresiones en otra lengua que la Castellana inteligible en toda la Nación, y así por regla general se denegarán por ese Consejo (las licencias), sin especial noticia mía ...». Debekujokabide hau bera aurki dezakegu hurrengo hamarkadetan ere: bereziak izan behar dute legezko baimenek, edo bestela debekua da lege. J.I. Gerriko-ren (1740-1824) obrak ere ikusi zituen bereak

Harez gero, ez du beste ediziorik izan. 1858ko edizio bakar hau besterik ez du, beraz, eta hauxe izan da, hain zuzen, gure lan honetarako eskuartean erabili duguna.

2. Obraren edukina, egitura, banaketa

Izenak berak adierazten digun bezala, Gerrikoren liburua Kristau-Ikasbide edo Dotrinaren azalpen luze-zabala dugu; baina berezitasun batekin: Dotrina jaiegunetako mezetako sermoietan apaizek pulpitutik irakurriz eliztarrei azaltzeko eran moldatua dago. Alde batetik, beraz, edukinari dagokionez, Dotrina da; lehenagoko eta geroagoko hainbat eta hainbat elizgizonek egin edota itzulitako Kristau-Ikasbideak bezalatsu (8). Baina, bestetik, formaren aldetik eta, sermoiak dira ('platikak', egilearen hitzetan); mezetan pulpitutik irakurtzeko sermoi eran antolatua dago liburua (9).

«Cristau Doctrina ...» bi tomotan banatua dago. Tomoak lau partetan ('Erromatar Katezismoa', Asteterena eta Dotrina zahar eta berriago gehienak bezalaxe). Parteok 114 dotrina edo platicatan. Eta dotrina bakoitza (jaiegun bakoitzerako sermoi bat), zabalago ikusiko dugun legez, 'galdera eta erantzun' sistemaz haztua; ('galderak' eta, batez ere, 'erantzunak' puntu eta azpipuntutan xehetzen direlarik). Honela:

eta bost ... Euskal Literaturaren historian askotan gertatu da zentsura edo arrazoi ekonomikoengatik lanen argitalpenak itxurarik gabeko atzerapenak jasatea. Zentsuraren kasu «eredu» bat Gerrikoren obra honena da. Autorea hil baino ia hogeitau urte lehenago hasi zen argitalpenerako baimen-borroka (1805); Gipuzkoako Artzapezgo Nagusia ere tartean zebilen, baimen haren atzetik. Autorea hil zen azkenean (1824); baina 1858rarte ez zen Gerrikoren lana kaleratu. Orduan bai: bizi izandako gorabehera guztien berri hitzaurrean azaldu zituen argitaratzaileak ...» (99-100 or.).

Irakurlegorik eza ere arazo da: «... Oraindik geroxeago garaiko idazle emankorra, Gregorio Arrue hernaniar eskolamaisua (1811-1890), kezkatua agertzen da irakurketa ohitura faltaz -Ifarraldean euskaraz irakurtzera ekandutuagoak direla dio-, eta edizio ... urritasun eta kostu kontuenengatik (inprimatzaileak ez ziren, dirudienez, euskal liburuen argitalpenaz arduratzen) ...». Eta aipatu G. Arrueren «Cristauren dotrinaren jaquinbide azaldua»ko Sarrerako ohar hauxe erasten du Alzibarrek: «'Queja bati erantzuerak': Liburu au arguitara emateko aibeste gastu eguin duan Apaiz jaunari persona batek queja moduan aditzera ematen dio: 'eusquerazco liburuac gaztelaniazcoac baño garestiaco saltzen dirala'. Au beti onela guertatu oi ez da; baña guertatzea, arritzecoa ez litzaque; bada liburu baten eguiñ-aldia chiquiagoa danean, liburu bacoitza garestiaco irteten da andia danean baño, ... Eta beragatic Francian comunquiro liburuac merqueago oi dira Españian baño; bai erreinu artan gende bearguillea iracurtzera emen baño emanagoa dalaco... Au onela izanic, eusqueraz provincia jaquin bateco itzcuntzan bacarriz izcribatua bear izan oi dalaco, eguiñ-aldi bacoitzean liburu guchi eguin bear izaten dira ... Esan danetic czagutuco da arguero, liburu au ateratzeco gastuac eguin dituana, beronequin mercataritza eguitera ez dijoala; eta gañera esan guentzaque ecen, onelaco lan-bideetan irabaci andi eta seguru bat balego, gaurco egunean dauzcagun baño liburu gueyago eusqueraz iduquico guinduzqueala ...» (Alzibarren aipatu lana, 330 or.).

8. Aurreko kapituluaren egin dugu hainbat dotrina zaharren aipamena. Dotrinok, orohar, labur-laburrak dira; Gerrikorena, aldiz, oso zabala dugu; helburua ere, gero ikusiko dugun legez, zabalagoa izaki.

9. Iritzi ezberdinak daude Gerrikoren obra sailkatzerakoan: Batzuek 'Dotrinen' sailean kartzatzen dute (Sorarrainen Katalogoan, adibidez); beste batzuek 'Sermoitza' hartzen dituzte (Vinsonek, besteak beste). Hara zer dioen Villasantek: «Las grandes obras de Moguel, Guerrico, Astarloa, Aguirre y Fr. Bartolomé ... vienen a ser especie de sumas catequísticas y sermonarios de predicación, en que se abordan y desarrollan casi los mismos temas, o sea, la explanation detallada y sistemática del Catecismo o Doctrina Cristiana, ofreciendo de ese modo a los sacerdotes un auxiliar valioso para facilitarles el cumplimiento de su labor en el púlpito.» (Villasante, 1979, aip. ob., 263 zka.).

I. Tomoa (53 dotrina, 479 orrialde):

- «Breve noticia del autor y sus escritos» (Autoreaz eta honen lanaz azalpentxoa, gazteleraz, J.J.I. (nor ote?) inzialez sinatua), III-VII or.
- Autorearen Sarrera edo Hitzaurrea, erdaraz, obraren ideia, metodo eta banaketaz: «Prólogo de la idea, método y división de la obra bascongada, cuyo título traducido al castellano es: ENSAYO», IX-XXIII or.
- «**Dotriñaco lenengo partea, edo zatia**» (43 dotrina): **Dogma edo Fedeko Egiak**: Kristau izatea. Gurutze Santua. Kristau-Ikasbidea. Kredoa. Fedea. Eskritura Santua. Jaungoikoa. Trinidadeko Misterioa. Aingeruak. Deabruak. Testamentu Zaharra: Adandik Jesukristo arte. Testamentu Berria: Jesukristo (10). Espiritu Santua. Eliza. Pekatuen barkazioa. Haragiaren piztuera. Azken Juizioa. Zerua. Infernua. Purgatoria. «Guruza-daco sermoya» (Buldak, etab. J.J.I. laburdurez sinaturik, (obraren sarrera egiten duenaren) eraskintxoa (377-382 or.): Gerrikok dotrina idatzi eta gerora izan diren aldaketak jasoz; (1855az gerozkoa)).
- «**Dotriñaco bigarren partea, edo zatia**» (10 dotrina): **Otoitza**: Otoitza. Aita gurea. Agur Maria. Salbea eta Ama Birjinaganako debozioa.

II. Tomoa (61 dotrina, 580 orrialde):

- «**Dotriñaco irugarren partea, edo zatia**» (41 dotrina): **Moralak**: Pekatua. Pekatu astuna eta arina. Zazpi pekatu kapitalak eta birtute kardinalak. Hamar mandamentuak. Fedea, Esperantza, Karidadea. Elizaren bost mandamentuak.
- «**Dotriñaco laugarren partea**» (20 dotrina): **Sakramentuak**: Zazpi sakramentuak, (Aitortzaz eta Jaunartzeaz askoz ere zabalago).

(Tomo bakoitzaren amaieran: «Liburu onetan oquer ezarri diran hitzen zuzentzeco bidea», errata-zerrendatxoa) (11).

3. Ezaugarriak, Helburuak

Tituluaren arabera, Gerrikoren obra Elizaren (Katolikoaren, jakina) Dotrina osoaren (Dogmaren, Moralaren ...) Azalpenaren Saiakera, sermoietan eskainia, dugu.

'Sayaquera' hitzak erdarazko 'Ensayo' esan nahi duela dio autoreak berak, bere lanaren hitzaurrean. Zergatik hitz hori?: Euskaraz egiten den horrelako lehena izaki, bere akats eta guzti ere, hobe eta osatuagoa azaldu bitartean, herriaren heziketa erlijiosorako baliagarri izan daitekeelako, alegia:

«... doy el nombre de Ensayo á esta obra por ser la primera en bascuence: y espero que aunque imperfecta todavía, sirva para facilitar la instruccion de los pueblos hasta que salga otra mejor, y que sera motivo para excitar el celo de otros para perfeccionarla, pues creo que en el país bascongado hay muchos sugetos, asi

10. Dotrina-azalpenaren erdian, 'Historia Sakratua' ren laburpentxo bat egiten digu Gerrikok (Testamentu Zaharra, 6 platikatan eta Testamentu Berria, 15 platikatan). Haatik, Gerrikoren eta Lardizabalek egindako «Testamentu Zarreco ta Berrico Condaira» ren asmoak ez dirateke berdinak.

11. Gerrikok berak zehatz azaltzen digu liburuaren banaketa (I tomoko Sarreran, XIII-XIV or.). Ikus, halaber, Sorarrain, Genaro de, 1984, «Catálogo de Obras Euskaras ...», Colección Bibliográfica, Serie Mayor, Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbao, 743 zka. (Honek ere zehatz eskaintzen digu liburuaren banaketa).

en el clero secular, como en el regular mucho mas capaces é instruidos, que yo, asi en el language bascongado, como en el fondo de las materias, para formar con mas perfeccion esta clase de obra, destinada para instruccion general de los pueblos. Pero en el interin que llega á mayor perfeccion ...»

(I, IX-X or. Horra, apal-apal, gure benefiziatuaren 'enbidotxoa' Euskalerriko beste apaiz eta fraileei!).

Kristau-ikasbide osoaren azalpen argi eta zehatza, etengabea eta, Euskalerrian ezezik, Espainiako erresuma osoan batera eta era bateratuan egitearen garrantzia, premia azpimarratzen ez da aspertzen Gerricko. Izan ere, egilearen aburuz, orain arteko Elizaren irakaskuntza ez da behar adinako izan: Haurrentzako prestatutako 'Dotrina txikiak', Elizaren 'egia' jasotzen dutelarik ere, murriztegiak dira, arinegiak. Helduen katekesi alorrean ezer gutxi egiten du Elizak. Umeei, Dotrinatxoan bidez, irakasten zaiena ez da aski kristau-herri helduarentzat; honek zerbait gehiago behar du, Elizaren Dotrina era zabalagoan, sakonagoan, zehatzagoan azaldu behar zaio. Eta ez tarteka-marteka bakarrik, urte osoan zehar, bitzta osoan zehar, etengabe azaldu behar da Dotrina. Ezta ere orain puntutxo bat, hurrengoan beste bat, leku batean gauza bat eta bestean beste bat; Elizaren Dotrina osoa alde guztietan eta kristau guztiei batera, forma, modu eta ordena berean irakatsi behar da. Guztiau ezinbestekoa da Mutiloko apaizarentzat kristauen onerako. Horra, beraz, Gerrickoren iritzia, asmoa eta Dotrina zabal, zehatz, txukun ordenaturik jasoko duen liburua burutzeko arrazoia.

«... explicacion de toda la doctrina ... para enseñar ... á todos los bascongados de una misma manera con poco trabajo todo lo que deben saber y obrar para hacer una buena vida cristiana, hasta que salga otra mejor»

(I, IX or. Gerrickoren Dotrina hau lehen saioa da, beraz, 'hobea azaldu bitartean').

«... la gran necesidad, y utilidad de hacer por lo comun la instruccion catequística, y exortacion general de los pueblos por medio de la lectura pública desde el púlpito en todas las Parroquias de España en un gran catecismo práctico arreglado al Romano de San Pio V, con la autoridad de los Prelados Eclesiasticos y apoyo del gobierno supremo»

(I, IX or. Gerrickoren Dotrinaren asmoa ez da Euskalerriko Elizetara mugatzen, Espainia osoko apaiz eta kristauei zuzendua dago. Eta, bide batez, berak proposatzen duen bide hau indarrean jarri ahal izateko, erresumako gotzaiiei eta agintari zibilei -Erregeari eta- laguntza, babesa eskatzen die).

«... manifiesto claramente la gran necesidad y utilidad de hacer por lo comun la instruccion del pueblo por medio de la lectura pública en la Iglesia, no solo en el país bascongado, sino tambien entodos los reynos y dominios de España: y deseo, que todos y especialmente los Ilustrísimos Señores Obispos y los Consejeros de nuestro católico Monarca lean, y reflexionen los motivos de dicha necesidad, y por eso principalmente doy este Prólogo en lengua castellana: y añado que si se logra establecer esta instruccion general de los pueblos, se logrará tambien con facilidad, é insensiblemente la instruccion separada respectiva de niños, y jóvenes de todas clases en las Iglesias, en las escuelas, y en todas las familias: de cuya falta vienen regularmente todos los vicios, y con ellos todos los males espirituales y temporales de todo el Reyno ...»

(I, X-XI or. Adin guztietako kristauei zuzendutako Dotrina, Elizak kanpo ere -eskolan, etxean- eskaintzen denaren oinarri izan daitekeena. Hitzaurrea erdaraz egitearen arrazoia ere ematen du: Espainiako agintariiek projektu hau bere egin dezaten, alegia).

«... el fin principal de esta obra ... es facilitar en todas partes la instruccion necesaria de los pueblos quitando de un golpe todos los embarazos, que hasta ahora ha habido, los hay al presente, y los habrá siempre para esplicar *con la debida claridad, y exactitud, frecuencia y uniformidad* las cuatro partes principales de la doctrina cristiana, sino se adopta generalmente el método facil, sólido, y uniforme de la lectura desde el púlpito con la autoridad de los Prelados Eclesiásticos y con el apoyo del Gobierno supremo.»

(I, XV or. Berriro ere agintariengana jotzen du Gerrikok, bere ‘metodoak’ onarpen osoa izan ahal dezan. Pasarte honetako letra etzaneko zatitxo berea du).

Liburuaren sarrera honetan (IX-XXIII or.) etengabeak dira Dotrinaren azalpena sarri-sarri, era bateratuan, sistematikoki, kristau-herri osoari zuzendurik ... egin behar dela eta horrelako aipamenak. Nolabaiteko ‘obsesioa’ dela esan dezakegu.

Katekesi alorrean inguruan somatzen duen utzikieriaz, ‘zabarkeriaz’ kexu azaltzen zaigu Mutiloko benefiziatu zintzoa. Elizgizon askok ez dute behar adinako zorrotzasunez betetzen funtsezko obligazio hau, Elizak horretarako agindu zehatzak behin baino gehiagotan emanak baditu ere. Egoera hau behin betirako aldatu beharra dago: Dotrinaren irakaskuntza apaizen praktika konstante bilaka dadin eskaintzen du Gerrikok liburu ‘berri’ hau.

«A la verdad, no hay asunto alguno en que interesa mas la felicidad eterna de las almas y aun la temporal de los Reinos, como es la debida instruccion de los pueblos en nuestra Santa Religion: lo que se conoce con toda evidencia ... Y por tanto, asi el mismo Dios en las Santas Escrituras, como Jesu-Cristo ... y sus Santos Apóstoles y demas Santos Padres y Doctores de la Iglesia, como esta en sus Concilios generales y estatutos de los Papas y de los Obispos ninguna cosa encargan y mandan mas estrechamente que la debida instruccion en la Ley de Dios ... Pero no obstante ... la esperiencia enseña que no se hace todavia generalmente aun en medio del Cristianismo en la mayor parte de las Parroquias, como lo tiene mandado ... la Iglesia ... la instruccion Catequística necesaria, para que los pueblos entiendan bien las obligaciones prácticas de la vida Cristiana ... Pues los mas de los Párrocos (aun de los que predicán con frecuencia) solamente se contentan por lo regular con hacer algunas exortaciones morales, sin tomar el trabajo de esplicar con claridad, y con exactitud los puntos mas necesarios para hacer una buena vida Cristiana ... Pero sobre todo omiten regularmente la esplicacion exacta de las grandes verdades que son el fundamento y cimiento sólido de la vida Cristiana, que es el dar é imprimir en todos, sean grandes, sean jóvenes, ó niños, que se disponen para la primera comunión, una idea clara y distinta ...»

(I, XV-XVI or. Apaizen egitekorik oinarrizkoenetakoa adin guztietako kristau-ei (haur, gazte, helduei) ‘Egia handien’ azalpena asperkaitz ematea delarik, obligazio hau hain bigarren mailakotzat uztea onartezina da Gerrikorentzat).

«... estas ... grandes verdades prácticas, necesarias á todo buen Cristiano no se aprenden, ni se enseñan en los pequeños catecismos destinados para enseñar á los niños y para examinar en doctrina á todos los de el pueblo

(Pazkoazkoa egiteko, Sendotzako eta Ezkontzako Sakramentuak hartzeko ... , alegia),

ni tampoco regularmente en las pláticas ú sermones Morales de mera exortacion ú reprension, que producen muy poco fruto, por que suponen al auditorio bien instruido y no lo instruyen en sus obligaciones. Y, exceptuando á los Cristianos,

que manejan libros de sólida doctrina, y á los que logran la dicha de tener Párrocos ó Catequistas celosos y prácticos en explicar exacta y frecuentemente toda la doctrina Cristiana, todos los demas Cristianos de todas clases y estados, grandes y pequeños no saben con fundamento la doctrina Cristiana práctica por falta de la debida explicacion: y de aqui se sigue naturalmente la relajacion de costumbres que se advierte generalmente; y que muchísimos que parecen buenos Cristianos en lo exterior son en lo interior unos pobres ignorantes, que no saben su religion, sino por la corteza y muy superficialmente ...»

(I, XVIII-XIX or. Umetan Dotrina txikia ikastea ez da nahikoa, hori gutxiegi da; zabalago, sakonago, zehatzago irakatsi eta ikasi behar da Kristau-Dotrina; baina hori ez da egiten, normalean behintzat, eta guztiz kezkatu ageri zaigu Gerriko).

«... con todos los remedios tomados hasta ahora, no se halla establecida, ni practicada por punto general la esplicacion necesaria y debida instruccion de la doctrina cristiana en sus cuatro partes principales; y por consiguiente hay mucha, y muy crasa ignorancia de las verdades prácticas, y hay absoluta necesidad de esplicacion exacta, sólida, frecuente, y uniforme de la doctrina cristiana, no solo para los niños y jóvenes, sino tambien para todo el Pueblo ... Y ... sino se adopta el método de la lectura pública en las Iglesias, continuarán los embarazos que hasta ahora han tenido los Párrocos y catequistas y subsistirá la ignorancia con gran peligro de perder la Feé, y las buenas costumbres. Y para evitar estos males tan grandes y lograr los innumerables bienes que trae consigo la instruccion exacta de la Ley de Dios y para que todos tengan *un mismo modo* en enseñar y no haya el grande inconveniente de la diversidad de opiniones que causan escandalo al pueblo no hay *otro medio ni mas pronto, ni mas fácil, ni mas sólido, ni mas permanente*, que el de poner en manos de los Párrocos y Catequistas una misma esplicacion de toda la doctrina cristiana *dirigida al Pueblo*, fijando en cada Parroquia un exemplar á costa de la Fabrica de la Iglesia, como libro Parroquial autorizado por todos los Prelados Ecclesiasticos con orden á todos los Párrocos y sus Tenientes de hacer en todos los Domingos, y dias solemnes al tiempo de la misa popular la lectura pausada de dicha explicacion seguida y continuada; cuando ellos mismos *no la quieran hacer de memoria ...*»

(I, XIX-XX or. Letra etzanak autorearenak dira. Gerrikok zehatz-mehatz azaltzen digu bere helburua: Katekesi alorreko orain arteko hutsuneak eta hutsegiteak gainditzeko, behar-beharrezkoa da Kristau-egiak zehatz eta zabal bilduko dituen Dotrina 'handi' bat. Dotrina hori, Gotzaiek onartua eta agindua, eliza guztiek izan behar lukete, ale bat bederen. Eta Dotrina eskuartean, apaizek eta katekizatzailleek erraz, inolako buruhauste eta nahas-mendurik gabe, bete ahal izango dute beren obligazioa. Eta kristau-herri osoak sakon eta zehatz ezagutu ahal izango ditu bere salbazioari dagozkion egiak).

Oraindik are zabalagoa da Gerrikoren helburua:

«... Y entonces los Párrocos mismos, (desembarazados del gran cuidado y trabajo de formar por sí pláticas doctrinales con su explicacion, y exórto correspondiente) y todos los catequistas, y los padres de familias; los maestros de primeras letras y de gramática, y aún todos los buenos Cristianos que aspiren á una virtud mas sólida y mas perfecta; encontrarán en la continua lectura de semejante obra clásica y magistral reunido todo lo necesario de dogma, moral y mistico para su propio aprovechamiento, y para enseñar facilmente á todos los que estan á su cargo: y de dicha obra se podran extraer y formar los catecismos menores para niños y



Mutiloko parrokiako aldare nagusia (Fotoetxek).

jovenes con mas uniformidad y mayor provecho: y creo que todos, persuadidos intimamente de la necesidad absoluta de mayor y mas sólida instruccion que la que ha habido hasta ahora, se dedicarán con mas celo, con mas cuidado y con mas aplicacion, á instruir y educar respectivamente á los hijos, domesticos, discipulos y feligreses con el conocimiento mas exacto de las maximas del Evangelio de Jesu-Cristo ...»

(I, XXII or. Apaizek igandeko mezetan, pulpitutik sermoian, herri osoari irakasteko ezezik, gurasoek seme-alaba eta etxekoei, eskola-maisuek ikasleei irakasteko, eta edonork pertsonalki irakurtzeko ere balio lezake Dotrina honek. Halaber, 'Dotrina txiki' berriak, orainartekoen murriztasuna, nahasketa eta barreiaketa gaindituz (Ikus gure III. atala), sortzeko eta zehatzago egiteko ere oinarri izan daiteke Gerrikok eskaintzen duen 'Dotrina nagusia').

Jose Ignazio Gerrikok berak liburuaren sarreran behin eta berriz errepikatzen duena jasoz ikusi dugun bezala, «Cristau Doctrina Guztiaren Esplicacioaren Sa-yaquera ...» horixe dugu, kristau-herri osoari zehatz, trinko, zabal, alde eta aldi guztietan era bateratuan eskaini ahal izateko eran moldatutako Dotrina. Azaltzen saiatu garen lez, errepikakor samar bada ere, Dotrinaren azalpen osoa, sistematikoa eta alde guztietan era bateratuan ematearen komenentzia, abantaila ikusgarriak behin eta berriro errepikatzen dizkie gure Gerrikok bere apaiz lagunei.

Pulpitutik sermoian

Dotrinaren azalpena nola egin? Igande eta jaiegunetako mezetan, aldiko platika, sermoi edo dotrina bat pulpitutik irakurriz, hain zuten ere. «... Euscarazco Platica edo Dotriñetan Partituric ...» dio liburuaren izenburuak. 114 dotrina guttira. Sermoi irakurri eran azaltzeko Kristau-Ikasbidea dugu, beraz, Gerrikoren hau.

Larramendiren ordena bereko eta maisu handi honen jarraitzaile bikain izan zirenek egundoko arrakasta eta eragina izan zuten garaiko eta ondorengo beste apaizengan; ez euskara txukuntze eta aberaste kontuan bakarrik, beste alor askotan ere bai; besterik beste, apaizen egitekorik funtsezkoenetako bat, pulpitutiko sermoigintza sutsu lantzen dute jesuitek: Pulpitutik, eta irakurriz, egiten den sermoiak aparteko garrantzia du kristau-heziketan. Garaiko zenbait itxusikeria, trakeskeria, zabarkeria gogor kritikatzan dute; sermoia txukun, egoki, Jaunaren Hitzaren azalpena zor zaion begirunez egiteko arauak ezartzen dituzte, eta praktikan jartzen. Adibidez, sermoia 'inprobisatzen' eta ondorioz pulpitutik 'ergelkeriak' (eta are okerrago dena, erdaraz, gazteleraz edota latinez, gainera) 'barra-barra' jaulkitzen aritu beharrean, askoz ere egokiago da aurrez astiro eta idatziz prestatutakoa pulpituari txukun irakurtzea. Larramendik «Corografía de Guipúzcoa»n (1756 aldera idatzia (12), Kardaberazek «Eusqueraren berri onac»en

12. Erdaraz egiten duten sermoilariei kritika gogorrik jaurtitzeaz batera, salbuespentxo bat: «Aprendan los predicadores ... a cumplir con su obligación de predicar ... Los sermones que llaman panegíricos ... en cuanto al vascuence, se predicán mal por lo común, porque los traducen del castellano y no saben las reglas de una buena traducción ... lo que sucede a muchos predicadores castellanos, necios, fanfarrones, que predicán unas elevaciones de estilo ... y son unos clausulones y términos pomposos ...» . Baina, «... Ya es tiempo de hacer la excepción ... No se puede dudar que de pocos años a esta parte, se predica en vascuence menos mal que antes, y que hay predicadores

(1761) (13), Juan Antonio Mogelek «Peru Abarca»n (1802 aldera) (14) zorrotz jorratzen dituzte garaiko sermoigintzaren arazook, kritika zuzenak eginez eta zenbait salbuespen eredugarri txalotuz. Kardaberazek, adibidez, pulpitutik platika edo dotrinak euskaraz irakurtzearen egokitasuna eta horretarako euskarazko liburuen premia gorria azpimarratzen digu bere liburuan.

Xabier Altzibarrek, Larramendi eta jarraitzaileen eraginaz ari delarik, honela dio:

«... Larramendiren ... ideia eta maisutzak bultzatutako giputz-euskara idatziaren eraberrikuntza eta apainketarekin eta ondorengo Kardaberaz ... eta Mendibururen ... liburuekin sortzen da literatur-gipuzkera. Larramendiren eraginezko eraberrikuntza hiztegiara ez ezik euskara idatziaren arlo guztietara hedatzen da. Baina euskara idatziak ez ezik, jendaurrean sermoietan mintzatuak, irakurriak edo entzuneraziak ere hobekuntza nabaria egiten eta duintasun bat irabazten du, Larramendik berak eta geroago Mogelek aditzera eman bezala, elizgizon mordoxka bat euskara hobe eta apainagoa ikasten eta mintzatzen ari delarik ...»;

eta geroxeago, garai hartako liburuez:

«... idazki hauek NORENTZAT diren kontutan izanik moldatuak dira, hots, elizgizon, eskola maisu (adibidez, dotrinak), guraso eta eliztar on eta zaleentzat, bereziki nekazari eta gizarte-maila apalekoentzat ... Azken multzo honetako askok eta askok gaztelerarik ere ez dakite eta eskola guttien dutenak dira ... Egia da

que en sermones morales predicán absolutamente bien y con limpieza, y con gusto y fruto de los oyentes. Así por lo común los misioneros de Zarauz que ... han añadido el cuidado y trabajo de predicar un vascuence claro, inteligible, limpio y bien ordenado, según el carácter y sintaxis de la lengua ...» (Larramendi S.J., Manuel de, 1969, «Corografía de Guipúzcoa», Biblioteca Básica de Euskal Herria, Larrun, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones S.A., San Sebastián, (Edizioaren Prestatzailea: Tellechea Idígoras, José Ignacio), 290-291 or.).

13. «Euskeraren Berri Onak»eko IX. kapitulua ('Kristau-Dotrinaren Erretorika') osorik irakurtzekoa bada ere, zatitxo eder hau hautatu dugu: «... Ala Bizcaian, nola emen (Gipuzkoan, alegia) celo andico Sacerdote Jaun, ta animen Artzai Lecio au (Jainkoaren hitza nolako begirunez ikasi, irakatsi, esan eta entzun behar den azaltzen aritu da aurretik) ondo artcen dutenac diralabadaquit. Oien bere Dotrina, Itzaldi, edo Sermoiac Eusqueraz escribitcen dituzte. Alafede nequea da; baña neque guciac amorioac venticcendu. Itcez esan, edo eracasi naidutena, contuz onela escribitcea, ascorenzat chit erazco, conveni dan videa da. Bacoitzac bere erricoaquin itzeguin oi duen bezala, bere erara lenago papcrean ezarri, contuz echean, nai bezala, iracurri, ta guero Pulpituan errespeto andiangoaz, errazago, gogoticago, ta biciroago esangodu. Gaztelaco Eleiza ascotan aguinduric dago, ta guizon jaquinsuac ere Libro, edo Paperic Pulpituan esan ta Dotrina eracusten dute. Munduco esamesac oñ peratu, ta gure Euscaldunac ere au eguita obelizaque: obeto milla bider esan, ta frutu gueiago ateraco litzaque. Onela guciac berdiñ, ta gucien nequea arinduco litzaque ... Lecioa eguitenducnac Paperetic errazagoiracurtendu. Paquez, ta soseguz beti Dotrina, ta albaít ere aserratu gabe, obetu aditu, ta biotcetán sartucoda; eta ori Eusqueraric aldan jaquiñen, ta claruenean». Eta geroxeago, Urretxuko On Inazio Iturbe bikarioaren sermoiak egiteko modua hartzen du benetakoa eredutzat. (Cardaberaz, Agustin, 1973, «Euskal Lan Guztiak» I, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, (Aurkezpena: Lopetegui S.J., Leon de): «Eusqueraren berri onak ...», (153-170 or.), 167-169 or.). Gerrikoren 'hitzaurreko' zenbait esaldik aurreko pasarte horren erdal 'kopia' dirudi; Kardaberazen aholkuok bere egiten ditu urte batzuk geroxeago benefiziatuak, eta horietantxe oinarritzen, hain zuzen ere, bere lana.

14. Larramendiren ildo beretik, Mogelek ere: «... Con todo, es verdad que desde la época en que trabajaron y publicaron algunas obras los diestros bascongados Mendiburu, Cardaveraz y Larramendi, se nota más cultura en los sermones, y hay en guipuzcoano no pocos eclesiásticos, que han hecho un estudio serio del vascuence y que le hablan con gallardía ...» (Mogel, Juan Antonio, 1990, «Peru Abarca», Klasikoak 32, EEE, Kriselu, Oiartzun, 48 or.).

erlijio-liburuok ahoz irakasteko zirela, edo buruz esanez edo irakurriz, jendaurrean entzuneraziz. Batzu pulpitutik irakurtzeko aginduta zegoen (Fr. Bartolome edo Fr. Pedro Astarloarenak bizkaieraz). Gerriko bere liburuaren hitzaurrean behin eta berriz gomendatzen du pulpitutik irakurtzearen egokitasuna ...» (15).

Irakaste edo instrukzio hauxe bera (eta era horretan gomendatuz, hots, pulpitutik irakurriz) izango dute helburu euskal klasikoen liburu gehienek XIX. mende gutzian. Gerriko ere behin eta berriro errepikatzen digu bere liburuaren 'hitzaurrean' euskal herri xeheari dotrina pulpitutik, igandeetako mezetan, irakastearen premia eta egokitasuna.

Igande eta jaiegunetako mezetan 'Saiakera'ko 114 dotrina edo platicak (aldiko bat), 20 bat minutuz, txukun eta patxadan, sermoi gisa herriko jende guztiari irakurriz (buruz, hau da, irakurri gabe egiteko aukera ere eskaintzen da), apaizek ez lukete asteroko sermoia prestatu beharrik izango, beren lana asko arinduko litzateke, beste eginkizun batzuetarako asti gehiago izango lukete eta, gainera, sermoia bera askoz ere txukunago eta zuzenago 'aterako' litzaike. Horra, bada, Gerriko apaiz lagunei proposatzen, aholkatzen dien metodo 'berriaren' abantaila handiak.

«... con sola su lectura pública seguida, y continuada podrán los Párrocos, y Catequistas bascongados cumplir exactamente con su obligacion: y libres del gran cuidado, y trabajo de formar pláticas doctrinales, y morales en bascuence y de decirlas de memoria en todos los domingos, y fiestas solemnes; podrán desempeñar con mas facilidad las demas obligaciones de su ministerio ...»

(I, X or.).

«... Y así, aún en los tiempos en que los Párrocos ó por falta de salud ó por otras ocupaciones ó ausencias justas ó por falta de libertad y desembarazo para explicar de memoria, ó por falta de voz no predicasen: ó por no poderse encontrar sustituto, ó Vicario interino práctico en el púlpito, en tiempos de vacantes, faltase la doctrina desde el púlpito, ó por sí, ó por otro Sacerdote, se asegura para siempre la instruccion necesaria de todos los pueblos: que es una ventaja imponderable. Y en la sustancia no es nuevo este proyecto, sino muy antiguo, y muy recomendado con Exortos é Indulgencias por los Ilustrísimos Señores Obispos de España y Portugal, como muy necesario para instruir al pueblo con la lectura desde el púlpito: á cuyo fin escribieron sus doctrinas catequistas

(zenbait Eliz autoritate, hauen artean Fr. Luis de Granada, aipatzen ditu)

... Y solamente en el método, y en el modo, que se desea, y propone mas autorizado, y mas estrechamente ordenado, y mandado se diferencia este proyecto (berea, alegia). Y repito, que vista la experiencia de los embarazos que hasta ahora ha habido, y habrá siempre por lo regular para hacer de memoria la explicacion sólida, y frecuente necesaria de la doctrina cristiana ... no queda otro remedio ni mas facil ni mas pronto, ni mas sólido, ni mas permanente, ni mas uniforme, que el que se propone de la lectura pública en todas las Iglesias, seguida, y continuada de la explicacion de las cuatro partes de la doctrina cristiana con arreglo al catecismo Romano, dirigida á los pueblos ... Y con solo este remedio, y no con otro, se cumplirán exactamente los mandatos de los Sumos Pontífices ...»

(I, XX-XXI or.).

Apaizek sermoian erabiltzeko moduan eratua dago, beraz, Gerrikoen Doctrina-liburua. Honela, lehenago esan bezala, Dotrina zein Sermoi-liburu lez sail-

15. Lakarra, 1992, aip. ob., 326-327, 332-333 or. (Xabier Altzibarren lana).

katua izan da obra hau. Laburtuz, Dotrina sermoi eran irakasteko liburua dela esango dugu.

Hogeitabat minutuko 114 ihardunalditan (platika edo dotrinatan) banatua dago. Ihardunaldiok 20 bat minutukoak izatearen arrazoia ere azaltzen digu egi-leak: Ez luze, ez labur; jaiegunetako mezako sermoi 'normal' baten iraupenak horrenbestekoa izan behar luke. Dena den, noizbait, 'eguraldi txarragatik edo', sermoia laburtu beharrean gertatuz gero, bi egunetan azal daiteke platika bakoitzaren edukina; hurrengo jaiegunean, bigarren parteari ekin aurretik, aurrekoan azaldutakoaren laburpentxo bat egiten delarik. Hain txukun eta zehatz azaltzen die Gerrikok bere apaiz lagunei liburuaren helburua eta erabilera praktikoa! (Dotrina zabal honen laburpena ere prestatu zuen Gerrikok, seina minutu ingurukotara murriztuz. Ikus gure V. kapitulua).

Dotrina edo platika bakoitzak ohizko sermoi baten itxura du: Haseran, gaieren aurkezpena eginik, 'Ave Maria' bat errezatzeke proposamena dator, entzun behar diren egiak hobeto jasotzeko eta gero, noski, praktikan jartzeko laguntza zerutarra eskatuz:

«... eta orra gaurco hitz aldia: Jaungoicoari nai daquiola, gucion provechuraco izatea. Escatu dezagun bada orretaco Espiritu Santuaren arguia, eta gracia: Ama Virgíña Santísima bitarteco arturic. Ave Maria»; «... Eta argatic pecatu veniala cer dan, eta cein calte andiac dacazquian ceoro eracutsi nai dizuet. Atencio andi bat escatzen dizuet: eta gucion oneraco izan dedin, erregutu deguiogun gucioc, Ama Virgíña guztiz santari, iritsi deguigula Espiritu Santuaren arguia, eta gracia. Ave Maria.».

Tartean, ohizko deikari erretorikoa: «Nere Cristauac» sarri-sarri. Eta amaitzeko, oraintsu arte hain ezagunak ziren formulak:

«... bada orrec dacarquigu bacarric oraingo paquea, eta gueroco betico gloria, ceña deseaten dizuedan Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren icenean. Amen»; «... eta betico Infernutic libratu, eta betico gloria iritsico dezue. Amen»; «... eta guero betico paquea, eta gloria Ceruan gozatuco degu. Amen»,

eta antzeko formulekin amaitzen du jaiegun bakoitzerako prestatutako dotrina-sermoia.

Gerrikok berak azaltzen digu sermoi bakoitzaren egitura:

«... y observo el método de proponer en el exordio el asunto de cada plática, su division y su necesidad, é importancia para conciliar la atencion, y hago la esplicacion en dialogo, ú conferencia familiar (Galdera/Erantzun bidez), y en el epilogo exorto a sacar el fruto correspondiente al asunto.» (I, XII or.).

Eta, noski, ez da funtsezkoenaz ahazten, ez horixe!: Apaiz on baten obligazioa ez da mugatzen, inola ere, herriari Kristoren Ikasbidea zuzen, garbi, egoki azaltze hutsera; apaizak, guztiz gaindik, bere exenpluaz bere ardurapeko kristauen eredu izan behar du, jakina; eta bere eliztarrei Dotrina ondo, argi eta garbi irakasteaz gain, hauen kristau-bizimodua, jokabide moralak bideratzen biziki arduratu. Hauxe litzateke, funtsaren funtsean, aztertzen ari garen liburuaren oinarriko xedea, eta berau argitaratzeko arrazoi nagusia.

Bistako den bezala, liburuak helburu 'didaktikoa' du (eta 'pedagogikoa'), garaiko obra gehienentzat beren eliz lanetarako (sermoiak, misioak, dotrina-irakastea ...) lagungarri izatekoa eta euskaldun herri xumeari kristau-erlijioa eta morala irakastekoa, kristau-herriari erlijioaren edukina erarik eskuragarrienean eskaintzekoa. Liburu honen xedea, beraz, garaiko idazle gehienena bezalaxe, ez da 'literatura literatura hutsagatik' egitekoa, erlijio-irakaskuntza 'praktikoa' baizik (16).

Eta, azkenik, azpialat hau ezin amaitu, liburuaren hitzaurrean erdi galduan dagoela dirudien arren, pasartetxo txit interesante hau jaso gabe:

«... Y con este mismo fin se dá á luz éste Ensayo ... en dialecto guipuzcoano, que entienden
(gipuzkoarrek ezezik)
aun generalmente los Navarros, Vizcainos y Alaveses
(Iparraldekoen aipamenik ez; erabat normala, bestalde) ...
para
(gorago azaldu arrazoi eta helburu guztiez aparte)
... y para que los paisanos amantes del bascuence dentro y fuera del Pais, tengan con la lectura de sola ésta obra motivo para no olvidar su lenguaje nativo ...»
(I, XXII-XXIII or. Horra, bada, gure mutiloak euskaltzalea Herri honen hizkuntzaz ere arduraturik!).

4. Oinarriak edo Iturburuak

Gerrikoren 'Saiakera'ren iturri nagusiak, obra osoaren edukinaren eta, baita, egituraketaren oinarri, lau hauek ditugu: Funtsezko iturburuak: 'Erromatar Katezismoa edo Dotrina' eta Asteteren 'Dotrina'; eta oinarri bion osagarri gisa: Idazteuna eta Eliz Gurasoak. Azter ditzagun jarraian:

a) 'Erromatar Katezismoa':

Trentoko Kontzilioak, 1546an, Eliza Katolikoaren Dotrina 'ofiziala' latinez eta gainerako hizkuntzetan egiteko erabakia hartu zuen. Kontzilio ostean, Pio IV.a Aita Sainduak teologo-batzorde bat izendatu zuen, Karlos Borromeo kardinalaren (Saindu izango zenaren) zuzendaritzapean, Dotrina ofizial bateratua burutzeko. 1566an Pio V.aren garaian argitaratu zen, «Catechismo ex decreto concilii Tridentini ad parochos Pii V iussu editus» izenaz. Dotrina hau apaizei zuzendua zegoen (ez kristau-herri xeheari), haien prestakuntza teologikoa osatzeko eta erlijio-irakaskuntzarako lagungarri izateko (17).

16. «Gerriko-ren eta crabat bere gizaldiko eleizgizonen euskerazko liburuak ezin lezazke ifiorik bear bezala epaitu, aldeaurretik jakiñan gañcan ezpadago gauz batez: Alegia, praille, ta apaiz aiek —geienak beñepein— etzitutzela euskerazko idaz-lanak literatura egiteko asmoz antolatu, Kristau-dotriña ta erlijio gaiak erakutsi ta zabaltzearren baizik» (Arrue, 1956, aip. art, 43 or.). (Ikus, halaber, Villasante, 1979, aip. ob., 250 zk.koa: «... bajo el punto de vista propiamente literario o estético, su valor (Asteasuko Agirreren obraz ari da) (como el de casi todos los libros antiguos) es escaso o aun nulo, si se quiere.»).

17. Larousse, Nueva Enciclopedia II, 1984, Planeta, Barcelona, 1830 or. Berriki atara du Elizak bere Dotrina ofiziala, gaurkotua: 'Erromatar Katezismoa'.

Jadanik maiz errepikatu dugun Gerrikoren beraren erdarazko Sarreran (Obra-
ren I tomoko «Prólogo de la idea, método y división de la obra bascongada, cuyo
título traducido al castellano es: Ensayo», IX-XXIII or.) etengabe azaltzen da
egilearen asmoa: Elizaren Dotrina ofizial honetan oinarritutako sermoietarako
Kristau-Ikasbide osotua, erabatekoa egitekoa, alegia:

«... la gran necesidad ... de ... un gran catecismo práctico arreglado al Romano
de San Pio V ...»

(IX or.).

«... me he propuesto ... arreglarme á las doctrinas del catecismo Romano, ú
de San Pio V en lo que enseña ...»

(XI or.).

«... he cuidado de arreglarme á las doctrinas del catecismo Romano formado
de orden del Santo Concilio general de Trento y dirigido por el Papa San Pio V.
á todos los Párrocos de la Iglesia Católica Romana, para instruccion uniforme de
todos los pueblos en las verdades de la Religion católica, por ser el catecismo mas
autorizado que tenemos en la Iglesia ...»

(XII or. Bistakoa da oinarritzat Trentoko 'Erromatar Dotrina' hau hartzearen
arrazoia: berau baita Eliza Katolikoaren Fedearen eta Moralaren funtsezko
Dotrina, 'ofizial' bakarra).

«... la instruccion Catequística necesaria, para que los pueblos entiendan bien
las obligaciones practicas de la vida Cristiana, esplicadas en las cuatro principales
partes del Catecismo Romano ...»

(XVI or. Edukina ezezik, beronen banaketa ere —lau parteak: Dogma,
Otoitza, Morala eta Grazia— 'Erromatar Katezismoarena' da. Astetek ba-
naketa hauxe erabiliko du bere Dotrinan, eta honen ondorengo ia denek ere
bai).

«... explicacion de las cuatro partes de la doctrina cristiana con arreglo al
catecismo Romano, dirigida á los pueblos ...»

(XXI or.).

Eta obra osoan barrena etengabe egiten du Gerrikok 'Erromatar Katezis-
moaren' erreferentzia:

Batzuetan, Trentoko Kontzilioa aipatzen du:

«... eta Trentoco Concilio santuac deseo ori declaraturic dauca; bada dio ...»
(II, 350 or.).

«Eta Trentoco Concilio Santuac aguintzen du ...»

(II, 377 or.).

«... dio Trentoco Concilio santuac ...»

(II, 421 or.).

«Trentoco Concilio santuac lenengo aitatzen duen ...»

(II, 422 or.).

«Trentoco Concilio santuaren dotriña gai onetan ...»

(II, 423 or.) ...

Beste batzuetan, Dotrinaren aipamena egiten du:

«Trentoco Catecismo edo dotriñac eracusten dituenac ...»

(II, 562 or.).

«... eta Trentoco Catecismoac Aita San Pio bostgarrenac atera eraguin zuenac, aguintzen duen ...»
(II, 568 or.) ...

Elizak Trentoko Kontzilio ostean atera zuen 'Erromatar Katezismoa' du, bada, Gerrikok bere lanaren oinarri nagusi eta funtsezko.

b) Asteteren Dotrina:

Bigarren iturburu nagusia Asteteren Dotrina 'txikia' da. Euskalerrian hainbesteko arrakasta izan zuen Aita Gaspar Astete jesuita gaztelarraren erdal Dotrina zaharraren egitura eta ordena jarraitzen du Gerrikok, berak liburuaren Sarreran eta obran barrena behin eta berriro errepikatzen digun bezala; horixe delako euskal herri xehearentzat erarik ezagunena, errazena, 'estimatuena'; (Gogora aurreko kapituluak, Larramendi/Mendibururen Dotrina aipatzerakoan, genioena). Sermoi bidez azaltzeko Dotrina honek, beraz, Asteteren 'galdera-erantzun' sistema eta ohizko Dotrinen ordena, banaketa bera jarraitzen du, Asteterenaren itzulpen zein moldaketak izan baitira, eta dira, 'betidanik' Euskalerrian erabiltzen diren eta euskaldunek ikasten eta ezagutzen dituzten 'bakarrak'.

Erdarazko Sarreran argi eta garbi azaltzen digu obraren egileak berak:

«... me he propuesto seguir el orden de las preguntas, y respuestas del catecismo del P. Gaspar Astete, que es el que se usa en el pais bascongado, y en Castilla la vieja, añadiendo otras muchas preguntas para mayor explicacion ... me ha parecido necesario seguir el orden de las preguntas y respuestas del Catecismo del P. Astete, porque, aunque muy diminuto en algunas cosas muy esenciales, es el unico que aprenden los bascongados: y es mucho mas fácil, y útil explicarles lo que ya saben, pero no lo entienden bien, que querer introducir otro Catecismo, á que es muy difícil acostumbrarlos, sin mucho trabajo suyo, y de los que intentaren enseñarselo, especialmente á los innumerables labradores que no saben leer: pero he añadido por necesidad muchas preguntas y respuestas para mayor explicacion de las cuatro partes de la doctrina cristiana ...»
(XI-XII or.).

«La obra está dividida en las cuatro partes principales de la Doctrina Cristiana como la del Padre Astete.»
(XIII or.)

Eta liburuan barrena askotan aipatzen du Asteteren Dotrina ('Cartilla', 'Dotriña laburra', 'Dotriña chiquia', 'Cartillaco Dotriña' ... deitzen dio. Kontuan izan 'Dotrina txikia' Lehen Jaunartze edo Komunio Txikirako eta Komunio Handirako prestatzen ziren haurrentzat moldatua zegoela. Baita Sendotzako edota Ezkontzako Sakramentua hartu behar zutenen nahiz Pazkoazkoa egingo zutenen 'aurre-froga edo azterketa' rako ere. Gerrikoren Dotrina, aldiz, lehentxeago esan bezala, askoz ere zabalagoa da):

«... Eta gure dotriña laburrari narrayola: galdetzen det: ...»
(I, 4 or.).
«... gure cartillaco dotriñari narrayola, galdetzen det: ...»
(I, 465 or.)

«... gure dotriñaco liburuchoac, cer sinistu, eta cer escatu bear degun eracutsi ezquero, ¿Galdetzen du: Cristauac, arrazoyaren arguira eltzen danean, jaquin bear

duen irugarren gauza cein da? Eta eranzuten du: Jaquin bear du, cer obratu bear duen. ¿Eta nola jaquingo du, cer obratu bear duen? Jaquiñarequin Jaungoicoaren legueco amar mandamentuac edo aguinteac: eta Eliza Ama Santaren bostac: eta misericordiazco obrac.»

(II, 1 or.).

«... eta ala arrazoyarequin gure dotriña laburrac dio ...»

(II, 17 or.).

«... dio cartillaco dotriña santuac ...»

(II, 104 or.).

«... eracusten digu gure dotriñaco explicacio laburrac ...»

(II, 291 or.).

«... Gure dotriña laburrac eracusten diguna ...»

(II, 547 or.).

Gerrikok, 'Dotrina txikia' aipatzeaz gain, bertako zatiak (Galderak eta Eranztunak) ere jasotzen ditu; batzuetan, hitzez hitz; bestetan, zerbait moldatuz eta luzatuz.

Zein 'Dotrina txiki' erabili ote zuen mutiloarrak eskuartean? Asteteren gaztelarazko edizioen bat? Ala honen euskal bertsioren bat? Gure ustez, Gerrikok bere obra osatzerakoan aurrez aurre duen Dotrina Hernialdeko Juan Irazusta apaizarena da: Aurreko kapituluan esan dugu zertxobait Irazustaren Dotrinaz, baita Larramendik zioena ere: euskaldunen artean, Gipuzkoan, ezagutzen, erabiltzen eta 'maite' zen bakarra zela, Dotrina berririk sortzea alferrikakoa zela, etab. (Mendibururi egiten dion kritika) (18). Gerrikok berak ere, izenik aipatu gabe, gauza beretsua dio (lerro batzuk goragoko Gerrikoren zita: Sarrerako XI or.). Gerrikoren garaian, Gipuzkoa aldean haurren katekesian erabiltzen zen Dotrina bakarra (?) Irazustarena zatekeen (Kardaberazen 1760koak ez zukeen bestearenaren 'famarik' eta hedapenik; 'berrikeria' izaki, jakina).

XVIII. mendearen bigarren partetik aurrera Mutiloan bertako apaizek (eta Gerriko benefiziatuak, noski) haurren Kristau-Ikasbiderako erabili zuten 'Kartila' Irazustarena izan zelakoan gaude. Eta apaizek beraiek ezezik, herri osoak, haur, gazte eta heldu, lehen galderatik azkenekoraino hitzez hitz eta buruz ezagutzen zuten Dotrinako pasarteak ezarriko zituen Gerrikok bere Dotrina zabalean.

Baina zein edizio? 1739-1805 bitartean (hau da, Irazustaren lehenengo ediziotik Gerrikok berea amaitu artean) badira, gutxienez, sei: Iruñean, 1739, 1742 eta 1780koak; Tolosan, 1784 eta 1797koak eta Donostian, 1801ekoa (19).

18. Lehenago ere jaso dugu, baina «... el Rector de Hernialde ... anda impresso y reimpresso en manos de bascongados ... los bascongados ... acá en Guipúzcoa ... ya tienen modernamente traducido el P. Astete por el Rector de Hernialde; y haviéndose acabado la impresión 1ª, ha hecho otra segunda, y en los lugares y casas saben el Astete en bascuence ... y ... será inútil la impresión (Mendibururen itzulpen berriarena, alegia), siendo ya tan recibida y común la traducción de Astete por el Rector de Hernialde, que en poquísimo tiempo ha despachado ambas ediciones (1739koa eta 1742koa. 1747 aurretxoan ari da idazten Larramendi). El Astete está en uso y no se admitirá ya otro Catecismo ...» (Tellechea Idígoras, José Ignacio, 1967, «Traducción al euskera del catecismo del P. Astete. Larramendi y Mendiburu», 'Euskera' XII, 308, 310-311 or.).

Kardaberazen 1760ko Dotrinaren Sarrerako oharrean ere gauza beretsua azpimarratzen da (Ikus Kardaberaz, 1973, aip. ob., «Christauaren doctrina, Aita Astetec erdaraz, eta guero ...», 459 or.).

19. Ikus EGIPV, Auñamendi, Zarauz: Bibliografía saila, IV tomoa, 410 or. (Jon Bilbaoren bilduma).

Hona segidan, parez pare ezarririk, Gerrickoren obrako eta Irazustaren 1739ko Dotrinako zati paraleloak. Dotrina gehienek lexikoa, sintaxia, estiloa, etab. oso antzekoak direla aitorturik ere, jarraian jasotzen ditugun zation arteko 'berdintasuna' oso handia dela dakusagu, eta gure hipotesiak, hots, Gerrickok eskuartean darabilen Dotrina Irazustarena dela, funtsik baduelakoan gaude (20).

Gerriko:

«Eta gure dotriña laburrari narrayola: galdetzen det:

G. ¿Cristaua cera?

E. Bai Jaungoicoaren graciaren bitartez.

G. ¿Eta Cristauaren icena norgandic izan cenduan?

E. Cristo gure Jaunagandic.

¿Cristauac cer esan naidu?

Cristoren guizona.

¿Eta cer aditzen dezu Cristoren guizonagatic?

Bateo santuan errecibitu, edo artu zuen Jesu-Cristoren fedea daucana: eta ura servitzera, edo ari jarraitzera aguin-duric, eta bearturic, edo obligaturic dagoana.» (I, 4-5 or.).

«¿Arrazoyaren arguira, edo ezagüerara Cristaua datorrenean, cembat gauza jaquitera bearturic, edo obligaturic dago?

Lau gauza:

¿Cein dira?

Lenengo: cer sinistu bear duen: Bigarrena: cer escatu bear duen: Irugarrena: cer eguin bear duen: eta Laugarrena: cer errecibitu bear duen.

¿Nola jaquingo du, cer sinistu bear duan?

Credo, edo fedeco Articulua jaquinarequin.

Irazusta:

«Galdetzen det.

Cerade Cristauva?

Eranzuten det. Bay, Jaungoicoaren graciaz

G. Christauvaren icen ori norgandic izancenduan?

E. Christo gure Jaunagandic.

G. Cer esan naidu Christauac?

E. Christoren Guizona.

G. Cer aditcen dezu Christoren guizonagatic?

E. Christoren Fedea deban guizona, ceña profesatu ceban bataiatcean, eta dagoana ofrecituric aren servicio santura.»

«Esan eguidazu orain: cembat gauza jaquin bearditu Christauvac uso razezcoa izatera elcendanean?

E. Lau gauza.

G. Cein dirade?

E. Jaquitea cer sinistu bearduan, cer oracio eguin bearduan, cer obratu bear duan, eta cer recibitu bear duan.

G. Nola jaquingo du cer sinistu bear duan?

E. Jaquinarequin Credo, edo Articulua Fedecoac.

20. Beharbada, egokiagoa zatekeen 1739ko edizioaren ordez, geroagokoren bat (1742?, 1780? ...) erabiltzea. Izan ere, seguraski, Gerriko une hartan Mutiloan irakasten zenaz baliatuko zen; eta 1739koak zaharregia ere badirudi. Dena den, 1739-1801 bitarteko edizio guztiak aztertu ditugu eta batetik bestera, ortografi aldaeraxoren bat edo beste (Christauva/Christaua/Christaüa; Jaunagandic/Jauna-gandic) salbu, ez dago inolako aldaketarik.

Bestalde, denbora eta leku hurbiltasunagatik, 1741eko 'Zegamako Dotrina'rekin ere parekatu ditugu Gerrickoren pasarteak. Baina ez dirudi Mutiloko benefiziatuak Zegamakoa jarraitzen duenik; bien artean, estilo eta formari dagokionez, ez dago antz handirik.



«Elizalde» eta baratzea.

¿Nola jaquingo du, cer escatu bear duen?

Aitagurea, eta Elizaren beste oracioac, edo esaerac jaquiñarequin.

¿Nola jaquingo du, cer eguin bear duen?

Jaungoicoaren legueco mandamentuac, Eliza Ama Santarenac eta misericordiazco obrac jaquiñarequin.

¿Nola jaquingo du cer artu, edo errecibitu bear duen?

Eliza Ama Santaren Sacramentuac jaquiñarequin.» (I, 18 or.)

«¿Trinidad Santisimoa cer da?

Da Jaungoicoa bera, Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua: iru persona distintoac, eta Jaungoico eguiazco batar bat.» (I, 57 or.)

«G. ¿Cergatic deitzen diegu pecatu capitalac edo besten buruac escuarquiro mortalac esaten zayen zazpi pecatu oei?

E. Cergatic diran aetatic datocen bicio edo pecatuen sustrayac, eta iturburuac:

G. Nola jaquingo du cer oracio eguin bearduan?

E. Jaquinarequin Paternosterra, eta beste Elizaren oracioac.

G. Nola jaquingo du cer obratu bear duan?

E. Jaquinarequin Jaungoicoaren Legueco Mandamentuac, eta Eliza Ama Santarenac, eta Obra Misericordiazcoac

G. Nola jaquingo du cer recibitu bear duen?

E. Jaquinarequin Eliza Ama Santaren Sacramentuac.»

«G. Trinidad Santisimoa norda?

E. Da Jaungoicoa bera, Aita, Semea, eta Espiritu Santua, iru Persona diferenteac, eta Jaungoico eguiazco bat.»

«G. Cergatic deitu diezu pecatu Capitalac, zazpi cumunmente, edo guenyean mortalac esaten zatenay?

E. Deitudiet Capitalac, cergatic diraden, beste vicio aetatic jayotcen diran

eta eztagoquie aiñ ondo mortalac deitza: bada ascotan eztira venialac baidic.» (II, 21 or.)

«G. ¿Cer errecivitzen degu Comunion Sacramentu guztiz santuan?

E. Cristo Jaungoico, eta guizon eguiazcoa, Aldareco Sacramentu guztiz Santuan eguiaz dagoana.» (II, 512 or.)

«G. ¿Certaco da Extremauncioa edo azqueneco oleadura?

E. Iru gauzataraco.

¿Cein dira?

1^a. Igaroco bicitza gaiztoaren erreliquiac, arrasto edo cutsuac quentzeco.

2^a. Demonioaren tentacioen contra animari indarra emateco. Eta 3^a. gorpuzari osasuna emateco, animaraco conveni bazayo.» (II, 543 or.)

«G. ¿Ordenaco Sacramentua cer da?

E. Da Jesu-Cristoc berac disponitu edo eguin zuen Sacramentu bat, Eliz-guizonac ordenatzeco edo consagratzeco; nola diran, Sacerdoteac, Diaconoac, Subdiaconoac, eta beste gañeracoac.» (II, 552 or.)

«G. ¿Certaco da Matrimonio santua edo ezconzaco Sacramentua?

E. Ezconzeco, eta ezconduai gracia emateco, alcarrequin paquean, eta amorioan bicitzeco, eta izaten dituen aurrac Ceruraco acitzeco.» (II, 559 or.)

denen buruac, iturriac, eta sustrayac becela, eta mortalac deitza ez dator ain ongui, bada ascotan ez dirade venialac baño gueyago».

«G . Cer recibitcen dezu Sacramentu Santu onetan?

E. Christo gure Jauna Jaungoico, eta Guizon eguiazcoa, ceña dagoan ver daderamente Sacramentu Santissimo onetan.»

«G. Certaco da Sacramentu Santu Extremaunciocoa?

E. Iru gauzataraco.

G. Cein dirade?

E. Leenengoa, vicitza gaizto pasatuaren rastroac, eta reliquiac quentceco. Bigarrena, animari indarrac emateco demonioaren tentacioen contra. Iru-garrena, corputzari osasuna emateco, conveni bazayo.»

«G. Certaco da Sacramentu Santu Ordenacoa?

E. Consagratceco, eta ordenatceco Eleizaco Ministro dignoac, nola diraden Sacerdoteac, Diaconoac, eta beste gañeracoac.»

«G. Certaco da Sacramentu Santu Matrimoniocoa?

E. Ezcontzeco, eta emateco ezconduai gracia, onequin bicitzeco, eta criatu ditteen semeac Ceruraco.» (21)

c) Idazteuna, eta d) Eliz Gurasoak:

Aipatu iturburu nagusion ondoan, osagarri gisa, badu Gerrikok beste pare bat ere: Idazteuna eta Eliz Gurasoen eta Elizaren agintarien (Aita Saindu eta Gotzaien) dotrina, erakusbidea, baita zenbait entziklika ere.

21. Irazusta, Juan, 1739, «Doctrina Christiana Eguinzuana erdaraz Aita Gaspar Astete, Jesuitac. Ipinidu Eusqueraz Don Juan de Irazusta, Erretore Hernialdecoa, ceña dan Provincia Guipuzcoacoan, bere Feligresiac aurrari Doctrina eracusteco ...», J.J. Martinez, Iruñea, (ez du pa-

Oraintsu azaldu dugunez, 'Erromatar Katezismo' ofiziala apaizentzat bakarrik zen, ez zegoen kristau-herri arruntari zuzendua; bestalde, 'Dotrina txikia' laburregia zen, gai asko gutxiegi landuak edota azaldu gabe geratzen ziren, Gerrikoren beraren hitzetan. Horregatik gure benefiziatuak, herri xeheak errazago uler eta jaso ahal dezan Dotrinaren edukina, Eskritura Santu eta Eliz Gurasoen adibide ugariz aberasten du berea, hots, berak dioen bezala, 'San Agustinen kontseiluari jarraituz', sermoi, platika edo dotrina hauek Idazteuneko eta autore zaharren erlijioari buruzko obretako ideia eta pasarte oinarritzkoen eta esanguratsuenaz hornitzen, borobiltzen ditu.

Autoreak berak zehazten dizkigu iturburuok:

«... para que la instruccion sea mas sólida y mas abundante, y para ecitar mas la atencion, y aun la curiosidad, y deseo de saber cosas útiles, é importantes, se ha incluido en las doctrinas lo mas sustancial de la Historia Sagrada, segun el consejo de San Agustin ...»

(Sarrerako X or.).

«... pero como

('Erromatar Katezismoa')

no está dirigido inmediatamente á los mismos pueblos, sino á los Párrocos, y en muchos puntos, que no esplica, los remite á la Santa Escritura, y á los Santos Padres, y Doctores ó maestros de la Iglesia, que han esplicado el dogma, y la moral cristiana; me he valido por necesidad de obras de autores clásicos de la mas sana doctrina en lo dogmático, moral y místico ...»

(XII or.).

«... me he propuesto ... arreglarme ... en lo demás

('Erromatar Katezismoaz' eta Asteterenaz gain, alegia)

á las doctrinas de Autores clásicos las mas sanas y útiles al pueblo ...»

(XI or.).

Ugariak dira Gerrikoren 'Saiakera'n Idazteuneko (Testamentu Zaharreko zein Berriko) pasarteak, batzuetan latinez, bestetan euskaraz ezarriak. Halaber, esan bezala, I tomoaren erdian Historia Sakratu, hots, Idazteunaren bertsio herrikoi laburtu bat ere eskaintzen digu; (geroago, Lardizabalek egingo duen antzera).

Elizaren dotrina-maisuen, Eliz Gurasoen zitak ere etengabe azaltzen zaizkigu obran barrena barreiatuak: Antzinatekoak (Elizaren lehen mendeetakoak) eta berriagoak, Espainiakoak eta beste hainbat herritakoak (Portugal, Frantzia, Italia, etab. etakoak), baita Euskalerriko San Ignazio Loiolakoarenak ere (ordenakide izan zen Aita Agustin Kardaberaz handiak euskaratutako «Aita San Ignacio Loyolacoaren Egercicioac ...» (Iruñea, 1761) liburuetan oinarriturik, ziurrenik).

jinaziorik); (Gipuzkoako Artziprestazgoko haurrentzako Kristau-Ikasbidea, beraz).

Autore zahar bion aipaturiko dotrina-zatien eta berriagoenen arteko erkaketa egin gura lukeenarentzat, hona hemen XX. mendeko bi dotrina ofizialen aipamena: Uriz eta Labairu, 1936, «Kristau Ikasbidea Gaspar Astete, S.J. Aitak egiña ... berretua eta ... osotua ...», Aranburu, Iruña, 13-14, 16, 18, 60, 63-64 or. (Oso interesantea «Aurreko Oharrak» Sarrera, III-V or., 'galdera/erantzun' teknikaz, etab.); eta Jaungoiko-Jakintzaren Erakusle-Batzordea, 1951, «Donosti'ko Eliz Bafutirako Kristau-Ikasbidea, Gipuzkoa'ko euskeraz», Gasteiz, 3, 5-6, 11-12, 41, 62, 70-71 or.

Bistan da, Asteterengandik hasita, dotrina zahar eta guk ezagutu ditugun azkenengoan artean ez dagoela aldaketa handirik (lexikoa eta idazkera apur bat orraztea; gainerantzean, egitura, sistema, etab., berbera dute guztiek).

Aipa ditzagun batzuk:

«... Elizaco Doctore edo Maisu andi San Agustinec ...», «... ala eracusten digüe Santo Thomas, ta San Gregorio Elizaco Doctore edo Maisu andiac ...», «... Santa Teresa de Jesus, gauza espiritualetan ain Doctorea, eracusle ta Maistra andi, eta arguitsuari ...», «... San Francisco Sales Maisu espiritual andiac ...», «Fr. Luis de Granada Veneragarriac ...», «Bossuet Franciaco Obispo jaquintsuac ...», «San Geronimo Elizaco Doctore andiac ...», «... San Juan Crisostomo andiac ...», «... Santa Catalina Senaco ...», San Bernardo, San Isidoro, etab., etab., «Aita San Ignacio Loyolacoaren egercicioetaco liburu preciatuan consideracio chit ego- quiac ...»

(II, 447 or.) ...

Zenbait entziklika eta Gotzai-agindu ere jasotzen digu: «Cuniliati et cate- quistadiste», besteak beste. (22)

5. Eraginak

Gerrikoren obran bere aurreko zenbait euskal autoreren eragina ere nabaria da. Hiru jasoko ditugu: Axular, Ubillos eta Kardaberaz.

Axular: Klasiko handi honen eragina nabarmen-nabarmena da mutiloarraren lanean, zenbait pasartetan. Gerrikok ezagutu ote zuen Axularren «Guero»? Ala zeharkako iturriren batetik edan ote zuen? Hurrengo kapituluan zabalago azalduko dugu, Mitxelena, Sarasola, Altzibarri jarraituz, Hegoaldeko idazleek nahiko ongi ezagutu zituztela Iparraldeko zaharragoak, batez ere Axular; eta hauen lexiko aberats eta idazkera ederrera hurbiltzen, zertxobait bederen, ahalegindu zirela, gipuzkoarrak batipat (23).

«Coleraren erremedioez» ari delarik, honela dio Axularrek bere «Guero»n:

Axular:

«Hirur garren erremedioa, diraquien eltcearen gaiñez eguinic dohanean guelditceco eta beheititceco, da, ur hotca. Hala bada coleraren iraungui- teco eta sosegatceco ere, da, hitz ona errepuesta emea, eta ezitia ... Erre- puesta emeac eztiac eta berac, emat- cen, eztitcen, beratcen eta hausten du mendecatceco desira des ordenatua ...» (24).

Gerriko:

«... baña hitz biguñ batec, eranzuera suave batec besteren colera autsico du, emendatuco du, sosegatuco du, ur otzac diraquian lapicuaren gargarratea quentzen edo templatzen duan becela ...» (II, 54 or.) (25).

Ikus dezakegunez, Gerrikori ere estilo eta lexiko beretsua somatzen diogu.

22. «Bere iturburu nagusia, Elizaco Guraso ta beste Erlijio gaietako jakintsu zarretan dago, baña geroxeago beste batzuen itzala ere, ordea, oartzen da bere Sayakera-n. San Inazio, Aita Granada ta Aita Kardaberaz-ena, batez ere. Axular-en apur bat ere, agian, bai noski.» (Arrue, 1956, aip. art., 42 or.).

23. Pedro Antonio Añibarro frantziskotarrak (1748-1830) Axularren «Guero Guero», bi- garren edizioa bizkaieraz jarri zuen (1923tik aurrera argitaratu dira zati batzuk).

24. Axular, 1988, «Guero ...», Euskaltzaindiaren edizio faksimilea, 293 or.

25. Ikus Arrue, 1956, aip. art., 42 or.: «... beste batzuen itzala ere ... oartzen da bere Sayakera-n ... Aita Kardaberaz-ena, batez ere. Axular-en apur bat ere, agian, bai noski ... ziur asko, Gerrikok-k ezagutzen zuan Axular-en «Gero». Edo-ta bestela, gai ontan biak, Axular eta Gerriko-k iturburu batean edan zuten.»; eta gure adibide berau jasotzen du.

Ubillos: Amasako frantziskotar honen «Christau doctriñ berri-ecarlea ...» (Tolosa, 1785) ere ongi ezagutzen zuen goierritarrak.

Antzinako kristau martiriez:

Ubillosek:

«... etsaiac aec castigatzeco, cebiltzan asmatzen castiguric gogor-enac: urratzen cizten gorputzeco aragui guciac burnizco azcazalaquin, ta ortzaquin: erretzen cituen surtan: sartzen cituen olio iraqiñetan, ta berun urtuan: botatzen cituen, artzac, eta leoiac ceuden tóquira, oec heren atzaparraquin puscatu, ta jan citzeen: larririquitzen cituen, ta ateratzen cizten sabélac: cerratzen cituen batzuec, ta eguiten cituen erdi bi: besteai ebaquitzen cizten oñac, eta escuac ...» (26).

Eta Gerrikoren ‘kopia’:

«... urratzen cizten gorputzeco aragui guciac burnizco azcazal, edo punta zorrrotzaquin: biciric ceudela erretzen ciztuzten su bici iracequietan: sartzen ciztuzten olio iraqiñetan, edo berun urtuetan; eta baita broncezco cecen, su eguiñic, eta gorituric ceuzcatenaen barruetan: larriquitzen, eta gorputzeco zati guciac banaca ebaquitzen cizten ...» (I, 359 or.) (27).

Kardaberaz: Batez ere jadanik hain ezaguna eta estimatua zen Aita Agustin Kardaberaz hernaniarraren eragin bortitza ageri da Gerrikoren ‘Dotrinan’; (jesuita misiolari bikain honen obrak 1760tik aurrera argitaratu ziren).

Sarritan aipatzen du Gerrikok Kardaberaz. Adibide bakarra jasoko dugu: II, 251-253 or.:

«... orretaraco Aita Agustin Cardaberasec, Provincia onetan, eta Vizcayan luzaro celo miragarri batequin misioac eguin cituan misionero fama andicoac, eta virtute andiagocoac eguin zuen, Aita San Ignacio Loyolacoaren exercicioen gañeco, eusquerazco liburu preciatu batean dacarren gai onetan examinatzecco modua emen aditzera emango dizuet ...»;

eta segidan Kardaberazen «Aita San Ignacio Loyolacoaren Egercicioac ...» (Iruñea, 1761) liburuko parte luze bat hitzez hitz transkribatzen digu, tarteka zenbait aldaketa ortografiko nahiz bestelako ttipi batzuk ere giten ‘ausartuz’: Adibidez:

Kardaberazek:

«Libreac ciran/ Jaincoari/ zure estadua esan beardezu/ ciñala/ voto, edo juramentu, onetan pecatu ez eguiteco, ezquero/ bestez baliatu ta/ atseguin artcen, edo besteri arrerazotcendiozula/ conturic contatu/ bialdu/ bacindu be-

Gerrikok, berriz:

«libreac edo ezcongayac ciran/ Jaungoicoari/ zure estadua ere esan beardezu/ ciñela/ pecaturic ez eguiteco votoa edo juramentua eguin ezquero/ bestezaz baliatzen cerala/ ceure atseguin artzen dezula edo besteri erazotzen

26. Ubillos, Fray J. Antonio, 1978, «Christau Doctriñ Berri-ecarlea ...», Euskal Klasikoak 3, Hordago, Donostia, 115 or.

27. Ikus Mitxelena, Koldo, 1988, «EIG IV, Literaturaren Inguruan I», Klasikoak 24, EEE, Elkar, Zarautz, 72 or.: Ubillos «maile ere izana dugu ... bestek harengandik jaso baitu gaia eta forma. Horrela jokatu zuen behintzat Gerrikok ...»; eta gure adibide berau jasotzen du.

zala/ bearduenac aditcendu, ta gueiago ezta esan bear/ torpezetan/ demboran, oitura ori, edo costumbrea iduquidezun/ iduquitcea/ eracartceco/ adisquidatasuna/ causa gabe/ eguitendituzten/ ezdira/berac» (28).

diozula/ contu ciquiñic contatu/ bidaldu/ bacinduz becela/ contuan daudenac onembesterequin aditu dezaque/ torpecetan edo liquisquerietan/ demporan, oitura edo costumbre ori eduqi dezun/ eduquitzea/ eracarteco/ adisquidetasun ciquiña/ motivo eguiazco bague/ eguin dituzten/ ezтира/ erac»

Gure autore zaharrok lasai-lasai 'hartzen' eta, hala irudituz gero, moldatzen, egokitzen zituzten klasikoagoen testu-zatiak; izan ere, Mitxelenak dioen legez,

«... ez zuten egina aurkitzen zuten lana ... berriz beren kabuz egiteko gogo biziegirik agertzen. Guztion ondasuna zen, dirudienez, eliz-inguruan zebilena bederen.» (29).

6. Erretorika eta sermoi-oratoria

Aipatua dugu Gerrikoren dotrinok jaiegunetako mezetako sermoian, pulpitik irakurriak izateko eran moldatuak daudela. Larramendik eta honen jarraitzaileek (Kardaberazek ...) egundoko garrantzia eman zioten elizgizonen oinarritzko eginbide honi, hots, sermoiari: biziki arduratu ziren sermoietako hizkera ezezik estiloa (forma) ere txukuntzeaz, edertzeaz; eta honela, gureganaino heldu den euskal oratoria 'berri' bat sortu eta garatu zaigu (30).

Gerrikoren obran ere, hainbat fraile eta apaizen estilo bizi, gartsuan ez bada ere, nabari da sermoi-oratoria hau; entzulegoaren arreta bizteko eta esan beharrekoen garrantzia azpimarratzeko asmoz egituratutako pasarteak, alegia, ugari dira gure benefiziatuaren obran. Jaso ditzagun adibide batzuk, obra, orohar, motel samarra, bixitasun eskasekoa dela aitorturik ere (31):

28. Cardaberaz, 1973, aip. ob., «Aita S. Ignacio Loyolacoaren Egercicioac ...», 251-252 or.

29. Ikus Mitxelena, 1988, aip. ob., 72 or.

30. Larramendiren asmoa: euskararen «beregaintasuna, eredu bilaketa, edertzea. Azken honi dagokionez, Mendiburu eta Kardaberazek aitortu zuten, bai, Maisuaren Gramatikaren eragina ... Gainera, Larramendigandik hasita, idazle hauek hegoaldean erretorika klasikoa sartzen eta egokitzen dute euskaraz, josulagunek bultzatu eta beren eskoletan irakasten baitzuten. Andoaindarrak bere sermoietan ... hots handiz eta ditziraz erabili zuen, jenero hori egokiagoa delarik erretorikarako itzulpen edo moldaerak baino, esate baterako. Kardaberazek ... aitortzen du badela erregela gabeko edo erretorika naturala edo berezkoa, baina jaiotzako hizkuntza Ele Eder edo Elokuentziaren (hots, Erretorikaren) arauen bidez landu eta politikitu behar dela ... Idazle hauen baliabide erretorikoan azterketa lagungarria gerta daiteke hizkuntzaren aldetik ere -erretorika hiztegi, joskera eta arlo askotara hedatzen baita- euskal prosa idatzia hobeki ezagutzeko beharrezkoa izateaz gain, eta egin diren azterketatxoak sakondu eta zabaldu beharko lirarteke.» (Lakarra, 1992, aip. ob., Altxibaren artikulua, 337 or.).

Ikus Kardaberaz «Euskeraren Berri Onak» liburuko azken bi kapituluak: VIII.a: «Euskarazko Erretorika nola dan» (adibide ederrak, herrian jasoak, biltzen dizkigu bertan) eta IX.a: «Kristau Dotrinaren Erretorika».

31. Hara zer dioen Gerrikok berak bere 'estiloaz': «... hago la explicacion (sermoia, alegia) en dialogo, ú conferencia familiar ...» (I tomoko Sarreran, XII or.).

«... daquizuen ezquero pecatu mortala eguiten duela, edoecin gai grabe edo pisan Jaungoicoaren legue, eta vorondate santua ausitzen duenac erraz ezagutu dezaquezue, nolaco injuria, nolaco ofensa, nolaco despreccioa eguiten diozuen Jaungoicoaren Magestadeari, eta aren anditasun infinitoari. Norc, eta nori! ¿Cer cerate, eta cer guera gucioc Jaungoicoaren Magestade soberanoaren aldean? ecerezac: munduco arric chiquienac baño ecerezagoac: ¿Eta degun izate gucia, ala animaren aldetic, nola gorputzaren aldetic norena degu? Nori zor diogu? eta norc mantentzen gaitu? Eta gure zorion gucia, oraingoa, eta guerocoa, edo beticoc? Noren escuan dago? ¿Eta cer eguin degu, pecatu mortala eguin degunean? Nayago izan degu gusto cital bat cumplitzeagatic, edo interes labur bat aurreratzeagatic gure Jaungoicoa despreciatiu, injuriatu, eta ofenditu: eta aren Magestadearen contra alchatu, eta beraren aserretasunean, etsaitasunean, eta gorrotoan erori, eta esquer gaiztoz eranzun aimbeste mesede eguin digun, eta eguiten ari dan gure Jaun, eta gure eguille, eta mantentzalle, eta onguille guztiz maitagarriari. Ori gucia ondo pensatu ezazue, eta pecatu mortala cein igüigarria dan nolabait ezagutuco dezue: aborre-cituco dezue: damutuco cerate: eta aurrera alacoric ez eguiteco asmo edo propositu eguiazcoac, eta sendaco artuco dituzue: eta are obeto 2^a. Jaungoicoac zuer mereci bague, eguin dizquizen mesede, edo favore guztiz andiac banaca gogoraten, eta consideratzen badituzue: eta cein esquer gaiztoarequin eranzun diozuen, eta ala batezere oroitu zaitezte sarri 1^a. nola gure Jaungoicoac eguin zaituen bera biotz guztitic amatzeco, eta eternidade gucian caburic izango eztuen gloriac gozatzeco. 2^a. Nola bere ezagüerara, eta Ceruco bidera ecarri zaituen. 3^a. Nola bere Seme maite Jesu-Cristoren odolaren costuan pecatutic, demonioaren cativeriotic, eta betico Infernutic libratu edo atera zaituen: eta Sacramentu santuetan aren eriotza santuaren frutua, pecatuen barcacioa, eta bere gracia eman dizuen: Ceruco here-deroac edo jabe gayac, eta derecho dunac eguin zaituen: eta Aita Eternoac artu zaituen bere seme-alabat: Jesu-Cristoc bere senidet: eta Espiritu Santuac bere jarlecu, eta templot: eta bere graciarequin batera bear dituzuen virtute, eta doai guciac eman dizquitue bicimodu on bat eguiteco, eta betico zoriona iristeco: eta ala ere aña ardura bague pecatu mortala eguin dezue; izan ditequean esquergabeta-sunic andienarequin zuen eguilleari, eta onguille aña andiari eranzun diozue: Deabruaren mendera biurtu cerate: aren antzeco monstruo icaragarriac eguin cerate: Ceruco derechoa galdu dezue: betico Infernua mereci izan dezue: eta Jesu-Cristoren pasio, eta eriotzaren frutua ecertan eduqui eztezue: eta berriz Jesu-Cristo gurutzean ill erazotzeco diña motivo eman dezue: eta ecerezqueria bategatic ascotan galdu dezue: ¿Izan diteque, N.C. zoraqueri andiagoric? ¿ichumen arrigarriagoric? ¿Eta gaiztaqueri igüigarri, eta nazcagarriagoric? ¿Nor lotsatuco, humillatuco, eta damutuco ezta, cer eguin duen, eta Jaungoico aña andi, eta aña on bati nolaco billauqueriarequin eranzun dion, consideratzen badu? ¿eta nor jarrico ezta, milla bicitza balitu ere, guciac ematera, pecatu mortal bat ez eguiteagatic, eta bere Jaungoicoa eta bere anima betico ez galtzeagatic? Bai, N.C., pecatu mortala da izan ditequean gauzaric igüigarriena eta caltegarriena: eta ori ezagutzeco, zuen fedea pisca bat piztutzea baicic bear eztezue: bada pecatu mortalac galdu eraguiten dizquitue, munduco tesoro, eta contentu guciac baño infinitamente gueyago balio duen Ceruco ondasun, eta contentu eternoac: eta pecatu mortalac dacazquitue beti beti iraungo duen tormentu edo oñace izugarriac Infernucoc leice izugarrietan sufritu bearrac. ¿Baña noiz artean? Eternidade gucian. Ori ondo pensatu ezazue: Jaungoicoari bere arguia, eta gracia escatu eguiozue: eta zuen buruac len baño len, edo bereala pecatu mortalec libratzeco aleguin guciac eguin itzazue: eta baita aurrera Jaungoicoaren gracion beti irauteco ere.»

(II, 9-10 or. Nabarmentzekoa: Galdera erretoriko eta esklamazio kateak, sinonimo pilaketak, 'Onaren' eta 'Txarraren' arteko kontraposizio konstanteak eta, orohar, diskurtso osoaren abiadura bixi, bizkorra (errepikakor

samarra ere bai), juntagailuak janez nahiz alderantziz, hain gustoko duen 'eta' erabiliz, etab.).

«... Badaquizue N.C.: gure zorion gucia dagoala, gure vorondatea bere deseo guciaquin Jaungoicoaren vorondate Santuarequin bat eguiñic edo conformaturic eduquitzean: eta ori ondo eguitea eragozten digula, guere buruaren gueyeguizco edo eragabeco amorio propioac: emendic datorquigu soberbia, eta arrotasuna, eta besteac baño honra, eta estimacio gueyago izan nai eragabea: emendic avaricia edo guticia, eta eragabeco interes, eta ondasun gura gaiztoa: emendic lujuria edo araguiaren gusto ciquiñen apetitu edo griña, charra: emendic gula edo erabagueco jateco, eta edateco deseo fortitza: emendic ira edo colera, eta aserretasuna, eta vendecua: emendic embidia, eta gorrotoa: eta emendic naguitasuna, virtutearen igüitasuna, eta obra onac eguiteco atzerapena, eta alpertasuna: ¿Cer eguin bear degu bada, erabagueco pasio edo vicio oriec mortificatzeco, eta goitzeco? Erremedioac ugari emanic dauzcagu berariaczo doctrinetan. Eta ona orain erremedio bat bacarra, eta guziz eraguillea vicio orien gucien contra. ¿Cein da ori? Gogora ecartzue: Cristauac ceratela: eta Jesu-Cristori jarraitzen ezpadiozue, Cristauaren icena bai, baño Cristauaren izanic eztezuela. Consideratu dezagun bada gucioc, eta beti gogoan erabilli dezagun gure Ceruco Maisu, eta Guidari Jesu-Cristoren guztico humiltasuna: aren pobreza, oni darraizcan nequeaquin: aren castidade, eta garbitasun guztiz miragarria: aren gose egarriac, eta beazunezco edari miña ill bear zuenean: aren paciencia, eta mansotasun guztizcoa aimbeste afrenta, injuria, desprecio, eta tormentuen artean: aren erruquia, eta misericordia bere etsai gaiztoen aldera: eta azquenic, gu salvatzeagatic, eta guri ejemplo emateagatic artu cituan neque arrigarriac: eta lotsatu gaitecen, aren discipulu, eta jarraitzalleac izanic, ain arroac, ain guticiosoac, ain atzeguin ciquin zaleac, ain gulosoac, ain aserrecorrac, ain embidiosoac, eta ain naguiac guala icusiric: eta escatu deguogun gogotic bear degun arguia, gure ichumena ezagutzeco, gure amorio propio eragabea, eta orri darraizcan pasio edo vicioac mortificatzeco indarra: eta Jaungoicoa biotz guztitic amatzeco, eta aren vorondate santua eguiteco gracia. Eta orri darrayon betico gloria. Amen.»

(II, 373-374 or.).

«G. ¿Eta gure buruac ondo ezagutzeco cer eguin bear degu? E. Ona San Bernardo andiac orretaco eracusten digun equiera edo exercicio guztiz egoquia. Eta da, iru gauza oec beti gogoan erabiltea. *Quid fuisti? Quid es? et quid eris?* Cer guñan? cer gueran? eta cer izango gueran? Orain eun urte ¿cer guñan emen gauden gucioc? ecer ez: utsa: ¿eta ecer ezac edo utsac ecer eguin, eta mereci cezaquean? Iñola ere ez. Orrela ceran gucia, eta dezun gucia eztezu cerea, ezpada eguin zaituanarena? Ala da eguia, ecin ucatu dezaquegu. ¿Cergatic bada arrotzen cera, cerez baciña becela, eta ceran gucia Jaungoicoari zor ezpaciño becela? ¿Eta orain cer guera? Gorputzaren aldetic usteldasuna, eta loiqueria alde gucietatic darion onci bat: ondo estaltzeco, eta apaintzeco aleguiñac eguin arren. ¿Eta animaren aldetic cer guera? Pecatuan sortuac izan ezquero: Jaungoicoaren etsayac eta deabruaren mempeco billavac: eta Jesu-Cristoc, guc mereci bague, bere odolaren costuan erosi edo erredimitu ezpaguindu: eta Sacramentu Santuetan bere gracia aplicatu ezpaligu, betico condenatu bearrac guñan. ¿Eta arrezquero ere guerez cer guera? Ichu batzuec: eri batzuec: pobre miserable batzuec: guztiz argalac: gaitzera macurtuac: oneraco pisuac, eta naguiac: eta Jaungoicoaren misericordiac erruquiz beguiratzen ezpadigu, eta arguitzen, muguitzen, eta indartzen ezpagaitu, galdu bearrac. ¿Nola bada arrotu gaitezque, ori gucia eguia izanic? eta guero cer izango guera? Gorputza auts eguiña, eta arraen janaria: ¿Eta anima? gure Jaungoicoac bere graciarequin laguntzen ezpadio, pecatutic alde eguiteco, eta obra onac eguiten irauteco, betico condenatu bearra ...»

(II, 25 or.).

«... ha! cembat pecatu, eta cembat calte dacetzen munduan erabagueco janac, eta edanac! ...»

(II, 59 or.).

«... Ah! eta cembat onelaco munduan icusten diran! Baña aitatuco ote ditut emen guciac banaca? Ori ecin dateque dotriña labur batean; eta ala ere, ecin esan gabe utzi dezaquet ...»

(II, 430 or.).

7. Moralismoa

Moral-kontuan txit zorrotza dugu Mutiloko benefiziataria, orduko apaiz eta fraile zorrotz haiek bezalatsu, noski. Kontraerreforma garaian, jansenista moral-estukoen kontra ihardun zuten San Inazioaren jarraitzaileak beraiek ere arerioaren 'moralismo hertsia' kutsatuak geratu ziren; eta, ezaguna denez, pentsakera eta jokabide honek luzaro iraun du (eta irauten du) gure artean (32).

Dena den, konparaketak egiten hasiz gero, Frai Bartolome Santa Teresa-koaren aldean, gure goierritarra leuna, samurra, zalua, 'irekia' dugula aitortu behar. Hainbat bider jorratua izan den dantza-kontuan, esate baterako, Gerriko Manuel Larramendi jesuita handiarengandik hurbilago dakusagu Markinako karmeldarrengandik baino. Gerrikoren aburuz,

«... danzatzea ... berez da gauza indiferentea: ara nola diran berez indiferenteac carta jocusac, vola jocusac, pelota jocusac, ondo eguiten badira, au da, fin edo motivo onarequin, modestiarequin, eta pecaturaco peligro bague, eztira berez pecatu: baña gaizqui usatzen badira, pecatu dira; eta beste pecatu ascoren sustrayac izan oi dira.» (II, 241 or.).

Frai Bartolomek, aldiz, hara zer dioen euskal dantzez:

«Menturaz ezda Cristandade guztian dantza desonestubagoric, ta lotsa guchiagocoric eguiten egun arguiz, euscal errijetan baino. Jazo leiteque au, gueure eusqueran casic ezer bere escribiduta ezdagualaco dantza galduben gainian. Bada izanic euscal errijetaco gentia cristinautasun andicua euren tratu, artu emon, ta eguitade guztietan, dira chito nasaijac euren olganzaco dantzeetan.» (33).

Alde ederra bi moralzaleon artean! (Haatik, ordutik hona gertatu da aldataririk franko moral-gaiok azaltzeko eran bertan ere!).

Segidako pasarte honetan ere aurrekokoan antzeratsuko 'irekitasun' eta 'zuhurtasuna' nabari zaio mutiloarrari:

32. «Si un hecho en la historia moderna ha tenido una profunda repercusión en Vasconia, éste es el concilio de Trento, cuyos efectos llegaron a conformar de modo permanente casi todos los aspectos de la vida del país. Después de él y en su consecuencia va realizándose la identificación, luego familiar, de lo vasco con el catolicismo ... En las costumbres se establece como ley un recato cada vez mayor en la expresión, sobre todo en lo relacionado con el sexo ... Esto habría de tener una prolongación en la guerra incansable que hicieron contra los bailes ...» (Michelena, 1988, aip. ob., 61 or.).

33. Santa Teresa, Fray Bartolomé, 1978, «Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurricoz gatz-ozpinduba ...», Hordago, Donostia, 10 or.

Ikus, Arrue, 1956, aip. art., 42 or.

«... Badaquizue berez jancia, jan edana, modu onean noiz edo noiz jocatzea, alcarrequin modu onean atseguin artzea, eta tratoac bear danean eguitea, gauza onac dirala, eta pecatu bague eguin ditezqueala: baña neurritic igaro ezquero, guztiz caltegarriac, eta pecatu ascoren gayac izan oi dira ...»
(II, 461 or.).

Hara zer aitoren egiten digun Gerrikok bere buruaz:

«... y solo advierto que igualmente aborrezco las doctrinas laxas y rígidas, porque las unas ensanchan demasiado la moral, y fomentan el vicio, y las otras con el título de mayor seguridad conducen á muchos á la desesperacion: y procuro buscar siempre en cuanto pueda lo mas verosimil, ó mas conforme á la verdad ...»
(I, XII or.).

Halere, Elizaren Morala ahalik eta zehatzen eta zorrotzen jaso beharrak eraginda, gure Gerrikoren 'Dotrina' 'kasuistikaz' josia ageri zaigu; moral-gaiok ahal bezain zintzoen eskaintzen saiatzen da; (bere garaiko, lehenagoko eta ge-roagoko elizgizon gehienak bezala, jakina). Jaso ditzagun, lagin gisa, adibide batzuk:

«G. ¿Eta cembaterañoico cantidadea edo gaya ostutzea da berez pecatu mortala? E. Ori erabatera neurtzen lanic asco dago: doctore edo eracusle batzuec diobe, lau erreal edo oen balioa edoceñi ostutzea pecatu mortala dala: cerren berez alde oetan cantidade andia dala uste due: baña escuarquiró jaquinsuenac eracusten due, lapurretaren anditasuna, larritasuna edo pisutasuna edo gravedadea neurtzen dala, eguiten dan calteic edo dañutic: eta ala cantidade berdiña quendu arren, pobre bati calte andiagoo eguiten zayo, aberats bati baño: (diru guchi dan demporan calte andiagoo eguiten da, dirua ugari dabillenean baño:) eta calte ori berez andia, eta pisua dala eracusten due, egun batean persona batec bere premiazco jatorduac eguiteco diña quentzen bazayo; eta nola pobreac gastu guchiagorequin eguna igarotzen duen, aberatsac baño, orregatic bere nequearequin bici dan necazari pobre bati edo beste oficiale edo arotz, arguin edo alaco bati, erreal bi quentzea izan litequeala pecatu mortala: eta orobat esquean doi doia bicitzeco billatzen duenari erreal bat quentzea edo ostutzea izan ditequeala pecatu mortala: eta calteari bacarric beguiratzen zayola, orobat da berez pecatu mortala; jostun bati, bearra eguiteco nai ta ez bear duen jostorratza quentzea: edo escribau bati, bere premiazco lana eguiteco edo plumac edo tinteroá edo papera quentzea: bada galdu eraguiten zaye mantenatzeco bear duen irabacia, eta calte andia eguiten zaye.

G. ¿Eta aberatsai cerbait ostutzen zayenean, cembaterañoicoa izango da berez pecatu mortala? E. Ori ere ecin erraz neurtu diteque: cerren aberatsen artean diferencia guztiz andia dago: baña ala ere escuarquiró doctoreac eracusten due Erregueri edo Principe, eta grande edo anditsu guztiz aberatsai amar edo amabi erreal ostutzea pecatu mortala, eta guchiago ostutzea pecatu veniala dala: aec becin aberats eztiran aen ondorengoai sei edo zortzi erreal guchi gorabera ostutzea pecatu mortala dala, eta guchiago veniala: eta bestelaco cavallero, aciendadun, eta mercatari cerbait erara bici diranai lau erreal, guchi gora bera, quentzea, pecatu mortala dala, eta guchiago veniala: baña nola azqueneco oen artean ere diferencia guztiz andia danean; guchi bat aldico quentzen bazayo, cembatera ezquero pecatu mortala izango da? E. Nola gueyago sentitzen dan batetan eguiten dan calte edo dañua, apurca eguiten dañu baño; ascoc eracusten due, orduan sei edo zortzi errealen cantidadera, guchi gora bera, guchica allegatzen danean, izango dala gai edo materia gravea edo pisua, eta pecatu mortala.»
(II, 257-260 or.).

«... eguiazco lapurreta eguiten due gauza onaren lecuan, eta onaren precioan gaiztaturic edo obenduric edo nasturic dagoan gauza ematen duenac: nola ganadu aitzaiduna: gari berotua edo serenac joric dagoana ... nola ardaba urez nastua: gari ariña, eta pisu guchicoa gari onaren lecuan, eta onaren precioan: edo ojal erdi errea edo arrac jana: ojal onaren, eta falta baguearen lecuan, eta precioan ... Orobat lapurretaco pecatua eguiten dué besteren ignoranciaz edo jaquiñeztasunaz edo pobrearen premiaz edo estutasunaz baliatzen dirala, gauzac balio duen baño aguitz merqueago erosten dituenac: justu dan precioric bajuenera eldu bague: bada pecatu da, precio jaquiñic edo tasa cierturic eztuen gauza, corritzen duén precioric merqueena baño merqueago erostea: ala nola dan pecatu corritzen duen precioric altuena baño gorago saltzea. Cerren precioac badué eren muga edo cembatezcoa, guchi gora bera: eta iru precio mota Doctoreac señalatzen ditue saldu erosietaraco: canaca saldu oi diran denda gauzetan batez ere bajuena, gorena, eta bien bitarteco: eta escuarquiro ejemplo onequin aditzera ematen due: precioric bajuena bederatci g. g. beradanean; gorena amaica: eta bien bitarteco amar: bada orduan bederatzian baño merqueago erostea: eta amaican baño gorago saltzea pecatu dala eracusten due: eta ala eguiten duenac errestitucioa eguiteco obligacioa duela: baña piezaca saltzen diran gauza baliosoetan, señalatzen due bien bitarteco edo erdico precioa eun danean; bajuena larogueta amabost, eta gorena eun da bost, guchi gora bera: eta tasaric eztanean, eta guchi gora beraco precio corrienteric eztuén gauzetan ere: nola pinturac, Indietaco egazti hiztunac, eta beste onelaco gauzetan, eztago libertade osoric, erabagueco guticiaz nai dan aimbé paga eraguiteco edo nai duen becin merque erosteco: baicic orduan persona jaquinsu, eta juicio ona duenaen iritzia artu, eta ari jarrayo bear zayo, iñori calteric eguin bague; baña precio guchico, jateco gauzetan, nola arrayac, eta fruta gauzac, aen balioa izan oi da plazaco ugaritasunaz edo urritasunaz batera: eta saltzalle asco edo guchi, eta erosle asco edo guchi danez batera ...»
(II, 264-266 or.).

«Garaizuma»ko barau-hausteaz ari delarik:

«G. ¿Eta cembateraño izan diteque goicean gauza guichi ori edo chiqui ori? E. Onza baten cantidadea, guchi gora bera artu diteque: eta orrela ere barautzeco neque andia daramen personac onza ta erdi edo gueyena onza bi artu ditzaque: bada obeda nolabait barautzeco. ecen ez gauza guchi bategatic barautu bague egotea. Esan det, onza bi premiaquin artu litezqueala: baña ori aditzen da, sustancia andico gauzaren bat artzen ezpadue: nola chocolate ona: bada onza bi chocolate artzea, lau onza ogui artzea baño gueyago da.»
(II, 368 or.).

Eta, barau-kontuekin jarraituz, nola ez jaso pasarte 'bitxi' hau?:

«G. ¿Eta cerc ausitzen du, comulgatzeco bear dan baraua? E. ... Baña ortz artean edo aguiñ artean guelditu oi diran janari izpiac, chistuarequin edo arnasa-requin irentsi arren, eztue barauric galdu eraguiten, cerren janari guisa artzen eztiran; ez eta arpeguia edo aoa garbitzeco demporan, uste bague tantoren bat igaro arren, eztue baraua ausitzen ...

G. ¿Eta tabaco orria edo autsa artu liteque comulgatu baño lenago? E. Autsa artzeac, eta orriaren quea bacarric tragatzeac, estomagora izpiric igaro bague, baraua ausitzen eztu; baña eguiazco premia bague artzea, pecatu andia ezpada ere, gaizqui dirudí, eta escusatu bear lizate, errecibitu bear degun, Ceruaren, eta lurraren Jabe Soberanoari zor diogun errespeto guciz andiagatic, eta lecu ascotan eragotziric ere dago, eta iñola ere tabaco orria aoan erabilli, eta chupatu bear ezta; bada aren izpiac estomagora chistuarequin nai ta ez igarotzen dira, eta baraua ausitzen duen

edo ez, erabaquiric eztago; eta duda orrequin ecin aoan erabilli liteque edo chupatu liteque.»

(II, 523-524 or.).

XVIII-XIX. mendeko apaiz zaharrak zintzo eta berariaz jasotzen digu ‘Moral soziala’ edo dei dezakegun arloa ere:

«G. ¿Eta cein dira Cerura deadar eguiten duen pecatuac? E. ... 3^a. Pobreac naigabetzea, eta atzecabetzea. Eta 4^a. Languñaren nequea, trabajua edo izardia, arrazoy bague, ez pagatzea edo detenitzea.»

(II, 7 or.).

«G. ¿Eta ceññ dira nagusiac, eta echeco-andreac eren mirabe, eta servitzarien aldera dituen obligacioac, eta bear gayac? E. Guztiz asco, eta andiac dira: bada San Paulo Apostoluac dio, cé bereén cuidaduric, eta batezere bere echeco edo familiaco mirabeen cuidaduric eztuenac fedea ucatu duela, eta fedea baguea baño gaiztoagoa dala; beintzat bere obretan ... 1^a. mirabeai ematea sustentua edo alimentu egoquia; ez bacarric bici izateco diña, baita ere osasuna conservatzeco, eta eren neque lanac era onean eguiteco. 2^a. Da soldatac chit contuz pagatzea, eta orobat eren sari edo jornalac beste languin guciai; bada ori pagatu baguez edo gueyegui luzatuaz uste duen baño calte andiagoa eguin oi die: eta pecatu orrec Cerura deadar eguiten du, neque saria pagatu artean ...4^a. Obligacioa da, mirabeac gasotzen diranean, erruquiz, eta caridadez, eren humeai becela beguiratzea: eta aen osasuna gatic aleguiñac eguitea ...»

(II, 203-204 or.).

Hara gerrari buruzko iritzia ere (garaiko Elizarena, jakina; eta egungoarena ere bai, antza):

«G. ¿Nola bada erac illac izateco edo zaurituac guelditzeco edo besteac illtzeco edo zauritzeco arriscura dijoaz guizonac pecaturic eguin bague guerrara doacenean? E. Cergatic guerra justua da gucien oneraco: eta lenago da on comuna edo guztiena, particularrena edo bacoitzarena baño: eta orduan ere guerraco legueac ondo gorde bear dira: eta eztá iñor bendecuz, eta premia bague ill bear.»

(II, 212 or.).

Lehenago esan bezala, kristauak ez du nahikoa dotrina osoa xuxen jakitea; ezin daiteke horretara muga; ‘bihotz berrikuntza’ da kristautasunaren funtsa, eta horixe da, hain zuzen ere, gure Gerrikoren ‘Dotrina’ren helburu nagusia. Hara bere hitzak:

«... advierto, que aunque el saber y entender bien la doctrina es absolutamente necesario para salvarse, el saberla solo no basta, si no se aborrece y evita el pecado, y sino se ama y egercita la virtud: y por tanto en estas doctrinas á la instruccion exacta de las verdades cristianas se junta siempre la exortacion á la reforma interior: esto es, á refrenar las pasiones desordenadas, y vivir segun el espiritu de Jesu-Cristo, que nos enseña en su Evangelio.»

(I tomoko Sarrerako X or.).

V. BESTE LANTXO BATZUK

«Cristau Doctrina Guztiaren Esplicacioaren Sayaquera ...» liburu nagusi honetaz aparte, baditu Jose Ignazio Gerrikok beste eskuizkribu batzuk; oraindik, tamalez, argitaratzeko dauden lantxoak. Hona hemen hauen aipamen soil-soila:

1. Liburu nagusiko platika edo sermoien laburpentxo bat. Sei minutu inguruko iraupena duten dotrina murriztuak; apaizek «Cristau Doctrina ...»koak pulpitutik oso-osorik azaltzeko astirik ez dutenean edo entzuleak denbora luzeegian ez nekarazteko (autoreak berak dioen bezala), irakurtzeko aproposak. Oinarrri-oinarrizko eta inolaz ere azaldu gabe utzi ezinezko kristau-egien laburpenok iruzkin eta hausnarketa batzuez osatuak daude. 1806an, bestearen ondoren, egin bide zuen laburpen edo bilduma hau Gerrikok.

2. Hamalau igandetako, Abenduko lehen igandetik 'Quincuagesima' arteko Ebanjelio-irakurgaien letra, azalpento banarekin. Hauek ere, jakina, igandetako mezan pulpitutik sermoi gisa azaltzeko prestatuak.

3. Historia Sakratuaren (Idazteunaren egokitzapen herrikoia) laburpentxo bat; orri gutxi batzuk baino ez dira. Lehenago esan dugun bezala, Dotrinaren lehen tomoan ere egiten digu Gerrikok Idazteun edo Historia Sakratuaren laburpentoa. (Frantzisko Ignazio Lardizabal, zaldibiar apaizaren «Testamentu Zarreco ta Berrico Condaira ...», Historia Sakratua, euskarazko libururik irakurrietakoa, aldiz, 1855ean argitaratu zen) (1).

1. Gerriko, I, (J.J.I. laburdurez izenpetutako «Breve noticia del autor y sus escritos» sarreatxoan, VI-VII or.). Gerrikoren argitaragabeko eskuizkribu hauetaz ez dugu beste inolako aipamenik aurkitu. Non ote daude?

VI. EUSKARA eta IDAZKERA

«Cristau Doctrina ...»ren argitaratze-arazoak, edukina, egitura eta banaketa, helburuak eta gaineratiko ezaugarriak azaldu ostean, goazen segidan obra honen egilearen euskara-mota, idazkera, estiloa aztertzeraz.

Hasteko, Gerrikok darabilen euskara Goierriko (Zegama aldeko) gipuzkera dela esan; lexikoan ezezik, aditzaren eta deklinabidearen morfologian ageri-agerian dago hori (1). Dena den, gure autore zahar guztien antzera, ez dio beste euskalkietako hitzak eta zenbait forma erabiltzeari ere muzin egiten.

Idazle klasikoekin usu gertatu ohi den legez, Gerrikoz ere iritzi aski kontrajariak dauzkagu: batzuen ustez oso balio kaskarrekoa den bitartean, beste zenbaitek, kontrara, egundoko goraipamenak (gehiegizkoak, beharbada) egiten dizkio. Jaso ditzagun iritzi eta iruzkin hauetako batzuk:

R. M. Azkuek «Diccionario ...»n jasotzen badu ere, «Morfología Vasca»n ez du aipatu ere egiten. Orixek «Euskal literaturaren atze edo edesti laburra»n ez du batere kontuan hartzen. Luis Eleizalde (Euskaltzaindiaren sortzaileetako eta, hizkuntz alorrean, nahiko 'sabindarrak') idazle egokitzat dauka: Leizarraga eta Axularrengandik hasi eta Asteasuko Agirre eta Iztuetarenganainoko guztiak erdararen pean bizi izan ei ziren; salbuespen izpi batzuk baino ez: Mendiburu, duda barik, eta Mogel eta Gerriko, apika. Juan Bautista Eguzkitzak (hau ere euskaltzain eta «Kristiñau-Ikasbidea», bizkaierazko Dotrina ofizialaren egileak) euskal idazlerik onenen artean kokatzen digu gure mutiloarra: Axular, Mendiburu, Añibarro, Mogel, Agirreren pare-parean, alajaina! (2).

Sebastian Mendiburu oiartzuar jesuitaren «Otoitz-gaiak» liburu ederra 1904ean birargitaratzean, obraren zentsoreak ordurarteko idazle guztien artean gure Gerriko baino ez du ikusten 'Euskal Cicero'ren pareko (3).

1. Gerrikok berak bere obraren «Prólogo ...»n, IX or., dio: «... pláticas bascongadas ... en su Dialecto Guipuzcoano ...». Berdin, Diputazioari zuzendutako eta Tolosako Artxibo Probintzianlean gordetzen den Gerrikoren eskutitz batean: «... una obra ... en Lengua Bascongada, y Dialecto Guipuzcoano ...» (JD-IM-4/7/48. Ikus 3. eranskina).

Mitxelena, haatik, Ubillos eta Gerriko parekatzen ari delarik, iruzkintxo marjinal haxe egiten du: «... 'Mutiloako benefiziadua', bistan da, ez zen bestea (Ubillos, alegia) bezain 'goierriarra' hizkerari dagokion aldetik ...» (Mitxelena, Koldo, 1988, EIG IV, Klasikoak 24, EEE, Elkar, Zarautz, 72 or.).

2. Arrue, Antonio, 1956, «*Gerriko*», 'Egan' 3-4, (33-43 or.), 36-37 or.

Halaber, Onaindia, Santiago, 1973, «Euskal Literatura» II, Etor, Bilbao, 243-244 or. Anaut, Bernardo, 1984, «*Guerrico Enatarriaga, José Ignacio*», EGIPV, Diccionario XVII, Añamendi, Itxaropena, Zarautz, 213 or. Estornes Zubizarreta, Idoia, 1978, «*José Ignacio Guerrico Enatarriaga*», EGIPV, Literatura I, Añamendi, Itxaropena, Zarautz, 290 or.

3. Mendiburu, Sebastian, 1904, «Jesusen Amore-nekeei dagozten zenbait Otoitz-gai ...» I,

Mitxelenak Asteasuko Agirreren aldean balio eskasekotzat jotzen du (4).
Antonio Arrue euskaltzainak esaten digunez,

«Gerriko'k iaio josten du ... euskeraz. Baiña naiz joskera ta naiz idaztankera -idaztankera batez ere-, «desberdiñak» eta goora-beera aundikoak ditu, Juan Bautista Agirre ta Lardizabal—enak, esate baterako, ez dira jatorragoak izango bear bada, baiña bai beintzat ardura geiagoz landuak ...» (5).

Eta gainerako komentarista guztiek ere Arrueren iritzi berau errepikatzen dute, aparteko iruzkinik egiteke (6).

Autore zaharrei buruzko iritzi kontrajarrion arrazoia ederki azaltzen digu Luis Villasantek: Lexikoa eta sintaxia aski 'nasai' (gaurko ikuspegitik 'nabar-menegiak' diratekeen erdal hitz eta joskerak) erabiltzeagatik, hots, 'garbitasunaren' irizpideen arabera, inolaz ere onartezin den eran idazteagatik baztertuak, ahaztuak, mespretxatuak izan dira askotan gure klasikoak. Baina dena bere tesuinguruan kokaturik begiratu behar denez, gure idazle zaharrok, duda barik, benetako 'hizkuntz maisu' ditugu; euskara bere osotasun, oparotasun, jatoritasun fresko-freskoan gorde diguten 'kutxa preziatuak', alegia. Eta, Txillardegi ere aipatuz, honela jarraitzen du euskaltzainburu ohiak: Haiengan erdara kanpoko, axaleko zera baino ez da, euskara da muina, funtsa; guban guztiz alderantziz

Eusebio Lopez, Tolosa, (Edizioaren zentsorearen sarrerakoa: XVIII-XIX or.): «Si se mira la obra desde el punto de vista literario, cualquiera notará desde luego por su lectura que el P. Mendiburu, apesar de haber trabajado estos libros en épocas en que menos se podía esperar tal cosa de un escritor basco, evitó multitud de locuciones viciosas, incorrectas e impropias en el idioma euskaro, que nadie antes de él había conseguido huir en obras de estas proporciones, sin que tampoco después haya tenido en ello imitadores el incansable jesuita, si se exceptúa al inteligente bascófilo don José Ignacio de Guerrico ... quien en su nutridísimo y bien ordenado catecismo ... escrito un siglo más tarde ... expuso toda la doctrina cristiana en frase similar, aunque en diferente dialecto.- Imposible es ciertamente pretender que una ni otra obras se hallen exentas de todo defecto sintáxico; mas es muy seguro que no se encuentran autores que, al escribir en el idioma euskaro, se hayan acercado tanto, en obras tan extensas y marcha tan sostenida, al nexu genuino en la expresión del pensamiento basco ...».

Halaber, Villasante, Fr. Luis, 1979, «Historia de la Literatura Vasca», Aranzazu, 251 zka.

4. Michelena, Luis, 1988, «Historia de la Literatura Vasca», Erein, Itxaropena, Zarautz, 117 or.: Agirreren aldean «en un nivel muy inferior».

5. Arrue, 1956, aip. art., 40-41 or.

6. Besterik beste: Anaut, 1984, aip. art., 213 or. eta Estornes Zubizarreta, 1978, aip. art., 290 or.: «El euskera empleado es bueno, con uso discrecional—tal vez algo excesivo— de términos latinos y préstamos castellanos». Etxenagusia, Karmelo, 1969, «Euskal Idazleen Lorategia», Izarra, Donostia, 69 or.: «Izkuntzaren maixu bat dogu: bai aditza erabiltzen, bai itz jatorretan, bai esaera ederretan ... Bear bada, «mordoiellogia» iruditzen jaku gaur». Omaechevarría O.F.M., Ignacio, 1959, «Euskera ...», Icharopena, Zarautz, 231 or.: «Tiene partes muy desiguales: algunas descuidadas, otras francamente buenas. Para el gusto moderno tiene excesivos castellanismos en su vocabulario: pero esto no quita que por muchos otros conceptos sea para nosotros un verdadero maestro: en el empleo del verbo, en tantas palabras auténticas, hoy olvidadas, expresiones castizas, etc.». Eta berdin Villasante, 1979, aip. ob., 251 zka. Onaindia, 1973, aip. ob., 242-244 or.: «Goierri-ko gipuzkera darabil, eta trebeki erabilli ere, esaera ederrez, itz egokiz eta adizkera apaiñez oretua. Baditu mordoiellokeriak ere, gaur egunean dugun ao-xuriak errez eramane ezin ditunak noski. Alare, oker-makur guztien gainez euskal arnasak dardar dagi seguratar idazle bipillaren liburuan». Zabala, Enrike, 1981, «Euskal Literatura ...», Pax, Lazkao, 125 or.: «Gipuzkoako Goierri aldeko euskara darabil. Euskararen jabe da. Aditza ederki erabiltzen du, hitz eta esaera jatorrik asko ere badu. Batzutan mordoielo samarra». Eta «Lur Hiztegi Entziklopedikoa» V, 1993, Lur, Bilbo, 117 or.: «Hiztegian gatzeleraren eragin nabarmena igartzen bazaio ere, prosa eredugarria darabil».



«Elizalde» aurrealdea.

gertatzen da. Haien gorputz baldarxeagoan ere euskara zen anima; gurea, oster, arras erasana, kutsatua bide daukagu (7).

Gure klasikoei buruzko Koldo Mitxelenaren iritzia ere jaso beharrekoa iruditzen zaigu:

«1936 baino lehen, dena genekiela uste genuen, gero eta hobeto genbiltzala, zaharrek ('c' eta 'ch') ez zuten sekula atarramentu onik atera ... Oker geunden, noski. Zaharrek, zaharretan onenek, guk baino hobeki idazten zuten euskaraz, lehen eta oinarrizko hizkuntza zutelako guk ez bezalako moduan; hitz egin, noski, guk baino ederkiago egiten zuen edozein nekazarik, edozein bertsolarik, euskaraz funtsaren funtsean ederkiago zekielako»(8).

Sarrera gisako honen ondotik, egin dezagun geure ikerketatxoa ere. Horretarako, Gerrikoren obrako ortografia, lexikoa, morfologia (deklinabidea eta aditza), josquera, esamolde jatorrak eta idazkera arakatzen saiatuko gara.

1. Ortografia

Normala; arau bateratzaile finkorik ez kausitzean, tarteka zenbait diferentziatxo, aldaera, duda-muda edo nabari bazaio ere: hitz bera (batzuetan parrafo

7. Villasante, 1979, aip. ob., 263 zka.

8. Sarasola, Ibon, 1984, «Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia» I, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia, (Mitxelena, Koldoren Aurkezpena, 18 or.).

edota orrialde berean ere) bi/hiru erataria idatzia, etab. (Inprenta-erratarik ere gerta daiteke tartean, nola ez). (9)

1.1. 's/x/z/ts/tx/tz': Oso ondo, benetan txukun, dotore bereizten ditu soi-
nuok, normala den legez, aldaera gutti batzuk gorabehera.

— **'z/tz':** «otz», «hitz», «bayetz», «biotz biotzetic», «gaitz iritzian», «atze-
ratzeco», «ecitzeco», «zaitzeco», «cenzatzeco», «etzin» ('etzan'), «za-
tzun» ('zaizun'), «dacatzen» ('dakartzan'), «ditzacun» ('ditzagun'),
«eztu» ('ez du'), «ez ece», «ecer ecetic», «goiceco» baina «goitzeco»
('goratzeko') ...

Goiko adibideotan ikus dezakegun lez, ia inoiz ez du 'tc' erabiltzen
(garaikideek ez bezala), 'tz' baizik. Salbuespen minimo batzuk: «jant-
citzen» ... Bestalde 'e', 'i' aurretik, ia beti 'c' erabiltzen badu ere, baditu
salbuespen izpi batzuk 'z'rekin: «iñoizere», «goazen» ... (Hitz-konpo-
sizio edo lotura kontua ote?).

— **'ts':** «etsitzeac», «utseguiteac», «etsayac», «lotsac», «anditsuac», «iri-
tsico» baina «iritzico» ...

— **'tx':** «chit chitezcoa», «anchiñ anchiñeco», «ichuli» ('irauli'), «ichoten»
('itxoiten'), «ascocho», «guezurchoac», «achimur», «chacur» ...

— **'x':** Euskal hitzetan 's/šs' erabiltzen du soinu hau adierazteko: «gaišoac/
gaššoac/gaiššoturic», «išillic/iššilchoric», «aušše», «orišše», «alašše»,
«šše» ('xehe'), «andišše» ('handixek'), «iššuri» ... Baina erdaratikoetan
beti 'x': «examen» ... Edota gaurko 'j'ren pareko: «exercicio/exercitatu/
exercitu» ... Eta bietara ere bai: «progimoa/proximoa» ...

— **'l/n/r'** kontsonante ostean nahiko nahasmendu nabari diogu: Batzuetan
'c/z/s' eta bestetan 'tc/tz/ts':

— Erdaratiko hitzetan beti eta euskarazkoetan gehienetan 'c/z/s' darabil:
«venialzat», «bolsero», «illcea», «esperanza», «alcanzatu», «conciencia»,
«penitencia», «ignorancia», «advertencia», «ansia», «consustancia»,
«presuncio», «sencillo», «conceditu», «sensualidade», «manso-
tasun», «pensatu», «cenzua», «ezconzeco», «dancea/danzea», «beinzat»,
«onzat», «Eliz-gizonarenzat» «puebloarenzat», «danarenzat/diranenzat»,
«jaquinsuac», «arzaya», «aztiñarze», «norzuac», «zorzayen» ... Baina
«hizcuntza», «antzeco», «antzorde», «erentzat» ... ere bai. Edota bietara:
«jancia/jantcitzen», «illcea/illtzen», «mortalzat/mortalztat» ...

— Halere, aditz-izenetan zein flexioetan, batez ere, 'tz/ts': «aguintzen»,
«jantcitzen», «senticortzen», «illtzen», «lertzeco», «artzecodun», «da-
rabiltzetzenac» ... Edota bizkaiera-itxurako (baita Segura/Zegama aldeko)
forma hauek: «ecarten», «ipinteco»... (Aditzaren azpiatalean, luzexago).

Eta haseran esan bezala, zenbait aldaera, duda-muda, akats ttipi bakan-bakan
batzuk ere bai, (inprenta-erratak barne): «baliz/balitz», «gucia/guztia», «icustea/
icuztea», «oztasuna/ostasuna», «nesca/nezca», «anciñeco/anchiñeco», «utsa/
utza», «atzecabea», «etzitzea edo desesperacioa», «azti/aztiro», «cinzo», «ez-
tutasun», «atzedena», «atzeguín», «gaitz iritsi» ('iritzi'), «isterrac», «descuidos-

9. Larramendiren bidetik, Agustin Kardaberaz, Hernaniko jesuita handiak ere, bere «Eus-
queraren berri onac ...» liburuan, 4. atalean, ondo eskribitzeko erregela batzuk, ortografi gomendio
batzuk alegia, eskaintzen dizkie euskaraz idatzi nahi dutenei. Gure Gerriko, egia esan, ez dio,
alor honetan bederen, kasu handiegirik egiten bere maisu miretsiari.

co», «estayetan», «Pascoaz», «indarsu», «irizteco» ('iristeko'), «Epiztola», «gaistaqueriac», «irabastea», «maisterra», «esquero» ('ezkero'), «gueicheago», «uzte» ('uste'), «diste» ('dizkiete'), «cisten» ('zizkieten'), «estitue» ('ez dituzte'), «estezen» ('ez dezaten'), «utzi cisquigüen» ('zizkiguten') ... Eta kontsonante-multzo gogor antzeko batzuk ere bai: «beatzopa», «hillcea», «hitzqueta», «aberrastzeco», «gaitzguille», «moldacaitztasuna», «daquitzzquizute», «ortchicatzen», «darabiltztenac» ...

1.2. 'g/gu/gü/j': Gaztelera bezalaxe, jakina: «guere, erabagueco», «daquiuet» ... «ezagüera», «igüi», «digüen», «cigüena», «ezliquegüe» ... «jaya», «jayo» ... Baina latinetikoetan: «Virgiña», «vinagerac», «gerarqui», «erreligio/erreligiosoac» (oso gutxitan baina 'r-'z hasitako erdal hitzei 'e-' aurretik erantsita: «errestitucioa», «Erredemptore», «erredimitu». Baina, «regularrean») ... Edota, lehen esan bezala, «exercicio» ... Baita bietara ere: «egercicio/exercicio», «progimoa/proximoa» ...

1.3. 'h': Erdaratikoak: «deshonestidade», «honrragarria», «humillatzeco», «deshordena», «ha!» ... Euskarazko konstante pare bat: «hitz/hizcuntza ...» eta «hume ...».

1.4. 'll/ñ' bustidurak: «illun», «eralle», «bearguille», «amilla», «carobi-guille», «sencillo», «biribillatzeco», «mutill», «ill/illcea/illtasuna» ... «dotriña», «grña», «oñac», «gañ/gaiñ/gañera», «diñatusunean», «alabaña», «aiñ», «fiñ ona», «albaño» ('ahal baino'), «al dueneraño», «anciñeco/anchiñ anchiñeco», «cein/ceiñ» ...

1.5. 'mb/mp': «dembora/demboralacgatic/dempora», «larumbata», «mimberatu», «lembicico», «cembat», «aimbat/ambat», «aimbeste», «embidia», «importancia», «mempeco» ...

1.6. 'qu': «neque», «equiera», «galanqui», «dezaquén», «dauqueenean» ...

1.7. 'v': Batez ere erdaratikoak: «Virgiña», «vorondate», «provechu», «devocio», «advertencia», «vaso», «motivo», «vomitoac», «viurtu», «venialzat», «aviadura», «governatzeco», «vola», «vicimodua» ... Baina «Abilaco Obispo» ... Eta bietara ere bai: «soberbia/sobervia», «jabea/javea», «catiberio/cativerio», «bendecua/vendecua», «grabea/gravea» ... Bestalde, 'u(b)a' ren antzeko(?) soinua edo adierazteko, Beterriko gipuzkeraren edota Bizkaialdeko itxurakook ere usu darabiltza: «gabean», «billabac/billavac», «birabac/biravac», «ardaba/ardava», «baravac» ... Adizkietan ere, '-te' ('Haiek'en) plural ezaugarriaren ordezkio gisa: «diobe/diove» ('diote'), «cioben/cioven» ('zioten') ... (Honetaz, gero gehixeago).

1.8. 'y': Bokal artean; baita bokal osteko hitz-amaieran ere: «arzaya», «estayetan», «naya», «deyac», «eguicoya», «pozoya», «capitaya», «icusgayarequin», «guyeyago», «mayorazco», «bayetz», «jarrayo/narrayola», «zayo/zorza-yen», «bay», «gay», «loy», «herederoay», «etsay», «arrazoy/arrazoyzco» ...

1.9. 'f/p/b': 'f' erabiltzeko joera: «infernua», «afaria», «festa», «fortiz» ... Baina «alperrac», «piñac» ...

1.10. '-o/-u': Latin-maileguetako hitz-amaieran nahiko nahasketa: «sencillo», «claro/claru», «caso», «vaso», «desengaño», «contrato», «erregalo», «cos-

tosu», «motivo», «credito», «grado», «esclavo», «exemplo», «errespeto», «perfecto», «deshonesto», «tormento/tormentu», «contentu», «propositu», «apetitu», «cierto/ciertu», «Sacramentu», «sagradu», «purua», «cuidadu», «trabaju», «beneficiadu», «santu» eta «santa»: «Trinidad Santissima», «humanidade guztiz santa» ...

1.11. ‘-t/-d-’: Latin-mailegutan ‘-d-’ erabiltzeko joera: «Virginidadea», «humanidade», «desdichadua», «presumiduac», «delicaduac», «guisaduac», «convidaduac», «bienaventuraduac», «beneficiadu», «interesadu», «sagradu», «deshonestidade», «sensualidade», «Magestadeari», «solemnidade», «eternidade», «cantidade» ... Baina «Mandamentuac», noski; eta «adimentu», «merci-mentu», «aborrecimentu» ...

1.12. Azentua: Mintzatuan bezala markatu nahian ote? Dena den, irizpide zehatzegirik gabe: hitz bera batzuetan markatzen du eta beste batzuetan ez; edo hitz berean behin leku batean eta hurrengoan bestean jartzen du azentu-marka. Batzuetan, argi ikusten da bokal luzea adierazteko dela: «másti», «nástuaz», «Erreguén», «lembait lén/lén bait lén», «cé», «itó», «esná», «ló», «bestén», «bestétara», «echeco andreén», «eztá» (‘ez da’), «dué/dúe» (‘dute’), «badué/ezpadué», «zuén» (Adizkia) baina «zuen» (Izenordaina), «dezaquén» ... ‘-oro/-quiro’ atzizkidun hitz gehienak (ez denak, ezta beti ere) azentuatuak: «garbiró», «loiquiró», «ceoró», «egunoró», «escuarquiró/escuarquiro», «comunquiró/comunquiro» ...

1.13. Puntuazio-ikurrak: Galde- eta mires-ikurrak esaldia irekitzeko eta ixteko, hots, perpausaren aurretik eta ostean (gazteleraz bezala: ¿?, ¡!). Bestalde, koma, puntu eta koma eta, batez ere, bi puntuen (sinbolo hau beste zentzu batean erabiltzen bide zuten lehen) gehiegizko (?) erabilerak eta kokapen bitxi (?) samarrak irakurketa zertxobait zaildu egiten du; gaurko ortografiara ohitutakooi testu zaharron irakurketa, egia esan, nekoso antzekoa egiten zaigu.

1.14. Hitz-loturak eta konposaketa: Hitz-oinaren eta deklinabide-atzizkiaren lotura egiteko ez darabil, ez apostroforik, ez marratxorik; ezta izen propioen kasuan ere. Bestalde, lotura-mota ezberdinak ikus ditzakegu. Dena den, irizpide zehatzik gabe:

— Aparte:

«muda corrac», «cargu dunac», lagun guida»
(‘lagunkida’),
«bear gai», «nai bagueac», «nola bait», «honra zale, interes zale, eta atseguin zale», «echeco andreén/echecoandrac», «ala baña/alabaña», «gaitz guilleai», «derecho dunac», «jabe gayac», «eracus bidea», «bici lecu/bici toqui/bicilecu», «bide aurreco», «nola nai», «lembait lén/lén bait lén», «gose egarriac», «saldo erosietaraco», «denda gaucetan», «fruta gauzac», «neque lanac», «neque saria», «janari izpiac», «ber bera», «meritu gai», «egun sentian», «vici modu», «egon lecu», «juramentu guille», «diru zale», «nora nai», «beti danic», «egun erdian»
(‘eguerdian’),
«bear guilleac», «nagusi eche andrac» ...

— Juntuan:

«irabazbidea», «gendetaldeac», «gendeguiro», «jarlecu», «senargai», «joculegueac», «damugayac», «langayac»

... Eta, batez ere, aditz laguntzailea eta honen aurreko ñabardurak edota aditz-esapide batzuk eta hauen segidako zenbait elementu hitz bakar batean eskaintzen dizkigu:

«eztá», «eztu», «beardué», «bearbaño», «albaño» ...
(Gehixeago, aditzaren azpiatalean).

— Marratxoz:

«neque-petic», «jabe-gayac», «ezcon-gayac/emazte-gayaren» baina «senargayaren», «Jesu-Cristo», «esa-mesetan», «ezcon-berrienzat», «Eliz-guizonenzat», «ber-bera», «Ante-Cristo», «Eliz-Ama», «esan-al», «ote-cegocan», «esna-aldietan», «seme-alabac», «noiz-bait», «lur-pean/lurpean», «Pater-Nosterrac», «Erregue-gayac», «jan-edanac», «juramentu-guille», «irurac jo-artean», «egui-ezazue» ('egin ezazue'), «ar-itazue», «jan-ezazue», «culpa-dunac», «irabaz-bideac», «Meza-emalle», «alba-degu», «aita-pontecoa», «ama-pontecoa», «aita-ordecoa», «guraso-ordecoa», «Vigili-egun», «Extrema-uncioa», «ardura-baguetasuna», «contentu-poz-eta-atzeguin guciac», «su-eta garretan» ...

— Zenbakiak, berriz, honela: «eun, eta ogueita zazpi milla Siriatar», «exercituco eun, eta larogueita bost milla soldadu» ...
(hau da, hamarrekoiari '-ta' erantsi eta unitatetik aparte).

2. Lexikoa

Bariatua, ugaria, aberatsa. Erdal eta latin-maileguak etengabe, barra-barra, lasai-lasai, inolako 'konplexurik' gabe erabiltzen ditu. Askok eta askok alferalferrikakoak ere badirudite: «puebloa», «Sacerdotea», «Señora Maria Virgiña», «trabajua», «amatu» ... Zenbaiten iritzira, Gerrickoren (eta autore klasiko gehienek) akatsik nabarmenenetakoa erdal hitzen demaseko erabilera litzateke; 'mordoilokeria' itsusi hori bekatu larriegizat jota, «hobe denak (obra zaharrak, ez egileak!) sutan erreko balira!» esan duenik ere ba omen da (10).

Gure klasikoekiko 'mespretxua' salatuz, honela dio Mitxelenak:

«... Axaleko irizpideak eta neurgailu traketsak generabiltzan. Lehenik eta azkenik, garbitasuna. Gu, 'x' eta 'tx' usatzeaz gainera, ez ginen mordoilokerian murgiltzen. Ikasia genuen dagoeneko harako dotrina barregarri hartan bezala ez mintzatzen: 'Nor da Jaungoicoa? Da gauza bat pensatu alditequean excelenteena eta admirableena ..., sabioa, justoa, principioa eta fiña gauza guztiena' (Irazusta).

Garbitasuna, nonbait eta norabaiteraino beti behar den garbitasuna, modu hagitz ezberdinez neur daiteke. Gainetik eta gaingiroki neurtzen genuen guk, esaldien axalean ager zitezkeen erdaratiko hitz eta esaeren, azken hauek txit bigarren

10. Juan Inazio Iztueta zaldibiarraz ari delarik, Mitxelenaren zeharkako aipamentxo ironikoa: Sarasola, 1984, aip. ob., 18 or.

mailako zirelarik, arabera. Gure ustez, ordea, egiazko garbitasuna eta ez alegiazkoa sakonago zegoen ..., jatorrasunaren osinean ezkutatua. Hitzei dagokienez, beraz, garbia da jatorra dena, euskaldunek (literatur mailaz ari ginen batipat) erabili dutena nondik ere nahikoa den. Lehen oinarri hau, erabiltzeak bihurtzen duela hitza euskal hitz eta ez etorkiak ...» (11).

Gure idazle zaharroi, gaurkoen aldean erdal hitz ugari badarabilte ere, 'euskal anima' handiagoa, euskal sen jatorragoa, freskoagoa darie beren lanetan. Gu baino 'euskaldunago' dira, lehenik eta behin, Mitxelenak eta Villasantek diotena errepikatuz, haien oinarritzko, jatorritzko hizkuntza euskara baino ez zelako, haien 'burua' euskaldun peto-pettoa zelako (12).

Bada, gainera, hainbeste erdarakada (hitzetan zein joskeran) erabiltzearen bestelako arrazoirik: Batetik, eskuarteko iturriak erdaraz egotea eta, sarritan, hauen itzulpen-moldaketan ihardun behar izatea. Bestetik, 'Dotrina' bat, adibidez, gai 'teknikoa' izaki, hiztegiarekin kontu handiz ibili beharra dago; ez dago edozein hitz arrunt, xehe besterik gabe erabiltzerik eta, noski, erdal hitzak finkatuagoak daude, badute beren indarra, 'kultoagoak', 'teknikoagoak' dira; euskal hitz 'arrunt', 'ohizkoei', aldiz, kontestu konkretu batean esan nahi litzatekeena adierazteko behar adinako 'zehaztasuna' falta zaienez, irakurle/entzulegoaren nola-baiteko 'konfusioa' sorrarazteko arriskua dagoke. Eta azkenik, herri xehea Elizako kontuetan eta (sermoiak, dotrina ...) 'ohituagoa' dago erdarakada horietara; 'berrikeriak', beti ere, ulergaitzago, asimilagaitzago zaizkio; (ohitura errotuak aldaraztea benetan lan gaitza izaki!) (13).

Berriro Mitxelenarekin:

«Egin dezagun kontu 'amatu' erabiltzen dutela baita Larramendiren ondoko idazlerik txukunenetakoez ere, eta ez noski horretarako etxaldeko mintzamolderik falta zitzaielako: 'onetsi' eta 'oneritxi', bizirik zirauten neurrian antzinako balioaz horniturik; 'maite izan, maitatu ...' Bestelako arrazoirik behar, beraz, mailebu aski desegoki horren sarrera eta segida esplikatu badugu, eta honako aieru honek

11. Sarasola, 1984, aip. ob., 18 or.

12. Lehenago ere aipatutako Sarasola, 1984, aip. ob., 18 or. eta Villasante, 1979, aip. ob., 263 zka.

13. Apaizek sermoian eta dotrinan erabiltzen zuten latinez eta erdarakadez 'apaindutako' mintzamoldea zen 'euskara euskara', 'eskola handiko jendeak' (eta elizgizonak hala ziren) erabiltzen zuena. Herri xumeak, eskolarik gabeak, horregatik, maiteago zituen 'betiko dotrinak', 'berrikeriez' 'txukundutakoak' baino, hauek euskara hobean zeudelarik ere; (Gogora Irazustaren eta Larramendi/Mendibururen itzulpen-lanez 3. kapituluaren genioena).

'Zenbat eta latin gehiago, hainbat eta sermoi bikainagoa!'; bada gure herri-kulturan honelako makina bat istoriotxo eta izkirimiri. Hara bat: Junes Casenave-Harigilek idatzi eta Santa Graziko herriak 1992an emaniko «Santa Kruz Güdulari» pastoraletan, 14. jelkaldian, Santa Kruzek honen gudamutilen taldean infiltratu asmoz apaiz gisa jantzirik datorkion traidoreari honako tranpa bitxi hauxe jartzen dio, benetako apaiz denentz frogatzeko:

«Hi apez hizala diok;

Ubi vivis, quid quoque vis?

Ea ikusiko diagü.

Dic vero nobis breviter.

Hortarako bi galtotto

Ad quid autem impetrandum

Arrunt eginen deiagü.

Venisme tam alacriter?».

Eta, bere burua hatzemana somatzean, apezixünaren 'ateraldia':

«Jauna parka izadazü;

Eüskara ez dit ikasi;

Züeki berantü gabe,

Sail hortan nahi niz hasi».

sakoneko funtsa ekar dezake axalera. ‘Amatu’ horrek, bidea utzi ez badut, erabilera berezia du, ‘maitatu’-k eta ez bezalakoa, eta maila ere bai, erabilera bezain berezkoa. Hitz horrek, hona erraz gezurtakizun den ustekeria, ez du gehienbat —sekula ez duela esaten ez naiz ausartzen— ‘aragizko’ kutsurik. Beste moduz, ez zuen garai hartako mutilak nahiz gizonak aldameneko neskatxa nahiz emakume hazia, ezkongai adina ezkondua ... gogoan edo/eta eskumenean zuenean erabiltzen. Egitate hori, ‘amatzea’ alegia, Jainkoari, Jainkoarengandiko legeari, Ama Birjinari eta horrelakoei zor zitzaien. Gainerakoak beheragoko eta arruntagorekin kontent ziren.» (14).

Gure Gerrikok ere, normalean, ez beti, ‘amatu, amatzea’ Jainkoaganako maitasuna adierazteko erabiltzen du, bestelakoetarako ‘maitasun, amoriyo, cariño’ lagaz.

Gerrikok darabiltzan erdal hitzen zerrenda amaiezina litzateke. Jaso ditzagun, haatik, Arruek ‘ale galant’ (15) irizten dien hauetako batzuk: Eta hasteko «amatu/eguiatz amatzeo/Jaungoicoa amatu ordean» (I, 56 or.), gorago aipatu zentzuan; «amoriyo consustanciala», kasu honetan ere ‘jainkozko maitasuna’ azaltzeko; «Sacerdoteari», «Cura jaunac», «Sumo Pontificea», «prima tonsura» (latinez), «Señora Maria Virgíña», «Ciudade», «Jose bere esposoa», «esan comuna», «Poderosoa», «Criadorea», «Creacioa», «Altisimoa», «Trinidad Santisimoa» (eta «Trinidad Santisima»), «Elizaco Padre Santuac», «congojaz», «tormento», «alborotadore», «entredichoa», «participante», «esenciala», «indiferentea», «infinitamente/infinitoa», «lenguage», «humanidade», «Abranen senoan», «Espiritu purua», «Espiritu celestiala», «gure Salvadore eta Erredemptore divinoa», «odol preciosisimoa», «vaso sagraduac», «pueblo escogitua», «guizon devoto, piadosoa», «castoa», «dicharic», «concebitua», «excelenciac», «necesidade», «miembroric», «unioric», «barruntatzeco», «trabajua» (eta «lana», eta «bearra»), «ungitu/uncioa» (eta «ganchitu/ganchidura»), «atribuitu» (baina, baitere, «egotzi», hitz eder askoa, sarri-sarri), «poderio», «derecha», (eta «zuzena», ‘eskubide’ esateko), «socorro/socorru», «composicio», «solemnidade», «herederoay», «advertencia», «contricio», «ignorancia», «actuala», «mortala», «habituala», «costumbrea» (eta «oitura», eta «aztura»), «aborrecitza», «permititu», «conceditu», «comunicatu», «azoratu», «sensualidade», «caractera», «agüeroa», «capacidadea», «disposicioa», «eternidade», «sobervia», «errepreditu», «tocamentuac», «tematicoa» (‘temosoa’, ‘tematia’ esateko), «comunquiró», «generalquiro», «alegrian eta tristuran», «chisme larric», «erremedio ciertuac», «milagro ciertua», «desengañó clarua», «modu sencillo ta naturala», «aumentua» ...

Erdal eta latin-mailegu ‘mordoilo’ piloa azaltzen da Gerrikoren liburuan, baina baita, nola ez, hitz polit, eder, bikain asko eta asko ere: zahar-zaharrak, gaur egun ahaztuxeak ditugunak nahiz ostera berreskuratuak ... eta Goierri eskualdeko ohizko hiztegi aberats, zabalean barrena, erdi galduan bezala, beste euskalki batzuetako hitz-mordoska ere bai.

Beste euskalkietako hitzak (eta deklinabide eta aditz-formak) erabiltzeari dagokionez, autore zaharrak gure aldean ‘irekiak’ ziren oso; batere enbarazurik gabe erabiltzen zituzten bizkaiera, nafarrera edota Iparraldeko euskalkietakoak, auzoengandik ere beti ikasten dela zerbait eta. Beste idazle zaharrago zein ga-

14. Sarasola, 1984, aip. ob. 14 or.

15. Arrue, 1956, aip. art., 37 or.

raikideen liburuak irakurrita eta herritarrekiko harreman zuzenean jasotako hitzak, gero, beren lanerako gustora aprobeztatzen zituzten. Halere, artean euskararen batasuna indartzeke, gai beretsuak (eta tarteka liburu bera ere) euskalki ezberdinetan publikatu beharra zegoen, Euskalerriko alde batekoei aski ulergaitza baitzitzaizen bestekoen euskara-mota. Kontuan izan, gainera, liburu gehienok zuzenean irakurtzeko baino areago (inork gutxik baitzekien irakurtzen), sermoian eta entzuteko zirela.

Xabier Altzibarrek luze-zabal jorratzen digu arazo guzti hau eta, konkretuki, euskararen dialekto-zatiketak irakurleago/entzulegoari sortzen dizkion berea ez duen euskalkiko testuak ulertzeko zailtasunez ari delarik, honela dio: XVIII-XIX. mendeko

«giputz apaizok gero eta lotuago agertzen dira Probintziako euskalki bereziari edo ez dute beste euskalkiekiko axola handirik erakusten, esate baterako, Gerrickok ...».

Literaturaren euskalkizko banaketa honen barnean, gipuzkeraz Beterri aldekorako (eta testu zaharren ezagutzagatik, lapurterarako) joera nagusitzen dela ere gehitzen digu:

«Nolanahi ere, literatur-gipuzkerak idazleen tokian-tokiko hizkerak gaintitzen ditu. Berori sortu aurretik Goiherriko testu franko dugu baina Larramendiz gero, gipuzkerak gramatika bat duelarik eta Gipuzkoa osorako liburuak ateratzerakoan, nahiz eta idazle batzuek Goiherri aldekoak izan, edo Tolosa edo erdialdekoak izan, adib. Larramendi, Ubillos, Lardizabal ... Beterriranzko joera nagusituz doa, eta honetan lapurtar literaturaren ezagumenduak baduke zerikusirik. Beterrikoa joan zen ospea hartuz (Larramendi baino aurretik ba ote zuen?) ...» (16).

Gogoan izan, bestalde, Luis Luziano Bonaparte printze frantses euskaltzaleak eta honen kolaboratzaile Jose Antonio Uriarte fraile bizkaitarrak Idazteunaren gipuzkerazko itzulpena egiterakoan, Goierriko Lardizabal ala Beterriko Agirre zein hautatu, izan zituzten buruhausteak (17).

Mitxelenak, berriz, idazle klasikoen 'zabaltasuna', batez ere lexiko-alorrean, azpimarratzen digu:

«Egia da gure euskal idazleek ezagutzen zituztela aski bestetangoak (beste euskalkietako autoreak) ... hangoak eta hemengoak ezagutu ... eta hango eta hemengoan esaerak eta hitzak jaso ...».

Gure idazle zaharrak ez ziren beren euskalkitxora mugatzen. Honek zera frogatzen digu:

16. Lakarra, Joseba Andoni, 1992, «Manuel Larramendi ...», Andoain, (Altzibar, Xabierren «Larramendi eta literatur-gipuzkera» atala), 332-335 or., besterik beste.

17. Ruiz de Larrínaga O.F.M., P. Fr. Juan, 1954, «*Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte ...*», 'BAP' X, (231-302 or.), 251 or.: 1857-VIII-17ko gutunean (21.ean) honela mintzo zaio Uriarte Printzeari: «... Después de Lardizábal prefiero a Aguirre ... hago uso de todos los autores bascongados, dando la preferencia a Lardizábal y luego a Aguirre para hacer la traducción de dialecto Guipuzcoano de Beterri...».

«1) giputz horiek, aldi joanetako beste edozein euskaldunen arabera, ez zirela 'inperialistak' izan; 2) landuagoetatik ikasteko ez zutela kupidarik; eta 3) errazago zitzaiea gipuzkoarrei ... Lapurdi aldera makurtzea bizkaitarrei baino».

Baina beste hau ere gehitzen du:

«Halaz guztiz ere, bakoitza bere aldetik dabil eta horrexek egin du kalte izugarria, batez ere bazterreko eskualdeetan, esate baterako Nafarroa garaian» (18).

Kontuak kontu, hitz askok, gaur egun euskalki konkretu batera edo bestera mugatuak, murriztuak baditugu ere, lehengo garaietan hedadura zabalagoa zuten, era bateratuagoan erabiltzen ziren (literatura idatziaren alorrean behinik behin). Adibidez, Gerriko, Iztueta eta Lardizabalek, hiru goierritar garaikideok, «euscara», «andi», «bage», «anitz», «oro», «escuarqui» ... darabilte ia beti.

Hona zerrendatxo batzuk; bertan, Goierriko hitzen ondoan, Bizkaia, Nafarroa edota Iparraldekoak ere ikus ditzakegu:

2.1. Hitz zahar-zaharrak: Batzuk nahiko galduxeak eta beste batzuk berreskuratuak: «bicolor» ('alea'), «egoscari» ('egosteko barazkia'), «ostrillaquea», «araceriac» ('preokupazioak'), «anchitian/anchitic anchiticoa», «biribillatu» ('gorde', 'jaso'), «orchicatu/orchicada», «chaquer/persona chaquerre», «esleitu», «sucar», «sistoqui» ('simaurtegi'), «ausnartu», «escura» ('eroso'), «berariaz», «bidenabar», «ganchitu/ganchidura» ('gantzatu/gantzadura'), «prestu/prestueza/prestuezeria», «arloteria», «aztura» ('ohitura'), «equiera», «chit/chitezcoa», «doaric», «supitoan/supitoco», «prestaera», «premiatu» ('behartu'), «goitu» ('garaitu'), «aide/aidetasun», «urlia eta berendia», «bestengusu», «erangusu», «caburic/cabubaguea», «egotzi», «eragotzi», «eratzan» ('oherarazi'), «eracarri», «candela iracequi», «aztura gaiztoac ilduratu», «aldacaitzac», «cenzatu», «arri-catu», «irabiatu», «anciñeco», «emaguña», «pozoya», «gauza gaitza», «gauza bearra», «gauza alperra» ...

2.2. Goierriko peto-petoak: «piñac», «mire iritzi», «esquinte», «lotsea», «orrequinche», «chuquinduric», «galbai», «zaldale», «arrezquero», «oira/oira-tzeraño» ('ohera'), «tripazai», «cuma», «beanzagui», «ateleca», «zoru», «ichuli» ('irauli'), «ichachi/ichascor», «achimur», «aitatu», «bitu» ('bildu'), «maisterra», «mingaña», «icuitze», «mañac» («mañac eman» dio Gerrikok), «imi/imillaun», «mimberatu», «carobi/carobiguille», «diña» (konparaketako 'adina' graduatzaila), «moldacaitzac», «buru bidea», «galanqui», «muñ eguin», «zabuca eta alboca», «goaitu/goaicarri», «bicimodu guria», «nequeza», «paqueoso», «danzea/dancea», «ichon» ('itxoin'), «caburic», «aitu» ('ahitu'), «motilla/mutilla», «gaz-tairic», «errezatu», «erea/erea duenean» ('aukera, modua'), «emacumac», «ituzurecoac», «iruitzen zaye», «zaitzeco», «laburcho» ('laburregi'), «ascocho» ('gehiegi'), «aimbe» ('hainbat/adina') ... «azau», «lapico», «zapatu» ... Bizkaialdean bezalaxe.

2.3. Bizkaialdekoak: «domeca», «bear/bearguille» ('lan/langile'), «larga/bearrari largatzea» ('utzi/lanari uztea'; Urolaldean edota Irunaldean ere antzeratsu:

18. Mitxelena, 1988, EIG IV, aip. ob., 64 or. eta 1988, «EIG VIII. Artikuluak eta beste I», Klasikoak 28, EEE, Labayru, Zarautz, 165 or., besterik beste.

'laga', 'laja'), «ardaba/ardava/ardaua», «ostean», «baguetanic», «jaramon», «imillaun», «larregui», «edolaric», «iregui», «autortu», «atarea» ('aterea'), «iracortea», «guichi», «uquitu», «dempora», «erabagueco» ... «zapatu», «bague», «gura» ... Goierriin ere erabiliak.

2.4. Ekialdeko euskalkietakoak: «anitz», «aguitz», «oro», «orobat», «al-dioro», «fortiz», «alabaña», «beatztopa», «gaiztaguiñ», «capitaya», «oficiala», «eralle» ('hiltzaile'), «aviadura», «escuarqui/escuarquiró», «chartal», «sarrep-tita» ('larrepetita', 'otia') ...

2.5. Hona beste multzotxo bat ere, nahasian: Gerrikoren lexiko bariatua-ren, aberatsaren adierazgarri; Goierriko eta gipuzkerakoen ondoan, bizkaierako batzuk eta Nafarroa/Iparaldeko gehixeago: «euscara» (baina «erdera»), «andi», «languiñ», «igüi/igüitasun», «nagui/naguitasun», «ecusi» ('ikusi'), «gaizquia», «azmena» ('ahaztea'), «eraguillea» ('indarduna'), «jaidura» ('joera'), «etsime-na», «nescacha», «guizacume», «nagusi echecoandreac», «servitzariac», «em-bidia doaca bat», «Bateoa» (eta ez 'Bataioa'), «escualdia» ('eskumena'), «icus-gaya», «jarrayo» (gutxiagotan «jarraitu»), «nabarbena/sobre narbena», «narru», «eguinquizun», «estumenac», «barcaquizun», «erro gaiztoac», «izurri-ichascor», «etorbide», «esquergabetasuna», «jaquin eza», «lotsaguitu», «ondasun gura», «elizguizon», «aguinteac» ('mandamentuak'), «loy», «betidanic», «gu-ticioso», «zucena» ('eskubide'), «caltartu», «leya», «anditsu», «birava», «billava», «billautasuna», «artzecodun», «bendecu», «ozta», ('bezain laster', 'orduko' adierazteko), «eguicoya», «emetasuna» ('mantsotasuna'), «senticortu», «aditza-lle», «ordean» ('ordez', 'beharrean' esateko), «beguirraune» ('begirada'), «gue-zurchoac», «bolsero», «irmo», «pronto», «ernai», «defuntuen», «dollar/dollar-queria», «Erreynuan», «usteldasuna», «estudasunean», «ifini», «autu zuan» ('hautatu zuen'), «aizquenic», «iduqui» ('eduki'), «mancaturic», «estadu», «urlia edo berendia», «peril/perill», «flacitzen», «instanteoró», «irabazbidea», «lagun guida» ('lagunkida'), «lotsaguiritu», «muda corra», «esná», «garaizuman», «etzin/etzinago» ('etzan'), «igasi» ('ihesi'), «trunco» ('tronko, trongo'), «logre-riac», «ausardia», «bide aurreco», «cobru eman», «guchianez», «suspirioz», «so-tillac», «calzaiduzcoac» ('altzairuzkoak'), «biraldu» ('bialdu'), «juan» ('joan'), «erin» ('erein'), «travesac», «joculegueac», «trampiac», «bortac» ('sasiku-meak'), «lapurcumeac», «mauca», «aitaguiarraba/amaguiarraba», «aita ponde-coac/ama pondecoac», «ugaz ama» ... (19).

2.6. Bestalde, badira Gerrikoren lanean zenbait hitz 'asmaberriak' edo diruditenak. Zeinek asmatuak? Gerrikok berak? Ala ez ote Larramendirenak edo honen eskolakoak (Ubillosenak, etab.)? Larramendiren 'Hiztegi Hirukoitza' 1745ean azaldu zen, eta bertako hitz 'berriek' (erdal kutsu gabeek) egundoko miresmena sorrarazi zieten garaiko eta ondorengo idazleei. Batzuek gehiegi (Iz-tueta), beste batzuek oso gutxi (Agirre, Lardizabal), tartean Ubillos ..., ez da egongo autore klasikorik Larramendi handiak sortutako (eta bildutako) hitz berriok erabiltzeko, bere obran sartzeko 'tentazioan erori' ez denik. Gerriko ere ez ote zen, oso neurri apalean bada ere, tentazio horretan erori? Arruek «gogarqui» ('inspirazio') eta «antzorde» ('konparazio') aipatzen ditu Gerrikok berak asma-

19. Arrue, 1956, aip. art., 37-38 or.

tutako hitz berri bezala (20). Horrela ote? Geroxeago emango dugu hitz-zerrenda luze samarra eta bertan bada, gure ustez, Larramendiren (edota honen eskolakoan, jarraitzaileen —Ubillos, bereziki—) ‘kume’ itxura duen bat baino gehiago. Gure Gerriko ‘mordoiloa’ ere baliatu zen Dotrina lantzeko Larramendiren ‘hitz fakultatiboez’, hots, ‘teknikoez’, bai horixe!

Mitxelena esaten digunez:

«ez dakit zenbat jende baliatu zen Larramendik sortutakoaz ... Orduko idazleek, halaz guztiz, kontuz erabili zituzten hitz asmaberriak, sortzailearen oinazetan, pozoitsu zitezkeelako, dirudienez, harraldi larriegitan ...»;

Larramendi izan baitzen, lehenengo eta behin, ‘aldiritarren’ hizkuntza hiritartu nahi izan zuen euskaltzalea, baserri-munduko euskara hizkuntza ‘moderno’, ‘tekniko’ bihurtu nahi izan zuena, alegia (21).

Argi azaltzen digu Sarasolak Larramendiren eragina ez dela hitz berri batzuk hedatzera soilik mugatzen; askoz ere zabalagoa eta sakonagoa izan zen andoaindar handi honen bultzada, batez ere, (ez bakarrik), bere ondorengo gipuzkera eta bizkaiera literarioan:

«... Larramendiren eragina neurtzeko ez da aski «agerkidatu», «jaiera» edo «leinargiti» agertzen diren testuen bila aritzea. Beraren lana zela medio Hegoaldean (edo Gipuzkoan edo Bizkaian) hedatu ziren hitzak ere kontuan hartu beharko lirake. Izan ere, hitz asko dira gaur egun erabatekotzat edo euskalki guztietan betidanikotzat jotzen baditugu ere Larramendiri eskerrak berezko eremutik at hedatu direnak: esate baterako, ‘adin’ ez da Larramendiri esker gipuzkerazko idazleen artera hedatu den hitz bakarra. Kontu berean, ‘Hiztegi hirukoitz’-ri eskerrak Hegoaldeko idazlangintzatik desagertzen —edo bakantzen— diren hitzak sartu beharko lirake ... Hemen ere mailak leudeke: denek edo baztertzen dituzten hitzak (‘infinitamente’ (22), etab.), eta idazle «txukunenak» soilik (Mendiburuk eta Agirre Asteasukoak bai, baina Cardaberazek eta Gerriko ez, esaterako) baztertzen dituztenak... Hegoaldean bederen, 1750-1900 bitartean kultur maila gutxienekoa —hots, bertsolari eskolatu gabeena edo kristau ikasbide marjinalena— gauditutu duten euskal idazlan gehienetan atzean Larramendiren eragina —zuzena nahiz zeharkakoa— nabari daiteke. Eta maila jakin batetik gora aritu behar zenean nahi ta ez jo behar zen haren hiztegiara. Ez zegoen euskararen alorrean beste hautabiderik ... 1900 urtea arteko euskal idazleentzat Larramendiren hiztegiari ezin zitzaion hizkuntz aldetiko aitzakiarik jarri; hortaz, gaiaren nolakotasunak, tankerak eta kultur edukiak alde batetik, eta irakurlekoak ... bestetik, baldintzatzen zuten, beste ezerk baino areago, haren erabilera ...» (23).

20. Arrue, 1956, aip. art., 38 or. Ikus Retana, 1976, «Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca» I, La Gran Enciclopedia Vasca, Retana, Bilbao, 309 or., (‘antzorde/’antzordez’ hitzak): Larramendirena da hitz hori, duda barik. Gauza bera esan daiteke ‘gogargui/’gogarqui’ hitzez: lehena, Larramendirena; bigarrena, Gerrikoen aldaeratxo (Retana, IV, 1826 or.).

21. Mitxelena, Koldo, 1988, «EIG VII. Hizkuntzalaritzaz II», Klasikoak 27, EEE, Erein, Zarautz, 33-34, 55 or.

22. Gerriko zaharrak, haatik, ez du ‘infinitamente’ baztertzen: «... nola Jaungoicoaren perfeccioac diran neurri bagueac, edo cabu bagueac; eta orregatic esanal, eta gogoratu al-baño infinitamente andiangoac dirala» (I, 57 or.). ‘infinito’ hitza ere behin baino gehiagotan darabil (Ikus, besterik beste, I, 51 or.).

23. Sarasola, Ibon, 1986, «Larramendiren eraginaz eta», ‘ASJU’ XX-1, (203-215 or.), 204-205, 211-212 or.

(Eta Dotrina bat, bere mailan, gai 'teknikoa' da).

J.A. Lakarrak ere luze-zabal jorratzen digu Larramendiren eragin literarioari buruzko puntu hau (24).

Baita Xabier Altzibarrek ere (25).

2.7. 'EDO' juntagailuaz: Gerrikoren obra irakurtzen hasi orduko, begibistan, nabarmen-nabarmen azaltzen zaigun zeratako bat hauxe da: 'EDO' juntagailu hautakariaren erabilera kaburik gabea; etengabe darabil 'edo', bi hitz edo gehiago nahiz perpausak uztartzeko: batzuetan (Juan Inazio Iztueta zaldibiarrek egin zuen bezala), erdal eta euskal hitz jatorra, ohizkoa (edota 'asmaberria' —hau ere, ustez, txit jatorra—) lotuko ditu, hitz berria irakurle xeheak ulertzeko zailegia iruditzen zaiolako edo (26). Baina ez beti: askotan bi erdal hitz jartzen ditu

24. Lakarra, Joseba Andoni, 1985, «Larramendiren Hiztegi gintzaren inguruan», 'ASJU' XIX-1, (11-50 or.).

25. «... Argi dago Larramendik hegoaldeko euskararen berrikuntza nahi zuela eta tresna batzu eskaini zituela, batez ere hiztegia eta gramatika. Aurreko dotrinagileak kritikatu zituen bere Hiztegi hitzaurrean ortografia eta euskara txarrean idatzi zutelako. Euskara beregain nahi bide zuen kultur hizkuntz gisa eta beste hauen pareko. Beregain hiztegiaren, gramatikaren, hitzordenaren, ortografiaren e.a. Hiztegiari dagokionez, berak gai guztietakoa nahi zuen, orotarikoa eta orotarakoa. Hitzetan euskarak duen eskasiaz oharturik, eta ez dela aski euskalkietakoekin eta hitz zahar galduxeekin, batez ere hitz tekniko edo fakultatibo deriztatzenen arloan, hitz berriak sortzeko bideari ekin zion, mailebuak onartzu aldi berean. Larramendik arauak nahi zituen euskararen eta horregatik egin zuen bere Arte edo Gramatika: arauak morfologian, joskera eta hitzordenan, prosodian, ortografiaren (gero Kardaberazek 'Eusqueraren berri onac'-en zehaztuak). Arauok badukete baliorik euskara idatzirako. Gipuzkerarentzat ereduak nahirik —beste euskalkientzat bezala— bere jaioterriatik ekialderago jo zuen, Beterrirantz. Bere euskarazko idazkietan ere ageri-agerian erakutsi zuen zer-nolako euskara idatzizkoa bilatzen zuen. Larramendik, bada, literatur-gipuzkeraren batasunaren arazoa praktikan planteatu zuen. Konparatuz gero, adibidez, Azkoitiko sermoia Otxoa Arinen dotrinarekin ohartuko gara andoaindara aditz formetan ekialderago doala, aditz trinkoak erabiltzeko joera erakusten duela, eta hiztegiari dagokionean garbiagoa, baliabide ugariagoa —ez soilki 'edo' gaztelaniatik mailebu sartzeko—, atzizki askoz gehiago, e.a. Gainera, ... Beregainasuna, eredu bilaketa, edertzea. Azken honi dagokionez, Mendiburu eta Kardaberazek aitortu zuten, bai, Maisuaren Gramatikaren eragina ... Gainera, ... Larramendirengandik hasita, idazle hauek hegoaldean erretorika klasikoa sartzan eta egokitzen dute euskaraz ... Hiztegiari dagokionez, aipatu ditugu Larramendiren garbiketa eta berrikuntza asmoak, baita laburki hark irekitako bideak. Hauen arteko bat, euskalki bakoitzean eta hizkuntza-maila batean beste euskalkietako hitzez baliatzea zen ... Halaber, ... hitzak ez ezik beste euskalkietako aditz-formak ere ikasi behar dituztela dio Larramendik ... Beste bide bat, galduxeak diren hitz zaharrak erabiltzea ... Hitz tekniko edo «fakultatibo» edo jakintza arloko hitz berriak ez ezik latin edo gaztelaniatik euskarari mailebatuak ere onartzen ditu Larramendik, batez ere eliz-gauzetan ..., euskarakoak ondoan eransteko gomendatuz ... Hitz berriak Larramendik gehienetan eratorpen bidez taiutzen ditu (batzutan aurrizki edo artizkien, asko eta askotan atzizki bat edo biren, zenbaitetan kasu atzizki baten eransketaz), beste batzutan hitz el-karketaz ...» (Lakarra, 1992, aip. ob. 336-337 or.).

Azken hiru autoreok ederki baino ederkiago ikertzen digute Larramendiren eragina oso-osorik irakurtzekoak diren artikuluetan.

26. «Obra au izkribatzen asi nintzanean, esan izan ziraten euskara maite zuten gizon jakinti askok, bear nuela ezari izkuntza berean, gaztelaniaren kutsu gabetanik. Baña ikusirik gure izkera gozoaren itz erazko anitz, gaurko egunean ez daudena usuan, oen ondorean ifinten ditut erdararenak. Egia da izango dezuna, irakurtzeko denboran, arazo piska bat; baña bidez, ikas ditzaketzu azturik arkitzen diraden zure etxapekoak, errazkiro.» ('Etxapeko ahaztuxeok', asko eta asko, Larramendiren Hiztegi 'asmaberriak' dira, jakina) (Iztueta, Juan Inazio, 1990, «Gipuzkoako Dantza Gogoan-garriena Kondaira edo Historia», Klasikoak 37, EEE, Mensajero, Ojartzun, (Edizioaren prestatzailea: Ezeizabarrena, Maria Jose), 66 or.).

Ikus, halaber, Lakarra, 1992, aip. ob., 326 or. eta hurrengoak; baina, berezi-bereziki, 334 or.ko oinoharra; zinez interesantea.



Mutiloko hilerria.

segidan; hurrengoan, aldiz, bi euskal hitz ... hots, Gerrikok 'edo' lotura bidez egiten duena (nolabaiteko 'helburu didaktikoa' ere ahazteke), sinonimo-pilaketa erretorikoa, sermoietan eta hain ohizkoa eta estimatua, baino ez dela esan daiteke.

'ETA' emendiozko juntagailua ere erabiltzen du sarri-sarri 'EDO' ren balio beretsuan, hau da, sinonimoak kateatzeko.

Eta beste batzuetan, oso dotore gainera, hitzak, alboratze hutsezko junduraz, koma soilez ezartzen ditu elkarren segidan, Axular eta maisu handien gisara; irakurketa bizituz, bizkortuz, arinduz.

Hitzen arteko loturaz esan duguna bera errepika dezakegu perpausen artekoaz ere.

Hona segidan hitz-bikoteen zerrendatxo bat, bidebatez Gerrikok darabilen zenbait 'berrikeria' edo ikusteko lagungarri izan dezakeguna:

«gogarqui

(Larramendik: 'gogargui')

edo inspiracioa», «goargui, pensamentu on edo inspiracio santu bat», «diatu

(Lar.)

edo poblatu», «aztiñarze

(Larramendik: 'aztinanza')

edo agüero», «berezquiro edo especialmente»

(Larramendik: 'bereziro'),

«equiera

(Lar.)

edo exercicio», «oarmena edo advertencia», «oarmen edo ezagüerarequin», «oroitu edo acordatu», «pecatu mortala edo eriozcoa», «pecatu mortala, pisua, gravea edo larria», «mortala edo iltzaillea», «pecatu veniala, errazago eguiten, eta barcatzen dana: ariña edo chiquia», «pecatu capitalac edo burudunac»

(Mendiburu),

«pecatu jatorrizco edo originaletic», «pecatuan ostinatzea edo gogortzea», «capacidadea edo burua», «cargua edo escualdia», «escua edo potestadea», «premia edo necesidade», «imagiña edo aren anza duena», «anzac edo ichuruac», «echura (Lar.)

edo figuraren azpian», «eguiazco zorionic, edo dicharic», «Espiritu puru, edo naste baguea», «sortua, edo concebitua», «ecer ecetic atera, eguin edo sortu», «sortu oi da edo dator», «aetatic datocen edo aei darraizten», «Jaungoicoaren perfecciondintasun, edo excelenciac», «Jaungoicoa gauza gucien principioa, edo asiera: eta gucien fiña edo cabua», «nayera, naimendua edo vorondatea»

(Ubillos: 'naimendua'; Larramendi: 'nauquida'),

«Pater-Nosterrac edo Aita Gurea», «novismoac edo azquen gauzac», «diluvio edo ugalde general», «jaidura edo etorquia»

(Ziburuko Etxeberri),

«Trinidad Santissimoco edo Irutasun guztiz Santuaren misterioa», «travesac edo apuesta andiac», «venganza edo vendecuetan», «oficio edo langaya»

(Mendiburu),

«dolore edo damutasun/damutasun edo dolore», «eguiazco izateric edo sustanciaric», «desquitatu edo guchitu», «falta estaliac edo secretoac», «necesidadeac edo/eta estutasunac», «igüi antz edo gaitziritziric», «Purgatorioa edo animen garbitoquia»

(Larramendi),

«alianza edo alcar artze», «guizonexcoa, edo humanoa», «sabore edo gustoa», «tactoa, edo uquitzea», «Ganchidura edo Uncioa»

(Iparraldean: ‘gantzadura’; Kardaberazek: ‘gantzadura’),
 «ganchitu edo ungitu», «prestaera edo disposicioa», «habituala edo aztuorra»
 (bizkaierazko ‘aztura’ tik),
 «habituala edo oituorra», «costumbre edo aztura», «buru gogorra edo tematicoa»,
 «embarazo edo eragozgarri», «beartzen edo premiatzen», «desesperacio edo etsi-
 mena», «etzitzea edo desesperacioa», «cembatezcoa
 (Agirrek)
 edo numeroa», «muga edo cembatezcoa», «presuncio edo uste», «memorial edo
 acordagarri», «eguiçoya edo actuala», «jaquineztasuna edo ignorancia», «onez
 damua edo acto contriciozcoa», «derecha edo zucena», «errepnditzen edo lotsa-
 guintzen», «araceri edo cuidaduac», «Jaungoicoarequicoac edo teologalac», «igan-
 dea edo domeca», «zapatu edo larumbata», «aguinte edo mandamentuac», «eme-
 tasuna edo mansotasuna», «goituco edo menderatuco», «goitzeco edo gainditzeco»,
 «aldacaitzac edo erro gaiztoac», «biribillatzeco edo gordetzeco», «ondasunac bi-
 ribillatzeco edo gordetzeco edo aurreratzeço», «beretzea edo irabaztea», «posesoric
 edo gozamenic», «ocasio edo peligro», «arriscu edo peligro», «peril edo arriscu
 guztiz andian», «peligro urrean edo guertuan», «grifia edo apetitoac», «araguiaren
 grifia, apetitu edo inclinacio erabagueari», «pasio edo grifia gaiztoac acitzen, eta
 indartzen ditu», «disponitu edo ordenatu», «Apaiz edo Sacerdoteac», «anchitico
 (Lar.)
 edo goeneco», «azqueneco arnasetan edo agonian», «mirari edo prodigio cierturen
 bat», «trampa edo engañu», «guapeza edo fanfarreri gaiztoac eraustea», «usurazco
 edo logreriazco», «mesede edo ontartean»
 (Lar.),
 «exesoa edo neurribaguetasuna», «unitzea edo batutzea», «deshonesqueriaco edo
 loiqueriaco gauza ciquifietan», «blasfemiaco, birau edo maldicioac», «pensamentu
 consentitu edo erabaquia», «gorrotoa edo odioa», «ira edo coleraren», «lauson-
 jaquin edo lotsatuarequin», «zoriona edo gloria», «mempeco edo catibu billau»,
 «causatzen edo eguiten», «puntuoso edo zapuztua», «fama aguitz quentzeco edo
 guchitzeco», «doaric edo interesa bague», «utseguinezcoac edo omisiozcoac»,
 «obligacio, generalac edo particularrac, icasi baguez edo contuz gorde baguez
 eguiten diranac», «graciaren envidia edo damua», «Ceruco heredereac edo jabe
 gayac, eta derecho dunac», «etzinic edo macurturic», «biotza erantziaz, edo apar-
 tatuaz», «gauza arin edo chiqui», «argaltzen edo flacatzen», «laguntasun edo so-
 corru especialac», «oracio edo erregu edo escaera», «masalleco edo belar ondoco
 arin bat», «venda edo cinta batequin», «azqueneco fiñaz edo betico zorionaz»,
 «agraviaturic edo caltarturic»
 (Lar.),
 «salvacioa edo animaco osasuna», «seme edo ondorengo», «adoracio edo erre-
 verencia», «entendimentuaren edo adimentuaren» ...

Era berean ‘ETA’ emendiozkoarekin:

«erremedio ciertuac, eta seguruaç», «gure lan, eta bear gai guciac», «bear-
 gairic, lanic, eta eguitecoric andiena, eta premiaçcoena», «gure neque, eta nai
 bagueac», «guere nequeac, naigabeac, eta trabajuac», «ocasio eta peligro», «nai-
 gabetzea eta atzecabetzea», «mimberatzen eta senticortzen», «arrazoi eta motivo»,
 «ansia eta araceri andiac», «amatzeço eta estimatzeço», «podere, escubide eta
 facultadearequin», «esperanza guezurti, eta vano batean», «loiqueri, ciquinqueri,
 eta autsqueri gucia», «proposito, gogo eta asmo irmo, eta eraguille batequin»,
 «guezurrezco juramentuac, murmuracio, eta chisme larriac», «naguitasuna eta al-
 pertasuna», «pecaturaco leya edo grifia gaiztoa: oneraco pisutasuna, eta naguita-
 suna: pasioen erabaguetasuna, eta ichumena: eta condenatu bearra» ...

Jaso ditzagun testu-zati luzexeago batzuk ere:

«Bada Jesu-Cristoc libratu gaitu pecatutic, eta Deabruaren cativeriotic: eta ecarri digu Cerutic bear degun arguia gure Jaungoicoa eta gure zoriona bear becela ezagutzeco: eta bear degun gracia eta indarra bere Legue santua ondo gordetzeco: eta gure animaco eritasunac eta argaltasunac sendatzeco: eta Ceruco bidean zuzen, arifñ eta gogotic ibiltzeco: eta orrela gure eguiazco zoriona, oraingoa eta beticoa iristeco: eta eztago beste bideric Ceruraco.»

(Gerriko, I, 4 or.).

«... eta ala eztegu asco Cerura joateco, eta betico Infernutic libratzeco, fedea, eta esperanza eduquitzea edo cer sinistu bear degun, eta cer, eta nola escatu edo nola oracio eguin bear degun jaquitea. Fedea, eta esperanza nai ta ez lagundu bear ditugu caridadearequin edo Jaungoicoaren gucien gañeco amorioarequin, eta gure lagun urco edo proximoaren eguiazco amorioarequin: eta hori aguertu bear degu gure bici modu onarequin, edo gure obra onaquin»

(II, 1 or.) (Ikus hemen Jainkoarenganako maitasuna adierazteko 'amorio' hitza erabiltzen duela, eta ez 'amatu').

«G. ¿Cerc pecatu eragun edo Jaungoicoaren leguea ausi eraguiten digu? E. 1a. Batzuetan jaquifñeztasun edo ignoranciac. 2a. Beste batzuetan gure argaltasunac, eta gaitzeraco griña edo pasio gaiztoac. Eta 3a. beste batzuetan gure maliciac edo gaiztaqueriac»

(II, 4 or.).

«G. ¿Cein dira templanzatic jayotzen diran, eta ari darraizcan virtuteac? E. Dirade 1a. Honestidadea, eta lotsa ona. 2a. Jan-edanean beguiratua, eta contuzcoa izatea, bacoitzaren premiaz batera. 3a. Castidadea, eta sentidu guciac arrazoyaren mendean eduquitzea. 4a. Guciaquin biguñia, erruquitsua, eta onguille izatea. 5a. Modestia, eta humiltasuna. 6a. Mingaña ondo gordetzea, eta gobernatzea: bear danean isiltasuna, eta hitz eguin bear danean modu ona eduquitzeco. 7a. Bacoitzaren bicimoduari dagoquion laneraco edo ocupacioraco estudioa, jarrayoa edo aplicacioa. 8a. Iñor ofenditu edo aserratu bague, humore ona, eta bear danean diversio edo jostatze decentea, eta ondo arreglatua. G. ¿Eta cein dira templanzaren contraco vicioac, eta utseguiteac? E. Dirade, erabagueco jan-edanac: erguelqueriac edo arinqueriac: lujuria edo loiqueria: sentiduai erabagueco gusto atseguifñac ematea: vanidadezco, eta modestiaren contraco janciac, eta apaindurac: neurri onic, eta modu onic ez eduquitzea, ló eguitean edo ez eguitean: divertitzean edo ez divertitzean, au da, jostatzean edo ez jostatzean: arrazoyac edo premiac escatzen dueñean: gueyegui necatzean edo batere ez necatzean: alegrian, eta tristuran: hitz eguin bear danean isilic egotean: edo contrara isilic egon bear danean hitz jariora edo hitzoncia izatean.etc. Bada vicioetatic libratzeco templanzaren virtuteari jarrayo, eta aren erreglac gorde bear ditugu.»

(II, 87 or.).

«G. ¿Eta cein dira goitu bear ditugun gure pasio, griña edo vicioac? E. Pecatu ascoren sustrai gaiztoac diran zazpi pecatu capitalac edo burudunac; au da, lembicoa soberbia edo andi naya, arrotasuna, vanidadea, eta hipocresia. Bigarrena, avaricia edo guticia edo ondasun edo interesaren gura edo apetito erabaguea. Iru-garrena, gorputzaren gusto ciquin edo loiqueriarene griña gaiztoa. Laugarrena, ira edo colera gaiztoa. Bostgarrena, embidia edo orri darrayon proximoaren gorrotoa. Seigarrena, gula, jan-edan erabagueac eguiteco griña edo vicioa. Eta zazpigarrena, naguitasuna, au da, virtutearen igüia edo virtutezco lanac eguiteco atzerapena edo alpertasuna.» (II, 492 or.).

Eta parentesiarteko 'kurioso' hau ere ezin utzi jaso gabe: «G. ¿Cristauzco prudencia cer da? E. Da virtute bat (**Eusqueraz zuentasuna** esan deiquigu ...)

(II, 83 or. Azpimarratua gurea da). Hemen ez ote da Gerrikoren ‘garbizaletasun’ ikututxo bat edo somatzen?; euskara ‘garbixeagoa’, txukunagoa erabili nahia edo?

2.8. Nahikoa luzatu bide dugun azpiatal honekin amaitzeko, Gerrikoren hitz eratorrien eta atzizki-sistema oparoaren aipamena ere egin behar dugu (27). Hona, segidan, lagin gisako bat:

- ‘-ari/-lari’: «mercatari», «guidari», «lausonjariac», «joculari», «aucilariac», «consejalariac» ...
- ‘-dade’: «castidade», «cantidade», «gravedade», «libertade», «honestidade», «Virginidade» (eta «Virgñatasun»), «eternidade», «necesidade», «Santidade», «maldade», «abilidade» ... (Beti, ‘-dade’, inoiz ez ‘-tate’).
- ‘-dun/-tun’: «zordun», «artzecodunac», «faltadun», «culpadun», «hiztun», «partedun», «amarrenduna», «aciendadun», «frutudun», «quiratsdun», «aitzaquidun», «derecho dunac», «cargu dunac» ... (Batzuetan izen-oinetik bereiz).
- ‘-duria’: «jaquinduri/jaquinduria» ... (Batzuetan ‘-a’ itsatsirik gabe).
- ‘-era’: «sarrera», «asiera», «prestaera», «nayera», «ezagüera», «animaco garbiera/campoco garbiera» (‘garbiketa’ eta ‘garbitasuna’, biak adierazteko) ...
- ‘-eta’: «lapurreta» ...
- ‘-gabe/-bage’: la beti bizkaierako forma: «lotsabagueac» ... (Batzuetan izenetik aparte).
- ‘-gai’: «oficio edo langaya», «meritu gai» ... (Gehienetan izenetik bereiz edota marratxoz loturik).
- ‘-garri’: «maitagarri», «igüigarri», «mostruo icaragarri», «ichumen arrigarri/gogortasun arrigarri/malicia arrigarri/Purgatorioco neque arrigarriac, pena arrigarriac, tormento arrigarriac» (‘oso handiak’ zentzuan, beraz), «nazcagarri», «caltegarri», «izugarri», «miragarri» (‘desiragarri’ zentzuan), «lotsagarri», «edergarri/-ak» (‘edertasuna’; baita ‘apaindurak’ ere), «atseguingarri/atzeguingarri/misterio atseguingarri» (gehiagotan «atseguñezcoac», zentzu berean), «necagarri/bere buruaren necagarri» (‘nekarazle’), «goaicarri/goaitcarri», «acigarri becela», «eragozgarriac/ori iristeco ditugun eragozgarriac» (‘eragozpenak’), «motivo guztiz icusgarriac ta sinisgarriac», «mingarriac», «lastimagarriac», «añadigarri becela», «ocasiogarriac», «adoragarri», «provehugarriac», «honragarri», «bildurgarriaquin» ...
- ‘-gile’: «onguille», «gaitzguille/gaizquille», «birauguille», «chismeguille», «limosnaguille», «barauguille», «languille», «bear guille», «juramentoguille/juramentu-guille» ... (Batzuetan izenetik bereiz edo marratxoz lotua).
- ‘-gin’: «gaiztaguiñac» (‘gaizkileak’).
- ‘-ka’: Moduzko aditzondoak: «piezaca», «canaca», «imillaunca/imillaun erdica», «banaca», «guchica», «zabuca», «alboca», «errenca», «leyaca eta porfiaca» ...

27. Atzizkien aberastasunean eta hedapen literarioan zerikusi handia izan zuen Larramendik: Ikus, besterik beste, aipatu berri ditugun Sarasola, 1986, aip. art.; Lakarra, 1985, aip. art.; eta Lakarra, 1992, aip. ob.ko X. Altzibarren lana. Hirurak ere txit interesgarriak.

Hitz eratorrien atalxo hau moldatzeko Villasanteren liburuaz baliatu gara: Villasante, Fr. Luis, 1981, «Palabras vascas compuestas y derivadas», Aránzazu, Oñate, 49-50, 57-143 or.

- ‘-keria’: «billauqueria», «loiqueria», «ciquinqueriac», «ecerezqueria bategatic», «zoraqueria/zoraqueri andiagoac», «gaiztaqueria/gaiztaqueri igüigarri», «eraqueri andia» ... (Batzuetan ‘-a’ itsatsirik gabe. Ikus ‘-tasun’).
- ‘-kizun’: «pagaquizunic edo biurtuquizunic» ...
- ‘-koi’: «eguicoya» (zentzu gorai patzailean) ...
- ‘-kor/-or’: «mudacor/muda corrac», «aldacor», «gambiacor», «aserreacor», «ichascor», «araguicor», «damucorra», «aztuorrac edo oituorrac» (‘azturazkoak edo ohiturazkoak’) ... (Batzuetan izenetik aparte).
- ‘-kunde’: «naicunde» (Axularrek bezala, ‘nahi’ eta ‘nahikunde’ ondo bereizten ditu) ...
- ‘-kuntza’: «hizcuntza» ...
- ‘le’: «eguille», «eraguille», «erausle», «erosle», «emalle/Meza-emalle», «giza eralle» ...
- ‘-men/-pen’: «ichumen» (‘itsutasun/itsukeria’), «gozamen», «ondamen», «luzamen», «iduripen», «atzerapenac» ...
- ‘-mendu/-mentu’: «naimendua», «adimentua», «mercimentuac» ...
- ‘-oso’: «guticioso», «guloso», «embidioso», «escrupuloso», «gauza bali oso» ...
- ‘-tar/-dar’: «campotar», «Israeldar», «Levitarrac», «Cerutarrac», «Erromatarrac», «mundutarrac» ...
- ‘-tasun’: «naguitasuna», «arintasuna», «eritasunac», «anditasun», «maitasun», «mintasun», «laguntasun» (‘laguntza’), «aserretasuna» (‘haserrea’), «etsaitasun», «arrotasun» (‘harrokeria’), «igüitasun», «alfertasun» (‘alferkeria’), «garbitasun», «mansotasun», «usteldasun/usteltasun» (‘ustelkeria’), «larritasuna edo pisutasuna edo gradedadea», «cenzubaguetasuna», (‘zentzugabekeria’), «illuntasun», «arguitasun», «damutasun», «gogortasun», «ondasun», «ontasun» (bion esanahia ondo berezirik), «atseguintasun», «moldacaitzasun», «jaquñeztasun», «estutasun/estudasun», «ugaritasun», «urritasun», «ardurabaguetasun/ardura-baguetasun», «gozotasun», «eguiatasun» (izenaren ‘-a’ itsatsia gordez), «bicitasun», «neurribaguetasun», «Erreguetasun», «Jaungoicotasun» (‘Jainko izaera’), «Virgññatasun» («Virginidade». Izenaren ‘-a’ itsatsia gordez), «oquertasun», «zoriontasun» (normalean, «zorion»), «gucialtasun», «guizatasun» (‘giza izaera’), «chiquitasun», «diññatasun», «laburtasun», «irmotasun», «sendotasun», «edertasun», «leyaltasun», «alarguntasuneko demboran» (‘alargun aldian’), «liberaltasun», «humiltasun», «laburtasun», «argaltasunac» ... (Egun ‘-keria’ atzizkiak moldatu ohi ditugun hitz asko eta asko, Gerrikok ‘-tasun’ atzizkiak eskaintzen dizkigu).
- ‘-tegi’: «amarrentegui» (Eliz hamarrenen biltegia) ...
- ‘-ti’: «lotsati», «bildurti» ...
- ‘-tsu’: «indarsu», «jaquinsu», «anditsuac» (‘handi ustekoak’), «calteitsuac» (‘kaltegarriak’), «erruquitsu» (‘errukior’), «maitetsu» (‘maitasunez betea’) ... (Atzizki honen ordez, sarritan ‘-ko’ izenlagun-atzizkia: «zorionecoac» (‘zoriontsuak’) ...).
- ‘-tzaile’: «mantentzalle», «jarraitzalle», «murmuratzalle», «aditzalle», «adulatzalle», «ofenditzalle», «sartzalle», «libratzalle», «pagatzalle», «adoratzalle», «gobernatzalle», «maitatzalle», «erretzalle», «amparatzalle», «arguitzalle», «sendatzalle», «lotzalle» ...

- ‘-zale’: «tratozale», «tabernazale», «jocuzale», «diruzale», «bigun zale», «honra zale, interes zale, eta atseguin zale» ... (Batzuetan, atzizkia izen-oinetik bereiz).
- ‘-zio’: Gehienak maileguak izanik, euskal oinarridun batzuk ere bai: «barcacioa», «gogoracio», «barreacio» ...
- ‘-oro’ eta ‘-quiro’: Atzizkiok oso gustoko ditu Gerrikok (baita Lardizabal eta Iztuetak ere): «orduoró», «goizoró», «egunoró», «urteoró», «aldioró», «jaioró», «instanteoró», «osoró», «ceoró», «cinzoro», «astiró» (‘asti+oro’?= ‘edozein unetan’, ‘ahal den guztietan’: «Sacramentuac astiró artu») ... «escuarquiró», «comunquiró», «berezquiró», «generalquiro», «andizquiro», «fielquiro» ... (28).
- ‘-cho’ atzizkia konparaketako ‘-egi’ graduatzailearen baliokidetzat maiz erabiltzen du, Goierri hain ohizko den legez: «ascocho» (‘gehiegi’), «laburcho» (‘laburregi’) ...

Beste batzuk: «pobreza»..., «lenguage» ..., «colerico» ..., «nasteri» (‘-a’ itsatsirik gabe) ..., «lagun guida» (‘lagunkida’), «tripazai» ...

Eta aurizki bat: ‘des-’: «desarrazoy», «desegin», «deshonestidade/deshonestoac», «desatentoac», «descortesac» ...

Azkue, Retana, Mitxelena eta Sarasolak, besteak beste, beren Hiztegietan jasotzen dute Gerrikoren «Cristau Doctrina ...»ko lexikoa. (Ikus Hiztegi bakoitzaren sarrerako bibliografian).

3. Deklinabidea (Morfologia etab.)

Gipuzkerako Goierriko azpieuskalkiaren ohizko deklinabide-atzizkiak darabiltza, noski. Zenbait gauzatxo edo ñabardura azpimagarri:

3.1. ‘-a’ berezkoa duten izenei artikulua eranstea, batzuetan, ‘-a+-a=εa’, bizkaieraz eta goierrieraz ohi den legez: «dancea», «lotsea»... Dena den, hone-lakoak oso urri dira eta, gainera, ez konstanteak: «alaba», «gauza», «dotriña» ...

3.2. Mendebalde osoan bezala, pluralean ‘-a-’, eta ez ‘-e-’: «icusgayaqui », «aditzalleai», «batzuaquin», «emacumeaquin», «dantzai», «mendecoai», «guizacumeaquin», «Sacerdoteai», «besteaquico» (‘besteekiko’), «esamesaz» (‘esamesez’), «muin eguiñaz» ... Aditzean ere lotura bera (‘-a’) erabiltzen du, geroxeago ikusiko dugun bezala. (Singularrean, aldiz, «icusgayarequi», «Sacerdoteari» ...).

3.3. ‘a+e’ lotura batzuetan ‘ae’ eta ez ‘e’: «apainduraetatic», «arraen janaria», «andraequico», «gauzaetatic», «idoiatraen», «onaen, eta gaiztoen», «gizonaen», «guizonaen penaen neurria/Infermuco penaen gañean», «esamesaen», «obraen», «penitenciaen». (Gauza beretsua erlatiboan ere: «duenaen» (‘dutenen’)).

3.4. ‘-a’ mugatzailearen ordeaz, ‘bat’**en gehiegizko (?) erabilera.** Izen zenbakaitzei ere ‘bat’ zenbatzailea eranstejoera. Dena den, izen kontaezinok, ia

beti, adjetiboren batez lagunduak agertzen dira; edota jarraian erlatiboko perpausa dutelarik: «Jesu-Cristoc nai izan zuela ill Gurutze batean», «sacrilegio andi bat eguiten du»... , «nola eztaquizula, sentitzen dezu cere barruan, ondu nai bat, pecatuari largatzeco gogo bat, ... ezagüera argui bat, ... arriscu orietatic ... alde eguiteco deseo bat, dotriña Santua ... enzuteco pensamentu on bat ... Confesio on bat eguiteco gogo bici bat ... Meza nagusietara etortzeco deseo bat ... Co-mulgatzeco asmo bat ... pensamentu bat, eta beste onelaco inspiracio asco» (II, 390 or.), «Etortzen zatzu gogora onelaco edo alaco gauza icusi nai bat, datorquizu beste batean onelaco berriac jaquiteco deseo andi bat, deseo bici bat, gogo bici bat ... meritu gai andi bat» (II, 373 or.), «ira da gure barruco bicitasun edo aserretasun bat...», «baicic da Ceruco jaquinduri bat»... , «ero bat cera; tonto andi bat cera», «alianza edo alcar artze bat guztiz solemnea» (adjetiboa zenbatzailearen atzetik), «Jaungoicoaganaco confianza andi bat», «pena, edo castigu galant bat ematea», «esperanza on batequin alaituric», «asiera on bat emateco», «Justuac ere iristen due Graciaren grado andi bat eta orri dagoquin gloria zati edo grado andiago bat Ceruan», «Gure proximo guciaquin paque andi batean bicico guera», «eriotza on bat iristeco prestaeraren gañean», «guerra fortiz bat eguiten dion etsai indarsu bat», «atencio andi batequin beti errezatzeco...», «al-carrequico paciencia andi bat eduquitzea», «errespeto andi batequin», «prestatu gaitecen... pecatu eguindaco biotzeco damutasun andi batequin... eta gure oitura charrac vencitzeco proposito eraguille batequin», «Au da ichumen andi bat» ... , «Da Espiritu Santuac ematen digun doay bat, Jaungoicoaren Magestadearen erre-verencia edo errespeto andi bat gorde eraguiten diguna», «eta orri darrayo gure buruaren eta araguiaren amorio erabagueco bat, gure burua ... Jaungoicoarena baño gueyago estimatu eraguiten diguna», «G. ¿Eta cer da templanza? E. Da virtute bat... eraguiten diguna...», «liberaltasuna... da Caridadeari darrayon Ce-ruco virtute bat, ... muguitzen gaituena»... , «ematen digu izate berri Jaungoicozco bat, aiñ honragarria eta provechugarria, nun ...», «... Gracia ... da izate divino edo Jaungoicozco bat ... Eta da doay bat, mesede bat, eta ondasun bat aiñ andia ... nun...» (II, 386 or.) ... Halere, «G. ¿Cer da lujuria? E. Da gorputzaren gusto edo atsegin liquits, loi edo ciquiñaren apetitu edo erabagueco deseo edo grina gaiztoa» (artikulu mugatzaileaz, eta ez 'bat' zenbatzaileaz) ... (Ikus, EGLU I, 173-183 or., EGL, 91-92 or.). (29)

3.5. Ergatibo plurala: '-ak', absolutua bezala.

3.6. Erakusleak: «oec/oen/oetan/oec dira ...», «oiec/oriec ...», «aec/aen/aetan/aec ill-badira/aen heredero legitimoai ...».

3.7. Izenordain indartuak: Lehen eta bigarren pertsonen absolutua eta ergatiboa egiteko era bitxi samarra, ('-r' erantsita): «gueur/gueur izatea/¿Eta nola amatu bear guera gueur?/Guere buruaren borrero gogorrac gueur izatea/gueur egunoro santuago izateco ...», «neurc», «ceurc», «gueurc/ gueurc ez esatea/ gueurc nai degula/gueurc nai ezteguela ere/gueurc ditugun vicioac ...» (Etxepare eta Axularren 'guaur/ceurc ...'en antzera. Hegoaldeko autore zahar gehiagok ere horrelaxe egiten dute). Gainontzean: «gueure/gueuri/gueurez ...», «ceuroc ...», «cere artean» ... (30).

29. Goenaga, Patxi, 1980, «Gramatika bideetan», Erein, Donostia, 85-87 or.

30. Arrue, 1956, aip. art., 38 or.

3.8. Hirugarren pertsona pluralen era indartuak: «erac/erac daquizten ...», «eren/eren buruai/eren soroac edo basoac ...», «erai/erentzat/erendaco» ... Singularrean, aldiz, normalean: «bera/bere/beregan/beregaiñ/Apostoluari berari ...». Haatik, «jabeac erac ecin ondo iguerri dionean»; (akatsen bat?). Pluralean ere, behin edo behin, «bere» ...

3.9. Plural hurbila: Maiz erabiltzen du eta oso jator, gainera: «gueuroc», «ceuroc», «ceuroc ere aren etsaiac ceratela», «ceuron echetic», «ceuron buruari», «ceuronganatzeco», «batzuoc», «batzuoc esango dirazue», «baña batzuoc, ceuron echetic ateraco cenduque», «batzuoc zuen artean esango dezue», «besteoc», «Cristauoc», «aldezuoc» ... (31).

3.10. «Nor» eta «Cein/Ceiñ»: Biak erabiltzen ditu.

3.11. «Norzuac» Pluralean: «Norzuac ... eguin oi ditue? eta norzuac ez?» ...

3.12. «Nun/Nungo/Nundic ...», «Iñun/Iñundic ...». (Eta ez 'Non' ...).

3.13. 'Bi' zenbatzailea: Aipamen berezia merezi du puntutxo honek: Gerrikok ia beti izenaren atzetik (gaur egun bizkaieraz bezala eta, ziur aski, lehenago ohizkoagoa zen eran) erabiltzen du. Gure autore zaharrek, bizkaitar zein gipuzkoarrek bietara erabiltzen dute, izenaren aurretik nahiz atzetik. Iztueta eta Lardizabal goierritarrek ere, normalean, izenaren atzetik dakarte 'bi' zenbatzailea. Hona Gerrikoren adibide batzuk: «gauza bi», «amets bi», «emazte bi», «guizacume bi», «jave bi», «seme bi», «usacume bi», «cecor bi», «liburu bi», «dotriña bietan», «bicitza mota bi», «testigu biren», «onza bi chocolate», «escualdi miragarri bi», «persona biren», «misterio andi bi», «Noe Patriarcaren hume on biac», «arrizco losa edo ol bitan», «alde bitatic», «era bitara/era bitacoac», «modu bitan/modu bitacoac/modu bitara», «lapur biren erdian», «urte bi», «egun bi», «ill bitic bira/illean bein edo ill bitic ill bira» ... Oso gutxitan, baina noiz edo noiz izenaren aurretik ere bai: «bi gauzatar», «bi oec», «pecatuan bi gauza arkitzen dira» ... (32).

3.14. 'Zerez/Zertaz' kasua: Arrueren esanera, Gerrikok ongien erabiltzen duen deklinabide-atzizkia '-z/-zaz/-taz' bide da; Gipuzkoako idazle zaharrek, Mendiburu bera tartean delarik, ez bezala, apika(33): «iltzez josi», «limosnaz bici», «Jaungoicoa aurpeguiz aurpegui icusteco», «Jaungoicoac beraz Ceruan gozatzeco eguin gaitu», «zorianaz gozatu», «zuzaz ondo baliatu», «virtuteezaz baliatu», «virtuteaz baliatu», «aezaz hitzeguiten egon», «bere lagunaz erruqui izan», «besteren gaitzaz atseguin artu», «arzaz berriz confesatu», «guizon arzaz zer eguin», «oracioaz armaturic», «matrimonioaz usatu gabe egon», «Jaungoicoaren hitzaz indarturic», «guciac Espiritu Santuaz beteric», «jaquinduri artoaz ichaturic», «nizaz hitzeguin zuten profeci», «salvacioaz etzitzea, Infernura jaichitzea da», «icusi dezagun tentacioaren icenaz cer aditzen degun», «cer izango zan munduco guizacume eta emacume guciezaz?», «nor arritzen ez da humiltasun

31. Arrue, 1956, aip. art., 39 or.

32. Arrue, 1956, aip. art., 41-42 or. EGL, 94 or.: Erabilera hau gaur bizkaierazkoa bakarrik bada ere, aintzina euskararen eremu osoan aurkitzen zen.

33. Arrue, 1956, aip. art., 40 or.

onezaz?», «ezta guizona oguiaz bacarric bici, baicic Jaungoicoaren aotic datorren hitz guciaz», «ez degu lotsatu bear Jesu-Cristoren Gurutzeaz», «eztegu ansiaric bear guerochoaz», «munduco gaucen ansiaric gabe egunerocoaz contentatu», «etzirran lur arzaz jabetu», «Sodoma erriaz jabetu zan», «zorigaiztocoac Jaungoicoaz azturic eta munduaz zoraturic bici diran Cristau nagui-alperrac», «Espiritu Santuac bere etorreraz eguin zituan mirari arrigarriac», «amabost besoz gora alchatu ciran urac», «ezpata colpe batez belarria quendu cion», «Moisesec Jaunaren ordenaz bere cigorraz aitz bat jo zuén», «arcumearen odolaz señalaturic ceuden Israel-darren echeac», «artu zuén Moisesec hisopo bat eta sacrificiotaco odolaz busti zuén», «munduaren esamesaz casuric eguin bague», «guizon arzaz cer eguingo zuén», «eguiatz amatzeco», «Meza Santuaz baliatu», «pecatuaz gloriatu», «cuidadua artuaz, eta berrituaz», «zorrac eguiñaz», «obligacioari ecin eranzunaz», «damugaya ceuron buruari ecarriaz», «graciaz, eta indarrac baliatu bear guera», «Evangelioaz gañera», «graduaz conforme», «Muiñ eguiñaz», «betaz», «escusatuz», «icasi baguez edo contuz gorde baguez eguiten diranac», «gauza ciquiñetan ezagüeraz, gogoz, eta vorondatez, atseguñez pentsatzen egotea», «pecaturic obraz eguiteco», «ezagüeraz erabiltea», «proximoaren onaz damu artzea, eta aren gaitzaz poztutzea», «oituraz, erraztasunaz edo aztura gaiztoaz», «maliciatz, eta gaiztaqueriz eguiten diranac», «pensamentuz, edo deseoz, edo hitzez edo obraz, edo utseguñez», «biotza eranciaz, edo apartatuaz», «laguntasun andi aen faltaz», «erraz erorten guera», «Gurutze Santuaren señalea eguiñaz», «hitzac edo formac esanaz», «Espiritu Santua icentatuaz», «obligacio oriec beste batzuei encargatuaz», «exemplo ederraz oroitu», «guchianez bacoitzari berea contuz biurtu bear diogu», «berac bere escuz edo besterenez pagatu», «luzamenaz, eta eguiten duen agravioaz conforme» ...

Beste 'arraro' samar batzuk ere bai: «acusatuaz ostein» ... Edota «¿Nola bada gaitz oriec erremediatu ditzaquegu? Jesu-Cristoren dotriña santua ondo icasiarequin, eta ari jarraituarequin» ... (hots, erdal kutsuz, kasu asoziatiboa erabiliz).

3.15. 'Zeri buruz/Zertaz' adierazteko '-ren gañean' forma erabiltzen du: «ceren gañean», «Sacramentuen gañean», «diru jocuaren gañean cer legue dago», «alcarri aginduaren gañean», «pecatu venialaren gañean beste dotriña aldi batean berariatz hitzeguingo dizuet», «embidiaren eta caridadearen gañean» ...

3.16. Prolatiboa: '-tzat/-zat' ere sarri eta dotore erabiltzen du, 'xedea' nahiz 'ustea' adieraziz eta atzizki berezi honi dagozkion oinarrizko aditez baliatuz:

— «Aita Eternoac artu zaituen bere seme-alabatatz: Jesu-Cristoc bere senidetatz: eta Espiritu Santuac bere jarlecu, eta templotatz», «artu gaitu Aita Eternoac bere humetzatz: Jesu-Cristoc bere miembro, zati, eta senidetatz: Espiritu Santuac bere Templo, eta bici lecutatz», «Aita Cerucoac artzen gaitu bere seme edo alabatatz; Jesu-Cristo gure Jaunac eguiten gaitu bere senide, bere zati edo miembroac» (II, 397 or. 'Egin' aditzarekin, beraz, prolatiboaren orde, absolutu mugatua -baina ez mugagabea-), «ontzat artzen det», «Ama Virgiñac bere humetzatz arturic gauzquen...», «bitartecotzat artzen ditugu Ama Virgiña...», «bere humetzatz artu gaitu», «bere zati, edo miembrotzat arturic eduquitzeac», «urrezco cecor bi aec Jaungoicotzat artu cituan», «oracio eguitea, consejutzatz, eta devocioco gauzatzatz ... artzen bada ere», «bere laguntzatz artzen duenari»,

- «etzituan aren Magestadeac ontzat artzen», «Jaungoicoac etzion ontzat artzen»...
- «Ama Virgíña Santísima gure Amatzat, eta amparatzalletzat Aingueruac gure zai eta guidaritzat: eta Santuac gure ispillu, eracusle, eta bitartecotzat eman dizquigulaco... bere Seme propioa bera, gure Maisu, edo eracusle, gure Erredemptore, eta Salvadoretzat eman digulaco: eta bere seme-alabatzat artu nai izan gaitualaco», «nere orde z Semetzat ematen dizudana»...
 - «Amatzat eduqui bear dezuna», «Amatzat Eliza..., eta burutzat Jesu-Cristo bera daucagu», «gauza guztiz ciertutzat, eta eguiazcotzat daucadala», «dauzcate infametzat», «esan zuenac, juramentutzat bazeucan, juramentu eguin zuen», «mortaltzat eztauzque», «venialtzat bacarric dauzcatelaco», «gezurtzat eduquitzen eztá», «pecatutzat eztauzcagun gauza gaizto asco», «pecatu mortaltzat daucan gauzaric», «munduco ondasunac gozatzea eguiazco zoriontzat, eta dicha anditzat ez eduquitzean; eta aec galtzea edo aec bague izatea zorigaitz edo desdicha anditzat ez eduquitzean», «gure Aitatzat Jaungoicoa bera daucagun ezquero», «guciac onzat eduqui bear baditugu ere», «artean ciertutzat eduquitzea»...
 - «Erromaco Sumo Pontifíca mundu onetan bere burutzat ezagutzen, eta daucana» ('ezagutu' = 'aitortu'), «Maisu principaltzat ezagutzen», «Jaungoicotzat ezagutu zuen», «eren Erreguetzat, eren Jaungoico eguiazcotzat, eta... gucion Erredemptoretzat ezagutu», «Jaungoicoaren Semetzat ezagutu zuena», «nere Jaungoicotzat, eta nere Jabe Soberanotzat ezagutzen zaitut»...
 - «Eliza Ama Santac alacotzat guri eracustea»...
 - «eguiazcotzat daucadala, eta ciertuagotzat sinisten dedala»...
 - «Sauli suertea tocatu citzayon, eta Erreguetzat jaso zuen» ('Erregetzara jaso zuten' = 'Erregetzat hautatu zuten')...
 - «San Juan Evangelista bere Ama Virgíña Santisimaren Semetzat señalaturic utzi zuan»...
 - «Evangelio Santuac pecatu anditzat badacar ere»...
 - «Jesu-Cristo gure Jaunac berac segurutzat esaten digu»...
 - «Cristautzat marcaturic»...
 - «Abraham Patriarcaren ondorengoac, bere pueblotzat esleitu ezquero...» (II, 93 or. 'hautatu')...
 - «Jaungoicoa testigutzat ipintzen da», «Eztá Jaungoicoa testigutzat ipintzen»...
 - «Cristauac idolatratzat tratatu»...
 - «Eliza Ama Santac alacotzat declaraturic daucana»...
Atziki honekin erabiltzen dituen aditzen hustuketatxo bat eginez: 'hartu, eman, eduki, ezagutu, erakutsi, sinistu, jaso, señalatu, ekarri, esan, markatu, esleitu, ipini, tratatu, deklaratu'. (Ikus, EGLU I, 446-451 or.).

3.17. Adlatibo bukatuzkoa: «aimbesteraño», «orrembesteraño»... Lekua ezezik, denbora adierazteko ere, askotan, '-raino' deklinabide-atzikia erabiltzen du, 'arte' posposizioaren orde z: «Pascuetaraño» (pluralean?), «goicean jaiquitzen danetic, oiratzerano...», «urrengo arratsaldeco seiretaraño», «amargarren urte-raraño», «eta icenic ipiñi etzioben Circuncicioco eguneraño»..., «sentenciatu zueneraño» (erlatiboko perpausetan ere bai)... Edota, 'arteraino': «Escritura Santuac

dacatzan guertaera principalac Adanen demboratic Jesu-Cristo guizon eguin ar-
teraño»... (Ikus, EGLU I, 395-400 or.). (34)

3.18. «Oraindio»: «eztá oraindio urte asco», «eta oraindio ... ustecabeen
esaten dezuen birau bacoitzeco» ... Ez dugu Goierriko ablatibo-atzizki honekin
«oraindio» beste hitzik aurkitu; gainerako guztietan ‘-tik’ atzizkia erabiltzen du.

3.19. ‘-rendaco’ destinatiboa: «norendaco», «erendaco», «Elizaco servi-
tzariendaco» ... (Zegama aldeko forma peto-pettoa).

3.20. ‘-requico’ eta ‘-ganaco’: Birdeklinabide-atzizkiok oso gogoko ditu
Gerrikok. Atzizki bioz eraturako izenlagunak zentzu berean, aparteko bereizke-
tarik gabe darabiltza: «Jaungoicoarequico, eta gure progimoarequico Caridade,
edo amorioa» = «Jaungoicoaganaco gure amorioa». Hona adibide batzuk:

- «norc esan aren caridade guztiz iracequia bere Aitarequico eta gurequi-
co?», «Jaungoicarequico, eta nagusiarequico nolaco leyaltauna izan
zuen», «Jaungoicoarequico, eren buruequico, eta eren proximoequico
dituzuen obligazio generalac» (‘eren’ izenordainaren orde, ‘zuen’ be-
harko zukeen), «zuen obligacioac, ala Jaungoicoarequico, nola zuen bu-
ruarequico, eta zuen lagun proximoarequico dituzuenac», «Jaungoicoa-
requico beste obligacioac... ecin cumplitu ditzaquegu», «eta cembat
obeto Jaungoicoarequico, eta alcarrequico amoriozco Legue ori gordetzen
degun, ambat...», «Salvearen explicacioa: eta Ama Virgñarequico de-
vocioa», «eta gurequico du Ama guciz bigun erruquitsu eta maitatza-
lleanen biotza», «Ama Virgñarequico gure devocioa piztutzeco», «vir-
tuteac... Jaungoicoarequicoac edo teologalac», «galtzen du gendeaquico
creditoa, estimacioa, eta honra», «eguindaco damu generala edo gucia-
quicoa, eta eraguillea eduqui bear degu», «etorri zaizten gorputzeco, edo
munduarequico calteacgatic, eta ez animacoacgatic», «languñac ditue
eren obligacio particularrac gurasoequico, nagusi echeco andraequico,
eta soldata edo jornala edo saria ematen dien guciaquico» (II, 460 or.).
‘Elkar’ izenordainaz moldatutako ugari: «alcarrequico araguzco amorio
edo cariñoa», «alcarrequico Caridadea», «alcarrequico gaitziritzi», «Ez-
conduac ere baditue alcarrequico eren obligacio bereci edo particularrac».
Parrafo berean: «Condenatuac beti alcarrequico gorrotoan daude» eta
«Cerutar guciac alcarrequin duen amorioa», «Jaungoicoaren betico ase-
rrean... alcarren betico gorroto bician daude» (I, 347-348 or.). Parrafo
berean: «alcarrequico leyaltaunac», «bestearrequico obrazco pecatua»,
«alcarrequico leyaltaunari faltatzen zayo», «alcarrequico amorio», «al-
carrequico paciencia andi bat eduquitzea» eta «alcar biotzetic amatzeco»,
«alcarren erruquia, eta alcarren arteco paciencia» (II, 566-567 or.). Edota:
«Cargudunaquin pasioac ichutu bague».
- «berequico bacarric, fundamentu eguiazco bague, motivo bague...»
(‘bere baitan/bere golkorako’).
- «Jaungoicoaren gaganaco amorio», «gaganaco zuen amorio», «beraga-
naco gure fedea», «Jaungoicoaganaco fedea», «gaganaco amorioaren
anditasuna», «Jaungoicoaganaco confianza andi bat», «Jaungoicoac be-

34. Villasante, Fr. Luis, 1983, «Estudios de sintaxis vasca», Aránzazu, Oñate, 56-58 or. eta
1979, «Sintaxis de la oración compuesta», Aránzazu, Oñate, 112-113 or.

raganaco gure confianza», «Jesu-Cristoganaco esquer ona», «Jesu-Cristoganaco esperanza bici batera», «Jaungoicoaren guganaco amorioaren», «Jesu-Cristoren guganaco amorio aña andia», «Jesu-Cristoren guganaco amorioaren», «Jaungoicoaganaco esquer ona», «Ama Virgñaganaco gure devocioa»...

Adibideotan ikus dezakegunez: Jainkoarengandik gizakion alderako erlazioa adierazteko '-ganaco' erabiltzen du (Salbuespena: «Aita guztiz onaren biotza gurequico dauca»); alderantzizkoa, hots, gizakiarengandik zeru alderakoa nahiz gizakion artekoa azaltzeko '-ganaco' zein '-requico' biak nahasian darabil-tza. (35)

3.21. '-ren aldera': Joskera hau ere aurreko puntuan jasotako deklinabide-atzizkien zentzu beretsuan erabiltzen du: «misericordia bere etsai gaiztoen aldera», «mirabe, eta servitziaren aldera... dituen obligacioac», «Beti esquer onecoac izatea, ala Jaungoicoaren aldera, nola on eguiten diguen proximoen aldera»...

3.22. '-gan': Bizidunen deklinabide-atzizkiak ere maite ditu gure goierri-tarrak: «nigan», «gugan», «onegan», «argan», «beragan», «Jesu-Cristogan», «ja-beagan», «Esan cien Pilatosec: Guizon onegan culparic bat ere arquitzen ez det», «Esperanza gueyago dauca diruagan Jaungoicoagan baño», «loiueriaco erro gaiz-toa gugan piztutzen, indartzen eta arintzen da» ...

Beste esanahi batzuekin ere erabiltzen du, tarteka-marteka, atzizki hau: «Ar-tzeco andi bat Gabelogan ceucana cobratu cion» ... Edota «Isaaquec cembat hume izan cituen Rebecagan?», «Isaac Santuac bere emazte Saragan izan zuena», «San-ta Isabelegan izango zuela seme bat» ... (Erabilera egokia ote? 'Emakumearen sabelean izan' adierazten du, antza) (36).

3.23. '-gana': «Jaungoicoagana biotza alchatu/biurtu», «diruagana edo in-teresagana/edo ondasunagana josiric edo gure biotza ichachiric»...

3.24. '-gandik' atzizkia ere ederki darabil: «Adanegandic datorquiguna», «orrela distinguitzen da... Elizagandic... edo Sinagogandic» (ez 'Sinagogagan-dik'. Bizidun gisa), «alcargandic», «aideacgandic», «adisquideacgandic», «nor-gandic», ... Bizidunen kasu-markak inoiz ez edutezko genitiboari erantsita, ezta pluralean ere. (Ikus hurrengo puntuan).

3.25. '-gatic' motibatiboaren kasu-marka, izenari itsatsia nahiz aparte, inoiz ez edutezko genitiboari erantsita, ez singularrean, ez pluralean baizik eta abso-lutiboari. Oso joera normala idazle zaharren artean (Axular, Lardizabal...): «Sal-vaciogatic», «gloriagatic», «animacgatic», «biciacgatic», «guciagatic», «dem-boralacgatic», «gaiztoacgatic», «zuen gaizquilleacgatic», «mesede guztiz andiacgatic», «onelacoacgatic», «merezimentuacgatic», «lotsagarriacgatic», «egun bateco zoraqueriacgatic», «erausiagatic», «zuecgatic», «oriecgatic», «etsayagatic», «ondasunacgatic», «errespetoacgatic», «calteacgatic», «Israel-darracgatic», «motivoacgatic», «irabaciagatic», «erabagueacgatic», «onacga-tic», «sobrenaturalacgatic», «beeragocoacgatic», «pecatariocgatic», «venialac gatic», «osasuna gatic», «ondasunac gatic», «obrac gatic», «aec gatic»... (Ikus, EGLU I, 434 or., EGL, 486 or.).

35. Arrue, 1956, aip. art., 39 or.

36. Arrue, 1956, aip. art., 39-40 or.

3.26. ‘-ren aldean’: Forma hau ere jasotzekoa iruditzen zaigu: Graduazioa edo konparazioa egiteko oso gustokoa du Gerriko ‘-ren aldean’ forma: «pecatu mortalaren aldean ariñago eguiten dalaco» (Ikus, «ariñago», ez ‘arin’) ...

3.27. Izenlagunen atzizkiak (‘Noren’, ‘Nongo’): Forma bitxi samar bat edo beste: «Trinidad Santissimoco, edo Irutasun guztiz Santuaren misterioa» (‘erdarazko’ sintagma, leku-genitiboaz; ‘euskarazkoa’, edutezkoaz. Elizako otoi-tzetako ohitura errotua?), «alarguntasuneco demboran» (‘alargunaldian’), «Erramuco domecatic Pascuaren zortzigarreneraño»; «erriaren echeric gueyenetan» ... Baita arraroxeago hau ere, sarri-sarri: «millarezco esquerrac» (‘milaka esker’?). Edota idazle klasikoen artean erlatiboan nahiko normala den forma hau ere bai: «pagua luzatzen duenaen» (‘dutenen’, alegia) ...

Bestalde, kasu batzuetan, ‘-ko’, ‘-zko’ atzizkiez moldatutako izenlagunen orde, adjetibo soil-soila erabili ohi du: «gauza alperrac» (‘alferrikako gauzak’), «gauza bearrac» (‘beharrezko gauzak’)...

3.28. Eta Deklinabidearen azpiatal honekin amaitzeko, izenlagunen erromantze erako joskera batzuk jasoko ditugu; hau da, ‘-ko’ atzizkidun hitza bestearen aurretik jarri beharrean, atzetik ezartzeko joera handia du Gerriko, (autore zahar gehienek bezalatsu): «Aingeru Guardacoac»; «Tolosa Francia-coan»; «penitencia eguiazcoa»; «urre eguiazcoa»; «acto contriciozco eguiazco bat»; «fundamentu eguiazcoric eztuena»; «damutasun eguiazcoa»; «amorio guztizcoa»; «pecatu jatorrizco»; «Sumo Pontifice Erromacoac»; «bada propositu eguiazcoric eztu»; «eriotza paquezco bat», eta hurrengo parrafoan, «paquezco bici modu bat» ... (Gaur ere ‘Aingeru Goardakoa’, ‘Ama Doloretakoa’ ... eta ‘Aita Gurea’ ... esaten dugu. Dotrinan ikasiaren eragina, jakina).

4. Aditza (Morfologia etab.)

Aditzari dagokionez, idazle zahar gehienek bezala, benetan bikaina dugu mutiloarra; adizkietan aberatsa, oparoa eta erabilera txukun-txukunekoa. Arrueren iritiz, gaur egun ere idazle gutxik erabiltzen du aditza Gerriko bezain tajuz. Eta, froga gisa, segidako pasarte biok hautatzen ditu, guri ere hemen jasotzeko egokiak iruditu zaizkigunak: «Nere ondoren iñorc etorri nai badu, uca beza bere burua: arbeza bere gurutzea, eta niri jarrai bequit» (II, 3 or.). Eta «Iturrira dijoanac, onci chiquia badarama, eta bacan badijoa, ur guchi artzen du, eta onci andia badarama, eta sarri badijoa, ur asco artzen du, eta cembat onci andiagoo daraman, ambat ur gueyago echera dacar» (II, 541 or.) (37). (Ikus agintean aditz nagusien oina erabiltzen duela, eta ez partizipioa).

Aditz-flexio edo forma gehienak Goierri aldekoak ditu, jakina, baina, ikusiko dugun bezala, tarteka azaltzen dira bizkaiera-kutsuko ‘zeratxo’ batzuk ere (38).

4.1. Orainaldiko adizkiaren eta atzizkiaren arteko lotura ‘-a-’, eta iraganaldiko marka ‘-an’ Mendebaldeko euskalkietan ohi legez: «naizala»; «naizan

37. Arrue, 1956, aip. art., 40 or.

38. Interesantea litzateke Gerrikoen adizki-formak eta Zegamako Klaudio Otaegik L.L. Bonaparterentzako Zegamako azpieuskalkian bildutako adizki-taulak parekatzea. (Ikus Aranburu, Pello Joxe, eta beste batzuk, 1994, «Klaudio Otaegi (1836-1890)», Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, X atala, 4. puntua, 167-171 or.).

gucia»; «dan»; «dala»; «eltzen danean»; «bateatu bear danagan»; «dagoan»; «diranai»; «eztiralaco»; «daudenaquin»; «nintzan»; «zalaco»; «bazan»; «abiatu zan esaten»; «guiñan»; «baciran»; «daquian»; «gaituana»; «duenai»; «dituala»; «autu zuan»; «larga guenduan»; «guenduquean»; «guinduzquean»; «eman daguioqueana»; «luquean»; «lezaqueanic»; «litzatean»; «cetorqueana»; «etzaitzteala» ... Eta testu luzexeago batzuk: «Eta orobat etzaye eman bear, iñoiz pecaturic batere eguin eztuen aur inocenteai: ez eta cenzuric edo juicioric batere iñoiz izan eztuenai: baña bai arrazoyaren arguira etorri diran aurchoai: eta baita lenago juicioarequin bici izan, eta guero zoratu diranai ere, lenago Cristau guisa bici izan baciran: eta ezta iñor gaiztotzat eduqui bear, prueba cierturic aren contra eztagoanean. G. ¿Noiz eman bear zayo Olio Santu eri dagoanari? E. Illtzezo peligran dagoanean»; «Aditzera emateco 1a. Cristauaren bicimoduac nolacoa izan bear duen: eta 2a. pecatua cer dan, eta cembat modutan izan oi dan: eta 3a. pecatu mortala cer dan, eta cein igüigarria, eta caltegarria dan: eta pecatu mortalean erori ezquero, nola luzatu bague contriciozco actoa eguin bear dan»; «dala lapurreta eguitecoa, dala deshonestidade edo loiqueriacoa, dala bendecuzcoa»; «diru zaletu zan, eta Jesu-Cristo ... saltzerano eldu zan: eta desesperaturic bere burua urcatu zuen, eta betico condenatu zan» ... Halere, tarteka, «ara nola argaltasunezcoan diren» ...

4.2. Partizipio burutugabea edo aditz-izena sortzeko eta 'l/n/r'ren atzetik bada, batzuetan (ez beti), '-tzen'en ordez, '**-ten**' erabiltzen du: «ibiltea»; «erabiltea»; «ecarten»; «ecarteco» «ezarten»; «erorten»; «jarten»; «jarteagatic»; «iracorten»; «irteteco»; «ipinten/ifinten/aurrari icena ifinten diove» (baina, baita «ipintzezo/ifintzen») ... Forma horiek badute bizkai-itxurarik, baita, batzuetan, Segura-Zegama aldekoa ere.

4.3. Bestalde, batzuetan, **aditz-izena edo partizipio burutugabea burutu edo pasibotik** sortzen du, eta ez infinitibo edo oinetik; (mendebaldeko euskalkietako joera jarraituz, jakina): «acitzen/acitzeco» ('hazten/hazteko' esan ordean); «asitzen»; «ausitzen»; «jaitzitzea»; «jantcitzea»; «neurritzeco»; «poztutzen»; «oztutzen»; «piztutzen»; «landutzen»; «oitutzea»; «galdutzeco» ...

4.4. Lehenago ere aipatu dugun bezala, aditz laguntzailea eta honen aurreko zenbait elementu **lotuta**: «albanu»; «aldala»; «eztá» ('ez da'); «eztan»; «eztuen»; «ezpazaye»; «cerda?» ... Berdin, aditz-esapide edo lokuzioak: «beardué»; «naidué» ... Eta lokuziook eta segidako hainbat elementu: «bearbaño»; «naibaño» ...

4.5. Pertsona eta plural markak:

4.5.1. '-te' ('Haiek' eta 'Zuek'): Hiru bariante:

— a) 3. pertsona plurala, 'Nork Haiek', Goierriko legean egiten du ia beti, hots, '-te' ezaugarriarik gabe, '-e' soilaz: «estezen» ('ez dezaten'), «naidué» ('nahi dute'), «eztuen» ('ez duten'), «gaitue» ('gaituzte'), «cigüen» ('ziguten'), «dauqué/dauquen/dauqueanean» ('daukate'), «gauzquen» ('gauzkaten'), «duenac» ('dutenak/dutenek'), «ligüeque» ('ligukete'), «blasfematu zuén» ('zuten'), «icasi dezen» ('dezaten'), «artu estitue» ('ez dituzte'), «utzi cisquigüen» ('zizkiguten'), «eduqui bear ditue» ('dituzte'), «cituenac» ('zituztenak'), «baligüe» ('baligute'), «die» ('diete'), «badué» ('badute'), «digüe/dizquigüe» ('digute/dizkigute'), «balerame» ('baleramate'), «daramén» ('daramaten'), «etzeramen» ('ez zeramaten'), «eztaramelaco» ('ez daramatelako'), «zaitue» ('zaituztete') ... Testu-zati luzexeagoak: «eguin dizquigüen injuriac, eta eman dizquigüen naiga-

beac», «adulterioan arrapatu zuela guezurrezco testimonioa alchatu cio-ven becela: baña ondo pagatu zuén mereci zuen pena edo castigua», «eta ecin logratu baditue, ... eta erabague gozatzen baditue, Jaungoicoa ofenditzen due ... eta paqueric inñudic eztue: eta nai ta ez penaturic egon bear due», «G. ¿Nor dira escuarquiro bestén pecatuac bereac eguiten dituenac? E. Asco dira. Baña batezere dira, besteai pecatu eguiteco aguintzen dienac: conseju ematen dienac: laguntzen dienac: lausonjatzen dituenac: pecatura tentatzen edo muguitzen dituenac: edo eragozten eztiennac, artaraco cargua, eta obligacioa duelariac ere: nola gurasoac, nagusi-echeco andreac: eta besten cargua duen guciac: eren mendecoan pecatuac, eragotzi ditzaqueala, eragosten ezpaditue, eren contuco izango ditue», «confirmatuac izateco, eduqui bear due intencio edo asmoa Confir-macioco Sacramentua errecivitzeco; jaquin bear due cer errecivitzen duen, eta certaraco errecivitzen duen, eta egon beardue graciaco estaduan; eta ala, pecatu larriric edo mortalic badue, confirmatu baño lenago astiric, edo era onic badue confesatu bear dira, eta confesatzeco eraric ezpadue guchianez acto contriciozco biotzetic eguin bear due, eta escatu bear diove ...» Oso gutxitan: «dauzcate», «dituzte», «citzuten» ... (39).

Berdin, 2. pertsona plurala, 'Zuek', ere: «aditu cenduen» ('zenuten'), «eguin zaituen» ('zaituzteten'), «cenduque/etzenduque» ('zenukete'), «Ceruco herede-roac edo jabe gayac, eta derecho dunac eguin zaituen: eta Aita Eternoac artu zaituen ...», «ceuron echetic ateraco cenduque ... eta ... zuen echea ... apainduco cenduque» ... Baina, «daquitzquizute»...

— b) 'Nor-Nori-Nork' sailean, '-te'ren orde, batzuetan: «cioben» ('zioten'), «badiobe», «diove/diobe» eta «dioe» ere bai, «becoquia lotzen diobe», «becoquia garbitzen diobe», «legortzen diove», «ematen diove», «aurrari icena ifinten diove aita pontecoac», «galdu diobela», «emango baliobe ere» ... baita 'Nor-Nork' saileko trinko batzuk ere: «diraben» ('dirauten'), «diobe» ('diote'). Baita, «uva» ('hoa', agintea) ... (Gipuzkoako alde ezberdinetan oraindik ere entzun daitezke horrelatsuko formak. Bizkaialdean, ostera, 'Nor-Nork' sailean: 'dabe(e)', 'eben' ... Bestalde, gogora Ortografiari buruzko azpiatalean, 1.7. puntuan, aipatutakoa).

— c) 'Nor Haiek': Sarri-sarri «Dirade»; batez ere, Erantzuneko perpausaren haseran, geroxeago ikusiko dugun legez. Baina, baita, «dira» ere. Bestalde, ez dugu 'gerade' eta horrelakorik ikusi. Bai, haatik, «dacarde» ('dakarte').

Esan, halaber, 'zaiote' eta horrelakoen, egun ere maiz entzun ohi direnen, arrastorik ez dela ageri Gerrikoren obran. Beti: «zaye/ zor zayen ...» (Ez horrela, adibidez, Iztuetak). Halere, behin edo behin: «zaitzen» ('zaizkien'), «encargatu zaten» ('zaien'), «ezpazate» ('ez bazaie').

39. Mitxelenak, haatik, jadanik bitan aipatua dugun artikuluan, Ubillosen eta Gerrikoren idazkera parekatzen ari zaigularik, mutiloarraren 'goierriartasunaz' iruzkintxo hau jaulkitzen digu: «... 'Mutiloako benefiziadua', bistan da, ez zen bestea bezain 'goierriarra' hizkerari dagokion aldetik: 'zituzten', ez 'zituen', eta abar ...» (Ubillosek: «erretzen cituen ... sartzen cituen ... botatzen cituen ... jan citzeen: larririquitzen cituen ... cerratzen cituen ... eguiten cituen ...». Gerrikok, ordea: «erretzen cituzten ... sartzen cituzten ...») (Mitxelena, 1988, EIG IV, aip. ob., 72 or.). Dena den, Gerrikok usuago darabil forma goierriarra bestea baino.

**CRISTAU DOCTRINA GUZTIAREN
ESPLICACIOAREN SAYAQUERA,**

BUSCARAZCO PLATÇA EDO DOCTRINETAN PARTITURIC;

Don José Yguacio de Guerrero,


MUTILOACO BENEFICIADUAC EGUIÑA.

*Desolatio desolata est omnis terra: quia nullus est qui recogitet corde.
Jerem. Cap. 10. v. 11.*

IRUÑECO OBISPO JAUNAREN BAIMENAREQUIN.

LENENGO LIBURUA EDO TOMOA.

TOLOSAN.



**Mendibalea elargunaren moldatoguan
1856 garren uricau.**

4.5.2. '-zki-': 'Nori' sistemetako pluralgilearen bizpahiru aldaera:

- a) '-zki-' pluralgilea 'trukatuz', hots, pluralgilea 'nori' ezaugarriaren atzetik: «diozca» ('dizkio'), «diozcagu», «ciozcan», «deguiozcala», «deguiozcaten» ('diezazkieten'), «zayozca» ... (Lardizabal eta Iztuetak bezalaxe. Oraindik ere oso forma erabilia Gipuzkoan barrena).
- b) '-zki-' murriztuz; '-z-' soilez: «diste/dizte/diztela/diztenac», «cisten/cizten», «ciozten» ('zizkieten'), «badaquiztela» ('badakizkitela'), «zaiztan» ('zaizkidan') ...
- c) Forma are murriztagoan ere bai, hau da, batere pluralgile-markarik gabe: «eman die» ('dizkie'), «esango niquezue» ('nizkizueke') ... Edota bitxi samar hau: «laguntzen diquiobe» ('dizkiote') ...

4.5.3. 'Nor-Nori' sailean '-i-' predatiborik gabe: «zacun» ('zaigun'), «zatzun», «zatzuen», ... Edota, lehentxoago aipatu bezala: «zor zaizcon alavan-zac»...

4.6. Zenbait aldaeratxo:

'-nd-': «cenduen» ('zenuten'), «ezguenduen», «guenduque/guenduquean», «larga guenduan», «guinduzquean» ('genituzkeen'), «cenduque/etzeniuque» ('zenukete'), «baguinduz ere» ('bagenitu ere'), «guinduzanetic» ('gintuenetik') ... (Goierriko forma petoak, jakina).

'-gu-': «etorri zacun» ('zaigun'), «barcatzen zacuna», «esan ditzacun», «ditzacula» ...

'-da-': «esango dirazue» ... (Antzeko zerbait: «eroceñec» ('edozeinek') ...).

— «nai nazu» ('nauzu'), «nazue» ('nauzue') ... (aditz laguntzailearen erroa janda).

— «ofrendatzen naitzazu» ('nataizu') ... (predatibo-marka lekuz aldatu-rik).

— «dauquezularic» ('daukazularik').

— «zaizca/etzaizca» ('zaizkio') ... ('Nori' 3. pertsona singularraren marka '-a').

4.7. Alegiazko Baldintza adizkiak: «baliz/balitz»..., «valitzaizca» ..., «baguinduz» ('bagenitu'), «balerame» ('baleramate'), «baguiñaqui/baciñaque» ..., «baligüe», «balizquioe», «baguiñozca», «baciño/zor ezpaciño becela» ('baze-
zenio') ... Gutxi batzuetan '-ke' eransten dio baldintzari. Baldintza trinkoak usu darabiltza. Aspektugabeko (Subjuntiboko) bat edo beste ere bai (EGLU II, 379-382 or.).

4.8. + ke alegiazkoak eta iraganak (Baldintzaren Ondoriozko adizkiak): «lizate/litzatean/litzateque», «guiñate», «lirateque» ..., «luque/luquea/luquean», «zuquén», «cituzquén», «cenduque», «guenduque», «guinduzque» ..., «guiñoquen», «guiñozque», «ligüequé» ('ligukete'. '-te' plural ezaugarria '-ke' markaren aurretik), «esango niquezue» ('nizkizueke'), «liquio» ('lioque'), «lizquío» ('lizkioke') ... Maiz moldatzen ditu adizkiok '-ke' markarik gabe. Beste batzuetan, '-ke' 'Nori' markaren aurrera pasatzen du (EGLU II, 430-432 or.).

+ ke orain puntualeko bat edo beste ere bai: «dateque» ... Menturazko adizkion orde, egun 'omen', 'dirudienez' eta antzerakoez baliatzen gara He-goaldean (EGLU II, 429 or.).

4.9. + ke aspektugabeak (Ahalezko adizkiak): «diteque», «ditezque», «bazaudezque» ('egon zaitezketé'. Trinkoa) ..., «eman daquioque» ..., «dai-

quet» ('dezaket'), «leique» ('legike = lezake' eta ez 'liteke'), «deizque» ('degizke = ditzake', eta ez 'daitezke'. Beraz, erroan 'egin' somatzen da), «dezaquegu», «lezaque/lezaqueanic», «zaitzaquedala», «cezaquean», «errezatu itzaquezue» (haserako 'd-' gabe), «daguiquegu» ('egin' trinkoa) ..., «deiquie» ('diezaieke'), «esan deiquiegu», «deizqueogu» ('diezazkiokegu'), «quendu leiquio» ('liezaioke'), «eman leiquiona» ('liezaiokeena' ala nor-nori saileko 'lekiokkeena?'), «leizquionac», «ceiquion», «ceizquion» ... 'Nor-nork' sailean, baina batez ere 'Nor-Nori-Nork'ean, 'ezan' erroaren orde, 'egin' erabiltzen du (EGLU II, 430, 432-434 or.).

4.10. -ke aspektugabeak (Subjuntiboko adizkiak): «nadin», «izan dedi-lla», «etzedin», «ditecen» ..., «izan daquion», «datorquigula» ..., «erruqui zaitzala», «ondu zaitzala», «dezala», «ditzala», «icasi decen» ('dezaten'), «estezen» ('ez dezaten'), «erabili dezagun», «esan ditzacun» ..., «digula» ('degigula = diezagula'), «ezteigula» ('ez degigula = diezagula'), «deguioben» ('degioten = diezaioten'), «escatu deguiogun», «eman deguiocagun», «deguiocaten», «deguioccala», «diela», ('degiela = diezaiela'), «eman deguidala», «barca ceguiela» ... 'Nor-Nori-Nork' saileko adizkien erroa 'egin', bizkaieraz bezala; eta baita Iztuetak eta Lardizabalek bezala ere. 'Egin' errozko adizkiak oso zabalduak daude Goierri eta Gipuzkoan barrena ere. Bestalde, tarteka-marteka, aditz nagusiaren oina; gehienetan partizipioa erabiltzen badu ere.

Eta nola ez jaso zatitxo polit hau?:

«... nola litzatean: esatea: deabruc naramala: Jaungoicoac bicia quen deguidala: Infernura bota nazala: salvatu ez nazala: emen illic guelditu nadilla: emendic gueyago mugitu ez nadilla: edo beste onelaco naigabe datorquidala, ala ezpada, diodana: edo eguiten ezpadet, aguindu dedana ...»
(II, 159 or.).

Alegiazko baldintza aspektugaberen bat edo beste ere bai: «albagueza» ('ahal bageneza') ... (EGLU II, 421-423, 426, 428-429 or.).

4.11. Aginte adizkiak: «Ala biz» ('Hala bedi'), «zuazte» ('zoazte'), «atoz» ('zatoz') ..., «jarraitu bequit», «lagun zaquizquit» ('nor-nori') ..., «nazazue», «ucabeza», «arbeza», «escuratu beza», «gorde itzazu», «contuan aritzazue», «ecartzu», «gogora ecartzue» (adizki semitrinkoak) ..., «escatu eguiozue», «erregutu eguiozue», «barcatu egueizu», «ofrecitu eguiocatzue», «deitu beguie» ('Nor-Nori-Nork' saileko adizkien erroa 'egin', eta ez 'ezan'), «indazu gracia», «egun iguzu gure eguneroco oguia» ('eman' ('-i(n)') aditz laguntzailearen erroa) ... Aginte adizkeran ere, mendebaldeko joera nagusia albora utziz, partizipioaren orde, aditzoina erabiltzen du sarri-sarri (EGLU II, 351-365 or.).

4.12. 'Arazi': Zinez bikain eta aberats darabil; gainera, 'erazo' baino askoz gehiagotan erabiltzen du 'eragin'; gure aldean oso zabal: «illeraguitea» ('hilaraztea'), «adi eraguin» ('adierazi'), «galdu eraguingo liqueoan», «pagatu eraguñac» ('pagaraziak'), «leguea ausi eraguiten digu», «icasieraguitera», «oitura gaiztoac eraguiten dizquigon», «illerazotzen», «aserra erazotzeco» ... '-ra-' artizkiak osatutako aditzetan ere, jakina, oso oparoa dugu Gerriko: «eracarri», «eragotzi», «eratzan» ('etzanarazi') ...

4.13. Jokaera trinkoa: Eta beste ezer guztiz gaindik, adizki trinkoen erabileran da paregabea Mutiloko benefiziatua; gaur egun galduxeak edota zeharo

ahaztuak ditugun formak barra-barra darabiltza; bere garaian bizi-bizirik zirauten seinale garbia; (Etxaidek argi dioen bezala, hitz berriak asma badaitezke ere, ez baitago aditz-flexioen sistema osoak ezerezetik ‘ateratzerik’ (40)). Bestalde, antzinako autoreok, gure aldean, sistema trinko txit oparoa, zabala dute; hala nola, Iztuetak eta Lardizabalek. «Makiña-bat euskal-aditz-joko zar da labur, bizi ta egokiren adibide eder badakarzkigu Gerriko—k bere Sayaquera—n» esaten digu Arruek (41): «Jarrayo» (‘jarraitu’) aditzaren forma guztiak azaltzen direla esan daiteke: «darrayo/darrayola/darraizcon/darraizcan/darrayen/darrayenac/gure do-triña laburrari narrayola/ narrayela/ garrayo/garraizcon/garraizquiola/cerrayen/cerraitzen ...», «daudenaquin/ baceunde/ bazaudetezque/ dagocala/ dagoquigun/ cegoquien ...», «doala/ dijoaquiola/ dijoacenezat ...», «dauquen/ dauquelaco/ daducaguna/ eztazuzquen/ eztazuzquena/ eztazuzquelaco ...», «dacus/ dacuscuna/ cecusen ...», «dacarquion/ dacatzen/ dacatzena/ dacatzenak/ dacarguna/ badacaz/ gacazte ...», «badarabiltza/ darabiltzegunean/ davillzanac ...», «deritzodala/ deriztedanac/ baceritron/ cerizten ...», «daraustena/ darauztenac/ derauztenac ...», «daguiquet/ daguiquegu/ digula (‘degigula’) ...», «daquizenac/ daquian/ baciñaque/ daquitzquizute ...», «daramatzen/ garamazan/ garamazquin/ etzeramen/ balerame ...», «demagun», «diraquian», «dirauen/ diraben» (‘dirauten’)/«badirau ...», «negarra darigula/ceriola», «dichoan bati» (?) (II, 555 or.), ...

4.14. ‘Nahi izan’ eta ‘Behar izan’ aditz-esapideez osaturiko perifrasi multzoek: Osagarri zuzenaren funtzioa betetzen duen aditzaren menpeko egiten du laguntzailea: «comulgatu bear ceraten», «Cristauac izan bear guerala», «desengañatu bear dira», «necatu nai eztira», «erruquitu bear cerate», «confesatu bear dira», «oitu bear guera» ... (EGLU II, 444-453 or.) (42).

4.15. Ezezko esaldietan aditzaren ordena zaharra: Ezezko esaldietan ere adizki laguntzailea nagusiaren atzetik ezartzen du, hots, baiezkoetan bezalaxe. Aditzaren ordena hau oso normala omen zen duela gutxi arte, batez ere idazle gipuzkoar eta bizkaitarren artean; gaur egun ere horrelaxe egiten dugu zenbait esamoldetan (43). «utzi bear eztegu», «balio eztu», «balio ez luque», «eguin bear ezta», «arquitzen ezta», «ecin alarguna ezcondu diteque», «aztu bear ezteze», «casoric eguiten eztio», «artuco ez luque», «uste ezte», «ostuco eztezu, iñor illoco eztezu; besteren emazteric deseatuco eztezu», «ezta barcacioric artuco

40. Etxaide, Yon, 1990, «Hamasei Seme Euskalerriko», Erein, Itxaropena, Zarautz, 229 or., (Iztuetari buruzko kapituluari).

41. Arrue, 1956, aip. art., 40 or.

42. Villasante, Fr. Luis, 1980, «Sintaxis de la oración simple», Aránzazu, Oñate, 77-79 or.

43. Altube-tar Seber, 1929, «*Erderismos*», ‘Euskera’ X, I-IV zka., Gaubeka, Bermeo (= 1975, Orain Sorta 1, Indauchu, Bilbao), 66 zka.: «... En épocas anteriores es posible (así opinamos nosotros) que esta fórmula (ezezko esaldietan aditz laguntzailea nagusiaren aurretik jartzekoa, hots, gaur egungo eran egitekoa) fuera extraña a la lengua ... Aun las no subordinadas las construyen algunos escritores gipuzkoanos, con relativa frecuencia, colocando el terminativo auxiliar negativo en forma regular, al final de la flexión: «Ikusi bear ez-ditugu» ... Aun en los escritores bizkainos pueden hallarse composiciones de este tipo ...». Eta adibide mordoskatxoa eskaintzen digu, Kapanaga, Larramendi, Añibarro, Otxolua, etab.enak.

Halaber, Euskaltzaindiaren Gramatikan ere: «Hain aspaldiko ez diren idazle batzuk, hegoaldekoak batez ere, nagusiaren ondotik ematen dute laguntzailea ezezkoetan ere... Ordena hori bera gordetzen da, egungo egunean ere, harridura tankerako moldea duten zenbait ezezko erretorikotan ... «hilda gelditu ez da ba!» ...» (EGLU II, 493 or.).

Villasante, 1980, aip. ob., 29-31 or.

luque», «nun ... erremediatu nai eztituen», «batere escrupuloric ere ascoc eguingo eztaue», «calteric batere eztezu», «ecin escualdi ori iñorc quendu leiquio», «ecin confesio onic eguingo du ... bada propositu eguiazcoric ezta», «eta beste iñori eciñ eman daquioqueana» ...

4.16. Erregistro edo tratamendu bereziak: Gerrikoren Dotrina osoa erregistro neutroan idatzia dago. Dena den, tratamendu bereziko bizpahiru pasartetxo erdigaldu azaltzen dira bertan. Jaso ditzagun:

— **Hika:** Deabrua nola tratatu behar den:

«... etsayari esatea: ona Jaunaren gurutzeta, nun vencituric guelditu inzan; uva ('hoa') iguesi etsay gaizto ciquin ori».
(Mespretxuzko tratamendua, beraz).

Baina Jesusek berak 'zuka' egiten dio basamortuko tentaldietan: «Zoaz ortic Satanas» (I, 206 or.).

«G. ¿Cer da biraba edo maldicioa? E. ... progimoaren contra gaitzen bat edo naigaberen bat escatzea ... nola izan oi dan esatea: deabruac aramala: deabruac galduco al au: itoco al aiz: biciric etorrigo ez al aiz: arrastaca ibillico al aiz: egun onic icusico ez alde».

Eta segidan:

«aimbeste da illtzen bacera: burua ausico aldezu: Jaungoicoac bicia quenduco aldizu: edo arrano edo izurri gaiztoac acabatuco al zaitu etc.»
(II, 216 or.).

Baina aurreraxeago tratamendua aldatu egiten du:

«... naigabetu zaituanari birau eguin ordean, esazu: Jaungoicoac arren erruqui zaitzala, eta ondu zaitzala ...»
(II, 222 or.).

— **Berorika:** Apaizari egiteko:

«... eracutsi beguigu ... Ori izango da bada gaurco dotrina»
(I, 393-394 or.). (EGL, 401-407 or.).

5. Joskera

Alde honetatik nahiko kritikatu dugu Gerriko, bere beste zenbait garaikide bezala; 'mordoilo' samarra omen. Batzuetan nahiko traketsa: euskal sen jatorra izan arren eta gure aldean erdarak gutxi kutsatua egon, garaiko 'moda', apaizen artean, besteak beste, oso errotua jarraitu 'nahiak'/'beharrak' eraginda, erdal joskerarako joera nabarmena ageri du askotan. Halere, esan behar 'erdal estilo' hau euskal herri xumeak aski ezaguna (eta, beharbada, 'estimatu') zuela, sermoi eta dotrinetan hainbat bider entzuna izaki. Gerrikoren joskera edo sintaxiari buruzko puntutxo batzuk baino ez ditugu aipatuko:

5.1. Esaldia aditzarekin hasteko joera handia: Batez ere 'Erantzunak' «Da», «Dirade», «Diot», «Jaquiñarequin»... eta horrelako formulekin, sermoi eta dotrinetan hain ohizkoekin, ireki ohi ditu, 'Galdera/Erantzuna' ren arteko lotura estu-estua egin asmoz edo. Hona adibide-multzoa: «Da pecatu mortala ...»; «Jui-cioa da ... Sospecha edo errecelo utsa da ... Eta duda da ...»; «Ori da gauza bat chit nequez ezagutzen dana»; «... contuz enzun bear dezue, bada da importancia andico dotriña»; «Dio bada onela: ¡O, *Sacrum Convivium* ... Eta esan nai du; O! convite Sagradua ...»; «Diot bada ...»; «Eta dio onela ...»; «... banaca eranzungo dizuet: eta 1a. diot ... 2a. diot ... Eta 3a. diot ... Eta 4a. diot ...»; «Orri ondo eranzuteco: distincioarequin diot 1a. ... eta 2a. diot ... 3a. Diot ... 4a. Diot ...» ('Erantzunak' puntutan banatzen eta azpibanatzen dituelarik, «Da», «Diot» eta horrelako adizkiekin ireki ohi ditu puntuok. Honelako adibidez josia daukagu liburu osoa); «Dirade argaltasunecoac ...»; «Eta nola jaungo du, cer obratu bear duen? Jaquiñarequin Jaungoicoaren legueco amar mandamentuac ...»; «... certara batezere bitzen dira? E. Bi gauzatar: lenengoa da ... eta bigarrena da ...»; «G. ¿cer eguin bear du bada? E. Artu damu eguiazcoa ...»; «G. ¿Baña bear bada galdetuco didazue ...? E. 1a. Diot ... 2a. Diot ... eta 3a. diot ...»; «G. ¿Beraz cer da Cristauzco virtutea? E. Da ...»; «G. ¿Cristauzco prudencia cer da? E. Da virtute bat ...»; «G. ¿Eta cein dira templanzaren contraco vicioac, eta atseguiteac? E. Dirade ...»; «¿cer da superticioo pecatua ...? E. Da ...»; «G. ¿Eta cein dira ... jaquin, eta sinistu bear diran misterio ain premiazcoac? E. Dirade oec: 1a. dala Jaungoico eguiazco bacar bat ... 2a. Da Trinidad Santisimaco misterioa ...»; «G. ¿Eta cein da virtute orren actoa ...? E. Da Ceruco Erreinua gogotic deseatzeta ...»; «G. ¿Eta nundic sortu oi da edo dator etsimen edo desesperacio ori? E. Uste izatetic ...»; «G. ¿Eta desesperacio edo etsimen ori cer pecatu da? E. Da berez pecatu mortala ...»; «G. ¿Cein da Jaungoicoaren legueco bostgarren mandamentua? E. Ez eguitea iñori gaitzic ...»; «G. ¿Cer da fama? E. Da cristauac gurequico, eta besteaquico daucan creditu ona ...»; «G. ¿Eta cer gauza da gracia? E. Da izate divino edo Jaungoicozco bat, eguiten duena guizona Jaungoicoaren seme ... Eta ori da doay bat ...» (Eta, jakina, esaldia aditzarekin hasteak erlatiboa posposizio eran eginarazten dio); «G. ¿Cer da Confirmacioa? E. Da zazpi Sacramentuetatic bigarrena ...»; «G. ¿cein dira bada gure animac barrundic izan oi dituan tentacioac? E. Dirade batez ere iru. 1a. ... 2a. da avaricia ... Eta 3a. da araguiaren griña ...»; «... Crisma santua cer da? E. Da Olivazco olioa ...»; «G. ¿Cer asmo, motivo edo intencio eduqui bear ditue, ezcondu nai duenac? E. Iru dira principalac, Trentoco Catecismo edo dotriñac eracusten dituenac. 1a. Da ... 2a. Da ... Eta 3a. da ...» (Hemen ere erlatiboa erreferentziakoaren atzetik, posposizio lez); «Eta 1a. galdetzen det, ¿Cergatic ...» ('Galderari' sarrera emateko ere bai, beraz).

Jaso dezagun zati luzexeago bat oso-osorik; horrela, hobeto ikusi ahal izango dugu Gerrikoren Dotrinaren egitura:

«G. ¿Cein dira Espiritu Santuac Confirmacioan batez ere ematen dizquigun doayac? E. Escritura Santuac zazpi aitatzen ditu, eta dirade, 1a. jaquinduriaco doaya. 2a. Entendimentuco doaya. 3a. Consejuaren doaya. 4a. Cienciaren doaya. 5a. Fortalezaren doaya. 6a. Piedadearen doaya. Eta 7a. Jaungoicoaren bildurraren doaya.

«G. ¿Cer da jaquinduriaco doaya? E. Da Espiritu Santuac ematen digun Ceruco gaucen ezagüera argui bat, gusto, eta atseguin artu eraguiten diguna Jaungoicozco gaucetan, eta munduco gauzac igüi eraguiten diguna.

«G. ¿Cer da entendimentuaren edo adimentuaren doaya? E. Da Espiritu Santuac ematen digun arguitasun bat gure estaduari, eta bicimoduari dagoquion mod ian fede Santuco eguiac ezaguteco.

«G. ¿Cer da consejuaren doaya? E. Da Espiritu Santuac ematen digun doai bereci bat, bideric edo medioric onena aututzeco gauza gaitzetan, nequezetan, eta dudazcoetan.

«G. ¿Cer da cienciaren doaya? E. Da Espiritu Santuaren doai bat, gauza naturaletan ezagutu eraguiten diguna, gure salvacioraco nola aeaz ondo baliatu bear gueran, edo nola ondo, eta provechuarequin usatu bear ditugun.

«G. ¿Cer da fortalezaren doaya? E. Da Espiritu Santuac ematen digun gogo indartsu bat edo sendo bat, Ceruco bidean ditugun nequeac, eta naigabeac pacienciarequin eramateco, eta virtuteari jarraitzeco.

«G. ¿Cer da piedadearen doaya? E. Da Espiritu Santuac ematen digun gogo bici bat, Jaungoicoaren honraraco, eta servicioraco egoquiac diran gauza guciac leya, eta animo andiarequin eguiteco.

«G. ¿Eta cer da Jaungoicoaren bildurraren doaya? E. Da Espiritu Santuac ematen digun doay bat, Jaungoicoaren Magestadearen erreverencia edo errespeto andi bat, gorde eraguiten diguna, eta ura ofenditzeco bildurra, eta icara ematen diguna.

«G. ¿Eta cembat, eta cein dira Espiritu Santuac eracarten dituan frutuac? E. Dirade amabi; eta 1a. eta gucien burua da caridadea, Jaungoicoa biotz guztitic, eta gauza gucien gañean maita eraguiten diguna, eta beragatic gure progimoa, gure burua becela. 2a. Da paquea, aserratu bague gauzcana, cerren besteric nai eztegun Jaungoicoac naiduena baicic. 3a. Da paciencia, naigabeac quejatu bague sufritu eraguiten diguna. 4a. Da longanimidadea edo biotz andia, betico ondasun cabugabeac goaitu bague ichoron eraguiten diguna. 5a. Da Fedea, lealquiro gure hitzac cumplitu edo gorde eraguiten diguna. 6a. Da continencia, gure sentiduen atseguin gurac, eta erabagueco nayac ucatu, eta menderatu eraguiten dizquiguna. 7a. Gozo espirituala, Jaungoicoa servitzen gogotic, eta gustoz garabiltzana. 8a. Da ontasuna, ñori bidebageric eguin bague, guciai on eguitera gacartzana. 9a. Da mansotasuna edo emetasuna, coleraren aviadurac menderatu eraguiten diguna. 10a. Da benignidadea, beguitarte ona guciai eguitera eracarten gaituana 11a. Da modestia, erquelqueriatic, vanidadetic, eta modu bagueco jolasetatic, eta erabagueco apainduraetatic gordetzen gaituana. Eta 12a. Da castidadea, animaco, eta gorputzeco garbitasuna gorde eraguiten diguna.»

(II, 406-407 or.). (Ikus, beste adibide bat, II, 572-575 or.). (44)

44. Dena den, Sebero Altubek eta ezarririk (eta harez gero 'legetzat' hartutako) euskal joskera 'jatorraren' eskema: Sujetua (Predikatua)-Galdegaia (Objetua, atributua, aditzondoa ...)-Aditza, ez da gure literaturan inoiz ere, ez antzinako autoreen artean, ezta geroagokoan artean ere, hain 'lege' izan. Ikus, besterik beste: EGL, 22-31 or.; Villasante, 1980, aip. ob., 23-25 or.; Goenaga, 1980, aip. ob., 199-209 or.; Michelena, Luis, 1987, «Palabras y Textos», Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitarapen Zerbitzua, Gasteiz, 377-382 or.: Literatur tradizioko perpausako hitzen ordena «se aparta de las reglas de Altube»; ordena hau «es bastante libre en vasco, al tiempo que queda sujeto a muy severas restricciones»; ordena-askatasun honek «no rompe los límites, bien acotados aunque amplios, impuestos por la gramática»; tradizioak eskaintzen digun malgutasun hau «caso no resulte grata para los partidarios estrictos de un dogma metodológico». Altuberen S.O.V. (Sujetua-Objetua-Aditza) eskemaren aurrez aurre adibideak jarritz: «no sorprende hallar, con verbo intransitivo ... el orden V.S., con el verbo ... en cabeza de la frase ... Eso mismo vale para construcciones transitivas ... Tampoco es raro el orden (S.) V.O., cuando V. es transitivo ...». Beraz, «En resumen, ... debemos tratar de infirmar para mostrar su falta de base (Altuberen teoriarena), que en la gran tradición guipuzcoana ... la que va más o menos de 1750 a 1850, ... se manifiestan al menos dos tipos de narración, una, acaso más próxima a modelos populares (Agirre), y otra más libresca, más gramatical (Lardizabal)». Adibideetan ikus daitekeenez, Gerrickoren erantzun-perpausaren ordena ohizkoenetakoa: Aditza-Atributua edota Objetua da; Sujetua aipatu beharrik gabe, galdera-perpausan adierazia baitago.

Pasarte luze samar hori aski dugu Gerrikoren obraren estiloaz ezezik, egitura globalaz ere jabetzeko; gure Dotrina klasikoetako estilo berbera, alegia; lan 'tekniko' batean 'ezinbestekoa'; gaiak eta edukinak horrela idaztera 'behartzen' zizutzen gure apaiz zahar haiek.

5.2. Erlatiboa: Batzuetan '-en' + izen sintagma aurki daiteke Gerrikoren lanean:

«janean, eta edanean arquitzen dan gusto edo atseguña»; «eztala urre eguiazcoa ala dirudian gucia»; «Legue guztia beregan sarturic daucan, lenengo Mandamentu Santua»; «etorquizon dagoan gauzaren bat jaquitico edo deseaten duen gauzaren bat iristeco»; «ateistac deitzen zayen guizon vorondatez ichutzen diran batzuec», «Arrazoyaren, eta espirituaren mendean eduqui bear guenduan gorputzaren griña gaiztoa alchatu zan espirituaren contra: eta animaren mempeco, eta servitzari izateco Jaunac eman cigun gorputzaren gurariac altzatten dira orain ere arrazoyaren contra» ...

Dena den, lehentxoago aipatu dugun legez, erlatibozko perpaus gehienak posposizio eran egituratzen ditu, hots, erreferentziatzko hitzaren atzetik, autore zahar guztiek bezalaxe:

«Sabore, edo gustoac, aimbeste pecatu munduan eraguin cituenac Infernuan gose egarri amorratuac beti sufritu bearco ditu. Tactoac edo uquitzeac, emen bigun zale izan zanic, infernuan beti egongo da»
(I, 352 or. Komunztadurari dagokionez, 'okertxo' bat nabari da: «tactoa/uquitzea/izan zana» beharko zukeen) ...

5.3. Zehar-galderak: Ohizkoa den legez, '-n' menderagailuaz osatzen ditu:

«Eracutsi bear dizuet 1^a. cer dan gula. 2^a. Nolaco pecatuac, eta calteac sortzen dituan. Eta 3^a. nolaco erremedioac ori ecitzen, artu bear ditugun; eta batezere nola templanzaco virtuteari jarraitu bear diogun» ...

Honelako perpausaz josia ageri da Dotrina.

5.4. Konpletiboak: '-ela' menderagailuaz eratuak:

«icusico dezue ... murmuratzalleac esaten duela; vanidadez eguiten duela; ipocrita bat dala; alde ortatic estimacio billa dabilela; santa bat dala aditzera eman nai duela; eztala urre eguiazcoa ala dirudian gucia» ...

Ez du '-na' menderagailurik erabiltzen:

«badaqui edo badacus Jaungoicoac eguia diodala»; «badirudi asco danzari eztirala Cristauac edo cristau izateaz lotsatzen dirala» ...

Ezezko perpausetan, gehienetan '-nik', gutxi batzuetan '-la':

«Dirade ateistac ... Jaungoicoric danic ere sinistu nai eztuenac ... Jesu-Cristo mundura etorri zanic, eta Jaungoicoaren semea zanic sinistu nai eztuenac»
(II, 122 or.) ...

«¿Eztirudi, legue ori nequeza eta gogorra dala? Ala dirudi»; «Eztet esan nai bacarric, ala uste dedala, eta ala deritzodala, baicic gauza guztiz ciertutzat, eta eguiazcotzat daucadaia: eta ciertuagotzat sinisten dedala» ... (45).

Izenlagunezko perpausetan, '-lako':

«pecatu mortala zalaco ustean»; «aurra illco dalaco bildurric badago»; «lecu bague illco dalaco bildurra dagoenean» ...

Moduzko nahiz denborazko perpausak eratzeko ere erabiltzen du '-la/-larik':

«dauquezularic»; «G. ¿Juramentua cer da? E. Jaungoicoaren icen santua aiatzen degula, Jaungoicoa bera testigu ipintea, esaten deguna edo esqueintzen deguna, eguia dala edo cumplituco degula sinistu eraguiteco» (II, 155 or. Modua, konpletiboa eta erlatiboa ederki asko berezirik) ...

5.5. Kausazkoak: '-lako' menderagailua ere erabiltzen du, noski:

«... eman dizuelaco»; «San Luisec gueyago estimatzen zuen Cristaua zalaco honra, Erregue zalaco baño»; «Jaungoicoac ... beraz Ceruan gozatzeco eguin gaitualaco: Cristau eguin gaitualaco ... deabruaren mendetic atera gaitualaco: Ceruco herederoac eguin gaitualaco ... araco bidea eracutsi digulaco: eta Sacramentu Santuetan bere gracia eman digulaco ... berarequin unitzen, eta juntatzen gaitualaco ...».

Baina, batez ere:

«**Cergatic**» galdekariaz hasita: «Cergatic Gurutze Santuac distinguitzen ditu»; «Cergatic betico castidadea gordetzera ... obligatzen diran»; «Cergatic diran maliciaz, eta gaiztaqueriz eguiten diranac»; «Cergatic pecatu mortala eguin ezquero ... condenatzeco perill edo arriscu andian dago»; «Cergatic Jaungoicoac beregana deitzen dio»; «Cergatic peccaturic dan chiquiena ere gure Jaungoico ... maitagarriaren ofensa da»; «Eta deitzen diogu Confirmacioa, cergatic gogortzen, eta indartzen du Bateoan artu guenduan fedea»; «Cergatic ... Confirmacioan ere aitortu, eta confesatu bear degu daucagun fedea»; «Cergatic Sacramentu Santu au Aldarearen gañean celebratzen, eta eguiten due Sacerdoteac»; «Cergatic Eucaristiciac esan nai du gracia ona»; «Cergatic dan bidezcoen sustentua»; «¿Cergatic ori? Cergatic Cristau ona becela vicitzeco, bear ditu lau gauza ...»; «G. ¿Cergatic diogu Jaungoicoa dala Espiritu bat guztiz purua, edo naste baguea? E. Cergatic Jaungoicoac eztu gorputzic ...»; «G. ¿Cergatic deitzen diogu bada pecatu venialari, pecatu ariña, eta chiquia? E. Cergatic pecatu mortalaren aldean ariñagoa, eta chiquiagoa dan, eta errazago eguiten eta barcatzen dan»; «G. ¿Cergatic? E. Cergatic Mandamentu onec obligatzen dituan ezquero, bearturic edo premiaturic daude ...»; «G. ¿Eta cergatic deitzen zayo gracia habituala edo oituorra? E. Cergatic gugan mantentzen, eta conservatzen dan ecer eguiten ari ezgueranean ere»; «G. ¿Cergatic deitzen diogu Comunioco Sacramentua? E. Cergatic unitzen, bat eguiten, eta juntatzen gaituan Jesu-Cristo gure Jaunarequin»; «Nola da bada ori? Cergatic Jesu-Cristo ostia santuan dago»; «G. ¿Eta cergatic deitzen zayo Sacramentu oni Extremauncioa edo azqueneco oleadura? E. Cergatic da Cristauac errecibitzen dituan

Uncio edo oleacioetatic azquenecoa»; «Cergatic guertutic Mezaco Sacrificio Santua celebratzeco laguntzen due» ...
(EGLU III, 182-184 or.).

Puntu honetan beste arazotxo bat adizki kausazkoak '-n' atzizkiarekin ala 'gorri', hots, inolako atzizkirik gabe joan behar ote duen da: Gorago jasotako adibideetatik argi ikus daiteke Gerrikok bi formak erabiltzen dituela, eta nahiko nahasi gainera, irizpide zehatzegirik gabe. Ikus honetaz Xabier Altzibarren iruzkina (46).

Gehien erabiltzen duen lotura «**Cerren**» da ('Zeren'en pareko). Arruek ez du oso gustoko, baina, egia esan, Axularrengandik hasita, forma txit zabaldua eta errotua dugu hauxe (47):

«cerren aen lecuan jarten da»; «cerren olioac edo arrai gauzac gaitz eguiten dion»; «cerren vorondeata argana etziñago, eta macurtuago dagoan»; «cerren Jaungoicoaren escualdiarequin aguintzen digüe»; «cerren dagoan Jaungoicoaren gracia bague»; «cerren uste zuen gai andia edo larria zala»; «cerren blasfematu zuen»; «cerren lenago ardura bagueac, eta esquer gaiztocoac izan gueran»; «cerren culpa anditic, cembat obeto ezagutzen dan, ambat lasterrago irteteco edo libratzeco aleguinac eguiten dira»; «¿Eta Jesu-Cristoren odolic badago Ostian? Bai, cerren, ecin dateque gorputza biciric egotea odola bague»; «Lau oei deitzen zaye chiquiac, cerren urrutiagetic servitzen due Mezaco Sacrificio Santua ondo celebratzeco bear diran gaucetaraco: eta cergatic eztue embarazoric ezcontzeco» ...
(EGLU III, 177-182 or.).

«Cerren»ekin ere, adizkia '-n' atzizkia erantsita nahiz 'gorri' eskaintzen digu Gerrikok (48).

5.6. Zenbait esplikatio eta ondoriozko:

«**Ce**»:

«bada Ama Virgiña Santisimaren diñatasuna, eta goratasuna aiñ andia da, cé criatura gucien artean pareric eztu»...

«**Nola**»:

«... nola guciac eguin dituan bere honra, eta gloriaraco ... orregatic esaten degu dala gauza gucien fiña»; «baña nola jai egunetan gucioc Meza Santua enzun bear dezuen, eta jai egunac santificatu bear dituzuen, eta orieo ondo edo gaizqui gordetzetic, datorren escuarquiro ... edo salvacioa edo condenacioa ...»; «G. ¿Confirmatzeco servitzen duen olioac, eta balsamoac cer aditzera ematen due? E. Nola olioac servitzen duen biguntzeco, eta indartzeco, aditzera ematen du, Espiritu Santuac orduan ematen duen gracia, eta indarra dala Jesu-Cristoren Legue santua gordetzeco daucagun nequea biguntzeco ...»; «G. ¿Eta cergatic eguiten da Uncioa

46. Lakarra, 1992, aip. ob., 359 or. (Autore klasikoen adibide ugari).

47. Arrue, 1956, aip. art., 38 or.: «... 'Zerren' onen ordeaz ... Gipuzkoa-n eta Lapurdi-n 'zeren' erabiltzen zan. Axularre-k berak 'zeren' au gogoko zuan. Geiegi, nere uste apalez.»

48. Lakarra, 1992, aip. ob., 359 or.

edo ganchidura becoquian? E. Nola becoquia dan gorputzaren toquiric aguiriena ...» ...

«Bada»:

«eztigu alabaña bicitza naturala quentzen: bada pecatu mortalean dagoana ere bici da»; «contuz enzun bear dezue, bada da importancia andico dotriña» ... (EGLU III, 187-192 or.).

«**Alabaña**»: Normalean, 'bada'ren pareko eta ez aurkaritzako lokailu gisa, Asteasuko Agirrek bezalaxe. Halere, lerro batzuk goragoko adibidean ikus dai-tekeenez, aipatu bigarren esanahi horrekin ere erabili ohi du tarteka, Iparraldeko joera jarraituz. «... eman digu, gure Salvadore ... izateco ... eman digu ala baña doaric Bautismo Santua ...»; «gucioc daquizue alabaña, gauza andiagoa ... dala ...» (EGLU III, 114-115, 184-187 or.) (49).

Beste batzuk:

«... alaco moduan, nun ecin alcar aditu zuen»; «... alaco moduan ... nun guero damutu eztaquizen» ... Edota «cembat obeto ezagutzen dan, ambat laster-rago ... libratzeco aleguñac eguiten dira»; «cembat obeto ezagutzen degun, ambat obeto escuarquiro amatuco, eta servituco degu» ...

5.7. Zenbait hautakari:

«... ala pecatuaren gayaren aldetic, nola pecatu eguiteco moduaren aldetic»; «ala animaren aldetic, nola gorputzaren aldetic»; «ala temporalac, nola espiritua-lac»; «ala gorputzari dagozquionac, nola espiritualac»; «ala Jaungoicoarequico, nola zuen buruaquico»; «ala Jaungoicoaren aldera, nola on eguiten digüen proximo-en aldera» ... «estadu berria artzeco dauden guciai, naiz fraile, naiz abade, naiz monja edo naiz ezcondu» ... «edo bere premiazco lana eguiteco edo plumac edo tinteroa edo papera»; «edo conseju edo avisu on batequin» ...; «ez Ceruan, ez eta Infernuan ere» ... (EGLU III, 17, 84 or.).

5.8. Zenbait aurkaritzako:

«Baicic»:

«ezta bera diruaren jabe, baicic dirua da alaco guticioso dollorraren jabe»; «Aberatsac baguera, eztegu gure biotza ondasunetan josiric edo ichachiric eduqui bear, baicic ondo empleatu bear ditugu: eta pobreac baguera, eztegu ansiaric eduqui bear aberasteco, baicic guere bici modua ateratzeco aleguin prudente batzuec eguin ezquero, gañeracoan conformatu bear guera Jaungoicoaren vorondatearequin»; «ezta Sacramentua, baicic Sacramentuaren gaia»; «eta ori ez guizonezcoa ... baicic bacarric divinoa»; «... baicic da Ceruco jaquinduri bat»; «Eztet esan nai bacarric ala uste dedala, eta ala deritzodala, baicic ...», «¿Venturaz gaizqui nai dielaco? Ez, N.C. baicic asco nai cielaco», «Eztago Ama Virgiña eguiazcoa bera aldarean: baicic aren imagiña», «... gorputzaren gogora edo gustora bicitzeco; baicic berac

eman digun cenzuarequin ... bicitzeco», «eztago Calicean ardoric ... baicic dago ...» ...

(Beti perpausaren hasieran eta ez amaieran. Ez du 'baizik eta' erabiltzen).

Baita perpausako elementu ezberdinak (izena, adjetiboa, aditza) zehazteko ere:

«Seme bacar bat baicic», «Jaungoico baicic etzana», «veniala baicic etzala», «aitatu edo icutu baicic eguin eztiadan ...» ...

(EGLU III, 15 or.).

«Ezpada»:

«etzien besteric erantzun, ezpada ...», «ez gaitu juzgatuco mundu zoroaren iritziaz batera, ezpada berac gucioi eracutsi digun dotriñaz batera» ('-z batera' = '-ren arabera'), «ez nola nai, ezpada betaz» ...

«Contrara»:

«Infernuan contrara daude ...» ...

('ordea').

«Ez ece»:

«Urtean bein ez ece, illean ascotan ...», «arrazoyaren laburtasuna ez ece, gure guztizco ecereztasuna» ...

('ezezik').

5.9. Zenbait emendiozko:

«Ere» lokailuaren forma eta kokapen ezberdinak:

— 'X ere': «esquer ona ere, eta errespetoa beti eduqui bear diegu», «lecu ascotan eragotzirik ere dago», «orregatic ere da», «ilco ere luque» (aditzaren bi zatien erdi-erdian. Kokapen 'bitxi' samar honek aparteko grazia eta indarra damaio aditzari eta esaldiko ideiari), ...

— 'baita X ere': «baita Ceruan ere», «baita animacoetan ere», «baita justuac erac edo Jaungoicoaren gracion daudenac ere», «ez bacarric bildurrez, indarrez, eta premiaz; baita concenciarez ere», «ez bacarric gure animarentzat, baita gorputzarentzat seguratu dezaquegu» (ixteko 'ere' gabe) ...

— 'ezta X ere': «ez Ceruan, ez eta Infernuan ere» ...

— 'baita ere X': «baita ere osasuna conservatzeco» ... (Mendebaldeko joera). (EGLU III, 50-51 or.).

«Orobat»: «eta orobat guerra justuan izan dira guizon baleroso asco», «baña orobat daquizue ...», «Baña Acab Erreguea orobat Core, Datan ...» ... (EGLU III, 63 or.).

5.10. «au da», «esan nai du»: «eriotza santuaren frutua, au da, gure pecatuen eriotza», «nola guciac eguin dituan bere onra, eta gloriaraco, au da bere perfeccioac aguertzeco, eta guzaz ezagutua, adoratua, eta servitua izateco ...» («Guzaz ezagutua izateco»ren ordeaz, pasiboaren joskera txukunagoa 'guk eza-

gutua izateko' litzateke. Dena den, oso normala autore zaharren artean (EGLU, 17, 485 or.) (50).

5.11. «nola» galdekariaren erabilera ezberdinak:

- «... eta blasfemiarequin heregia juntatzen bada, nola guertatu oi dan ...», «Baditue ezconduac beste obligacio asco: batezere guraso izatera datocenean: nola diran: 1a. ...», «nola esango balué: zuri esateco moduan eztaquit» ... ('hala nola', 'esate baterako', 'adibidez').
- «G. ¿Eta voto edo promesa eguitea gauza ona, eta provechugarria da? E. Nola ere dan: ... baña ondorengo charric ecarri eztecen eguin bear dira ...». Eta txkunago hau: «G. ¿Eta cer pecatu da guezurra esatea? E. Nolacoa dan gezurra» (gaztelera 'según' adierazteko) ...

5.12. «edo» eta «eta» juntagailuak sinonimo-kateak egiteko kaburik gabe erabiltzeaz ihardun dugu lehenago. Dena den, azter dezagun orain, hitzok lotzerakoan, nola erabiltzen dituen deklinabide kasu-markak edo atzizkiak eta sinonimo hauekiko aditzaren komunztadura:

5.12.1. Deklinabide atzizkiak:

- Hitz bakoitza markatua: «Gorputzaren gogora edo gustora bicitzeco», «araguiaren edo gorputzaren erara bici», «araguiaren lanac edo beargayac», «ustean edo iruipenean», «aficioa edo gogoa», «ez acordatzea edo oroitzea», «explicacioari, edo azaltzeari», «besteren ignoranciaz edo jaquiñeztasunaz edo pobrearen premiaz edo estutasunaz», «sustentua edo alimentu egoquia», «guizonetzcoa, edo humanoa», «mortala edo eriozcoa», «gañibeta, edo cuchilloa», «dotriñac edo eracusbideac», «novisimoac edo azquen gauzac», «Lacticiniocoa edo Esnejaquiena», «gure zorion gucia, oraingoa, eta guerocoa, edo beticoa», «Ceruco herederocac edo jabe gayac, eta derecho dunac», «bat eguiñic edo conformaturic», «caltetic edo dañutic», «gai edo materia gravea edo pisua», «pensamentu liquitsetan edo deseo ciquiñetan», «tactocac edo uquitzeac», «aleguiñez edo albaitez», «Trinidad Santissimoco, edo Irutasun guztiz Santuaren misterioa» (adjetibo bakoitzari izenlagun-atzizki desberdina ezarriz), «Pater-nosterrac, edo Aita Gurea» (bata pluralean, bestea singularrean) ... Halaber, 'eta' emendiozkoarekin: «ocasioac, eta peligroac», «trampiaz, eta engañuaz», «aserretasunean, etsaitasunean, eta gorrotoan», «pecatutic, demonioaren cativeriotic, eta betico Infernutic libratu edo atera zaituen», «zuen eguilleari, eta onguille aiñ andiari», «necesidadeac eta estutasunac», «eragozgarriac, icusgarriac eta sinisgarriac», «oitura ciquiñac, eta lotsagarriac», «gracia eraguillea, eta indarsua», «propositu eguiacac, eta sendoac» ...
- Deklinabide atzizkia azken hitzari bakarrik erantsiz: «Sabore, edo gustoac», «eren estaduari, grado edo condicioari», «gai grabe edo pisuan», «amorio edo cariñoa», «beren cabu, edo neurria», «confusio, edo nasteriaco torrea», «sari edo jornalac», «favore edo mesedeac», «eleccio edo aututzea», «goarqui edo inspiracioac» (eta hurrena, «goarquiac edo inspiracioac»), «calte edo dañua», «escandalo nabarben edo publicoac», «peligro edo arriscuac», «peligro edo arriscuan», «peligro guertu edo

urrecoan», «antz, iduri edo imagiñaric», «alianzaco arca edo cucha-choan», «gusto edo atseguña», «gaitz iritzi, bendecu edo gorrotoari» ... «birau, maldicio, eta juramentuac», «mirabe, eta servitzarien aldera», «Erredemptore, eta Salvadoretzat», «jauregui, palacio eta Cortea da Cerua», «Ceruco anditasun, eta edertasunaren aldean», «betico gloriaren, eta betico poz, eta contentuen aldean», «gogarqui, inspiracio eta esnaaldietara», «gaiztaqueri igüigarri, eta nazcagarriagoric», «guizon devoto, piadoso, eta jaquinsuac», «pena, neque, eta oñaceen aldean», «bere mayorazco, eta nagusitasuna», «gucion bide aurreco, eta guidariac» ...

- Alboratze hutsez edota alborakuntza eta juntagailuak ‘konbinatuz’ izen, adjetibo, sintagma nahiz perpausa kateak sortzen oparoa eta bikaina dugu goierritarra: «gure griña edo erabagueco pasioac, gure andinayac, gure guticiac, gure colera edo irac, gure envidiac, gure naguitasunac», «ichusiena, ustelena, eta quiratsdunena, eta ala ere, ain toqui, ichusi, ciquin, eta nazcagarriac», «utziric alde batera orietan icusten diran larritasunac, estutasunac, birau, maldicio, eta juramentuac: alcar ecin icusiac, gorrotoac, eta aserre aldiac», «Jaungoicoac arguitzen, quitzen eta bigutzen/arguitzen, muguitzen, eta indartzen ezpagaitu», «eraguiten diozca ascotan biravac, maldicioac, juramentuac, blasfemiac: sartzen du erabagueco disputa, diferencia, eta aucietan», «aimbe fede bague, edo infiel, Gentil ichu, Judu, Herege, Cismatico, Turco, Mauru, eta Idolatraen artean», «nolaco injuria, nolaco ofensa, nolaco desprecioa», «¿zoraqueri andiagoric? ¿ichumen arrigarriagoric? ¿Eta gaiztaqueri igüigarri, eta nazcagarriagoric? Ichu batzuec: eri batzuec: pobre miserable batzuec: guttiz argalac: gaitzera macurtuac: oneraco pisuac, eta naguiac», «Pasio Santuco neque, oñace, edo dolore guttiz andiac», «birauca, maldicioa, golpeca», «ardoa, mistela, aguardiente edatea» ... Adjetibo ilada eder askoak ere bai: «araguiaren gusto edo atseguin loi ciquin bat», «hume humil, onac, leyalac, eta esquer onecoac», «persona chaquerre, estu, aserrecoac», «atseguin garbi ederra», «Coroa eder especial bat», «bici toqui ichusi nazcagarriac» ...

5.12.2. Aditzaren komunztadura: Hitzak singularrean deklinaturik agertzen badira, aditza ere singularrean: «berac eman digun cenzuarequin, arrazoyarequin eta fedearen arguiarequin bicitzeco» (eta ez ‘dizkigun’), «atseguin, edo gusto ori eman dio», «fin ona, neurri ona, eta modu ona gorde eraguiten diguna», «Jaungoicoaren arguia, gracia, eta laguntasuna, eta indarra bear degu», «gure barruco alteracioa, eta mintasuna campora aguertzen degu», «Cerutic bere jaidura edo etorquia duen virtutea», «gauza bearra da alde eguita edo chit escusatzea», «quentzen dio edo guchitzen dio cenzua, edo juicioa, laburtzen dio osasuna, eta bicia», «bear degu Espiritu Santuaren arguia eta gracia», «exesoa edo neurribaguetasuna noiz da pecatu?», «emendic datorquigu soberbia, eta arrotasuna: eta besteac baño honra, eta estimacio gueyago izan nai erabaguea», «modestia, eta lotsa ona, eta edergarria galtzen due» (‘dute’; ez, ‘dituzte’), «Usadioa edo costumbrea jarri da», «Jaungoicoaren dei, eta inspiracio onari jarrayo nai ezpadiogu», «galtzen du creditoa, estimacioa, eta honra», «ortic sortzen da andinaya, sobervia edo arrotasuna: ortic nola nai aberasteco ansia, eta ortic gorputzari gusto emateco leya, griña, edo inclinacio fortitza: ortic aserrea, colera, eta embidia eta gaitzeraco, edo pecaturaco arintasuna; eta oneraco, edo virtuteraco pisutasuna, atzerapena, eta naguitasuna» ... «Aitagurearen lenengo hitzac edo sarrera aditzera

ematen dira» (aditza ‘sarrera’rekin ez, baizik eta ‘lenengo hitzac’ekin komunztatuz).

5.13. Ezezko perpausetako aditzaren ordenaz, hots, laguntzailea nagusiaren atzetik jartzeaz ere lehenago luze ihardun dugu.

6. Esamoldeak

Zenbait erdarakadaren tartean, badu Gerriko makina bat esamolde, esakera, espresio polit eta jator. Honelakoak jasotzeko egokiena obra bera irakurtzea litzateke, testuinguruan kokaturik hobeto dastatzen baita esakera jator bat, baina, besterik ezean, hona hemen mordoskatxo bat. (Bestalde, bukaeran testu-zati hautatu batzuk ezarri ditugu, goierritarraren estiloaz eta hizkuntz aberastasunaz hobeto jabetu ahal izateko. Mokoroak ere bere ‘Lokuzioak’ liburuan jasotzen du aztergai dugun autorearen hainbat eta hainbat bitxi eder (51)).

«Eztiozue mire iritzico ... Jaungoicoagatic padecitzea dala aldatequean honoraric andiena»; «Su bat beste bati egotzita andiagoa egiten da»; «Jesu-Cristo gucion bide aurreco, eta guidariac»; «Bicitasun edo gar pusca bat»; «Ori bere barruan egosi, eta sufritu»; «Biotza ondasunetara ichachiric»; «Diruagana josiric edo ichachiric»; «Jarraitzalle piñac»; «Ase bete beingoan eguin»; «Trunco bat becela guelditu»; «Galantac eman» (‘jo’); «Abuztu ugaria» (‘uzta ona’); «Ozta hitza atera zuen»; «Moru artu» (‘ontzia tontor, gainezka’); «Bicimodu guria»; «Ondasun gura»; «Gauza alperra»; «Gauza bearra»; «Gauza nequeza»; «Premi orduan»; «Guchi bat»; «Guchica guchica»; «Galanqui jan»; «Chisme larriac»; «Guchi asco»; «Onez damua»; «Embidia doaca bat»; «Sobre nabarben»; «Eguinquizun dago»; «Buru bidea eman»; «Humeai mañac eman»; «Hitz guchitan asco esateco»; «anchitico ocasioan»; «Nagusi echecoandrea»; «Urliac eta berendiac» (‘holakok eta halakok’ esateko); «Iñoiz ere aitzen ez dan iturri»; «Caburic eztuen ondasunac»; «Gaitz iritzian edo aserrean»; «Galdu gordean edo arriscuan sartu bague»; «Echera muga onean etortzea»; «Sacramentuac mugaz artu» («mugaz»=‘garaiz’); «Sacramentuac astiro artu»; «Aritu zaitzte astiro pecatuac igüitzeco»; «Chit contuz, eta aztiro» («astiro»=‘asti+oro’=‘uneoro’, ‘sarri-sarri’); «Errezatu bear dezue espacioarequin» (‘lasai’, ‘astiro’); «Jaungoicoac arren digula gucioi ...»; «Nire iritzico da» (‘desiragarria’ dela esateko); «Cer aguintzen dizuen Jaungoicoaren aldera»; «Legueac Jesu-Cristoc entzi(?) cituala bere Eliza berriaren auqueran»; «Escura» (‘eroso’ esateko); «Escualdiric badegu» (‘eskumena’, ‘kompetentzia’); «Eta batetan gucia eguin bear da» (‘dena batera’, alegia); «Araguiaren partidua larga guenduan»; «Eta ala gurasoac pobrechoac izan arren, eta bear bada jaquin ezac eta moldacaitzac, beti guraso dira»; «Ama gogorrac: ama icenic mereci eztuenac» ...

Eta azpiatal honekin amaitzeko, bizpahiru esakera gogor antzeko edo: «Asco birau»; «Asco nagusi, eta echeco andrea dira aserreacorac»; «Asco danzari» (Ipa-

51. Mocoroa, Justo Maria., 1990, «Ortik eta Emendik. Repertorio de locuciones del habla popular vasca», Eusko Jaurlaritz, Labayru/Etor, (bi tomo). (Erreferentzia: G 923, 229). Hona hemen Mokoroak jasotako bizpahiru: «Ezaguerara etorri zanetik azkeneko asnasa eman arterañoiko joan-etorri guziak»; «buruko gaitzik etzegula» (‘geure onean gaudela’); «Buruak moteltzeraño jan eta edan galanki egiten ari ziran».

rraldekoen joera?) (52).; «Ura aldatu zuen edo biurtu zuen eguiazco ardo izatera» ('ura ardo bihurtu zuen'); «Lenengo dira Sacerdoteac, eta orien ondoren Elizguizonac, eren graduaz conforme, eta orien ondoren guizonac, eta guero emacumeac, eta lenago Cristau diranac, ez diranac baño» («graduaz conforme»='según el grado', 'conforme a grado'); «Baña norc ondo bateatu badago besteric, escusatu bear due gurasoac Bateoa erac eguitetic»; eta hurrengo parrafoan: «Bateatzeco gai diranen artean, lan ori guciac berdin eguiteco escualdia ote due?» ...

7. Idazkera eta estiloa

Liburuaren edukinari dagokion bezala, garaiko apaizen sermoietako ohizko oratoria erretorikoa darabil: Esaldi luze samarrak; ez, haatik, puztuegia (Iztuetak edo bezala).

Lehenago ere esan dugu, Dotrina 'Galdera eta Erantzun' teknikan dago eratua. 'Erantzunak', jakina, oso luzeak ohi dira eta, askotan, puntu eta azpipuntutan banatuak.

Pasarte ederrak, txukunak, eta trakets samarrak; astun, motelak, eta bizi, arin, gazdunak, denetik daukagu Gerricko zaharraren Dotrinan. Ez da Lardizabal eta Agirre bezain txukuna, ezta Iztueta bezain puztu, erretorikoa. Gure ustez, estilo apal, motel antzekoa du; esan beharrekoak (luze eta errepikakor bada ere) era arruntean, oso ulerterrazean jaulkitzen dizkie bere kristau eta apaiz herritarrei (53).

Laugarren kapituluan aritu gara gure benefiziatuaren 'sermoi-estiloaz' eta zenbait adibide eskaini dugu; hurrengoan, berriz, testu-zati luzeak jasotzeko asmoa dugu; baina ezin hau pasarte pare bat aurreratu gabe itxi; gure ustez, biok ala biok bizi eta bizkorrak, zinez ederrak:

Kristau zabarraren jokabidea deskribatuz eta astinduz:

«... batez ere bicimodu nastua, bein jaiqui bein erori, pecatuac eguin, bereala damutu, eta laster atzera biurtu dabillenean ...»

(II, 465 or.).

«Eta azquenic premia eguiazco bague mercatutic mercatura, eta tratutic tratura, eta tabernatic tabernara dabiltzan necazari pobreac ezagutu bear due, urtearen cabuan cembat dempora alperric galtzen duen; cembat gastu alper eguiten duen; cembat calte eren emazte, eta humeai eguiten dien; cembat araceri, eta cembat oquer datozquien eren tratoetatic, eta nola comunquiro eren familiac ondatzen dituen; eren buruac galtzen dituen, eta zorigaiztoco paradero, eta zarzaro miserable bat izan oi duen; lenago zorrez, eta zorriz beteric illtzen eypadira.»

(II, 462 or. Arruek ere jaso. Bukaerako hitz-joko polit hori sermoian entzutean, bakarren batek farre-murriren bat egingo zuen, ziur aski. Nork esan gure Mutiloko benefiziatu zaharraren 'dotrina-sermoietan' horrelako 'ateraldirik' aurki zitekeenik!).

52. Nahiko normala idazle zaharren artean (Mogel ...): EGL, 105 or.; Villasante, 1983, aip. ob., 19 or. eta Goenaga, 1980, aip. ob., 82 or.

53. Arrue, 1956, aip. art., 40-41 or.: «Bestalde, baditu Gerricko-k luze-antzeko lan-zati enas-arroak, baña baita giar eta ondo-samar ebakiak ere ... Baditu latz-astun-motel-samarrak ere, baña gatz-dun ariñ-antzekoak ere bai ...». Eta zenbait adibide eskaintzen digu.

VII. TESTU-ZATI HAUTATUAK

Ikerlanari amaiera emateko, hona segidan «Cristau Doctrina Guztiaren Explicacioaren Sayaquera ...»ko pasarte hautatu batzuk, Jose Ignazio Gerriko, Mutiloko apaiz idazlearen euskara eta idazkeraren ezaugarriez (eta pentsakera moralarenez ere) hobetoxeago jabetu ahal izateko lagungarri. (Aurreko ataletan aipatu ditugun ezaugarriok zuzenean ikusteko, zenbait azpimarraketa egiten ausartu gara).

1. Honela hasten du liburua:

